

aurkibidea

Zenbaki bonetan 3

Gure eritziz

Euskara, hizkuntza nazionala: normalizazioaren behar larriaz 5

Komunikabideak Euskal Herrian

MINGOLARRA, J. A.: Komunikazioa prozesu gisa 14
 ZORRILLA, R.: Informazioaren manipulazioa 27
 ALDAMIZ-ETXEBERRIA, E.: Gaztelaniazko prentsa Euskal Herrian 44
 ZALAKAIN, J. M.: Komunikabidez komunikabide 56
 AMATIÑO: Prentsa idatziaren arazoak 70
 AZURMENDI, J. F.: Komunikabideen jabetza eta objektibotasuna 83
 OTERMIN, J. M.: Irratigintza egun Euskal Herrian 89
 ASKOREN ARTEAN: Elkarrizketa: Euskara eta prentsa 105

Orain eta Hemen

Ezin da gehiago zain egon...! — Bulgaria, XIII. mendeurrena dela eta. — «Bizkaya por su independencia». — Euskararen Aholku-Batzordea dela eta. — Monzon, lehen urtemuga 127

Gaiak

LASAGABASTER, J. M.: Barojaren nobelagintza eta euskal nobelaren etorkizuna 137
 SAN MARTIN, J.: D. Nemesio Etxaniz, euskal idazlea 155
 KINTANA, X.: Imanol Berriatuaren oroitzapenez 160

Hainbat aburu

SIERRA, J.: Elebitasuna eta irakurtzen eta idazten ikasteko heldutasuna ... 165

Liburuak

TORREALDAI, J. M.: 1981eko euskal liburugintza 173

Jakin 25 urte

SASTRE, P.: JAKINeko lagunok, aupa! 195

© JAKIN

JAKINeko idazlanetaz
inon baliatzerakoan
aipa bedi, mesedez, iturria.

JAKIN

aldizkari irekia da eta
ez dator nahitaez
idazleen eritziekin bat.

Zuzendaritza:

joan mari torrealdei
l. a. bilbao (kazetaria)

Idazkaritza eta administrazioa:

Ategorrieta hiribidea, 23 1. esk.
Donostia - 13. Tel. (943) 27 17 13

1982rako prezioak:

	barruan	kanpoan	
ale arrunta	375 pta.	400 pta.	(25 FF)
ale bikoitza	600 pta.	700 pta.	(40 FF)
ale extra	700 pta.	800 pta.	(45 FF)
harpidetza	1.200 pta.	1.300 pta.	(80 FF)

Jabegoa: Analdia. Arantzazu. Lege-gordailua: S.S. 25/1977. ISSN: 0211-495X

Inprimategia: Izarra. Usurbil

ZENBAKI HONETAN

JAKINen zilarrezko ezteiak ospatzen ari gara, 1981eko udazkenean hasita. Lehen zenbakia kaleratu genuen urte-saso berean, udazkenean, 25 urte geroago, zenbaki extra bat eskaini genizun: JAKIN 25 urte euskal kulturari. Orain, gutxi barru, harpidedunak ugaltzeko kanpaina bat egingo dugu JAKIN 25 urte euskal kulturari. Zergatik ez beste 25 gutxienez lemaren pean.

Behin eta berriz aldarrikatzen duguna errepikatuko dugu atzera: harpidedunak dira aldizkariaren oinarri eta gure sari. Harpidedunei eskaini genien —doan eskaini ere!— zenbaki extra kura, eta harpidedunak behar ditugu aldizkaria indartzeko, sustatzeko, hobetzeko. (Harpidedunen diruaz aparte, iaz 584.715 pta. Eusko Jaurlaritzatik eta 284.000 pta. Gipuzkoako Diputazioetik jaso genituen, hots, gure gastuen %10,8).

Sarrera-bitz hauen ondoren, muga gaitzean eskuartearen duzun zenbaki honen aurkezpena.

Gure eritziz sailaz irekitzen dugu zenbakia. Aldizkariaren pentsaera ematen dugu hemen, azken hilabeteotan euskal kulturari bizi-bizi izan dugun eztabaidaren azpiko arazo nagusiaz bain zuzen ere, normalizazioaz.

Zenbaki honen gai nagusi bezala Euskal Herriko komunikabideen auzia hartu dugu. Berauen azterketarako jende ikasia eta esperientziduna bildu nahi izan dugu. Teoria alderdiak arakatzeko, Informazio Zientzietako Fakultateko bi irakasle: J. A. Mingolarra eta R. Zorrilla. Kazetari bat, Estepan Aldamiz, erdarazko prentsaren berri emateko. Eta mahaingururako: J. M. Zalakain, Herria 2000 Eliza aldizkariaren Zuzendaria; Amatiño (L. A. Aranberri) Eusko Jaurlaritzaren Kultura Saileko «Euskara

arazoetarako Zuzendaria»; J. M. Azurmendi Egin-en Zuzendaria; eta, azkenik, J. M. Otermin, Donostiako Herri Irratiko «Sei ordu euskaraz» programaren Zuzendaria. Dena den, hemen, mahaikideak oro kazetari gisa mintzo dira, beren izen pertsonalean eta ez karguaren ordezkari bezala, geuk espreski hala eskatuta.

Dossier honen prestakuntzan J. M. Zalakainen laguntza es-timagarria izan digu.

Orain eta Hemen sailean bildu ditugun bost lantxoetatik lauk lizkuntzaren inguruko auziren bat dute gaitzat.

Gaiak sailean biru artikulua ematen ditugu: «in memoriam» bi, N. Etxanizi eta I. Berriatugari Juan San Martinek eta Xabier Kintanak eskainiak. Hirugarren artikulua artikulua luzea da, Jesus Mari Lasagabasterena, eta Barojarengandik abiatuz euskal nobelagintzaren etorkizunaz ari da.

Hainbat aburu sailean Josu Sierrak, «Elebitasunaren auzia ikastoletan» zenbaki bikoitzeko gaiaren ildo berean, ikerketa baten berri ematen digu.

Liburuak sailean, urteroko ohiturari jarraituz, Joan Mari Torrealdaik euskal liburu guztien zerrenda eta azterketa eskaintzen dizkigu. Panorama sekula baino beltzagoa eta liburu-politika sekula baino premiazkoagoa agertzen zaizkio lan honetan Torrealdairi.

JAKIN 25 urte sailtxoa, JAKIN 21.ean hitz eman bezala, zilarrezko ezteiak direla eta etorriko zaizkigun artikuluen txokoa da. Pablo Sastre idazle gazteak irekitzen du.

Euskara, hizkuntza nazionala: normalizazioaren behar larriaz

Iskanbila haundiekin hasi dugu urte berria: AEKK, edo euskal prentsaren parte batek, adibidez, Eusko Jaurlaritzarekin lehendik erabil zitzaketen auziez gain, oro har aspalditxoan kultur urak bare samar baldin bazetozen, etorri, bat-batean zalaparta uhin gaitzetan jarri digu euskal mundu osoa Mitxelenaren alde guztietarako ekaitzak, sortzaileak nahiz itzultzaileak, idazleak nahiz irakurleak, kupida gabe eraso dituela, eta UZEI (Unibertsitate-Zerbitzuetarako Euskal Ikastetxea), haren lankideak eta lanak berezi-bereziki astinduz.

JAKINen beti esan dugu, itxuragabekoak iruditzen zaizkigula euskaltzaleon arteko haserreak eta garrazkeriak, elkar ito beharrak eta ezin eramanak. Urrutira gabe, gure azken zenbakian bertan idazten genuen: «Denok iritsiko gara edo denok galduko gara. Segurua zera da: bakarrik ibili nahi lukeenaren suizidio ziurra» (21, 1981, 11).

Tamalez inoiz ez da faltatzen, eskandaloa sortu gabe, etxe barruan eta bakean egoten ez dakiena, egiten baino desegiten trebeagoa. Oraingoan, gainera, eskandaloak ezohizko zabalera hartu digu, ezohizko gogorkeriaz beste, familia behin betiko banatzeko eta hondatzeko arriskuan jarriaz. Diferentzien beharra aitortuz ere, edozein gizartek behar duen barne-lotura, euskaltzaleon elkarteak are behar-beharrezkoagoa duela uste dugu, euskararen proiektu nazionala aurrera atera nahi badugu, eta ez daukagula nolanañi arriskuan jartzetik, euskara bera jartzen delako arriskuan.

JAKINek, erremedio gabeko etxearen kaltea deitoratuz,

okerragoetara amil ez gaitezen, orain 25 urtekoa gogoratu beharra dauka istiluon aurrean: «Odol bat dugu. Gogo bat ere. Izkuntz bakarra. Aski dugu anai izateko». Eta azkeneko zenbakian esaten genuena: «Guri bezala zuei, denoi batera, etorkizuna eginkizun zaigu».

Haserreak haserre, alabaina, auzitan jarri den puntu baten aurrean JAKINEK ez dauka isiltzerik, argi eta garbi bere eritzia eman gabe: normalizazioaren arazoa da hori, euskararen hizkuntza nazional bezala normaltzearen arazoa.

* * *

Hizkuntza, arazo nazionala da: gutxienik, berorren alde on bat. Eta, zenbait kasutan, alderik nagusia ere bai. Horretan, Euskal Herria ez da inola ere salbuespen bat: Euskara da euskal herriaren naziotasun-zutabe berezgarriena.

Gure herritasuna finkatzeko, herri berezi bat garela jakiteko eta adierazteko, euskara dugu kontzientziaren eustaille eta izan bagarenaren ispilu. Arrazaren biologismoa gaingiduz, etniaren kulturtasunera iragateko tresna kolektiboa da hizkuntza.

Hizkuntza propioa duten gizarte nazionaletan baliorik garaiena eman zaio mintzairari. Euskal herriak ere arrazoi guztiak ditu euskara —bere hizkuntza propioa hemen ere— horrelaxe balioztatzen.

* * *

Baina, gurea bezalako herri txikien hizkuntzak, sarritan, aterperik gabeko Historia triste batetik datoz. Bideko sasietan arima eta bizia urratu eta galduz, superbizi eta ozta-ozta aurrera irteteko lain izan dira bakarrik.

Horrelakoetan, eta gurean, mendetako ajeak eta gaitzak dakartza hizkuntzak, eta hil ala biziko sendabideak behar ohi ditu, bere izanean irauteko. Eta iraupena bera ere ezin liteke, bere iraupen huts eta gorrian, beste gabe aurrera atera: Gutxien gutxienik, gizarte oso bat —txikia nahi bada, baina osoa— bere izan- eta bizikizun guztiekin irabazi behar zaio mintzairari, georan iraun dezan.

Hizkuntzarentzako gizarte-osotasun hori berreskuratzea-

ri normalizazioa esan ohi diogu orain. Itxuraz euskarari egokiera historiko bat suertatu zaion honetan ez da, beraz, harritzekoa hitz hori, eta kontzeptua bera, gaurkotasunik handienarekin agertu baldin bazaizkigu.

* * *

Normalizazicak lehiaketa bati erantzun nahi dio; une historiko jakin batetan hizkuntzak dituen tresna-gaitasunen eta gizarte baten mintzakizun-beharren artean oreka sortzea da normalizazioa. Ez historiatik kanpo eta ez, dagokion gizartetik urrundurik, lor liteke hizkuntza jakin baten normalizazioa.

Euskara normalizatzek eguneratzea eskatzen du, hau da, gure garai hauetan mintzakizun direnak oro erosoki eta egokiro emateko tresna baliagarri bilakatzea. Azken mende t'erdian bereziki, euskara atzera eta atzera geratu zaigu, hizkera berrien eskakizunen aurrean mutu edo erdimutu geldituz. Premien aurrean ez-entzun, ez-erantzun egin behar izan du euskal hiztunak; horrela, lizunak estali, herdoilak jan egin dute hizkuntza. Bizitza sozialerako, zahartua ez-ezik, zaharkitua gelditu zaigu euskara, perlesiak jota. Esankizun modernoetan sistematikoki abiatu denak bakarrik daki, jakin, atzerakuntza horren mingarria. Eguneratze hau, ba, beharrezkoa eta are da.

Bestalde, hizkuntzaren eguneratze hori hemengo gure gizartean obratzekoa da, hots, gure arteko gizon-emakumeon artean. Gizarte honetako erlazio eta bizikizunak jaso behar ditu hizkuntzak, eta bereziki azken mendean atalka-atalka bazterreratu dituen bizipen sozial modernoak emateko trebatu.

* * *

Gizarte osoa da normalizazio-eginkizunetara erakarri behar dena. Lehen-lehen zutoina gizarte euskalduna da. Hamarkada hauetako belaunaldi gordinenari egokitzen zaio hizkuntz berreskurapen horren motore eta eragile izatea. Egiteko historikoa da gaurko euskaldunena, eta batez ere gaurko euskaldun gazte eta helduena.

Erdalduna, gizarte erdalduna alegia, halaber, erabat premiazkoa da, normalizazioaren egile bezala. Euskaldu-

nok erdaldunei hizkuntz proposamen bat egin beharrean aurkitzen gara (inoiz eske ere baditugu erdaldun horiek), baina proposamenak onargarria izan behar du, bere helburu, metodologia eta ekintzetan. Bestela, gerrate batetara goaz. Erdaldun horiei ere egitekoa beren betekizun nazional eta pertsonala bezala onartzen lagundu beharko diegu. Normalizazioa guztion zeregin kolektiboa da. Gizarte hobe batetarako pauso bizi eta pizgarria bezala erakutsi beharko diegu haiei gure asmoa.

Gizarte bat nahi dugu: batua eta integratua. Bidasoako mugan Hegoa/Iparraldea, aparte; Nafarroa/Estatutuaren hiru Probintziak, banatuta; bertakoak/etorkinak, aurrez aurre; «indio» euskaldunak beren hizkuntz erreserbatik ezin itenda; erdaldunak («frantsesak»/«españolak»), gehienbat euskal arazotik urrun, eta abar luze bateko erdibiketak ditugun herri zorigaiztoko honetan, herri bat egiteko ere funts-funtsezkoa da hizkuntzaren normalizazioa. Gure gizarte honen ehodura eta mamidura euskara izan daiteke: bizikidetasun jator bat lortzeko, lagunarte erosoagoa eskaintzeko, bakea ahalbideratzeko... Helburu horregatik eta normalizazioan bertan —ekintza sozial bezala ere— egitasmo amankomun bateratzailea ikusten dugunez, normalizaziorako plangintza eskatzen dugu.

* * *

Normalizazio-asmoaren onarpen sozialak bizilagunen eguneroko bizitza antzaldatu behar du. Premia hau aipatzean, bada espreskiago aipatu nahi dugun zerbait: hiritar bakoitzaren lanaren mundua. Goizean hasi, eta orduen gurpilean etengabeki gauera arte bete ohi den egiteko arrunta erdalduna da, gehienbat, Euskal Herrian.

Jendearen eguneroko ogibidea euskaldundu behar da.

Industri iraultzak sortu zigun gizarte-moldea erdalduna izan zen, edota erdaldunduz joan zaigu. Lan industrialaren eta zerbitzuen munduak urrun geratu dira euskaratik. Eguneroko lan-arrazioa, berez zama izateaz gain, euskaldun gehienontzat zama erdaldun desnazionaltzailea gertatu da Euskal Herrian: Eguneroko zortzi-hamar ordutan erdaraz baliatzen bortxatuta gaude gure lantegietan.

Euskal Herria ez da berreuskaldunduko, harik eta bere

biztanlegoaren langile-jendeak euskaraz lan egiteko aukera eroso eta normalik ez duen bitartean.

Helburu eta libertate horren bila, profesio-bizitza eta lantegi-mundua euskaldun bihurtuko dituzten plangintzak —orokorraren ondoan sektoreka eta profesioz burutze-koak— behar dira ondu. *Experientzia pilotoak, gizarteko lan-sektore zabalen eta erakargarrienei eskainiak. Badirudi, lan-esparruak sailez sail eraman beharko direla, ba-koitzaren hizkera ikasia arduraz eta espresklago zainduz, hizkera adituago horiek ez bait dira noizbehinka erabiltzen direnak, norberak berean egunero ihardunaldi osoan zehar erabili behar dituenak baizik.*

Galdetzekoa da, euskalduntze eta alfabetatze arruntak berak (orokorra eta guztiena izan nahi badu, bederen) nola lor daitezkeen, gizarte osoaren neurritan, beste alfabetatze adituago hauek garai berean landu gabe.

Eta hortik beste barruti batetara hurbiltzen gara: Hizkuntzaren normalizazioak eskatuko lukeen pedagogia kolektibora.

* * *

Normalizazioak ezinbestekoak dituen erabaki eta egin-kizunak gizartearentzat onargarri gerta daitezen pedagogia sozial bat landu behar da, soziolinguistikaren jakiteak eta hizkuntz praxi sozialaren eskarmentua euskal gizartera egokituko dituen pedagogia bat. Jendearen borondatea irabazi, gogoak argitu, ekimena gidatu egin behar dira normalizazio-prozesuaren barnean.

Zoritxarrez, euskaltzaleak berak ere ez ditzakegu eman, denak, irabazitzat. «Batua bai, batua ez» horretan bizkaitarren arazoa ez da borondatezkoa bakarrik: Bizkaieraren arrenkuretan arrazoi objetiboak daude, neurri batean bederen beste euskalkietakoentzat maiz ezezagunak direnak. Arazo horri heldu egin behar zaio adarretatik: Horretan lanegiteko plangintza eman, euskalkitik baturanzko bideak metodikoki landu. *Dialektologiak eta soziolinguistikak elkarrekin ihardun beharko dute.*

Eta egiteko honek ez du nahitaez arriskutan jarri behar hamar-hamalau urteren buruan batuaren alde moldatu dugun eritzi-bateratze zabala, nahiz eta zenbait «abildade» politikoren haizeek bat-bateko galerna latzez astindu gure

euskaltzalegoa. Berau bitan banatu gabe, beronek deitu behar du normalizazioan lanean nahi dugun euskaldungo osoa. Izan ere, gizarte-indarrak normalizazio-eginkizunetara inguratze honetan, euskaldun arrunta dator bigarren: Zalantzarik gabe, gure herriaren parte hau da gainerako guztiaren aldakuntzarako legamia. Baina Euskal Herriko biztanlego osoa da irabazi behar duguna, hau da, baita jendetza horren %75 erdaldun hori ere, eta gure etorkizunaren gakoa, beharbada, hementxe dago berezi-beziki.

Eskurik onena beharko da gure gizartean euskara bizkor eta azkarki normalizatzeke.

Herritarren irudimen-sormenak iratzarri beharko dira, ekintza kultural paregabea izan litekeen euskal normalizatorako. Plangintza orokor eta berezien bidez, eguneroko lhardunetan eta ekinean nola erakutsi eta sentierazi jendeari berri nahi dugun gizarte honen egitasmoa?

Herritar bakoitzak bere lanpostu naturala aurkitu beharko luke plangintzetan, batzuek ogibide bezala, gehienek militantzia lehiatsu batean. Hiritar bakoitzaren sormenak aurkitu behar du toki bat normalizazio-zereginetan: sor-keta gozagarria bilakatu beharko luke hizkuntzaren plangintza nazional horrek

Normalizazioaren praxi sozial burutsu batek hiritar guztiok kultur lanetarako berebiziko egokiera eskaini beharko liguke, eta ez litzateke hauxe izango pedagogia sozialik txarrena.

* * *

Normalizazioaren ekintza kolektibo handia, ostera, ez da lortuko baldintza minimo batzuk bete gabe. Esate baterako, alde aurretik helburuak egoki hautatu eta deskribatzea, agintariak plangintza definitzea, eginkizunen gidaritzaren soziala eta politikoa, jendearen lankidetzaren librea, tresna didaktikoen prestakuntza, eta abar. Baldintza horietatik bi dira berezikiago azpimarratu nahi ditugunak: normalizatorako plangintza eta jendearen onarpen librea.

Hizkuntzak politika linguistikoa bat behar du, eta politika horrek plangintza eskatzen du, beti geure kontra etorri datozkigun urak eta uholdeak ere behingoz etxeko erro-tara, eta ez etxearen kontra zuzentzeko.

Plangintza horrek —formulazio itsu eta hanpatuetan galdu nahi ez badu— praxiaren labe gorian erakutsi behar du bere balioa: onartua den ala ez, beharretara egokitu ala ez, etab. Lehenengo plangintza orokorrean asmatzen ez bada, bigarren bat frogatzeko aukerarik gabe gerta gaitezke.

Gobernuari dagokio, noski, plangintza hori proposatzea, eta euskaltzaleok bederen zain-zain gaude zer eskainiko duen eta nola maneiaturik emandako hori, guztion gizartea goitik erabakitakoaren arabera moldatzeko. Beharbada, azken hilabeteetan, inongo plangintza osorik egin gabe ere, susmo txar gehiago piztu du, argirik baino.

Plangintzaren ondoan eta berorren zerbitzuan, jendearen onarpena eta borondatea segurtaturik ikusi nahiko genituzke. Ez dugu Gobernurik gabeko normalizaziotan sinesten, baina azkenean gizartea bera da hizkuntzaren normalizazioa egiaztatzen duena: Gobernua tresna da. Gizarte osoa da normalizazio-eginkizunetara erakarri behar dena: Plangintza ederrak batetik, eta haserre gaiztoak bestetik, ez da normalizaziorik egingo.

Eta badirudi, ditugun euskaltzale apurrak minduz eta uxatuz ez ditugula premiako plangintzak gehiegi langunduko...

Hizkuntzaren honelako une batetan, nagusitasun politiko garbiak ez du gutxi balio, herri osoaren ahalegina helmuga nazional baten atzetik eraman eta gidatzeko. Baina jokoak garbia izan behar du, gutxienez mesfidantza haunditxoak piztu ez ditzan. Hain zuzen, hizkuntzaren gidaritza politiko hura ezingo bait da bete, edota oso nekez eta dolorez bederen, gizarteko indar dinamikoenen kontra.

* * *

Gaurko euskaltzalegoaren heldutasunak —heldutasun erlatiboa, noski, beti izan ohi den bezala— bere helbururik onenak lortzeko, Aginte Politikoaren laguntza behar du ezinbestean. Hori aitortu, eta aitorten horren arabera jokatzek, ez du esan nahi, ordea, boterearen eta diruaren poderioz taldeak eta lagunak lotsarazi eta makurraztea dagoenik. Borondate onez eta elkarren beharraren kontzientziaz bi alde hauek —agintearena eta gure indar

kulturalena— elkarrengatzerik ez balego, egokiera historiko onegia (azkena ala azkenaurrekoa?) galduko luke Euskal Herriak.

Gure euskaltzalegoak badu oraindik aski militantzia, eta kemen eta garbitasun, taxuzko plangintza ireki bati leialki erantzun eta bultzada emateko. Horrelaxe gerta dadin, aukera argi eta konkretu onargarriak proposatu beharra dauka agintea duenak. Eta hori, lehenbaila, alderdi barruko eskatima aspergarrietan beste hamar urte galtzen ibili gabe.

Euskaltzaleok urte gutxi barru jakingo dugu EAJk euskara salba dezakeen ala ez. Agintean dagoen alderdiak —bi belaunaldi osotan kasik euskaltzale guztiak bildu zituen alderdiak—, nahi badu eta ez badu, laster erakutsiko digu zer dezakeen eta zer ez.

Guk, behintzat, nahiago genuke denok irabazle izan.

1982 - otsailean



J. A. Mingolarra
R. Zorrilla
E. Aldamiz-Etxeberria
J. M. Zalakain
Amatiño
J. F. Azurmendi
J. M. Otermin

KOMUNIKABIDEAK EUSKAL HERRIAN

Komunikazioa prozesu gisa

Komunikazio-prozesuaren bereizkuntzak eta oinarriko elementuak. Prozesuari buruzko gogoetak.

Informazioaren manipulazioa

Informazioaren indarra. Multinazionalak eta erabakiguneak. Informazio objektiboa.

Gaztelaniazko prentsa Euskal Herrian

Kazeten zerrenda. Prentsa eta politika. Nolako herria, halako prentsa. Euskararen presentzia.

Komunikabidez komunikabide

Komunikabideak eta ingurua. Publikotasunik eza. Kanpotartasuna. Euskal prentsaren larritasuna. Projektuak. Errebindikapenak.

Prentsa idatziaren arazoak

Prentsa idatziaren berrikuntz problemak. Elebitasuna. Euskarazko aldizkariak.

Komunikabideen jabetza eta objektibotasuna

Herria eta mezuen kontrola. Komunikabideen jabetza. Objektibotasuna. Kazetaritzaren ideologia.

Irratigintza egun Euskal Herrian

Egunko irratien azterketa. Projektuak. Errebindikapenak. Irratiak etorkizunean. Telebista. Informazio Zientzietako Fakultatea.

Elkarrizketa: Euskara eta prentsa

Prentsa motak. Komunikabideak eta euskara: elebitasunaren esperientzia. Euskarazko prentsa: egoera beltza, auziak.

Komunikazioa prozesu gisa

Jose Antonio Mingolarra

Giza garapenak, ezagupeneranzko ikuspegi berriak eta, orohar, jakituriaren desarrollo itxaropentsuak sortu ditu mende honetan.

Jakingai guztietarik, komunikazioaz idatzi izan da gehien azken aldiotan, erlazio-prozesu mailan zein hedapen-bitartekotzarenean. Edozein erabilpen berritan bezala, eztabaidak, interpretapen okerrak, zalantzak, beldurrak, etab., sortu dira komunikazioaz ere. Zenbatetan ez ote ditu komunikazio terminoak kontzeptu kontrajarriak adierazten? Ez ote da hitz aurkitugabearen alternatibatzat hartu izan?

A. Carpentier-ekin, komunikazioen mendean aurkitzen garela esan genezake. Ez, noski, berriki agertu delako: biziaren hastapenetatik sortu izan arren, beronen garrantziaz, erabilgarritasunaz eta hobekuntzaz mende honetararte azterketarik egin ez delako baizik.

Komunikazioaren ikerketa bezain eginkizun korapilotsu bat finkatu nahi denean, ez da batere

harritzekoa elkarmenpeketasunezko bidea aukeratzea: «masa komunikazioen ikerkuntza, jakingaiarteko eginkizuna da»¹ irakur daiteke, Laswell, Barthes, Eco eta komunikazioaren beste teoriakoengan.

Historia, medikuntza, zientzia politikoa eta antzeko beste zenbait jakingai aurreko garaietan errotu badaitezke, komunikazioa ikertzerakoan pareko garrantzia duten beste zenbait jakingaik —halanola antropologia, soziologia, teknologia, etab.-ek— hurbilagoko garaietan ditu bere erro teorikoak; prozesu historiko desberdin honek eta bestelako esperientzi markoak berak (beste oinarri filosofikoeak, alegia) bide eten batetik gidatzera garamatzate komunikazioaren teoria, murgildua dagoeneko jakingai baikoitza zehar.

Lan honek komunikazio-gertaera «berez» sakontzea du helburutzat, sortarazi zuten prozesu historikoak aparte utzirik, eta aztergune egoki bat finkatu nahirik. Horretarako, prozesu gisa ikusiko dugu lehenik komunikazioa, honek zer esan nahi duen argitzen digun itereptapen pare bat eskainiz.

1. — Komunikazio-prozesua

Edozein gizarte-ekintzatan, baldin eta aurrerapen edo garapen positiborik nahi bada, nahitaezkoa da ekintza amankomunari dagokion «hizkera amankomun» bat, hori bait da komunikazio-prozesu ooren lehen katemaila.

Komunikazioa, bere zentzu zabalean, ez da dohan ematen zaigun zera, ez da berez sortzen; ez da, bestalde, lorterraza, baizik eta, ikasketari lotua dagoelarik, gauzatzen jakin behar den zerbait. Egun, Didier Anzieu-rekin batera², hau esan genezake: «Babelgo dorrearen mitoa» ez da antzinate biblikoaren ondasun eksklusiboa, zuzenki aplikatu bait dakiok gizarte modernoaren edozein erakunderi, zeren ulertuezinak eta erlazioen mugak ez bait dira maila etniko, erlijioso edo politikoan bakarrik ezarri behar, baizik edozein maila ideologikotan, espezialdutan edota gizarte estatusenetan, guztiok komunikazioarekin zuzenki lotuak daukenez.

Komunikazio-prozesua garbiki bereizteko, beharrezkoa da

xehetasun egokiak ezartzea, doitasun egoki bat lortzekotan. Hori horrela, lehenik eta behin bereizi beharrak *informazioa* eta *kominikazioa* dira: askotan oinarri beraren gainean jasotzen direlarik, bereizkaitzak dira, nahasketa ugari sortaraziz. Hori dugu, beraz, argigai.

Behingoz, hau hartuko dugu *komunikazio*-tzat: «Besteengana higidura berezkoa, zerbait amankomunean jartzeko asmoz, hartzailearengan zerbait hori jasotzeko interesa dagoelakoan». Kontzeptu honetan, gizakien ekintza ohiturazkoenak hartuko dira; mintzaira-mota guztiak, alegia: hitzezkoak ezezik (ahozkoak, idatzizkoak), baita hitzezkoak ez direnak ere (keinuak, higidurak, beste adierazpen-formak, etab.).

Hortik abiaturik, komunikazioaren helburu nagusia ideiak eta kontzeptuak trukatzea litzateke, haiek hartzailearengan portaera desiratu bat sortaraziko dutelarik. Jokabide bat sortarazteko, gainera, zuzenki hartu eta interpretatu behar da mezua, horretarako komunikazioa sortu duenaren eta hartuko duenaren artean elkarrizketa bat beharrezkoa delarik, noski.

Informazio-ak, berriz, nahiz eta honek ere eduki bat behar izan, nahiz eta aipatu «zerbait» amankomun hori exijitu, norabide bakarra du: elkarrizketa baino monologo bat da; hau da, laburtzeko, ez dago harremanik. Orain artekoa laburtzeko, zera esan genezake: komunikazio oro *informazio* dela, bigarrenak lehenengoaren beharra bait du; baina ez da inolaz ere egia, *informazio* oro komunikazio denik, zeren komunikazioak suposatzen duen alde bikotasunik ez bait dago *informazio*an.

2. — Komunikazio-prozesuaren oinarrizko elementuak

Gizakien arteko harremanik ohizkoena komunikazioa dela kontutan hartuta, beronen funtzionamendu-prozesua aipatu beharra dago, bidebatez osagarri berezkoenak azpimarratzen ditugularik:

— *Ideen trukaketa izan behar du beti*, hitzez nahiz beste mintzaira amankomunez adierazten den kode orokor baten birtartez emana, prozesuaren bi elementu giltzarrien artean (Laswell-en «nork» eta «nori» haien artean, alegia).

— *Hartzaileak hartu eta interpretatu egin behar du*, bi elementuen artean elkarrizketa sor dadin, eta ez bi monologo isolatu.

Zazpi dira komunikazio-prozesua gauzatzen duten elementu oinarritzkoak. Hona horien izen eta funtzioak:

a) *Emisioa*: komunikazioaren iturria da, lehen elementua; honela muga dezakegu: «beharrezkoa da komunikazioan, eta ideia, kontzeptu eta informazioak ditu igortzeko».

Funtzioa ondoko etapotan osatzen da:

— Hartzailearen interesa piztuko duen edukia aukeratzea: bestenez, adierazpen-prozesuan bait geundeke, eta ez komunikazio-prozesuan.

— Eduki hori hartzaileari komunikatzeko desio nabaria, argiro eta zehazki emana.

— Mintzaira egokia aukeratzea eta igorleak eta hartzaileak amankomunean dutena.

— Komunikaziorako unerik egokien eta bidezkoena aukeratzea, aldagai fisiko eta psikologikoak kontutan hartuz.

— Mezuaren transmisio-prozesua betetzea.


b) *Kodifikazioa*: komunikatu nahi diren kontzeptu eta ideiak adieraztea eta transmititzea dagokionez, egoki prestatu behar du mezua eta honen artikulazioa edo solaskideari egokitzea. Horretarako koderik egokiena erabili behar du, baldin eta prozesuaren betekizuna lortu nahi badu.

c) *Mezua*: Ardoino-ren arabera, «zerbait adierazteko, izaera bereko zeinuen multzo koherentea, erregela zehatz eta amankomunez ordenatua»³ izanik, prozesuaren helbururik nagusia da, hori bait da transmititu nahi den elementua.

Era berean, norbaitek edukiren bat agertzeko espreski azaltzen duen asmoa da. Asmo hori jatorritik helmugara lekualdatzeak zera eskatzen du: informazio-iturri gizatiarra, xedearen argitasun eta zehaztasuna; ekintzabide bat ezartzea, formala nahiz ez; lortzen den «gap»aren neurria erabakitzen duten parasitoak kontutan izatea.

Mezua, errepertorio amankomun baten barnean dauden ata-

lei egokitu behar zaie beti. Schramm-ek «eremu semantiko» kontzeptuan zuzen zehaztua du erreperitorio hau.



(Schramm, 1949)

d) *Kanalea*: mezua bideratzen duen tresna edo bitartekoa da, horretarako edozein euskarri erabiltzen duelarik, dela fisikoa, dela teknologikoa, etab.

Kanalearen osagarriak dira, alde batetik, n seinale igortzeko gaitasun edo posibilitatea, horren arabera kanale aberatsa edota pobrea izango delarik; eta bestetik, «leialtasuna» edo seinalearen eta irudikatuko duen objektuaren arteko antzekotasun-maila. Kanalean «zarata» sortzen da, hots, transmisioa eta mezuaren ondoko ulerkuntza aldatzen duen edozein traba, gehienetan fisikoa edo teknikoa.

e) *Deskodifikazioa*: mezua deszifratzen duen funtzioa da, mezuaren osagarri askaezina. Harrera-funtzio zabalari dagokio. Deskodifikazioak, igorleak mezu konkretu baten bidez komunikatu nahi duenaren interpretazioa eskatzen dio hartzaileari. Honek, «inferentzia» dela medio, hartzailearengan bi kondizio daukela erakusten du, fenomenoaren bi etapak adierazten dituztenak: batetik mezua hartu izana, eta, bestetik, interpretatu izana, igorleak «esan» nahi izan duena inferituz.

f) *Harrera* edo komunikazioaren «azken muga»: prozesu osoaren bigarren elementu gizatiarra da, lehena igorlea bait da. Horren helburua mezua hartu eta interpretatzea da, prozesua hasterakoan igorleak izan duen asmo eta esanahi berbera erakartziz.

Igorlearengan bezala, hartzailearengan ere zenbait fase bereiz ditzakegu:

— Harkortasuna, hau da, mezua hartzeko gogozko jarrera.

— Komunikatzen den mezua arretaz hartzea.

— Mezuaren ulerkuntza edo interpretazio zuzena. Ondorio hau, igorleak aukeratutako mezuaren egokitasunetik sortzen da eta hartzailearen interesekiko egokitasunak mugatzen du.

— Beharrezkoa ez den baldintza bezala, mezuaren asimilazioa aipa dezakegu, mezu orok inplizituki daraman erreakzio edo jokabide-aldaketarik sor dezan.

Balitzko asimilazio honek, edo transmititu den mezuarekiko inplikazio honek, komunikazio-prozesuaren inbertsioara garamatza, hots: bere jatorria zibernetikan duen «*feed-back*» figura aztertzeraz.

g) *Feed-back*: hainbatetan oker edo desegoki itzuli izan den figura hau, honela defini daiteke: «hartzaileak duen gaitasuna da, igorleari zuzenduriko itzul-mezu bat igortzeko, hasieran transmitituriko informazioa aldatzeko nahiz ez»⁵.

Hasieran, informazioaren eta komunikazioaren artean egiten genituen bereizketetara itzuliz, *feed-back* hau egotea ala ez egotea da oinarritzko bereizlea.

Prozesu oro, komunikazio-prozesuaren barruan koka dadin, *feed-back* konstatagarri edo bereizgarri bat eduki behar duela esan genezake, zeren, hori gabe, bestelako prozesu-mota baten aurrean aurkituko bait ginateke: adierazpen-, informazio- nahiz bestelako prozesu baten aurrean; ez, ordea, komunikazio-prozesu baten aurrean.

Itzul-prozesu edo *feed-back*-aren oinarritzko bereizgarriak, hauek dirateke: igorleak eskatu behar du beti *feed-back* hori; transmitituriko mezuaren zatiren bati dagokio, ez osotasunari; komunikazio-prozesua geldia jotzen badu ere, hobetu egiten du elkarrerlazioa eta komunikazioa efikazago bihurtzen.

Harreman-prozesu orotan, ugariak dira garapen egokia oztopa dezaketen faktoreak; horien artean, eta garrantziaren arabera sailkatuz, aipa ditzakegunetan lehena, *zarata* da: mezuaren ulerkuntza zuzena nahasten duen mezu ez-desiratu oro, alegia. Sor-

tzen diren zarata guztiak ez dira berdinak, ezta garrantzi berekoak ere: *zarata fisikoak* kanalean eragiten duten nahasle fisikoak dira; *zarata psikologikoek* prozesuaren giza elementuetan intziditzen dute, horien igorle- eta hartzaile-gaitasunak aldatuz eta prozesuaren asmo objektiboa eragotziko duten trabak sortzeraino iritsiz; *zarata semantikoek*, mezuaren egiturari eta karakterizazioan intziditzen dutenez; berebiziko garrantzia dute, funtsean aldatzen bait dute mezuaren esanahia.

Beste faktore-mota bat, *komunikazio-trabak* izenpean ezagutzen duguna da⁹: zaildu egiten dute eskuarki komunikazio-prozesua, dela pertzepzio-unean, estimulua negatiboa nahiz inhibitzailea izan delako edo informazioa hautatzeko nahiz pilatzeko gauza ez delako pertzepzioa bera; dela harrera-sentimenduen egoerarengatik, emozio-karga batek aldatu egin bait ditzake haiek; dela igorlearen eta hartzailearen nortasunaren berezitasuna dela kausa; dela gehienetan igorleak sortzen dituen hitz, keinu, gertakari, jarrera etab.ek eragiten dituzten hartzailearen jokamolde negatiboengatik.

Komunikazio-prozesua interpretatzerakoan eskaini dugun eskema honek, komunikazio-egintzaren konplexutasuna azaldu digu eta haren azterketak eskatzen duen zehaztasuna.

3. — Komunikazio-prozesuaz gogoeta zenbait

Ikuspegia aldatuz, komunikazio-prozesu bat nola sortu behar den azaltzera goaz, edozein direlarik ere haren ingurunea eta zirkunstantziak.


Eman dezagun, pertsona batek, une jakin batean, mezu bat igorri nahi duela: horretarako, eduki bat izan beharko du transmititzeko, eta, gainera, transmititzeko asmoa (asmo hau gabe, adierazpen-motaren bat emango da, baina ez komunikaziorik). Igorri edo komunikatu nahi den edukia «mezuaren lehengai» deituko dugu, hau da: gure *back-ground* delakoa osatzen duten edozein eratako zeinuen multzoa; datu-bankua bailitzan, horretatik aterako dugu azken mezua itxuratuko duen edukia.

Lehengai hau mezu-aurreko edo «mezu birtual» baten tankera hartuz joango da eta, aipatuko dugun operazio-sail baten

buruan, benetako mezu bihurtuko. Izan ere, lehengai ezin bait daiteke igor gure adimenean duen egoeran, gauzatu eta «zeinutan hezurmamitu» gabe, alegia.

Zeinutan hezurmamitzeak, igorri nahi duguna kodifikatzea eskatzen du, horretarako komunikazioaren mezua bideratuko duen kode nagusi bat erabiliz eta baita bigarren mailako beste batzu ere: hitzezkoak izan daitezke hauek, nahiz ez, eta batera erabiltzen dira, elkar sendotzen dutelarik.

Mezu birtuala eta kodeak egituratu ondoren, adierazle-mailan zertzeari ekingo diogu, iturburutik datorren mezuari azken bereizketak egokituz; operaziook gauzatu beharko ditugu horretarako: *egokitzapena*, hots: igorri nahi duguna aukeratu dugun igor-bideari, mezua kanaleari, egokitzea; *hautapena*: mezua «nori» eta «zertarako» igortzen dugun kontu, erabiliko ditugun zeinuak hautatuko ditugu; *tratamendua*: baliapide teknikoan birtartez, transmisioa erraztuko duten elementu guztiak baliaraziko dizkigu; operazio honi, arau profesional espezifikoan arabera denean, *aurkezpena* deritza (maketapena, ikus-entzungailuena), horrela nahasketa-faktoreak urritzea eta arreta- eta ardura-gu-neak ugaltzea lortzen delarik. Transmisio-bide konplexuak era-



biltzeak *teknikak* ezagutzea eskatzen du. Adierazpen-forma bakoitzari, azkenik, bere *estiloa* dagokio: honetan bilduko dira igorpen bakoitzaren bereizgarriak.

Funtzio hauek burutu direnean, hasierako mezu birtuala «mezu erreal» bilakatu da. Ezin garantiza daiteke, ordea, hartzaileak interpretatuko duen mezua igorleak sortua bera denik.

Mezu erreala, egituratu ondoren, bere bidea egiten hasten da kanalea zehar; seinalearen itxura fisikoa hartu beharko du hortetarako eta igorleak emandako esanahiaz hornitua beharko du izan seinale horrek: mezu oro, izan ere, zeinuen andana bat bait da, ordenaturik eta egituraturik dauden zeinu batzuren, alegia, eta, esanahi batez hornituak direlarik, seinale bezala hauteman daitezkeen zeinu batzuren.

Seinale-multzo hau igorri egiten da, eta hartzailearengana heltzen. Seinaleok destinatariak kaptatzen baditu, orduan —eta orduan bakarrik— bilakatzen da hartzailea, seinalea kaptatzea bait da harreraren lehen unea.

Seinalea jasotzen denean, koherenteki jasotzen da, hau da: seinale-multzoak gure zentzumen osoa estimulatzeko du bere atal guztietan: pertzepzio oso honi, «pertzepzio integratua» deritza. *Gestalt* edo Forma-Psikologiak aztertu du bereziki fenomeno hau, eta horri esker dakigu osotasun egituratu eta koherente bezala aurkezten zaigula, ez osotasun horren alderdi banakakoak bezala⁷.

Behin seinale-andana hori integraturik hartu denean, hurrengo operazioa esanahi egokia ematea da, horretarako *deskodeketa*-ri ekinez: igorleak egindako operazio bera da, alderantzizko zentzuan, noski. Igorleak erabilitako kodea ezagutu beharra dago eta emisioa sortu zeneko textuingurua. Eginkizun honek, erabilitako kode nagusiaren eta bigarren mailako garrantzi doia berri emango digu.

Deskodeketa burutzean, harreraren unerik adierazgarrienaren aurrean aurkitzen gara: *interpretazioa* dator, igorleak bere mezuari eman nahi izan dion esanahi doi eta bera erabakitzea, alegia. Lortzen zaila da helburu hau, mezu orok —baita sinplea dirudienak ere— esanahi bat baino gehiago izan bait ditzake.

Mezu batek interpretatzerakoan eskaintzen dizkigun posibili-

tate ugariatatik bat aukeratzen dugu, jakina. Baina ez da hau derrigor igorlearen mezua. Posibleen artean aukeratu dena bilakatzen da harrera-mezu eta, igorritako mezu bera bada, komunikazio-prozesu efikaza dela esango dugu.

Mezu hau ez da, jadanik, dinamiko edo isurkorra; hartzailearengan dago, haren kultur altxorraren parte iraunkor gisan. Iraunkortasun honi esker, behin eta berriro itzul daiteke hartzailea mezu hartara; eta, hala, esanahia igorleak erabakia ez beste bat bada, igorlearen eta hartzailearen arteko joanetorri-operazio batek jarraituko du prozesuan —lehenago ikusi dugun *feed-back* fenomenoaren bitartez, alegia—, arik eta kontzeptu-berdintasuna lortu arte.

Komunikazio-egintzaren aurkezpen honek, aipatu ez ditugun beste hainbat alderdi eta figurarekin batera, prozesu baten etapak azaldu nahi izan ditu: sinplea da prozesu hau bere eguneroko gauzatzeetan, baina efektu positiboak lortu ahal izateko, arreta handia eskatzen du bakoitzean.

4. — Efikazia komunikazioan

Edozein delarik ere abiarazten den komunikazio-prozesua, helburu batzu lortzea espero da, noski: helburuok lortzeak ala ez lortzeak erabakiko du efikazi maila.

Eta mezu baten efikazi maila, haren harrerak, ulerkuntzak, sinesgarritasunak eta hartzailearengan sortzen duen interesak mugatzen du. Gure planteamenduak puntuoi erantzuten dien ikusi beharko dugu, beraz, lehenik eta behin, gure komunikazioan efikaziarik lortu nahi badugu.

Giza komunikazio batetan erdiets dezakegun efektua aldez aurretik erabaki ditugun xede batzuren argitan egiaztatzeko, erizpide batzu izango ditugu mezuaren ulerkuntza neurtzeko; baita haren iraunkortasuna, sinesgarritasuna, eragiten duen portaera-aldaketa, jarrera fisikoak etab. ere neurtzeko.

Komunikazio-prozesua masiboa denean, hartzaileen berezitasunak kontutan eduki beharrean egongo gara, L. S. de la Tajadak ongi dionez: haien status-a, lanbidea, heziketa, etab. «breafing» batetan bezala⁹.

Azken gogoeta bat: komunikazio-prozesua neurtzeko balioz-tapen-eredu bat bilatzea baino areago, hartzailearen alderdian jartzearen aldekoa da komunikazio-prozesu bati ekiten diogunean, gure komunikazioak eragin ditzakeen berezitasunak kontutan hartzeko.

Lan honetan azaldu duguna, igorlea eta hartzailea hautemangarri direneko giza komunikazioari dagokio bere osoan. Mass-medien bitartez sortzen diren komunikazioak bezalako prozesu konplexuagoen azterketaren abiapuntu izan nahi du. Haiek, paradoxaz, ez bait dira komunikazio-prozesu, informazio-prozesu baizik: beste ikerketei dagokie, beraz, horien azterketa.

Euskaratzailea: **Jesus Mari Zalakain**
J. A. M.

¹ MORAGAS, M.: *Teorías de la Comunicación*, Ed. Gustavo Gili, 18 or.

² ANZIEU, D.: *Information et Communications dans les entreprises*, Editions d'organisation, Paris (hitzaurrea).

³ ARDOINO, J.: in *Information et Communications...*, 42 or.

⁴ SCHRAMM, W.: *Proceso y efectos de la comunicación colectiva*, Ciespal, Quito 1969, 167 or.

⁵ SCHRAMM, W.: *op. cit.*, 97 or.

⁶ SAENZ DE LA TAJADA, L.: *Los problemas de la comunicación desde el lado de los receptores*. Comunicación XXI, 54 or.

⁷ KOHLER, W.: *Psicología de la forma*, Ed. Biblioteca Nueva, 54 or.

⁸ SAENZ DE LA TAJADA, L.: *op. cit.*, 46 or.

APUNTES SOBRE EL PROCESO COMUNICATIVO NOTES SUR LA PROCEDURE DE COMMUNICATION

Nos encontramos en «el siglo de las comunicaciones». La comunicación constituye un objeto importante de investigación y de controversia. Este artículo pretende ahondar en el hecho comunicativo «en sí mismo».

La comunicación como proceso

- a) Ante todo es preciso distinguir entre **comunicación** e **información**.
- La **comunicación** pretende establecer un intercambio de ideas, un diálogo o **feed-back** entre emisor y receptor.
 - La **información** sólo pretende transmitir un contenido hacia el destinatario. Es un monólogo más que diálogo.

Por eso toda comunicación es información, pero no toda información es comunicación.

b) Los elementos básicos del proceso comunicativo son siete: 1) la **emisión**; 2) la **codificación**; 3) el **mensaje**; 4) el **canal**; 5) la **descodificación**; 6) la **recepción**; 7) el **feed-back**.

Entre los factores que pueden entorpecer el proceso comunicativo se pueden señalar: 1) el **ruido** que es todo mensaje no deseado que perturba la adecuada comprensión del mensaje y que puede ser **físico**, **psicológico**, y **semántico**. 2) Las **barreras de la comunicación**, que impiden la comunicación tanto por parte del emisor como por la del receptor.

c) El proceso comunicativo abarca las siguientes etapas: 1) El emisor que debe tener la intencionalidad de transmitir, tiene un contenido o pre-mensaje que es «la materia prima del mensaje». 2) Este «mensaje virtual» es encarnado en signos, utilizando los códigos disponibles. 3) Luego se elabora este mensaje adecuándolo al canal, seleccionando los signos, etc., obteniendo así el «mensaje real». 4) El mensaje real inicia aquí su recorrido a través del canal o medio elegido, adoptando la forma física de un conjunto de señales estructurado. 5) El receptor lo percibe como un todo coherente. 6) Acomete la tarea de descodificación, operación inversa a la realizada por el emisor. 7) Luego se pasa a la **interpretación**, a la elección de una interpretación entre las varias posibles, que puede no coincidir con la pretendida por el emisor. 8) Este significado captado produce una corriente de **feed-back** o de interrelación al emisor.

d) El grado de eficacia de un mensaje está determinado por su recepción, por su comprensión, por su credibilidad, por el interés que despierta en el receptor. Por eso cuando se inicia una comunicación se debe situar del lado del receptor.

Nous nous trouvons dans «le siècle des communications». La communication constitue un objet important d'investigation et de controverse. Cet article se propose d'approfondir le fait de la communication «comme tel».

La communication comme procédure

- a) **Avant tout il importe de distinguer entre communication et information.**
- La **communication** prétend établir un échange d'idées, un dialogue ou **feed-back** entre **émetteur** et **récepteur**.
 - L'**information** prétend seulement transmettre un contenu à un **destinataire**. C'est un monologue plutôt qu'un dialogue.

C'est pourquoi toute communication est information, mais toute information n'est pas communication.

b) Les éléments fondamentaux de la procédure de communication sont au nombre de sept: 1) l'émission; 2) la codification; 3) le message; 4) le canal; 5) la décodification; 6) la réception; 7) le feed-back.

Parmi les facteurs qui peuvent distordre la procédure de communication on peut signaler: 1) le bruit: tout message non désiré qui perturbe l'adéquation de la compréhension du message; il peut être physique, psychologique et sémantique. 2) Les barrières de la communication qui entravent la communication tant chez l'émetteur que chez le récepteur.

c) La procédure de communication comporte les phases suivantes: 1) L'émetteur qui doit avoir l'intention de transmettre, a un contenu ou pré-message qui est «la matière première du message». 2) Ce «message virtuel» est exprimé en signes, utilisant les codes disponibles. 3) Ensuite on élabore ce message l'adaptant au canal, sélectionnant les signes, etc., obtenant ainsi le «message réel». 4) Le message réel commence ici son parcours à travers le canal ou moyen choisi, adoptant la forme physique d'un ensemble de signes structuré. 5) Le récepteur le perçoit comme un tout cohérent. 6) Il entreprend la tâche de décodification, opération inverse à celle effectuée par l'émetteur. 7) Il passe ensuite à l'interprétation, au choix d'une interprétation parmi plusieurs possibles, qui peut ne pas correspondre à celle exprimée par l'émetteur. 8) Cette signification captée produit un courant de feed-back ou d'interpellation de l'émetteur.

d) Le degré d'efficacité d'un message est déterminé par sa réception, par sa compréhension, par sa crédibilité, par l'intérêt qu'il suscite chez le récepteur. C'est pourquoi quand on commence une communication, on doit se situer du côté du récepteur.

Informazioaren manipulazioa

Restituto Zorrilla

Jendeak uste du, ziur ez badago ere, Administrazioak, prentsak eta gainerako komunikabideek «albisteak» gorde ezezik iruzur egin nahi diotela, berri faltsuak ez bada egierdiak publikatuz. Horrela, hiritarraren eritziz, koltza-olioaren «auzian», esate baterako, Administrazioak gorde egiten ditu benetako erantzukizundunen izenak, edo horietako batzuenak behintzat, «agintzen dutenen» taldekoak direlako. Hain da horrela, ze Espainol Gobernuak lehendakariak aurre egin behar izan bait zion susmo horri, eta horrela Parlamentuan ospatu zen iraileko eztabaidan («koltza-olioaren eztabaida» izena daramanean, hain zuzen) ezertxo ere gordetzekorik ez zuela baieztatzen zuen Gobernuak. Baina seguraski zipitzik ere ez du sinesten jendeak hitz horietan. Administrazio publikoak, oro har, oso sinesgarritasun gutxi du Estatu guztietan. Eta antzeko zerbaitez gertatzen da komunikabideekin ere. Ordena publikoarekin zerikusirik duten ekintza istilutsuak, zehaztasun-faltaz beteak egon ohi dira eta zentzu honetan egindako salaketak ere ugariak izaten

dira. Mugimendu antinuklearrek, adibidez, badute hamaika txosten komunikabideek gertakizunak nola deformatzen dituzten adieraziz. Noizean behin, ordea, informabideek gorde diezaiokete ustekabeko sorpresaren bat irakurleari edo, kasu honetan bezala, «teleikusleari», jendeari informazio «objektiboa» eskainiz (gogoan har bitza irakurleak «informazio objektiboa» hitzok, zeren giltzarri bait dira manipulazioa bezalako gaiak ihar-duteko orduan). Horrela, esate baterako, 1981eko irailaren 20an, astelheenez, eman zen «Mano a mano» programan zentral nuklearren auzia eztabaidatu zen bi pertsona adituren artean. Zentralen aurkakoa ez zen aspertu ere egiten zentral nuklearrak jartzearen aldeko direnak gauzen benetako egia jendeari etengabe gordetzen ahalegintzen direla esaten zuenean. Esan nahi bait da, espezialista honen eritziz, zentral nuklearren enpresa eraikitzaileek eta beroriek finantziatzen dituen interes ekonomikoen munduak (bankuak, etab.) gorde egiten dituztela zentral horiek dauden herrialdeko jendetzarentzat arriskutsu direla frogatzen duten zenbait gauza, «jendea ez izutzearen edo». Horrela, bada, bi gauza aurkitzen ditugu telebista-programa honetan. Alde batetik informazioa manipulatzaren salaketa bat dago, egia gorde egiten delako, eta bestetik ustez manipulatzaile den TVE bezalako komunikabide bat salaketa honen ekarle gertatzen da. Alabaina, ez dago kontraesanik. Gertatzen da, komunikabideek inpartzialtasun eta egi itxura egiteko, eta beraz sinesgarri bezala agertzeko —zeren bestela galdu egingo bait lukete entzulegoa eta orobat publizitatea—, lantzean behin bederen ireki egin behar izaten dizkietela beren ateak aginte-klasearen interesen kontrako eritziei ere. Baina, jakina, itxurakeria besterik ez da izaten, zeren eritzi kontrarioak berehalaxe isilerazten bait dira komunikabidea dominatzen dutenen interes ekonomikoekin adosago dauden beste eritzi batzuen bidez. Artikulu honen egileak berak ere ekar dezake, diotenaren lekuko, gertakari pertsonal bat. Iragan abuztuan Bilboko egunkari batek itzuli egin zion, argitaratu gabe, telebista publikoaren aldeko artikulu bat. Zuzendariaren gutun eta guzti zetorren —oso xaloa, eskierki—, non artikulua ez zela argitaratuko jakinerazten bait zitzaion «egunkariaren linearen kontra zihoalako». Noski baino noskiago egunkaria bere eskubide osoan dagoela bere interesen kaltekotzat ematen duen

komentarioaren argitalpenari uko egiteko. Hemen garrantzizkoena, ordea, zera da: delako egunkari hori telebista pribatu bat instalatu nahi duen elkarte batena izatetik datozela interes horiek, alegia.

Informazioaren indarra

Baina ez dute hainbesteko garrantzirik sarrera gisa aipatu ditugun gertakariok. Mundu guztiak erabiltzen duen metaforari helduz, ezta izeberg-mutur izatera ere ez direla iristen esango genuke. Hain da izugarria informazioaren azpi-mundu hori, ze ezagutezina gertatzen bait da praktikan. Egia esan, ia ezinezkoa da informazioaren manipulazioari buruzko datu orokorrik ematea. Eta oso arrazoi ulerterraz batengatik hori: lehenik, manipulazioaren arazo horretan arakatzeko interesik duten bakarrak, ikertzaile banaka batzuk, zientifiko sozialak eta klaserik gabeko, edo behintzat hainbeste desberdintasun gabeko, gizarte baten posibilitatean sinesten duten militante idealistak dira soilik. Baina pertsona edo talde hauek ez dute jeneralean informazio-iruzurra harrapatzeko hainbat medio. Oso kontutan eduki behar da maila guztietan gertatzen dela informazioaren manipulazioa. Eduki daiteke segurtasuna, bai, adibidez alkateak gorde egiten diela bere herritarrei hauek ezagutzeko eskubide osoa luketen informazioa; edo nagusiak balantze «konponduak» aurkezten dizkiela bere langileei enpresaren garapenari buruz; edota alderdi politikoek «gorde» egiten dizkietela txostenak beren militantei, berorien ezagupena komite exekutiboari bakarrik omen dagokiolako aitzakiarekin... Guztiak buru-belarri sartuak daude informazioaren manipulazioan. Eta bigarrenik, informazioaren manipulazioa bere aldetik, manipulatu izaten da, hau da, ezkutuko egite sekretu bat da, inkontzientea batzutan, zeren gizarte-estruturak berak bait dira *manipulazioa zerbait naturala edo normala* dela sinestarazten digutenak. Urtetan eta urtetan, Francoren garaian, Estatuko sekretu bat zen Gineako arazoa. Estatuaren segurtasunaren aitzakiarekin, badakigu orain pertsonaia publikoen interes ekonomikoen babesa gordetzen zela, zeren beren goi mailako egoera politikoaz probetxatuz inbertitu egin bait zuten kolonia hartan pertsonaia horiek. Horrela aipatuak

izan ziren garai batetan Carrero Blanco, García Trevijano eta abarren izenak.

Informazioaren manipulazioa erakunde-maila guztietako eguneroko ogia dela nioen. Eta egiaztapen honek «manipulazioa» hitza hobeki aztertzeraz behartzen gaitu. Gaiari sartu aurretik, ordea, ager ditzagun manipulazioaren arrazoiak. Zergatik ote dira gizarte-taldeak horren informazio-kontrol zaleak? Ongi erantzun ximplea du horrek: informazioa botere-iturri delako, alegia.

Watergate kasua, esate baterako, atzo bertan gertatua dela ematen badu ere, jadanik aparteko kasu sonatu bat da informazioaren aspekturen bat estudiatzeko duten tratatuetan. Mundu guztia oroitzen da nola bere berunkariak alderdi demokratikoen egoitzan ezkutuko mikrofonoak jarri nahi izateagatik bere kargutik dimititzera behartua izan zen Nixon lehendakaria. Gizon bat, mundu guztian eta gizateriaren historia osoan boteririk handieneko kargua okupatzen duena hain zuzen, bere lehiakide politikoen pausoei buruzko informazioaren bila dabil legez kontrako bideez baliatuz, eta informabide batek —*Washington Post*-ek— ediren egiten du delitua, gero bere lankide hurbilenekeekin edukitako elkarrizketa guztien magnetofono-grabazioekin frogatuko den bezala —informazio berria—; guzti hori dela eta, konstituzio-mekanismoak martxan jartzen dira Nixon juzgatzeko —informazio-prozesua—, baina honek aurrea harrapatzen du, dimitituz. Dena informazioaren inguruan mugitzen da. John McHale-k dio, hori dela eta: «Pentagonoko paperak, Watergate-ko arazoa edo arazoak etab., gisa honetako itaunen inguruan dantzatu ziren osoki eta erabat: norik lortu zuen, edo lortzen saiatu zen, zer nolako informazioa; norik pasa zion zer nori, eta noiz egon zen informazio hori boterearen egoera honi edo hari lotua. *Merezi du halaber obarrarazteak, nola dirua edo ordainsari materialak bezalako obizko botere-formarik zaharrenek, zein zerikusi eskasa izan zuten Lehendakaria bera erasitsi zuten alda-keta politiko hauetan*»¹.

Azpimarratu egin dut azken paragrafo hau zeren berebiziko garrantzia bait du munduan gertatu zen aldaketa ulertzeko. Nixon ez zen galbideratzailetzat salatua izan, diruarengatik edo zentzu klasikoko jokabide inmoralarengatik, hau da, portaera

sexualarengatik. Herrialde azpigaratueterako geratzen da hori. Gaur egun, teknologiaren garapen-maila altuko herri kapitalistetan, boterea lortzeko burruka informazioa lortzeko burruka gertatzen da. Ongi gauza bidezkoa da, beraz, perspektiba hone-tatik talde eta alderdi politiko guztiek arrapaladan informazio bila jotzea, eskrupulorik gabe eta erabide guztiez baliatuz; eta gero, behin baliozko informazioren bat lortuz gero, berori gor-detzea edota beren interesen arabera erabiltzea. Hitz batean esateko, ez dago arrazoi berezirik informazioaren esparruan prin-tzipio etiko batzuk errespetatu behar izateko, zeren ez bait dira kontutan hartzen gizarte-bizitzako gainerako arloetan ere.

Adolfo Suarez lehendakariaren 1981eko Otsaileko dimisioa, informazio-faltako kasu bat dugu, inondik ere. Zorigaitzoko 23-F hartan eman nahi izan zen Estatu-kolpearen ondoren jakin ahal izan da kolpezaleak informazio-bideetan infiltratuak zeudela eta informazio-sareen moztaille bezala jokatu zutela. Haren alderdi UCDren barruan bertan ere informazioak ez zuen oso ongi fun-tzionatu behar, zeren alderdiak Palma de Mallorcan ospatzekoa zuen kongresua behaztopatzeko aire-kontrolatzaileek egin zuten grebak zeharo ustekabea harrapatu bait zituen. Ekintza horrek, itxura denez, zerikusi handia izan zuen dimititzeko erabakian. Nolanahi ere, informazio hobé batek beste erabakiren bat har-tzeko aukera emango zion inongo zalantzarik gabe.

Jendeak ez du beti ongi ulertzen informazioa zergatik den indar bat, botere bat. Eta bien bitartean espionaiia —informa-zioa biltzeko mekanismoa besterik ez dena— gizona bezain zaharra dugu eskierki. Besteak zer pentsatzen duen jakitea, zein intentziorekin dabilen eta zein erabaki hartzeko asmoa duen aurretiaz ezagutzea, haren geroke pausuen jakinaren ganean ego-teak, beti abantailaz jokatzeko abagadunea emango dio arerioari. Xakejokoan bezala da: aurretik ikusi behar da kontrarioaren ko-kaldia, nola erantzungo dion nire mugimenduari... Horrelaxe da boterea. Frantziako Luis XI.ak, anartean oinordeko printze zela, ihes egin behar izan zuen aitaren haserre biziak irentsiko ez bazuen (arrazoiz haserretua hau, noski, zeren hil egin nahi izan bait zuen bere semeak) eta Genappe-n, Brusella ondoan, ezkutatu zen. Eta Jauregi hartako morroien zeregirik behinena

beren nagusiaren aldeko espioitza zen. Hala ere, Pariseko gor-tean bertan zeukan bere espiorik onena. Aitaren amoranteak, ohean zegoen bitartean, ezkutuko asmo eta pentsakizun guztiak ateratzen zizkion Luis XI.arentzat honen aita Erregeari. Antzeko kasuz gainezka daukagu historiaren iragana eta oraina. Jakina, gertakari guzti hauek ez dira jendearenganaino iristen; eta iristen badira, historia gisa —iraganeko gertakari bezala— edota prentsa sentsazionalistaren bazka bezala eskandalo-forman iristen dira. Jeneralean eskandalo horien argitalpenak ere manipulatuak izaten dira boterearen gordezuloetatik, bere etsai politiko posibleak edo boterea lortzeko burrukan lehiakide zaiona elimina-tzeko.

Arlo honetan ere zilegi dirudi denak. Jadanik John McHale berak adierazten du, alegia, informazioaz hitzegiten dugunean informazio osoa eta guztia ulertu behar dela, hau da, «intimitaterako eskubidetik hasi eta, berri zentsuratuak errebelatetik pasaz, kontsumitzailearentzat egindako produktuen informazioa legalki erregulatzerainoxe». Zentzu honetan gogora dezagun per-sona batzuk duten boterea: eragin handiko politikarien bizi-tza pribatuei buruzko txosten pila bat erdiesteraino heldu dira rola edo hala. Emilio Romero kazetari espainola dateke, diote-nez, pertsona horietako bat. Baina kazetari hori ere ez dago garbi hauts eta ahotz orotatik, eta berarekin inor ez sartzea lor-tu baldin badu, «asko dakielako» izan da. Zera kontatzen dute, esate baterako, prentsa frankistaren aurreko muturrean zego-enean gertatua bezala: noski, *Arriba*-ren zuzendariak (*Pueblo*-ren zuzendari zen orduan Romero) honi buruz zeukan txostenaren orrialde baten fotokopia igortzen omen zion astero-astero, eta horrek su eta fu jartzen omen zuen Romero. Jakina, *Arriba*-ren zuzendariak eta Romerok gorroto bizia zioten elkarri.

Multinazionalak eta erabaki-zentruak

Gorago deskribatu ditugun informazioaren eta boterearen ar-teko erlazio-formak ia-ia baserri-girokoak bezala geratzen zaizki-gu gaur egun. Munduaren dimentsio berriak eraldatu egin ditu zeharo boterearen eta informazioaren arteko harremanak, be-

rehalaxe ikusiko dugun bezala. Baina horretara aurretik zilegi bekigu aldaketa honen faktoreak zein izan diren agertzea.

Ezer baino lehen kapitalismoaren garapena aipatu behar dugu, zeren enpresa «multinazional» bezala ezagutzen den erakunde-mota berri bat sortu bait du. Enpresa-sare txiki horrek —hor sartzen diren enpresen izenak, egunkariak munduko 20 edo 30 enpresa garrantzitsuenen izenak argitaratzen dituztenean ezagutzen ditugu— berriro diot, enpresa-sare txiki horrek bere mendean dauka edo berea du munduan mugitzen den ia diru guztia. Nik jogurt bat (Danone) jaten dudanean, telebista (Philips) pizten dudanean, kotxea (Ford) arrankatzen dudanean edo telefonoz (ITT) deitzen dudanean, irabazpide bat ematen ari naitzaio multinazionalen bati. Eta horrela, multinazionalak herri batetan finkatuz gero, Estatu baten erabaki garrantzitsuenak, Estatu honen eremuetatik kanpora hartzen direla gertatzen da. Oraindik hobeki ulertzeko da diogun hori, baldin eta kontutan hartzen bada zein estuak diren ekonomiaren eta politikaren arteko lokarriak. Estatu Batuak herri aberats bat ezezik kapitalismoaren zutabe eta euskarri dira. Haiak garantizatzen dute honen funtzionamendua, eta horregatik hoi en eraginpeko eremu guztian horren interesen arabera jokatu behar da. Estatu Batuek Ertamerikan gobernu bati eusteko eskuhartzen dutenean, soilik enpresa multinazional baten desarroilo «normala» garantizatzen ari dira, enpresa hori bananeroa izan ala ez. Horixe adierazten da, hain zuzen, «amerikar hiritarren segurtasuna defendatu» eufemismoaren pean. Europa, bere aldetik, amerikarren kolonia bat da, eta egin izan diren «independizatzeko» eginahal guztiak alferrikakoak izan dira gaurdainokoa. Erants diezaiogun beste instrumentu «liberal» bat inperialismo amerikanoari: «trilateral» sonatua alegia (bertakoa da Garrigues Walker), «holding» itxurako zerbait, ekonomiako gizonik indartsuenak biltzen dituen eta geroko «gobernu-buruak» prestatzen dituen.

Munduaren dimentsio berriko bigarren faktorea, komunikazioaren teknologia berriak egin duen sinestezinezko abiada zorabiagarria izan da. Zeren, ikusi besterik ez bait dago: zientzia matematikoaren aitzinamenduak, trantsistore ñimiño eta agortzin horren asmakuntzak eta informatikaren aurrerapenak, oro har, aldatu egin diote aurpegia gure munduoni. Asko baino

gehiago dira puntu honetaz idatzi diren artikulua eta hobe izango du irakurleak argitalpen horietara jotzea. Hala ere, puntutxo bat azpimarratu nahi nuke: informazioko multinazionalak sektore honetan inbertitzen dituzten dirutza ikaragarriak, alegia. Beste era batera esanda, informazioa aparteko negozio bat da eta horregatik multinazionalen eskuetan dago. Espainian, adibidez, telebista pribatua ipintzeko posibilitateak izugarritzko gosea sortu dio enpresa pribatu askori eta eskatzaileen zerrendan izena ematera jo dute arrapaladan.

Telebista bezalako hain komunikabide indartsu bat pertsona-talde txiki baten eskuetan egoteko probabilitateak —eta lehendik ere kontrolatzen dute prentsa bezalako beste komunikabiderik ere—, oilo-larrua jarri behar lieke askatasunaren aldeko burrukalari guztiei. Hauxe da auzia. «Jadanik eskatu dira ofizialki Estatu, erregio eta udal mailako hedadura duten hogeita zortzi telebista-emisore. Talde desberdinak dira hori egin dutenak, baina badute ia denek elkarrekiko lokarri berezi bat: komunikazioaren munduarekin erlazionaturiko pertsonak edo enpresak dira, hain zuzen.

«Promotora de Emisoras, Sociedad Anónima» (PRESA) enpresak —PRISAren filiala bera eta *El País*-en elkarte argitaldaria—, bi zentrutarako eskaria kurtsatu zuen: Madrilerako bata eta Bartzelonarako bestea.

«Sociedad Española de Radiodifusión» (SER) kateak, berriz, *Teleser* katea sustatu du, eta berorren zuzendariek diotenez produkzio guztiaren %40 beraiek egiteko asmoa dute.

Antena 3 enpresa argitaldari talde batek osaturiko elkarte bat du; bertan daude, *Europa Press* agentziaz gainera, *La Vanguardia*, *ABC* eta *Grupo Z*.

Tele 80, «Editorial Católica» (*Ya* egunkaria argitaratzen duena) eta probintzietako beste zenbait egunkariren artean osatutako enpresa da.

Teleunión enpresari dagokionez, «Radiotelevisión» espainoleko ia hogeita hamar profesionalak eratua dago. Hauek beren programa propioa emateaz gainera, beste emisoreei saltzeko programak egiteko asmoa dute.

Telecolor izenaren atzetik Valencia-ko zenbait enpresari indartsu eta komunikabideen munduko profesional bat, Jose Palau, aurkitzen dira sustatzaile bezala.

Eta azkenik «Radiotelevisión 16» elkargoak telebista pribatuko bost emisore eskatu zituen².

Ikusten den bezala, lehendik ere informazio idatziaren jaun eta jabe ziren eta ongi aski definituriko presio-taldeen ordezkari diren enpresa hauen boterea areagotu egingo da inongo mugarik gabe. Telebistak, behin pribatizatuz gero, galdu egingo du bere zerbitzu-publikotasuna eta orduan Parlamentuak ezin kontrolatu ahal izango ditu horren edukinak.

Egia esan, jendea ez da ohartzen hor dagoen arriskuaz: nola talde txiki batzuek, beren ekonomiari eta gizarteari buruzko konbikzio atzerakoiengatik ezagun askiak diren taldetxo batzuk, komunikabideak eta partikularzki telebista monopolizatzen dituzten. Behin eta berriz errepikatu beharko da, alegia, badaudela «normalak» iruditzen zaizkigun «gauzak», berorietan murgilduak gaudelako. Manipulazioaren kontzeptura itzuli behar dugu berriro, gorago agindu dugun bezala, berori hobeki sakontzeko asmoz. Egia esateko, zer ulertzen du jendeak «informazioaren manipulazioaz»?

Washington Post-en agertu zen inkesta batez baliatuz erantzungo diot galdera horri. Inkesta 1981eko uztailaren 20tik 28ra bitartean egin da, 1.507 elkarrizketa erakuskari baten gainean. Inkesta horren arabera, inkestatuen erdiak baino gehiagoren ustez komunikabideek gorde egiten dute garrantzizko informazioa edo ematen dutenaren funtsezko zatiak. Iparramerikar gehienek mesfidantza sentitzen zuten, sinesgaiztasuna eta adosezintasuna komunikabideekiko. Pentsa genezake Europako giza-terria ere ez dabilela amerikanoarengandik oso urruti. Hitz batean esateko, manipulazioa gordetzea da, zentsura, egierdiak... Prentsak berak ere utzi egiten du manipulazioaren ideia hau laboratzen duten berriak argitaratzen. Adibidez, hil honen 19ko *El País*-ek: «Enrique de las Casas, Espainol Telebistako lehen katearen zuzendariak, zentsuratu egin zituen lehengo ostegunean emandako 'Esta noche' programaren paragrafo batzuk. Carmen Maura aurkezleak ezin esan izan zituen paragrafoek,

'entxufeez' eta Informaziorako Estatu-Idazkari den Ignacio Aguirre-z ziharduten». Pentsan ematen diren gisako berrien ondoren, jendeak uste du Administrazioak zentsuratu egiten dituela telebistaren edukinak. Horrekin, manipulazioa, bestela ere inori kalterik egiten ez dion perpaus bat kentzera ala ipintzera mugatzen da, jendea horren engaina-erraza ez delako inpresioa ematen zaion bitartean. Baina manipulazioarekin mitoarekin bezalaxe gertatzen da: ezagutzen denean ez da jadanik manipulazio. Arrazoi horretxengatik, benetako manipulazioa ezjakinarena egiten duenarena da... Urtean zehar pantaila txikiari begira gutxi gora behera 1.000 ordu gastatzen dituen teleikusle bat, «American view of life» famatuaren ikastaro intentsibo bat hartzen ari da. Ez da ahaztu behar, bestalde, gure pantailetan ikusten ditugun hamar telefilmetatik zortzi amerikanoak direla, eta munduan zehar barreiatzen diren hamar berrietatik bederatziz «United Press» (EEBB) edo «Associated Press» (EEBB) edo «Reuter» (ingeleza baina EEBBek aurki hartuko ote duten diotena) agentzietatik datozela. Gainera diezaiozun guzti horri garrantzi bizi-ko beste informazio-iturri bat, diskoaren mundua alegia eta kapital amerikanoaren menpean dagoena hau ere... Komunikabide indartsu horietzek moldatua dago gizona, horrelaxe asimilatzen bait ditu honek baloreak, erizpideak, kontsumitzeko, libertzeko eta zer ona eta zer txarra den jakiteko moduak ere; hitz batean esateko, beren eskuetan dirua eta informazioa bateratu dutenen interes bereziki ekonomikoekin ados egongo den bizimodu eta pentsamolde bat, hain zuzen ere. Txikitandik irakatsiko zaigu Coca-Cola kontsumitzen, O. K. esaten, Mendebaleko unain onentzat txaloak jotzen eta gaiztoentzat herio-zigorra eskatzen, Winston erretzen, ona egotea hainbeste axola ez dion ilehori batekin irteten eta bigarren umeak bost urte bete dituenen «Papy» edo, hobeki, «pap» deitzen hasten zaigunean dibortziazten. Hori da benetako manipulazioa, hori. Telebista txikitandik ikusten hasten den haurra, egon daiteke ziur, egon, adin nagusira heldu denerako «Osaba Sam-en» robot perfektua izango dela. Eta koadro guzti hau ongi osatzeko, gogoratu beharko da baita telekomunikazioaren teknologiaren %80 amerikarra dela ere. Diogunaren ideia zehatz bat edukitzeko, kontu egizu alegia zure telebistak dituen pieza guztietatik ehuneko larogei tekno-

logia amerikanoarekin eginak daudela. Eta dependentzia hau beste menpekotasun bat gehiago bezala gertatzen dela eguneroko bizitzan. Amerikar ITT ahalguztiduna —honen teknologiarekin egiten dira Europan komunikazio-sistema gehienak— bere entzuteko prozedurak CIAren zerbitzuan ipintzeaz salatua izan da sarri askotan. Esan nahi bait da, politika edo negozio munduan pisu handiago edo txikiagoa duen pertsonalitate bati telefona ipintzen diotenean arakatu egin beharko duela honek, aparailuaz baliatu aurretik, CIAk edo antzeko beste edozein organizaziok «informatzeko», hots, espiazteko, ezkutuko mikrofonorik ipini dion ala ez. Gertakari batek baino gehiagok frogatzen dute baieztapen hauek ez direla burutazio arin batzuk. 1979an Iparramerikar Senatuko batzorde berezi batek «IBM» enpresa ikertzeari ekin zion, zeren enpresa pribatuentzako «ezkutuko klabeak» egiteko ardura bait zuen honek, eta, akusazioak zioenez N.S.A.-k (National Security Agency) —bera bait da federazio mailan sekretuaren babes-problema arduratzen dena— behartu egin zuen IBM sistema kriptografiko batzuei jarraiki klabe berriak egitera, gero berak sekretu horien barrena hautsi edo gainditu ahal izateko. Egia esan behar bada, ezin frogatu izan zen akusazioa, baina susmo txarrak airean jarraitzen du, zeren dena posible bait da ameslilurazko mundu honetan. Izan ere, informazioa bote-rete bait da^a.

Informazio subjektiboa

Eskierki, inoiz ez parada hoberik Bibliako harako esatera hura bere zehaztasun osoan errepikatzeko: «egiak libre egingo zaituzte». Informazio objektiboa, beraz, ezinbesteko premisa dugu indibidua izaki librea izango bada. Libertatea, ordea, ez da herentziaz jasotzen den ondasun bat, etengabeko burrukaren bidez erdietsi behar den zerbait baizik. Indibiduo oro libre izateko eskubidearekin jaiotzen da, baina alde handia dago eskubidearen eta errealitatearen artean; handiegia horren erraz lortzeko. Libertatea, indibidua komunitatearen baitan eta beronen parte bizi bezala desarrolatzeko baldintza objektiboak ematen direnean bakarrik erdietsi ahalko da. Eta baldintza horietako bat, inongo zalantzarik gabe, lehenago ere esan dugun informazio objekti-

boarena da. Zer ulertzen den informazio objektiboaz? Zentzurik jatorrean «objektibitatea» neutraltasunaren pareko da. Informazioak, beraz, neutrala izan behar du, deus kendu eta deus ere erantsi gabea, gauzak diren bezala esanez alegia. Jakina, objektibitatea, horrela hartuta, ilusio bat besterik ez da. Neutraltasuna ez da existitzen eta ez da existituko ere sekula; eta arrazoi ximple batengatik hori: alegia, gizona ez bait da konputagailua, eta gauzak diren bezala kondatu nahi izatea, hau da, *indibiduoak bere aldetik ezer jarri gabe, jadanik postura bat hartzea bait da gaiaren aurrean* eta, beraz, manipulatu egiten da gertakaria.

Objektibitatea, bada, ezin defini badaiteke neutraltasuna bezala (eta gainera kontzeptu hutsal bat besterik ez da hau berai), nola definituko dugu orduan? Nik Bernard Michaux-en definizioaren alde egingo nuke, eta honelaxe itzultzen dut bere artikulu bikain batetatik: «Objektibitatea, dio, errealitatearen berri bere osotasunean ematen etengabe lehiatzen den adimen-prozesu bat da. Subjektu objektibatzailea ezin izan daiteke objektibatu beharreko objektutik independente dagoen zerbait. Bere dimentsio praktikoan eta bere klase-errealitatean, hau argi ikustea bilatzen duen agente historikoak antagonismoa areagotzen laguntzen du, kontraesanetarako irteerak aurreratzen alegia. Objektibazioko mugimendua, beraz, bada eguneroko esperientzian konkretua dena itxurazkotik eta aztarna besterik ez dena funtsezkotik eta ezkututan gordetzen denetik apartatzen duen mugimendu kritikoa bat ere. Burruka sozialak nahitaezko baldintzak dira errealitatearen kontzientzia hartzeko, baldin berorren analisia, eta deskripzioa ere bai, eztabaidatzen badira behintzat. Ikuspuntu desberdinen aurkezpenak ez du berez objektibitatea sortzen, baldin eta desberdintasunak ez badarama kontraesana bere baitan. Hau gabe, diferentzia, tranpa bat gertatzen da. Gauza berari buruzko aldakuntza besterik ez da. Horixe da, hain prezeski, kontraesaneko prozesu oro isileraztearen arrazoa; izan ere, zentsuraren edo karikaturaren bidez erradikalki kritikoa den prozesu oro zokoratu nahi izatea, buruargitasun nazionalaren endekapena lortzeko xedarekin akordatutako postura bat besterik ez bait da»⁴.

Aipua luzea da, ezpairik gabe, baina merezi zuen, zeren oso

bikainki laburtzen bait da bertan objektibitateaz mintzatzeko behar den baldintza-multzo hori. Izan ere, informazio objektibo batez gozatzeko, kritika eta azterketazko postura gorde behar da beti gertakarien aurrean —informazioa bera ere gertakari bat da—, kontraesana bilatu behar da, eztabaida, gertakariaren eta pentsamenduaren etengabeko dialektika batetan, burruka sozialen eremu-barruan, hots dominatzaile-dominatuaren erlazioan. Informazio objektiboa, hortaz, gertakariez jabetzean eta horiek «bir-kreatzean» datzan giza iharduera da, indibiduala eta kolektiboa; gertakariak «bir-kreatu» egin behar dira, zeren, zatikako informaziotatik abiatuz, berrosatu eta behar bezala interpretatu egin behar bait dugu «puzzle» soziala.

Gisa horretako eginkizun batek, aise gainditzen ditu subjekturik prestuenaren iaotasun guztiak. Informazioa, noski, botere bait da; informazioaren eta komunikazioaren teknologiak finkatu eta sendoagotu besterik ez du egiten klase dominatzaileen postura. Telematikaz, kablezko telebistaz, bideoaz, etab., esaten eta edasten den guztia —etorkizunak prestatzen digun mundu zoragarri horretan pentsarazteko, noski—, aginte-klaseari dago-kio, zeren horrek aurrerapen horietaz gozatu ezezik, areagotua ikusiko bait du bere botere soziala. Langileriak, bere gehien-goan, ez du oraindik koloretako telebista lortzeko aukerarik izan; eta kablezko telebistaren posibilitateaz ihardutea, beraz, «boutade» bat besterik ez da. Eta bidezkoa da, zeren koloretako telebista bat, gutxi gora behera, urte osoko oinarritzko alokairuaren %25 kostatzen bait da. Informazio objektiboaren errebindikazioak errebindikazio sozialen parte egin behar du, justiziazko alokairua edo autogestioa errebindikatzen diren arrazoi berberengatik.

Amaiera

Orrialde guzti hauetan zehar informazioaren teknologiaren eta komunikazioaren mundu konplexu honetan manipulazioaz dudan ideia irakurlearengana helerazten saiatu naiz. Eta McHale-ren eskemaz baliatu naiz horretarako, ikusten den bezala hainbat bider aipatu bait dut autore hori lan honetan zehar. Orain

zera eskatuko nioke, arren, irakurleari, alegia aurkeztutako pasadizo edo datuaren gainetik, gogoan jaso ditzala nire lan honen zutabe izan diren ideia nagusiak. Espionaiia sotil eta trauskiletetik hasi eta telekomunikabideen teknologia itzel horretaraino (ez ahaztu satelite artifizial espioiak) doan informazio fenomenoaren konplexutasunarekin batera, informazioa lortzeko burruka aspergaitz batez karakterizatzen da gure gizartea; zeren, informazioa, azken batean, botere bait da. Berak bakarrik mugierazten ditu izugarritzko dirutzak komunikabideak domeinatzeke eta beroien bidez aginte-klasearen eta, partikularzki, multinazionalen interesak segurtatzeko. Presio-talde horiek moldatzen dute beren informazio-agentzien bidez, gaurengotasuna edo aktualitatea; komunikabide guztietan eta bereziki entzunikusizko informazio-produkzioaren ia monopolio osoa den horretan mezuak etengabe errepikatuz, portaerako eta giza jokabideko ia modulu berdinak eta, nola ez, beren interes ekonomikoei komenigarrien zaizkienak ezartzen dituzte. Informazioaren manipulazioa, administraziozko zentsura edo egia-gordetze soil bat baino gehiago, zentzu honetan ulertu behar dela diot behin eta berriro. Manipulaziotik libre egoteko informazio objektiboaren bilaketa proposatzen genuen, zeren horrek, gertakarien azterketa eta azterketa dialektikoa exijitzen bait du, eta horretarako ez da aski ikuspuntu desberdinak jasotzearekin; aitzitik baizik kontraesana erabili behar da egia aurkitzeko bide bakarra bezala. Eta guzti hori klase-burruken textuinguruan noski, zeren informazioaren eta komunikazioaren teknologiaren desarrolloak boteretsuago egingo bait ditu boteretsuak, eta ahulago ahulak.

Behin lantxo hau irakurritz gero, informazioaren manipulazioari buruzko harako ideia sinplista hura (hots, publizitatera edo Administrazioaren aldetiko gertakarien deformazioa mugatzen den manipulazioari buruzkoa) irakurlearengandik nahiko uxatua geratuko zela espero dut. Beste inon ez bezala Euskadin ematen den esperientzia zera da, alegia, komisaldegietako torturak, detentzioak, manifestari eta polizien arteko burrukak eta abar... direla medio egin izan diren salaketetan jeneralean ez direla batera etortzen «gertakarien bertsio ofiziala» eta zuzeneko lekukoena, edo sarri askotan biktima gertatu direnena. Baina manipulazio-mota hau hain izan da trauskila, ze Estatuaren apa-

ratua, eta beraz Estatua bera, deskreditatzeko bakarrik balio izan bait du horrek. Alabaina, manipulazioari buruzko ikuspegi lokalista honetara mugatzea, aginte-klasearen boterearen euskarri nagusia bera dela ahaztea edo ez jakitea da. Eta horixe frogatu nahi izan dugu gure lan honetan.

Euskaratzailea: **Gotzon Nazabal**

R. Z.

¹ Jonh McHale: *The Changing Information Environment*, London, 1976. Tecnos argitaletxeak kaleratu berria du lan bikain honen gaztelaniazko itzulpena, nahiz eta estudioa bera laburra izan, «*El entorno cambiante de la información*» tituluarekin.

² *El País*, 1981eko irailaren 24ean.

³ Ikus *Le Monde*, 1979ko abenduaren 26koa. Xabier Weeger-en artikulua: «*Quand les codes secrets deviennent publics*».

⁴ B. Michaux: Qu'est-ce que l'objectivité de faits?, *La pensée*, 221-222, 92 or.

LA MANIPULACION EN LA INFORMACION

LA MANIPULATION DANS L'INFORMATION

El ciudadano desconfía de los medios de comunicación. La manipulación informativa se produce a pesar de ciertas noticias «objetivas» que se dejan filtrar de vez en cuando de forma bien dosificada.

El poder de la información

La manipulación informativa es casi imposible conocerla de forma completa. Porque los investigadores normalmente carecen de medios para abordar la manipulación que se da a todos los niveles institucionales. Porque la manipulación se produce en forma secreta.

Los grupos sociales pretenden controlar la información porque la información es fuente de poder. La lucha por el poder hoy es la lucha por la información. Watergate y las circunstancias que concurrieron en la dimisión del presidente Adolfo Suárez son una muestra de ello. Por otro lado la práctica del espionaje desde que el hombre existe y la utilización de dossiers secretos sobre la vida privada de los contrincantes políticos lo confirman.

Las multinacionales y los centros de decisión

Las relaciones entre el poder y la información han sufrido un cambio completo. Los factores que lo han provocado son: por un lado, el desarrollo del capitalismo en forma de empresas multinacionales que sitúa el centro

de decisiones importantes de un Estado fuera de él; y, por otro, la vertiginosa e increíble nueva tecnología de comunicación.

Las multinacionales de la información invierten fabulosas cantidades de dinero, porque la información es un gran negocio. El planteamiento de una televisión privada en el Estado Español ha encontrado eco en numerosas empresas solicitantes. Ello comporta un riesgo importante para la libertad.

La manipulación es ocultación, censura, medias verdades. Pero la peor manipulación es aquella de la que no se es consciente: la «American view of life» que difunden numerosos telefilms; el monopolio informativo de unas pocas agencias americanas de noticias; el monopolio americano de la tecnología de telecomunicaciones.

La información objetiva

El desarrollo de la libertad de la persona depende de una información objetiva. Pero objetividad no es neutralidad. La información objetiva es la adquisición, individual y colectiva, de hechos y su «re-creación» desde un contexto social críticamente interpretado. Una tarea de estas características supera ampliamente las posibilidades de los individuos. La información objetiva constituye una de las reivindicaciones sociales importantes del ciudadano.

Le citoyen se méfie des moyens de communication. La manipulation de l'information se produit malgré les nouvelles exactes, «objectives», qu'on laisse filtrer parfois de façon bien dosée.

Le pouvoir de l'information

Il est quasiment impossible de connaître de façon complète la manipulation de l'information. Parce que les chercheurs manquent normalement de moyens pour saisir la manipulation qui s'effectue à tous les niveaux institutionnels. Parce que la manipulation s'effectue sous le mode secret.

Les groupes sociaux prétendent contrôler l'information parce que l'information est source de pouvoir. La lutte pour le pouvoir aujourd'hui est la lutte pour l'information. Watergate et les circonstances qui concoururent à la démission du président Adolfo Suárez en sont une démonstration. D'autre part la pratique de l'espionnage depuis que l'homme existe et l'utilisation de dossiers secrets sur la vie privée des concurrents politiques le confirment.

Les multinationales et les centres de décision

Les relations entre le pouvoir et l'information ont subi un changement complet. Les facteurs qui l'ont provoqué sont: d'une part, le développement du Capitalisme sous forme d'entreprises multinationales qui situe le centre des décisions importantes d'un Etat en dehors de lui: et, d'autre part, la vertigineuse et l'incroyable nouvelle technologie de communication.

Les multinationales de l'information investissent des sommes fabuleuses d'argent, parce que l'information est un négoce. Le projet d'une télévision privée dans l'Etat Espagnol a connu un grand écho auprès des entreprises sollicitantes. Il comporte un risque important pour la liberté.

La manipulation est occultation, censure, demi-vérités. Mais la pire manipulation est celle dont on n'est pas conscient: l'«American view of life» qui diffuse de nombreux téléfilms; le monopole d'information de quelques agences américaines de nouvelles; le monopole américain de la technologie de télécommunications.

L'information objective

Le développement de la liberté de la personne dépend d'une information objective. Mais l'objectivité n'est pas neutralité. L'information objective est l'acquisition, individuelle et collective, de faits et sa «re-création» à partir d'un contexte social interprété de façon critique. Une telle tâche dépasse amplement les possibilités des individus. L'information objective constitue l'une des revendications sociales importantes du citoyen.

Gaztelaniazko prentsa Euskal Herrian

Estepan Aldamiz-Etxeberria

Euskal Herrian prentsa —egunkari eta aste-kari, nahiz hilabetekari edo hiruhileroko— aski txarra edota eskasa daukagula esatea, ezer gutxi esatea izan daiteke. Gaztelaniazko edo nagusiki hizkuntza hau erabiltzen duen prentsaz ari gara, noski. Ezer gutxi esatea bada ere, zail egiten zait oso prentsa onik —are gutxiago oso onik— daukaguna aditzera ematea. Eta hau ez da seguru aski besapetik atera dudana baieztapen bat: kaleko edonori daukagun prentsaz galdatuz gero, antzeko zerbait eta agian gogorragorik ere erantzungo bait liguke. Apur bat pentsatuz gero, Euskal Herritik kanpora dauden beste eredu batzuri begira bizi garela esan daiteke trankil asko: Madrileko *El País*, Pariseko *Le Monde* nahiz beste edozeini. Azken batez, hemen ez daukagun zerbaiti.

Orain aurkeztuko dudanarekin, ez dut inola ere katedra bat ezartzeko asmorik. Agian, eta gehienez ere, eztabaida bati hasiera emateko moduko zenbait arazo planteatu nahi nituzke;

eta lan hau Euskal Herrian sortzen den euskarazkoa ez den prentszaz ari delarik, lehen bait lehen prentsa horren deskribapen soil batez hasiko natzaizue.

* * *

Egun, Euskal Herrian zehar, zortzi bat egunkari aipa genitzake: *Sud Ouest* (Euskal Herrirako duen edizioa), *El Diario Vasco*, *Egin*, *El Correo Español* (azpian «El Pueblo Vasco» jarritz), *Deia* (azpian «Gure Lurraren Deia» duela), *La Gaceta del Norte*, eta *El Diario de Navarra*. Guztiok goizekoak dira, eta baita orain gutxi desagertu zen Nafarroako zen *El Pensamiento Navarro* ere. Arratsaldekoak, berriz, bi geratzen dira: *Norte Express* eta *Hierro*. Guztiontzat ezaguna dateke Gipuzkoako *La Voz de España* eta *Unidad* egunkarien desagertzea: hauek Bilboko *Hierro* bezalaxe, Diktadura-garaiko «mugimendu»koak ziren, gerora «Estatuaren Komunikabide» elkargora igaroko zirenak.

Astekarien kapituluan, berriz, aspaldian ez bezalako hutsune nabarmena dugu. Berriki joan zaigu pikutara *Ere* kazeta, une batez *Punto y Hora de Euskal Herria* bakarrik geratu zitzaizularik aipagarri. Duela gutxi kaleratu da astekari «berri» bat: *Euzkadi* deritza eta oraintsu arte Euzko Alderdi Jeltzalearen barne-kazeta zenaren birregituratze eta birplanteatze baten ondotik, astekari orokor bihurtu dute.

Egunkarien urritzea

Zortzi egunkari aipatu ditugu eta benetan gutxi dira hiru milioitako biztanlego batetan, gerraurreko egunkarigintzari begiratuz gero. Bilbo bera, esate baterako, hamar egunkari izatera iritsitako hiria dugu garai hartan. Krisi larriko urte hauetan, ez da guztiz erraza prentsaren azterketa egoki bat egitea. Hala ere, diktadurapetik irten bezain laster, *Egin* eta *Deia* egunkarien sorrera dugu ezaugarri nagusia.

Oro har, eta oso gutxi gerabeherako zifratan mugatuz, goitik jota larehun mila bat egunkari-ale saltzen dira egunero Hego Euskadin. Horretan jakitun direnek diotenez, irakurlego-maila ez

omen dago inola ere gaizki. Garai batez hainbat egunkari desberdinetan barreiatzen zen irakurlegoa, gaur egun espektro mugatu baten irakurle bihurtu zaigu, agian halabeharrez, edota agian, baldintza teknikoek eta kazetaritzaren bilakaera ahul batek, beste eskaintzarik egiten ez diotelako oraindik.

Egunkariekin jarraituz, deskribapen simple bat egin genezake lehenik: *Sud Ouest* egunkari kontserbatzailea dugu batipat, baina Ipar Euskadin asko saltzen dena, agian bakarra delako, baina baita herri eta herriska bakoitzari uzten dion lekuagatik ere. Horretan, *saltzera* doan egunkari baten ezaugarri guztiak ditu.

El Diario Vasco eta *El Correo Español*, Donostiakoa lehen a eta Bilbokoa bigarrena —hau delarik Araban, Errioxan eta Eibarren salduena— egungo Euskal Herrian prentsa-enpresarik garrantzitsuena osatzen bide dute. Gehien batetan UCD inguruko jendeen diruz eraikiak biak —zenbait pertsonaz aparte, Administrazio-kontseilu bera dute bi egunkariok—, baina *saltzeko* izpirituz eta helburuz muntatuak batipat. Gaur egun Euskal Herrian «oposizioko» izanik, ez dute gaien zabaltzeari ekiteko beldurrik, ez eta, behar izanez gero, bere orriak PSOeri eskaintzeko oztoporik ere.

Deia, Euzko Alderdi Jeltzaleari oso lotua dagoen egunkaria dugu, hots, egun Euskal Herriko gobernuan dagoen alderdiaren egunkaria. Gauzak honela, edozein egunkaritan —talde bati lotua dagoen neurrian— senti daitekeen presioa edota mediatizazioa, are gehiago nabarmentzen da egunkari honetan.

La Gaceta del Norte, egun hil-biziko borrokan diharduen egunkari bilbotarra dugu. Eskuindarren diruz sortua, garai batez bere konpetitzaile zuzena zen *El Correo Español* baino irekiagoa eta ausartagoa izan zen. Gerora, Franco hil ondoan, eskuindarrek eskua gogortu zuten eta horrek irakurlegoa asko murriztu zion, besteak «ausardian» eta «zabaltasunean» erreleboa hartuz. Forrot honetan, *Deia* eta *Egin*-en kaleratzeak ere eragin zuen. Dena esan behar bait da: Gaur egun, zuzendari «irekiago» bat jarri diote eta hor dabil erredakzio-ekipo osoa, egunkaria urgainera ateratzeko eginahalean.

Egin Herri Batasunaren inguruari atxekia dugu egun eta agian hau dugu erabat oposiziogintzara emana dagoen egunkari

bakarra. Esan nahi bait dut, Herri Batasuna koalizioaren ildoetatik, gainerako guztiari aurpegi ematen dion egunkari bakarra dugula. Hala ere, aspaldion murrizturik datorkigu, hasiera batetan agertutako indarra ahulduz doakiola. Honetan *Egin* eta *Deia* egunkari bien bilakaerak merezi luke azterketa sakon bat. Biak sortu bait ziren helburu guztiz miresgarriekin: herria, informazio egiazkoa, etabar luze bat. Egun, bidearen gogorragatik edo, oso bestelakotuak daude, ordea.

El Diario de Navarra dugu gaur egun Nafarroako egunkari bakarra. Guztiz kontserbadorea, baina Nafarroako herriska guztiei eta nekazalgoei zerbitzu egoki bat eskainiz datorrena. Esaten duenagatik baino dakartzan anuntzioengatik gehiago saltzen den egunkari izatearen osperik ere badu honek. UCD inguruko jendeen eskuetan dagoen arren, ezin esan daiteke zuzenean UCD-ren organo denik. Hori bai, guztiz «navarrista» da, horretan ez dago galtzerik!

Arratsaldeko bi egunkariez, berriz, ezer gutxi esan daiteke, kalitate oso urrikoak direla baieztatzeaz bestalde. *Norte Express* egunkaria, Arabar eskuin-eskuinaren eskuetan dago eta Bilboko *Hierro*, azkenik, lehen esan bezala, «Estatuaren Komunikabideak» elkargoaren barruan dago.

Astekarietara pasatuz *Punto y Hora*-ren Herri Batasunarekiko lotura aisa antzeman daiteke eta orain gutxi ezkutatu den *Ere* kazetak Euskadiko Ezkerrarekin zuena ere aski garbi zegoen. Azaldu berri den *Euzkadi*-k Euzko Alderdi Jeltzalearekiko loturak gordetzen dituen bezalaxe.

Prentsaren independentzia, non?

Deskribapen motz honetatik ageri zaigunez, kazeta gehienak talde politikoeekin oso lotuak dauzkagu, bertako kazetari askok nahiko lukeenaren kontra.

Guztiz zail egiten zaigu, horregatik, egiazko pisua duen medio bat seinalatzea. Nahitaez bururatzen zaigu, kazetari-munduan Madrileko *El País* egunkariaren kasua. Ia guztiz utopikotzat eman daitezkeen arren objektibotasunaren nahia eta helburua, ezinbestekoa dugu maila bat mantentzen duen egunkari si-

nesgarri baten neurri batetako eredu. Guztiz azpimarratzekoa da Euskal Herrian gutxieneko ospe bat irabazi duen egunkaririk ez izatea.

Une *politiko* bat bizi dugu gaur Euskadin. Prentsa guztia politikaz «hunkiturik» egotea ez zaigu, beraz, inola ere harri-garri. Are gehiago politika ez delarik, aspaldi bateko moduan, Madrilen egiten zuten zerbait. Politiko bihurtu bait zaizkigu, ez bakarrik udaletxeetako arazoak, baita festak ere. Egunkarietako kutsapen honen ondorioz, «politikoa» ez den kazetaritzari lekua kendu zaio, eta ez beti irakurle gehienengustora.

Nolako herria, halako prentsa

Euskal Herria, neurri oso handi batetan eta prentsari gagozkiola, «kolonia» bat da. Ez daukagu ospe berezko egunkaririk. Are gutxiago astekaririk. Arlo honetan, gorago esan bezala, hutsunea nabarmena da, eta ez jendeak astekariak irakurtzen ez dituelako. Gustora irakurtzen bait dira Madrilen eta Barcelonan argitaratzen direnak, eta ez daukagu izenak aipatzen hasi beharrik. Humore-prentsa falta zaigu, baita sakonki informatiboa dena ere. Aagian, medioak falta zaizkigu; baina hutsuneak hor daude.

«Nolako herria, halako agintariak» esan ohi da; eta hau prentsari ere aplikatu geniezaioke. Besteak beste, Madrile bezalako hiri batek bezainbateko biztanlegorik ez duen herria garelarik, probintzialkeriaz jositako elkartasun ahul bat gara. Batzuei, beharbada, gauzok horretan irautean komeni zaie santa sekula osoan. Baina dudarik ez, geuron artean ere asko zaintzen dugu etsaigo hau. Prentsa badu hortaz nahiko lan, desberdintasunotara egokituz, Euskal Herria globalki eta bere osotasunean tratatzen. Zabal heltzen duenak, gutxi estutzen omen du. Hauxe gertatzen zaio Euskal Herriko prentsari. Azken batez, probintzialismoaren usainez erabat kutsatua azaltzen zaigu. Eta hau benetan gainditzeko, oztopoak asko dira.

Bestalde, herri txiki izateak baditu bere abantailak prentsari dagokionez. Baita, haatik, bere inkonbenienteak ere. Esate baterako, salaketa bat egin behar baldin bada, oso egoera desberdinean aurkitzen da Madrileko egunkari handi bat, Euskal He-

iriko edozein aldizkariren aldean. Guztiok «elkar ezagutzeak» bere trabak jartzen dizkio kazetariaren lanari.

Ez da beraz harritzekoa, egiazki notizia gertatzen diren sakaketa handiak, kontakizun berriak, Euskal Herriaz kanpoko egunkarietan aurkitu beharra, bertakoak haien bozemaile bihurtzen direlarik. Baina, gauza oso beltz pintatzen dudala esango dutenentzat, rodaje baten falta izan daitekeela ere onartuko nuke, nahiz eta beste batzuek rodaje hori guk baino denbora laburragoan egina dutela gogoratu ahal izan.

Euskaldungotik urrun

Euskal Herrian argitaratzen den erdal prentsaren inguruan, kasu aina erreflexio egin daiteke. Kazetariaren aldetik, informazioa eskaintzeko minimo batzuk gordeaz aritu ohi dela esango genuke, agian medioak ugariegiak ez direneko limitean. Hala ere, eta Euskal Herriko prentsaz ari garenez, euskaldungoari eskaini ohi dioten arretaz eta arduraz zerbait gehiago ere esan daiteke.

Euskarari dagokionez, *Egin* eta *Deia* izan dira bide berriak nolabait urratu dituztenak. Lehenago, *El Diario Vasco*-k edota garai hartako *La Voz de España*-k, donostiarrak biok, garo-usaiari oso lotutako espaziotxoak uzten zizkioten baserri giroari.

Aipatu bi egunkariak kaleratu ala, euskarak tratamendu berriak ezagutu ditu prentsaren barruan: hala ere —eta apurra ezereza baino hobea dela onartuz—, azken batean, ez ote den testimonialismo hutsa egiten galda genezake. Agian, eginkizun pedagogiko bat ere badateke. Bi egunkarion euskaragintzak, nolahi ere, beste egunkariren batetan euskara gehitzeko ahalegina ekarri du. Donostiako *El Diario Vasco*-n, esate baterako.

Euskarazko informazioaren gorabeherak guztiz xebreak dira; aurrerago aztertuko dugu hori. Baina orohar, eta Franco hil ondoko bilakaeran egunkariak kolorez dextente aldatu badira ere, ezin utz genezake aipatu gabe kazetarien euskaldungoarekiko urruntasuna, Esan izan denez, frankismo-garaiak eskola bat utzi du kazetariengan, baita kazetetan ere. Hortaz, belaualdi berriek zer ekarriko duten ezagutu beharko.

Elebitasun gaitza

Kazeta bat, dela egunkari dela astekari, zio oso bat da, hasieratik bukaeraraino. Goitik behera erdaraz expresatzen diren kazetotan euskara presente egotea aurrera-pausua da zalantzarik gabe. Hala ere, euskarak badauzka bere komeriak erdal medio baten barruan.

Jakin ere ongi dakigu, euskara, egunkari baten barruan, guxtiengo batek irakurriko duena. Hortik atera kontuak zein hizkuntzatan eman beharko den berria.

Ez da ahaztu behar kazetari gehienak, egunkarietako zuzendaritzak barne, elebidun ere ez direla, ia erabat erdaldunak direla. Euskara, beraz, gauza arrotza da, interferentzia bat; onean berriz, gure herriaren erreibindikapenetako bat. Kasu egingo zaio, asko maite den baina konprenitzen ez den haurrari bezala. Hori bai, inor gutxik daki euskara nola erabil, zein neurritan, zein gaitan, eta beste hartan zergatik ez. Inprobizazioaren ondorioa izango da gehienez: borondaterik onenarekin egin daitekeen zerbait.

* * *

Esaniko guztiak nolarebait bildu nahirik, ezer biltzekorik balego, esan daiteke Euskal Herriak baduela erdarazko prentsa indartsu bat, orotara harturik. Hala ere, ez daukagu Euskal Herria, bere osoan eta egunero, ikuspegi zabal batetatik, atalaia zabal baten gisa, eskainiko digun egunkaririk. Horretan, probintzialkeriak eta, Bizkaiko kasuan are nabarmenago, Bilbotarkeriak joak ditugu kazetok.

Hutsuneak asko dira, sail bereziak —kultura, ekonomia, etabar— gutxi lantzen direlarik. Egunkariak, bestalde, gehiegizko politizazioak joak daude neurri handi batetan, irakurleagoak ere, kalitatea baino lehenago, dakarren kolorea neurtzen duelarik.

Eritzien lekua, berriz, ez da asko lantzen, orokorki hartuta, idazleen arteko ikamikak aski ugariak ditugularik. Inprobisazioz jokutzen da asko, edota Madriletik datozen izkribuez baliatzen. «Probintzietako» egunkari direla gure hauek, ezin uka. Agian ez dute —ezta berriek ere— kalitatearen eta produktua-

ren berrikuntza sakonik. Mediatizatuegiak daude apika. Nola-nahi ere, inor gutxi aipa dezake gaur egun Euskal Herriko egunkari bat kazetagintzaren eredu bezala. Ez da makala gure hau!

Astekariak ez dute behar adinako oihartzunik sortzen, medio urriz egiten direlako edo. Dena dela, kanpoko erdal astekariak erosi beharrean izaten gara gehienetan, gauza berririk irakurri nahi dugunean.

Beharbada, kantu pesimistegia da gure hau, baina Euskal Herriak gaur egun duen gaztelaniazko prentsa hau baino hobetik iritsi beharrean gaudena adierazten duen kantua ere bada.

E. A.-E.

LA PRENSA ERDILDUN EN EUSKADI LA PRESSE ERDILDUN EN EUSKADI

El artículo parte de la siguiente constatación: la prensa del País Vasco que emplea sólo o casi exclusivamente el castellano es de escasa calidad.

En Euskal Herria tenemos 8 diarios de la mañana y 2 de la tarde. Como semanarios continúa **Punto y Hora de Euskal Herria** y **Euzkadi**, que ha aparecido recientemente.

Ocho diarios son pocos diarios, comparados con los existentes antes de la guerra. Los lectores de los 400.000 ejemplares que se venden aproximadamente en Euskadi Sur se encuentran ante una oferta muy limitada. De estos diarios unos buscan la difusión comercial; otros están muy ligados a grupos políticos. Se siente pues vivamente la necesidad de un periódico que tenga voluntad de objetividad, al estilo de **El País**, por ejemplo.

En cuanto a la prensa, Euskadi es hoy una colonia. Careciendo de un gran diario, de semanarios informativos y de humor propios, nos vemos obligados a recurrir a la prensa de Madrid y de Barcelona. Somos un pueblo marcado por el provincialismo. Ello constituye un serio óbice para una prensa que pretenda informar sobre Euskal Herria desde una perspectiva de nación. Además somos un pueblo pequeño. Ello, si bien entraña ciertas ventajas comporta asimismo inconvenientes como el de dificultar la función de denuncia.

Desde el punto de vista periodístico puede decirse que la información salva los mínimos exigibles. No así si se tiene en cuenta que debe dirigirse al mundo euskaldun.

Egin y **Deia** han abierto nuevos caminos en la utilización del euskara. Pues **El Diario Vasco** y **La Voz de España** que tenían algunos espacios muy

reducidos en euskara se dirigían al mundo rural. A pesar de que lo poco que se hace en este sentido es más que nada, puede preguntarse si no adolece de testimonialismo. El mundo periodístico está muy lejos del mundo vasco. La época franquista ha dejado una profunda huella en periódicos y periodistas.

La presencia del euskara en estos medios erdaldunes en los que los periodistas, incluidos los directores, no son bilingües en general, se siente como una interferencia extraña. No serán de extrañar los resultados si se tiene en cuenta que el euskara será leído sólo por una minoría y que se carece de criterios para determinar cómo, en qué medida, en qué temas se ha de emplear el euskara.

El artículo concluye constatando la presencia de una prensa erdaldun fuerte y abogando por una prensa que supere el provincialismo y adopte una perspectiva nacional, descuide menos secciones como la economía, la cultura y la opinión, y sea menos politizada.

L'article part de la constatation suivante: la presse du Pays Basque qui utilise seulement ou quasi exclusivement le castillan est de qualité insuffisante.

Nous avons en Euskal Herri 8 quotidiens du matin et 2 du soir. Comme hebdomadaires: «Punto y Hora de Euskal Herria» continue, et «Euzkadi» qui est sorti récemment.

Comparé à ceux d'avant guerre, 8 quotidiens c'est peu. Les lecteurs des 400.000 exemplaires qui se vendent approximativement en Euskadi Sud se trouvent face à une offre très limitée. Parmi ces quotidiens, certains recherchent la diffusion commerciale; d'autres sont très liés à des groupes politiques. On ressent ainsi vivement la nécessité d'un quotidien qui ait une volonté d'objectivité, dans le style de *El País*, par exemple.

Quant à la presse, Euskadi est aujourd'hui une colonie. Manquant d'un grand quotidien, d'hebdomadaires d'information et d'humour propres à notre pays, nous nous voyons obligés de recourir à la presse de Madrid et de Barcelone. Nous sommes un peuple marqué par le provincialisme. Ceci constitue un sérieux obstacle à une presse qui prétend informer sur Euskal Herria à partir d'une perspective de nation. De plus nous sommes un petit peuple. Si ceci représente certains avantages, de même il comporte des inconvénients tel que celui d'assurer la fonction de dénonciation.

Du point de vue journalistique, on peut dire que l'information assure le minimum exigible. Mais il n'en est pas ainsi si l'on tient compte qu'elle doit s'adresser au monde basque.

Egin et Deia ont ouvert de nouvelles voies dans l'utilisation de l'euskara. El Diario Vasco et La Voz de España qui avaient quelques espaces très réduits en euskara s'adressent au monde rural. Malgré que ce qui se fait soit mieux que rien, on peut se demander si l'on ne verse pas dans le témoignage. Le monde journalistique est très loin du monde basque. L'époque franquiste a laissé une profonde trace dans les périodiques et chez les journalistes.

La présence de l'euskara tant dans ces moyens erdaldun que chez les journalistes, y compris les directeurs généralement pas bilingues, se ressent comme une interférence étrange. Les résultats n'étonneront pas si l'on tient compte que l'euskara sera lu seulement par une minorité et qu'on manque

de critères pour déterminer comment, dans quelle mesure, et pour quels thèmes utiliser l'euskara.

L'article conclut en constatant la présence d'une presse erdaldun forte et en plaidant pour une presse qui dépasse le provincialisme et adopte une perspective nationale, néglige moins des domaines tels que l'économie, la culture, l'opinion, et qui soit moins politisée.

MAHAI-INGURUA

Ondoko mahai-inguru hau 1981eko abenduaren 18an ospatu dugu JAKINen bulegoetan. Luis Alberto Aranberri «Amatiño», Jose Felix Azurmendi, Jose Mari Otermin eta Jesus Mari Zalakain ditugu solaskide, eta Jose Azurmendi eta Joan Mari Torrealdai gidari.

Bi parte ditu mahai-inguruak: txostenen irakurketa, eta elkarrizketa. Txostenek zein elkarrizketak ardatz bakar bat dute: Euskal Herriko komunikabideak, hauen egoera eta etorkizuna.

Aldez aurretik idatzita ekarri behar bait zituzten, mahai-inguruan irakurri egin ziren txostenak. Eritzi bilketa eta konfrontaketa nahi genuenez, txostenak oro gai bera eta eskema bera zuten. Honako hau:

KOMUNIKABIDEAK EUSKADIN (telebista, irratia, prentsa idatzia)

- 1) EGITARAUA
 - a) Egungo komunikabideen egoeraz zure analisia eta eritzia.
 - b) 10 urte barrurako zure ustezko proiektuaren lerrorik azpimarragarrienak.
 - c) Elkarrizketa.
- 2) GIDOIA (*edo kontuan edukitzeko puntuak*)
 - jabeagoa: publikoa/pribatua
 - hizkuntza: euskara/erdara
 - autonomia: bertokoa/kanpokoa
 - ideologia: ezkerre/eskuina
 - politika: abertzalea/ez-abertzalea
 - helburua: funtzioa «betetzen» duten ala ez
 - proiektu konkretuei buruzko zure eritzia (adibidez, Eusko Jaurlaritzak eginak)
 - errebindikapen eta proposamen konkretuei buruzko zure eritzia (adibidez, EHEk eginak)
 - kontutan har: lehentasunak, epeak, kostua, eta abar.

Orrialde honi lagunduz eginikako gutunean, gaiari nola oratu zehaztu nahian, pare bat ohar egiten genuen: 1) «...*gidoi-moduko puntu-lerrokada hori ez da eskema bat, analisia egiterakoan eta eritzia ematean nondik nora ibili jakin dezazuen gida bat baino. Aipatu puntuok, ba, denak dira tratatzekoak, baina ez horrela, banan bana eta bereziki. Zer azpimarratu eta zer arinago tratatu, hori ere bakoitzaren esku dago*». Eta 2) «...*zuen erantzunetan izan zaitetze, abal den neurrian, konkretu, zehatz, praktiko: zuen erantzunok egiten denaren eta daitekeenaren mailan eta, etorkizunari begira, egingarriaren eta behar denaren mailan kokatuz*».

Hona gure eskaria. Eta hona, hurrengo orrialdeetan, jaso duguna. Zer esan gure aldetik?

Txosten batetik bestera alde handia dago. Alde handia ez soilki ikuspegiaren aldetik, guk nahi genuen bezala. Txostenok ez dute sarritan elkarrekin kointziditzen, ez trataera mailan ez eta gaiaren eremuan. Gehienetan ez dute eskema osoki jarraitzen, eta inoiz berorretatik urundu ere egiten dira. Amatiño prentsa idatziaz ari da soilki, prentsa idatziaren egoeraz eta bilakaeraz, baina ez etorkizunaz. J. F. Azurmendi eskatutakotik urrun dabil, *Egin*-en perspektibatik objetibotasunaz ari bait da. J. M. Oterminek oraina eta geroa, biak, aztertzen ditu, baina irratuari dagozkionetan bakarrik. Proposaturikako gidoiari J. M. Zalakain hurbiltzen zaio gehien.

Txostenak irakurri eta gero, elkarrizketaren txanda dugu. Orduak ere aurrera eta, zabaletik jo beharrean, telebista eta irratia gure solasalditik ia bazter uzten ditugu prentsa idatziari sakonkixeaago lotzekotan. Asmo genuen bezala, prentsa idatziaren barruan, euskal kazetaritzari lotu gatzazkio, eta bereziki euskarazko prentsari.

Oro har, eta besteak beste, aportazio baliagarriarik frango aurki dezake irakurleak, bai txostenetan eta bai elkarrizketan.

Komunikabidez komunikabide

Jesus Mari Zalakain

I. — EUSKADIKO KOMUNIKABIDEEN ANALISI LABURRA

1. Komunikabideak eta ingurua

Euskadiko komunikabideak zer diren eta nola mamitzen diren aztertzeko —egoerari zuzenki heltzeko—, beharrezkotzat jotzen dut ingurune politikoa nolabait begiztatzea. Ezin baita, izan ere, komunikabidearen zentzua atzeman, abstraktuki eta egoera zehatz eta historikoa alde batera utziz. Alderantziz, inguruneak berak, testuinguruak baldintzaten ditu komunikabideak. Ingurunearekiko lotura, bestalde, ez da kanpotiko lotura meharra, baizik eta barnetik dagokien funtsezko elementua. Hori baita azken batean komunikazioaren definizioa, hots, joan-etorria duen mezu baten gorabehera. Emailea eta hartzailea ezin daitezke, inolaz ere, testuingurutik bereiztu, zeren, pertsonak izanik, bizi diren lurraldeak berak ematen baitie izatea.

Hori horrela izanik, Euskadi bera, gaurko

egoera, bertako biztanleen asmo, gogo, nahi, desio, intentzio eta premiak, komunikazioaren zati dira. Eta komunikabideek horiei bide eman behar diete.

Azken batean, komunikabideak tresna dira. Berorien egokitasuna, ordea, testuinguruan kokatzean datza. Testuinguru hau, edota Euskadiko une historikoa zer-nolakoa den jakiteak eta aditzera emateak nahikoa lan ematen dio edonori, zeren erabaki ideologikoarekin zerikusi handia baitu. Dena delarik, ene ustez, Euskadiz zer ulertzen dugun, lehen eta behingoz, ez badugu aztertzen, lekutik kanpo gabiltzalakoan nago. Hurbilketa bat egiten saiatuko naiz.

a) *Euskadi nazio ukatua.*

Euskadiz ari naizenean, beronen eremu osoaz ari naiz, hau da, Euskadi osatzen duten zazpi probintziez. Ez naiz, bada, komunitate autonomora mugatzen, nahiz eta egitura politiko mugatu honen garrantzia ezagutu. Beste era batean esateko, Euskadi projektu politiko bat da, datu historikotan oinarritua, jakina, baina, sakonean, projektu politiko bat. Askok amesten duguna. Euskadi, projektu politiko honetan sinesten dugunontzat, nazio bat da. Ez probintzia bat. Egun, bi estaturen menpekotasuna jasaten duena. Bere jabegorik ez duena.

Euskadi, beraz, nazio ukatu bat da. Bi estatuotako indar eta legerian, ez dago egon ere, izaera bera ukatzen baitzaio.

Guri dagokigunez, hau da, Hegoaldeko euskaldunoi dagokigunez, Espainiako Estatu barneko zatia dugu ezagunena. Eta hemengo zatiketa zaigu mingarriena. Politika ofizialean, Euskadiz hitzegitea, hiru probintziaz hitzegitea baita, hots, Nafarroa kanpoan geratzen delarik.

Bestalde, eta azkenik, Euskadin, hiru hizkuntza nahasirik bizi dira: euskara, umezurtz eta nahikoa zanpaturik; frantsesa zein gaztelania edo espainiera harro eta zanpatzaile. Hitz teknikotan esateko: egoera diglosikoa nabari dagoela.

b) *Demokrazia burgesa.*

Komunikabideen funtzioa ezagutzeko, zeri bide ematen dio-

ten begiratu besterik ez dago. Bideratze hori taiuz betetzen badute, einkizuna bete dutela esaten da. Gure garaiko komunikabidearen zeregina bat da; iraultza biziaren garaikoa bestea; nazio baten egiturapenarena honelakoa; eta nazio baten erreperazioarena, halakoa. Gizarte sozialistetan eta demokrazia burgesetan, komunikabideek duten betekizuna ez da batere berdina. Adierazpen askatasuna aipatzen denean, adibidez, ezin da neurri bera erabili, zerbait ulertu nahi bada, behintzat. Esandakoa laburtzeko, zera esan nezake: Euskadi, demokrazia burges baten menpe dagoen erreperaziorik gabeko nazio bat dela.

Ingurune honek mugatuko du nire ikuspegia: alde batetik, demokrazia burges baten eskakizuna eta bestaldetik, nazio ukatu baten burujabetasuna lortzeko premia. Ikusmolde hau kontutan harturik emango dut komunikabideekiko nire eritzia eta egingo nire analisisia.

2. Publikotasunik eza eta kanpotasuna

Jabegoari gagozkiorarik publikotasunik eza nabarmentzen da. Prentsa idatzian, esaterako, pribatizazio osoa dago. Gure artean ezagutzen diren egunkariak esku pribatutan daude. Esku pribatu horiek ez dute zerikusirik, *Egin*-ek salbu, goian aipatu proiektu politikoarekin. Oro har, Euskadiko prentsa idatzia beste interes batzuei lotuta agertzen da. *Sud Ouest* Iparraldeko kontserbatzailea Parisi lotua, ez, ordea, egungo gobernuari, noski. Hegoaldeko guztiek, bik ezik, UCDren gobernuari atxekimendu osoa diote. Nafarroako bakarra, hau da, *El Diario de Navarra*-k «nafarkeria» plazaratzen du. *Egin* eta *Deia* besterik dira. Nahiz eta esku pribatutan egon, pribatizazio horren mugak guztiz desberdinak dira. Nolabait esateko *Egin* herri proiektu eta jabegoari lotua sortu zen eta jarraitzen du, diru partizipazioa kontutan hartzen badugu, bederen. Alde horretatik, beraren zeregina proiektu politiko zehatz baten zerbitzuan egotea da: HBren inguruko proiektuarenean, hain zuzen ere. *Deia*, berriz, proiektu autonomisten eredu garbia da: gobernu autonomoaren eta berori gidatzen duten alderdikideen eskutan baitago.

Aldizkarietan, mugak estuagoak dira oraindik. Izan ere, dau-

denak, *Punto y Hora* eta *Euzkadi* eta *Muga*, *Egin*-i eta *Deia*-ri zuzenki lotuak baitaude, edota atzean dituzten enpresei. Aldizkarien urritasuna, bestalde, komunikabideen munduan genero honek duen krisiaren islada baino ez da.

Euskal prentsa, edota euskara hutsean azaltzen dena, behe-rago aipatuko dugu, egoera guztiz berezia baitu.

Irratietara mugatzen bagara, berriz, publikotasunik eza hor-txe agertzen da. Alde batetik COPE katean oinarritzen diren Herri Irratiak, eta SER kate osoa irrati pribatu direlako. Eta beste guztiak, estatuaren ondasun direlako: Irrati Nazionalak, *Juven-tud* irratiak, eta *La Voz* irratiak. Argi dago estatalismoa ez dela publikotasuna. SER eta COPE kateetan, estatuaren partizipazioa ez da urria: %25ekoa gutxienez.

Telebistara pasatzen bagara, oraingoz estatuarena bada, be-rehala sortuko dira, antza denez, enpresa pribatuak. Ez, ordea, publikoak, hau da, estatuaren kontrol minimoa baino izango ez duten telekateak, guztion diruz ordainduko liratekeenak eta lan-gile eta profesionalen eskutan egongo liratekeenak.

Beraz, jabego pribatu edo estatala izatetik eta projektu po-litiko zentralista eta zentristaren zerbitzuan egotetik dator gure komunikabideen kanpotasun edo arrotasuna. Bestalde, Euskadi-ko prentsa guztia prentsa politikoa da edota politikagintzari es-tuki lotua dago. Eta hori ez da ez ona ez txarra. Hori egoera-ren ispilu izatea baino ez da, konfrontazioaren burrukaleku agian. Abertzaletasunak badu bere egunkaria: *Egin*. Gobernu zentra-larekin txanzetan dabilen nazionalismoak ere bai: *Deia*. Zentruak eta eskuinak, zer esanik ez. Ezkerrak, ez duela egunkaririk dio. Nire eritzia, ordea, besterik da, hots, ezkerreko egunkari baka-rra, *Egin*, ezkerreko talde edo koalizio zabalaren eskutan da-goela, eta beste ezker taldeek jabego hori nahi luketela.

Irratien kanpotasuna askoz ere nahasiagoa da. Goian aipatu projektua neurri gisa hartzen badugu eta irratiaren beste alder-diak ahaztu gabe, zer esanik balego, hauxe esango nuke, alegia, projektu hura ez dagoela Euskadiko irrati kateen lehentasune-tan. Irratiaren funtzioa prentsa idatziarena baino askoz ere za-balagoa da behingotasuna nagusi duelarik. Dena dela, bertako-tasuna, herri-kultura, hizkuntza nazionala, herri-giroa eta gogo

neurtzailetzat hartzen baditugu, zer esanik ez, Herri Irratiek izan duten eta duten arrakasta ezin dela konparatu ere egin beste irratiek dutenarekin, zeren, 1978ko azaroan COPEk galdu zuen autonomia aipatzekoa izanda ere, ezin uka berorren herritartasuna. «Radio bonete»tzat hartzen badira ere, hizkuntzari eta beronetatik sortzen den ikusmoldeari ematen dioten tratamendua aipagarria eta azpimarragarria da. Iparraldeari begira, berriz, hortxe dugu, *Radio Adour* bakan eta urria, baina herriari lotua. Herri xehe eta laborariari, batez ere. Ahal duen modu eskasean, noski.

Telebista mailan, aipagarri gutxi dago. Bai Frantzia bai Espainian, telebista izan da beti «bitartekorik zentralistena». Espainiari gagozkiolarik, telebistak ignoratu egiten du Euskadi, laidoztatzeko ez bada. *Telenorte*-ren bitartez, hemen sortu den gobernu deszentralduaren begietatik ikustera ere ez da heltzen. *Telenavarra* delakoa, berriz, Nafarroaren zatiketa finkatzeko sortua da. Oro har, Espainiako telebistaren funtzioa, Hego Euskadin, kolonizapen kulturala segurtatzea da.

3. Euskal prentsaren egoera larria

Euskal prentsa, egoera ezin larriagoan aurkitzen dela esatea, egia borobila izanda ere, ezer gutxi esatea da. Euskal prentsak ez du egunerokorik. Astekarietan, *Argia* genuen ezagunena. Hamabostekarietan, *Anaitasuna*. Aldizkarietan, JAKIN, *Zebatz*, *Goiz Argi*, *Zer*, *Herria*, *Karmel* eta beste abartxo batzu, sortu berriak ditugun *Habe* pedagogikoa, *Aizu* pedagogikoa eta *Dema* kirolzalea kontutan harturik. *Habe* eta *Dema* dira benetako laguntza dutenak, Eusko Gobernuaren babesean sortu baitira. Ez alferrik!

Irakurlegoaren epeltasuna aparte, prentsa honen kakaodirurik ezean datza. Segur nago, aurrera egiteko nahikoa kemen badutela, eta era itxurosoan ukan ere gainera. Sinesgaitza da diru-iturri edo finantz baliabide mailan jasan behar duten ukazioa. Argi baitago ukatu egiten zaiela. Arrazoia, sakonean, bat baino ez da: diru-laguntza hori eman diezaikeenak, ezin du, era berean, prentsa hori kontroldu.

Argia-ren kasua dateke nabarmenena. Egia bada euskal hiztunon kopurua %10ekoa izanda, astekari hori %1ek eskuratzen duela, orain arte jaso izan duen diru publiko eskasa baino gehiago ez lortzea lotsagarri bilakatu da, are lotsagarriago nire eritzia egiazkoa bada. Ez dut zalantza handirik, jakina! Erdal prentsan zein euskarazkoan, kanpora begira bizi gara. *El País*, *Le Monde* eta horrelakoak ditugu eredu, prentsaren ugaritasuna gaitza balitz bezala. Aitzitik, ugaritasuna gizartearen aniztasunaren ispilu bilaka daiteke. Eta ez, derrigorrez, kalitatearen kontrakoa.

Euskadiko egunkari zenbaitetan, bestalde, euskararen presentzia agertzen da. Halamoduz eta plangintza zehatzik gabe, maila esperimentalean bada ere, aurrera doa; erredakzioetan interferentzia bilakatzen delarik; laguntza publiko berezirik gabe. Kazetari euskaldunok gutxi gara, baina ez hain gutxi. Kontratazio problema dago, eta azken batean diruarena. Irakurlegoa, berriz, nahikoa anbigua da.

II. — GEROARI BEGIRA ZENBAIT ESKAKIZUN ETA AMETS

Bigarren atal honetan, begibistan ditugun proiektu zein errebindikapenetatik abiatuz, ahal dena eta neronek amesten dudan geroa markatzen saiatuko naiz.

1. Proiektuak eta errebindikapenak

Hiru dira nik ezagutzen ditudan proiektuak eta errebindikapenak. Proiektu izena merezi duen bakarra, agian Eusko Gobernuarena dateke. Ez dut uste, dena dela, prentsa mailan proiektu zehatzik duenik, beronen ikuspegia eta ikusmoldeak jasotzen dituen prentsa badagoelako agian.

Irrati eta Telebista mailan, berriz, hiru asmo agertu dira: Eusko Gobernuarena, *Euskal Herrian Euskaraz* taldearena, eta Iparraldeko *Entzun Ikus* taldearena.

a) *Eusko Gobernuaren Irratitelebista Nazionala.*

Hegoaldeko hiru probintziatarako gauzatu zen Autonomi Es-

tatutuan oinarriturik, 19-3 artikuluan, Eusko Gobernuak bere plangintza mamitzen hasia da aspaldidanik. Beste mailetan bezala, negoziaketak nahikoa hutsal ari dira bilakatzen. Ezagunak dira, Ramon Labaien, Iñigo Agirre eta lehendakariaren beraren kexuak eta «atzerakada»ren salaketak. Arias Salgado, Fernando Castedo eta orain Robles Piquer jaunekin eginiko elkarrizketek gorabehera franko izan dituzte. Hori alde batera utzirik, baina espero zirela azpimarratuz, joan gaitezen mamira. Eusko Gobernuaren projektuari «Eusko Irratitelebista autonomoa» deritza. Lege-projektua Parlamenturako bidean dagoela esan genezake. Konstituzioaren 20. artikuluan ditu oinak. Eztabaidatzen denean jakingo dugu zehazki zertan datzan. Bitartean, deklarazioak, zenbait datu eta ekintza ditugu. Urrats batzu emanak dira. Irrati mailan, *Radio Vitoria, S.A.*-ren erosketa izan da urratsik nabarmenena. Badirudi, hiru emisora-FM sortuko direla, Donostia, Bilbo eta Gasteizen. Prentsari eta Labaienen deklarazioei baga-gozkie, 1982an jarriko dira martxan. «Euskaraz», aldiz, 1983an. Donostia eta Bilboko Herri Irratietako euskarazko irratsaioak martxan daude, 6 eta 8 ordutakoak dakidanez, eta Segura Irratikoak zain daude. Hasi berriak dira, bestalde, «Radio San Sebastián» (6 ordu) eta «La Voz de Guipúzcoa» (4,5 ordu).

Telebista mailan, projektuak gorabehera eta istilu gehiago sortu du, antza denez. Bi kanale aukeratu ziren: hirugarren kanalea, zeinen titulartasuna eta kontrola TVErena izango bailitzateke eta laugarrena «osoki autonomoa». Hirugarrena elebiduna, laugarrena euskalduna. Zorigaitzeko hirugarren hori geldirik dagoelarik, Eusko Gobernuak laugarrena eraikitzen emana dago azkenaldi honetan. Milioien dantza hasia da. Oker ez banago Donostiako Miramonen kokatuko da produkzio zentrua eta Durangon informatiboetarakoa. Bidebatez, doblatzaile, lokutore eta irudi animatuetaarako eskolak zenbait profesional gertuberri ditu. *Telenorte*-k zituzkeen asteroko 20 orduak ez dira inondik ere ikusten. Halarik ere, produkzio propioa *Telenorte*-ri eskaintzeko asmotan dabil Eusko Gobernuak. Baita «herriz herri eta eskolaz eskola» emankizunak eskaintzekotan ere.

Eritzi bat ematekotan, hirugarren kanaleari zentzurik ez diodala ikusten esan beharrean aurkitzen naiz. Miquel Moragas Barzelonako katedratikoari jarraituz, Sevilla-n orain urtebete berak

eman mintzaldiarekin bat nator, hots: «Estatuak ez ditu ez lehen ez bigarren kateak utziko; beraz, errejioetako instalakuntzak mantendu egingo ditu —supergobernari semiotiko gisa—. Hirugarren kanalea ez da hasiko bigarren katea lurralde osora hedatu arte. Lehenengo kateak, entzulegoaren %80 eta bigarrenak %30etik 50era hartzen duelarik, nork demontre ikusi behar du hirugarrena?». Bestalde, TVEk duen geografi zatiketa eta komunitate autonomoetakoak ez dira batere berdinak. Besterik da laugarren katea, «euskara hutsezkoa», nahiz ez den inolaz ere telebista nazionala izango.

b) EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ *elkartearen errebindikapena*.

1981ean dela, 1982an dela edota hurrengoan —dena esan baita—, *Euskal Herrian Euskaraz* taldekoek 1982ko gabonetarako errebindikatzen dute Irratitelebista. Kate horrek euskara hutsezkoa izan beharko luke, noski, erakunde honentzat euskara baita Euskadiko ezaugarririk garrantzizkoena.

Plazaratu duen kanpaina sei puntutan bana daiteke: 1. Herrian irratitelebista honen behararen kontzientzia sortzea; 2. Aurtengo gabonetarako —1982—, eta Euskal Herriko eremu osoan, euskarazko telebista katea, bere programazioa euskara hutsean emango lukeena; 3. Aurtengo gabonetarako —1982—, euskal eremu osoan euskarazko irrati bat, bere programazioa euskaraz soilik emango lukeena; 4. Euskal Herri eremuan bereziki, bere emankizunak hedatzen dituzten irratitelebista erdaldunetan, euskararen erabilpena, maila diglosikotik elebitasunaren mailara igarotzea: gaietan eta formetan euskarari erdararen maila berbera emanaz; 5. Erakunde publikoen eritzi publikoa, epeak eta finantz baliabideak zehatz adieraziz; eta 6. Eskakizunok Eusko Gobernuaren lehentasuna ukan dezatela, euskararentzat hil ala biziko arazoa denez.

Itxurazko eskakizunak izanda ere, zera esan nahi nuke, alegia, Eusko Gobernuak ez duela Euskal Herri osorako irratitelebista bat sortzeko botererik eta ez duela egingo. Bestalde, kontseilarien hitza betearazteko muga ezarketa bat dela eskakizun hau. Beste era batean esanda, urteberriaren lehen hilabeteetan sortuta ere ongiatorri biribila emango niokeela nik irratitelebis-

ta horri, baita ezinbestez komunitate autonomikoari soilki lego-
kiokeenari ere. Ez nuke nahi, ordea, «nazionala» deitzea. Ez
baita...

c) ENTZUN IKUS *taldearen irrati euskalduna.*

Prentsaren bidez berri pozgarri bat etorri zitzaigun Iparral-
detik. Errebindikapen kutsuz, baina projektu maila eman die-
zaiokegun berria. Iparraldeko talde honek «egun guztiz euskara
hutsean arituko den irrati muntatzeko asmoa du». Euskal Herri
guztian entzungo omen da. Talde honen helburuan —beteko al
du?—, badago azpimarragarri den zerbait, hots, «euskara baizik
erabiliko ez den irrati batean, ez da haratik ez hunatik. Edo eus-
karaz mintzatzen da edo ixilik egoiten. Hori gure mintzairaren-
tzat sano eta baitaezpadakoa da».

Entzun Ikus «bertsulari, kantari, antzerkilari, ikastola, gaues-
kola eta beste zenbait herri mailatan ari direnek osatzen dute,
halere batasuna zabalik dago. Molde hortan, euskaldun mota
guzietarik izanen da eta irrati hori nehork ez du sakolan sartzen
ahalko, ez presuna, ez politika taldek ez bestek; euskararen zer-
bitzuko geldituko da».

Diru-iturrietara jotzerakoan «euskarari atxikiak diren euskal-
dunek eman dirutik» bizi beharko duela adierazi dute. «Karku-
latu dugu urte oroz behar ditugula 1.000 euskaldun 1.000 edo
2.000 pezeta emanen dituztenak. Eta beste 200 ile oroz diru
bera emanen dutenak. Eta ez da dudarik euskarari atxikiak di-
ren gisa hortarako 1.200 euskaldun izanen direla Ipar eta Hego
aldean». Agian bai, agian ez. Kritika bakarra hauxe litzateke:
betikoen sakelek zulo galanta dutela jadanik.

2. «Nik nahi dudana ez da guk ahal duguna»

Nonbaitetik hastekotz, telebistatik hasiko naiz. Argi daukat
zerbait egiten bada, Eusko Gobernuaren proiektuak egingo due-
la aurrera. Azken batean, dirua, finantz baliabideak, profesio-
nalak gertutzeko bitartekoak, legeria, boterea eta konfidantza
berarengan daudelako. Argi daukat herri mailako bultzada eta
eskakizunak bost axolako perla bitxi ari direla bilakatzen. Inde-

pendentzia eta sozialismoa zozokeriatzat ditu. Dena dela, ni puntu batzuk aipatzen saiatuko naiz. Azpimarragarritzat ditudanak, alegia.

Hasteko, hirugarren kanale antzu hori diru galtze hutsa dela iruditzen zait. Jabego arazoa badago, nahikoa eta gehiegi da, telebistaz aritua ez den Herri batentzat, laugarren kanale hori itxuraz eta airoski muntatzea. Euskararen arazoa aipatzekotan, elebitasuna ez da itoko edozelango kanale «elebidunekin». Areago, problema elebitasunean baino gehiago diglosian dagoenean. Gure herriko erdaldunek badute, ukan, kanale pareta. Hortxe jarraituko dute eta ez dira murriztuko. Ez beldurrik ukan. Halere borondate izpirik balego, *Telenorte* delakoak izan beharko luke elebiduna, euskara ez baita Eusko Gobernuaren zeregin soila, baita Madril eta Parisekoena ere.

Laugarren kanaleak, dudarik ez euskalduna behar duela izan. Hizkuntzaren problema ez baita elebitasuna mantentzea, diglosia deuseztatzea baizik.

Beldur ematen dit egun osorako programaziora jotzea. Hasteko behintzat. Ez dut uste programazio hori jator eta profesionaltasunez betetzeko gai garenik. Ene ustez euskarazko programak egiten diren neurrian eman behar dira, urraska-urraska ordu kopurua gehituz. Erdarazkoa ikusteko badugu lehengoa. Bestalde kaskarkeriaz hasteak badu akats franko: etsipenarena eta frakasoarena lehenik. Hori egiazkotzat jotzen bada, produkzio zentrua da benetan garrantzia duena. *Telenorte*-n dago, orain ere, ene ustez, gakoa. Euskal Herrira hedatzen diren emankizunetan euskara eta erdara parekotasunera eramateko nahikoa kemen eta adore beharko luke Eusko Gobernuak eta herriak. Euskararen geroa eta etorkizuna —erantzukizuna ere bai— ez baita soilik euskaldunon —euskal hiztunon— betebeharra, hemen bizi edota eragina duten guztiena baizik.

Eusko Gobernuaren esku egon arren, aniztasun edo pluralismo oso bat behar luke «hemengo» telebistak. Horrek denon partehartzea eskatzen du. Ez dut batere espero, ikusiak ikusirik, baina «hemengo» telebistak beste zenbait lekutakoaren parekoa ez badu nahi izan, botere-kontzentratioetik beharko luke urrundu. Gutxienez, gizartearen islada izatea eskatuko nioke. Halere

minimo batzuk ezarritz: minimo hori euskara eta profesionaltasuna lirareke. Bestalde, helburu gisa, telebistaren programazioak goitik behera langilegoaren eskutan behar luke egon, sartzeko euskara eta profesionaltasun nabaria eskatuz. Tresneria darabilenak ez du hizkuntzarik behar; ez eta gaztelera zein frantsesa ere, kasu!

Ez dut uste telebistaren gidatzaileen burutan «beste» telebistarik dagoenik. Adibidez, egia da telebistak entretenigarriak ere behar dituela, baina kontsumoa eta ikuspegi kapitalista barneratzen digun programazio guztia sobran dago. Ikus dezagun bestea, daukaguna eta kitto.

Irrati mailan ere profesionalen eskutan uztea amestea libre da, egingo ez bada ere. Baina inolako interferentziarik gabe askoz ere hobeki lan egiten dela frogaturik dago. Eusko Gobernuak jabegoa lortzen duen irratietan, bereziki eskatuko nuke goiko hori. Probintzia bakoitzean egun osorako euskal irradi bat babestea beharrezkotzat jotzen dut. Ez da hain zaila: Donostian eta Bilbon posible da jadanik. Gasteizen, hortxe dago *Radio Vitoria* erosiberria, baldin eta asmo garbirik balego. Kontutan hartu behar da, Arabako biztanlegoak ere euskaldun izateko eta euskara entzuteko eskubide osoa duela. Beste edozein euskaldunek beste, gutxienez. Nafarroako geroa, nafarren eskutan utzi behar da, «Euskadi da» esaten dutenenetan batez ere. Iparraldean, berdin.

Amaitzeko, prentsari buruz hitz bi. Ez dakit zergatik begiratzen den hainbeste kanpoko prentsa. Munduko egunkari handiak aipatzen dira eredu gisa. Hegoan, adibidez, *El País*, maila internazionallean duen informazio multzoagatik batez ere eta kulturari ematen dion lekuagatik agian. Nik dakidalarik, Alemania Federalean adibidez, arrakastarik handiena duten egunkariak, informazio lokal aberatsa dutenak dira. Informazio orokorra sendotu egin behar da eta lokala bereziki. Analisi politikoaren lekua astekariaren lekua delakoan nago. Sakona behintzat. Egunkariak komunikabide bihurtu nahi badute, «joan-etorria» bultzatu behar dute jendeari hurbildik dagokiona aberastuz.

Euskarak, derrigorrezkoa beharko luke izan egunkarietan. Ez dut esaten, ordea, behartu behar denik. Bide bat ikusten dut,

ordea: edota egunkari gutzietan «euskarazko separata» bat egin ez —nork ordainduko?—, hau da eguneko gaiak laburki eman... edo, behintzat, *Deia*-n eta *Egin*-en... Eusko Gobernuaren bultzadapean.

Euskara hutsezko prentsak, gauza bat baino ez du behar: finantz baliabideak, eta hortik, diru publikoa denez, maila profesionaleko kontrola. Ez, ordea, inolaz ere, botereak ezarritako kompetentzia desleial eta maltzurra.

J. M. Z.

DE UN MEDIO DE COMUNICACION A OTRO: SITUACION Y PERSPECTIVAS

D'UN MOYEN DE COMMUNICATION A L'AUTRE: SITUATION ET PERSPECTIVES

1. Breve análisis de los medios de comunicación de Euskadi

1. Los medios de comunicación y su contexto socio-político.

El contexto político forma parte de los medios de comunicación. En nuestro caso las aspiraciones y necesidades de Euskadi. Euskadi es una nación oprimida lingüísticamente, dividida y sometida que aspira a ser una, euskaldun y dueña de su destino. Esta reconstrucción nacional se lleva a cabo en una democracia burguesa.

2. Carácter no público y «extraño» de los medios de comunicación.

La prensa escrita está toda ella en manos privadas. La radio y la televisión a su vez también carecen del carácter público, ya porque están en manos privadas ya porque estatalidad no es lo mismo que carácter público. De este hecho y del servicio que prestan a proyectos políticos centralistas y centristas deriva su carácter extraño o foráneo. La situación de la radio es más compleja. De todos modos merece subrayarse el servicio que han prestado las Radios populares a la cultura autóctona y al euskara. La Televisión es el medio más centralista de todos.

3. Situación crítica de la prensa en euskara.

La prensa en euskara se halla en una situación alarmante. Carecemos de un diario en euskara. Las revistas, actualmente en crisis, podrían subsistir dignamente si tuviesen apoyo económico. En el fondo si se les niega la ayuda, es porque quien puede prestársela no puede controlarlas. En algunos diarios de Euskadi hay también una tímida presencia del euskara.

II. Algunas exigencias y sueños cara al futuro

1. Proyectos y reivindicaciones.

— **Radiotelevisión nacional del Gobierno Vasco.** Sobre la base del Estatuto el Gobierno Vasco está perfilando el ente de radiotelevisión autónoma. Respecto a la radio se han dado algunos pasos concretos. En cuanto a la televisión las dificultades son mayores. Mientras el proyecto del tercer canal —que no tiene ninguna razón de ser—, de titularidad estatal, está paralizado, el Gobierno Vasco está trabajando sobre el proyecto del 4.º canal, totalmente autónomo.

— **La reivindicación de «Euskal Herrian Euskaraz».** EHE ha reivindicado una radio-televisión en euskara para Navidad del 82. Pese a que los seis puntos en que se concretaba su petición son razonables no se llevará a cabo porque el Gobierno Vasco carece de poder.

— **La radio vasca de «Entzun Ikus».** Este grupo de Euskadi Norte proyecta la creación de una radio totalmente en euskara que abarque toda Euskal Herria, independiente y financiada popularmente.

2. Nuestra ilusión.

De realizarse se realizará el proyecto del Gobierno Vasco sobre la televisión. El tercer canal es una pérdida inútil de dinero. El cuarto canal debe ser euskaldun. El problema lingüístico requiere no mantener el bilingüismo sino superar la diglosia. La televisión debe ser pluralista.

En cuanto a la radio se debe evitar las interferencias del poder. Cada provincia debería tener su radio totalmente en euskara.

Respecto a la prensa, hay que potenciar la información local. El euskara debe estar presente en los diarios. La prensa en euskara necesita una financiación y un control de tipo profesional.

I. Brève analyse des moyens de communication d'Euskadi

1. Les moyens de communication et leur contexte socio-politique.

Le contexte politique fait partie des moyens de communication. Dans notre cas les aspirations et les nécessités d'Euskadi. Euskadi est une nation linguistiquement opprimée, divisée et soumise qui aspire à être une, euskaldun et maître de son destin. Cette reconstruction nationale doit être menée à bien sous une démocratie bourgeoise.

2. Caractère non publique et étrange des moyens de communication.

La presse écrite est entièrement dans des mains privées. La radio et la télévision aussi manquent de caractère public soit parce qu'elles sont dans des mains privées, soit que le fait d'être étatique ne veuille pas dire avoir un caractère public. De ce fait et du service qu'elles offrent aux projets centralisateurs et centristes, dérive leur caractère étrange ou extérieur. La situation de la radio est plus complexe. De toutes façons il convient de souligner le service qu'ont rendu les Radios populaires à la culture autochtone et à l'euskara. La Télévision est le moyen le plus centraliste de tous.

3. Situation critique de la presse en euskara.

La presse en euskara se trouve dans une situation alarmante. Nous manquons d'un quotidien en euskara. Les revues, actuellement en crise, ne pou-

ront subsister dignement sans appui économique. Au fond si on leur refuse tout aide, c'est parce que celui qui peut la donner ne peut les contrôler. Dans quelques quotidiens d'Euskadi il y a aussi une timide présence de l'euskara.

II. Quelques exigences et rêves face à l'avenir

1. Projets et revendications.

— Radio télévision nationale du Gouvernement Basque. Sur la base du Statut, le Gouvernement Basque projette l'existence d'une radio-télévision autonome. En ce qui concerne la radio, on a posé quelques pas concrets. Quant à la télévision les difficultés sont importantes. Alors que le projet de troisième chaîne —qui n'a aucune raison d'être—, d'appellation gouvernementale, est paralysée, le Gouvernement Basque travaille le projet d'une 4e chaîne, totalement autonome.

—La revendication d'Euskal Herrian Euskaraz. EHE a revendiqué une radio-télévision en euskara pour Noël 82. Quoique les six points qui concrétisent sa demande soient raisonnables, il ne pourra pas les mener à bien parce que le Gouvernement Basque manque de pouvoir.

— La radio basque d'Entzun Ikus. Ce groupe d'Euskadi Nord projette la création d'une radio totalement en euskara qui englobe tout l'Euskal Herria; radio indépendante et financée par le peuple.

2. Notre illusion.

Si quelque chose se réalise, c'est le projet du Gouvernement Basque sur la télévision qui se réalisera. La troisième chaîne est une perte financière inutile. La quatrième chaîne doit être euskaldun. Le problème linguistique requiert de ne pas maintenir le bilinguisme mais de dépasser la dyglosie. La télévision doit être pluraliste.

En ce qui regarde la radio l'on doit éviter les interférences du pouvoir. Chaque province devrait avoir sa radio totalement en euskara.

Par rapport à la presse, il y a à renforcer l'information locale. L'euskara doit être présent dans les quotidiens. La presse en euskara nécessite un financement et un contrôle de type professionnel.

Prensa idatziaren arazoak

Amatiño

Komunikabideak Euskadin edo Euskadiko komunikabideak aztergaitzat hartzerakoan, ezin inola ere prentsa idatzia, irratia eta telebista zaku berean sartu. Eta ez bakoitzaren berezko berezitasunengatik bakarrik, baita, edota areago, sortzez garai desberdinetako produktuak direlako ere eta, ondorioz, ezin bestean, historian zehar prozedura desberdina eraman behar izan dutelako. Izan ere, esate baterako, eta sakontasun haunditan sartu gabe, prentsa idatzia, irratia zein telebistaren jabego publikoa edo pribatua arrazoi «historizista» bat dela esan daiteke.

Lehen inprimategi familiarrek senitarteko prentsa-lantegiak eragin zituzten, irratien konplexutasunak irtenbide mixtoak gauzatu zituen bezalaxe eta telebistak eskatzen dituen inbertsio haundiak, berriz, estatuen partaidetza erakarri. Hau guzti hau gogora ekarri beharko dugu, geroxeago, zenbait komunikabideren publikotasuna aipatzerakoan, zuhaitz ideologikoez basoa ikusten galerazi ez diezaguten.

I. — PRENTSA IDATZIA 1981ean

Objektibitate hutsa utopia liluragarria baino ez denez gero, ez gara hemen abstrakzio dohatsutan hasiko eta bai, ordea, konplexurik gabe esango (herri hau, herri bezala, aurrera aterako bada, hautabide abertzaleek, eta ez beste inork aterako duten segurtasunarekin), eritzi euskaldun eta abertzale batez, behintzat, 1981eko prentsa idatziak ematen duen irudia ezin etsigarriago dela.

Ez du hemen balio prentsa idatzia, oro har, azken bost urte honetan hobetu egin dela esateak, hobetze hori zertan datzan galbahetu eta zehaztu gabe. Eta aurrera jarraitu aurretik, esan gabe doa, gure kasuan behintzat, eta gainerako Estatuan ez bezala, agian, demokrazia beharreko dela, baina ez nahiko.

Gurea ez da konpontzen, ez, lehenengo errejimenerako komunikabide eta albiste-iturriak demokratizatzean, aldi berean albiste-marku berri bat sortzen ez baldin bada. Autonomia gauzatu da edo gauzatze bidean doa, baina gauzatze horrek ez du obratu, oraingoz behintzat, komunikabide-sistema autonomo bat. Beste kontu bat da obratzerik ba ote duen.

Gauza jakina da, bestalde, albiste-iturriak, komunikabideen konplexutasuna dela eta, kontzentrazio baterantz abiatuz ari direla, ekialdean zein mendebalean. Ekialdean kontrol politikoa estatuak badarama, mendebalean, berriz hiruzpalau eskutan dago eta sortzetik beretik datorkigu «ukitua». Noski, arazoa ez da hemen, prozedura hau aztertzea eta are gutxiago sistema politiko eta ekonomiko baten abantailak eta eragozpenak miaztea, ondo lotutako albiste-mundu horretatik ateratzerik ez dugula ohartzea baizik. Ez Espainiako —edo Frantziako— estatu mailan, ezta, zer esanik ez, komunitate autonomo mailan ere. Eta aipatzeke geratzen zaizkigu, oraingoz, herri txikia izatetik, hasiberria izatetik, elebiduna izatetik eta bestetik suertatzen eta suerta dakizkigukeen problema latzak.

Egunean eguneango praktikara jaitsiz, begi bistan sumatzen da gero, errejimen zaharretik datozen egunkariek, bataz beste, geroztik jaio direnek baino hoztasun eta patxada gehiago azaltzen jakin izan dutela merkatu berrira egokitzeko orduan.

Bost dira, besteak beste, lehengo egunkariet jendaurreko arrakasta lortzeko erabili dituzten abiapuntuak: 1) Azpiegitura; 2) Probintzi eremua; 3) «Independente» direlako ideia saltzen jakin; 4) Euskal Herriko arazoketarekiko urruntasuna; 5) Profesionaltasuna.

1. Azpiegitura

Esan gabe doa, noski, errejimen zaharreko egunkariet, bai lehendanik (denbora) datozenez eta baita egoera autokratiko batetik (aukera) abiatu zaizkigunez ere, erraztasunaren eta patxadaren urre-garaiak ezagutu ahal izan dituztela. Aldaketa orduan hemen zeuden, finkaturik zeuden, finantz problemarik gabe egon ere eta, badirudi, tesoreria onuragarri batez gainera.

Azpiegitura tekniko amortizatu bat zein hedadura geografiko bat berekin zuten eta 1977. urtean hain gutxi balioztatu zen irakurlearen ohitura ere haien alde suertatu da, beste zenbait osagairen artean.

Jendeak aldaketa politikoa nahi eta espero zuela frogatu haundirik gabe eman daitekeela uste dut, eta hauteskundeetan ere, oro har, jokaera hori nagusitu zela ez gara hemen esaten hasiko. Beste gauza bat da, ordea, rito demokratiko hori praktikatu ahal izateak, besterik gabe, eguneroko konportamendu eta jarreraren erreflexuak nahita nahiez aldatzea ekarri ote duen. Eta hau bagenekien, edo ez bagenekien, ikasteko aukera izan dugu behintzat. Azken finean, edonork bait du bere inguruan orain dela hamar urteko egunkaria irakurtzen duen amaginarrebaren bat, osaba edo koinaturen bat.

Gizakumea ohitura-aberea omen da eta, onenean ere, aldatzeko lehenean jarraitzeko baino arrazoi gehiago behar izan da betidanik.

Zentzu honetan ezin uka, ez, egunkari berriek merkatu bat ireki behar izan dutela eta irakurleago bat irabazi behar izan dutela, irekitzeko eta irabazteko ahalegin edo azertu haundirik, behintzat, inondik inora sumatzen ez bazaie ere.

Dena den, demagun beraien alde, oraingoz, hasiberriaren

eragozpenak, esperientziarik ezaren akatsak eta amortizazio zorrotzen epeak gainditu behar izan dituztela, eta agian *Deia*-k *Egin*-ek baino gehiago, «populismoak» besterik uste izanarren (hemen D.V.-ren iraupena aipatu daiteke *La Voz* ixteari esker).

Bestalde, lehen uneetako beroarenak kenduz, onartu behar da bide bat egitea objektiboki zaila zela, egunkari berriok ez bait ziren irakurle-eskari kuantitatibo bati erantzuteko sortu (Euskal Herriko biztanlea estatuko egunkari-irakurle haundienetako bat da), eskakizun ideologiko bati edo besteri tribuna emateko baizik.

2. Probintzi eremua

Azpiegituraren ardatzari eta berorren baldintzapenei jarraituz, gauza jakina da, lehengo egunkarien geografi eremua gehienbat probintziala zen artean, bi egunkari berriek bokazio nazionalarekin jau zirela.

Hala ere, Europako herririk abertzaleenetako bat omen den Euskadi honetan albisteriaren marku nazional horrek ez du, nonbait, arrakasta haundiegirik izan eta gehiago edo gutxiago kontzesio probintzialak egin beharrean aurkitu izan dira. Atzera-aurrera, etengabeko aldaketan ibili behar eta azertatu ezin honnek bere kostuak eragin ditu eta baita irakurlearengan segurtasunik eza sortarazi ere.

Eta egunkari berriei bere efektiboetan atzerantz edo ote doazen sumatzen zaien bitartean, lehengoei, *El Correo Español* eta *El Diario Vasco*-ri, behintzat, aurrerapausu nabarmenak ikusten zaizkie.

Izan ere, *Deia* eta *Egin*, albisteria nazionala, marku probintziala eta herrietako berriak ezkontarazi ezinean ari diren artean, aipaturiko beste biak, probintziatik eta beronen hiriburutik hasiz (E.C.E./Bilbo — D.V./Donostia) herrietako koresponsalietara iristen dira, bata nahiz bestea, Gasteizi berebiziko garrantzia emanez.

Paradoxa haundia baldin bada ere, European eguneroko prentsa idatzia auzoratzen ari den bitartean, euskaldunok egunkari

nazionalak egin gurarik ari gara. Alemanian, esate baterako, bada 200.000 biztanleko hiriak bere inguruko herri guztietarako eta baita bere barneko auzoetarako ere argitalpen desberdin eta bereziak egiten dituztenak. Hau da, Donostiako egunkari batek Gros edo Amarako auzoentzat orrialde bereziak egingo balitu bezala. Ni neu, Münster-eko *Westfälische Nachrichten* egunkarian (belaunaldiz belaunaldi familia batena dena) egon izan naiz eta kioskora ateratzen den aleak berrogeita hamar orrialde inguru dituen artean, irarkolak berrehun eta berrogeita hamar orrialde desberdinetik gora prestatzen ditu egunero, tokian tokiko albistea eman nahiz.

Guzti honekin ez dut esan nahi, noski, egunkari nazionalentara jo behar ez dugunik, baina bai, ordea, Europan une honetan nagusitzen ari den korronea azpimarratu eta, behar bada, gure egunkari probintzialak, beste kontextu eta arrazoi batzuegatik, egunkari nazionalak baino hurbilago daudela korrone horretatik.

3. Prentsa independentea

Euskal Herrian prentsa independenterik ez dagoela begi bistakoa dela uste dut eta besterik uste duena bere burua engaitzen ari da. Zein bat zein bestea interes politiko batzuei loturik dago eta ideologia hori sostengatzen duen kapitalaren esanetara, besteak beste. Hau eztabaidatzeak ez du merezi eta haserretzeko arrazoirik ere ez da. Beste gauza bat da horrela izan behar ote lukeen, baina oraingoz konforma gaitzen dugunarekin eta kitto.

Hala ere, objektibo gisa azaltzea inori sar ez dakioken leka den bezalaxe, independentetasuna, ordea, gezurra dirudien arren, oraindik gure eskaparateetara lotsa haundirik gabe atera daitekeen produktua da. Eta jendea, erosteko gertu dago.

Independente delako ideia hori merkatura ondoen azaldu duena Bilboko *El Correo Español* izan da eta, behar bada, neurri txikiago batez, baita *El Diario Vasco* ere. Baina Bilbokoarena, behintzat, guztiz nabarmena izan da.

E.C.E.-ek behin eta berriz azpimarratu izan du *Deia* EAJren erabat loturik dagoen egunkari bat dela, eta horretarako eskuratu ahal izan dituen arma guztiez baliatu izan da.

Araza ez da, noski, salaketa horren sakonean edo ez hain sakonean dagoen egia ukatzea, E.C.E.-en jokoa bere osotasunean ulertzea baizik. Izan ere, E.C.E.-ek ez du nahi izan soil-soilik, *Deia* eta EAJren arteko lokarria azpimarratu, nolabaiteko extrapolazio batez E.C.E. bera ez dagoela ezelango menpetasun ideologikori lotua suposaraztea ere baino, hots, tiro batez bi txori hil.

Jokabide honetan partaide izan dira E.C.E.-eko zenbait kazetari ere. Kontu izan, *Deia* jaio zenean horrelako lilura bat sortarazi zuela eta, nolabait, bere errejimeneke ajea zuten egunkarietan ari ziren profesionalek hanka egin nahi izan zuten arren zenbait bakarrik izan zirela «aukeratuak», lanposturik aldatzerik izan ez zutenak gutxietsiak edo izan ote ziren zentzazioarekin geratu zirelarik.

Gerora, honek erreakzioa izan du. Egunkari berrira pasatu ziren «aukeratuak» beren hasierako euforia galtzeko nahiko denbora eta arrazoak izan dute. Hain «onak» ez zirelako edo, lehengo egunkarietan geratu behar izan zutenek, berriz, gauza haundirik ez zutela galdu konbentzitzeko ahalegin haundirik ez dute egin behar izan.

Enfrentamendu hau ez da, nik dakidanez, hain nabarmena Gipuzkoan izan. Batetik, *Egin*-ek ez zion bere konpetentziari honelako posibilitaterik eskaini, eta eskaintzekorik izan duenean ezkututzen ahalegindu da. Bestetik, *Deia* kritikatzek eragozpen haundirik izan ez duen bitartean, oraintsu arte behintzat kazetariak *Egin* kritikatzeko beldur izan dira. Gauza jakina da *Deia*-k *Egin*-ek bere baitan izan zuen garbiketa egin izan balu kristorena gertatu izango zela.

4. Euskal Herriko arazoketarekiko urruntasuna

Deia eta *Egin* egunkarien atzean aldaketa bat nahi eta eragin zuten pertsona eta taldeak zeuden. Lehengo egunkarietako

buruzagiek, ordea, ez nahi eta are gutxiago eragin, aldaketa jasan egin behar izan zuten.

Ondorioz, plazaratu berri ziren egunkariak zer esaterik asko zuten bitartean, zaharrek, ordea, hitz neurtuz eta patxada haundiz azaldu izan dira, zer gertatu behar zuenaren zain baileuden.

Jokabide zuhur honetan, egunkari zaharrak, gizarte honetarik egiazko auzietatik ahalik eta urrunen mantentzen saiatu izan dira, kontraesanetan erori gabe, herri-arazoketari saihetsetik eta zeharbidez baizik ez helduz, inola ere ipurdia busti gabe eta dena hoztasun batez ikusiz eta miatuz. Lemoizi eman zaion tramendua adibide bat baino ez da.

Egunkari berriek, berriz, nork bere ikuspegitik, herrigintza honetan parte hartu izan dute, oker nahiz zuzen baina beti ere bero eta, inoiz, baita garratz ere.

Herri-arazoketa honetako partaidetzak uste baino gehiago erre ditu bi egunkari horiek, honelako esfortzu batek bere faktura pasatzen bait du.

Erreketa honen txinpartek egunkari berrion imajina zein bertoko kazetarien kemenak printzatu dituzte. Zaila da gero, guzti hau zertan amaituko den alde zurretik ezagutzera, baina badi-rudi, hiruzpalau urtetako ekintzaren ondotik egunkari zaharrak berriak baino freskoago daudela eta ondoko «round»etan nagusitasun gehiago erakutsi ahal izango dutela.

Hona, bestalde, duela sei hilabeteko OJDren datuen arabera, Hego Euskal Herriko prentsaren argitalpenetako ale-kopurua:

Hoja del Lunes de Bilbao	96.073
Hoja del Lunes de San Sebastián	78.000
El Correo Español	75.687
El Diario Vasco	58.800
Deia	51.535
Diario de Navarra	44.916
La Gaceta del Norte	42.443
Egin	41.416
Norte Expres	OJDrik ez
Hierro	OJDrik ez

Egoera hau datorren udaberrian aldatu ikusenezake bi proiektu tarteko direla: «Navarra de Prensa y Comunicación,

S.A.» enpresak egunkari bat aterako du Iruinean, Alfonso Venturaren zuzendaritzapean: *Navarra hoy*. PSO Eren inguruko «El Liberal» enpresak, bere aldetik, egunkari bat aterako du Bilbon. Eduardo Sotillos izango da honen ohorezko zuzendaria.

5. Profesionaltasuna

Prentsari bagagozkio behintzat, badirudi profesionaltasuna objektibotasunari lotua azaltzen zaigula, besteak beste, neurri haundi batetan. Eta, zalantzarik ez, zenbat eta gehiago gaitik hanka egin, are eta errazago dela gezurrezko objektibotasun hori mantentzea eta, beraz, profesionaltasunaren itxurak behintzat hobeki betetzea.

Dena den, eta gauzak gertatu diren bezala egunkari berrien zuzendarien kudeaketa zaharrena baino zailagoa izan dela onartu ondoren, badirudi onartu ere onartu beharko genukeela azken hauek haiek baino hobeki jakin izan dutela kontsumo-produktu bat egiten.

Esango nuke esan, egunkari zaharretako zuzendariak (edo, nahi bada Administrazio-kontseiluek) zer ez duten egin nahi ondotoxo dakitela eta beren eremu mugatu horretan argi xamar jotzen ari direla.

Egunkari berrietako zuzendariak (edo Administrazio-kontseiluek), berriz, zer arraio egin ez dakitela eta ezjakinaren ezjakinez eta ezinaren ezinez, maldan behera aurkitu izan direla behin baino gehiagotan, irudimen eta ideia faltan.

Asmatu ezin hau (*Deia*-ko esperientzia ezagutzen dut nik ongien) hasi eta berehala etsitako hainbat projektutan sumatu ezezik frogatu ere egin da, hala «Kultur Deia»-ren desagertpena nola euskararen planteamendu tristea edota, hobeki esan, planteamendurik eza.

II. — ELEBITASUNA

Elebitasunaren esperientzia, eguneroko prentsa idatzian behintzat izugarritzko frakaso itzala izan da. Frakaso honen azter-

keta sakonik ez dago hemen egiterik, beronek bakarrik adierazitako textu-luzera guztia eramango bait liguke. Dena den, hona zenbait puntu, beste aukera baterako oinarri gisa.

a) *Projekturik eza*. Ez *Deia*-k eta ez *Egin*-ek ez zuten euskal prentsa edota erredakzio baterako planketa bat. Esango nuke hasieran *Deia*-k *Egin*-ek baino argiago zeuzkala ideiak (Martin Ugalderi esker) eta azken bolada honetan, ordea, alderantziz. Dena dela, ez lehen eta ez orain, eta ez batak eta ez besteak (enpresaz ari naiz eta ez euskal erredaktoreez) ez dute planketa orokorrik.

b) *Euskal eta erdal erredaktoreen arteko ezinikusiak*. Euskal kazetariak ilusio eta lilura haundiegiz hurbildu ziren «berenak» zirela uste izan zuten egunkari berrietara. Erdarazko kazetaririk gehienek, ordea, kontra erreakzionatu zuten. Lanpostua, protagonismoa, hegemonia eta nagusitasuna galduko ote zuten beldur. Burruka izan zen.

c) *Euskal kazetaritzaren prestakuntzarik eza*. Euskal kazetaririk onenek ere ez zuten esperientziarik egunkarietan.

d) *Elebitasuna kazetaritzaren beraren lege nagusiaren aurka doa*. Hau da, ahalik eta irakurlerik gehiena lortzearen aurka. Imajinazio falta izan da.

e) *Prentsa idatzian espazio fisiko itxia*. Irratian bai bezala, prentsa idatzian ez dago dena birritan errepikatzerik. Elebitasuna ez da praktikan posible.

f) *Azpiegiturarik eza*. Albiste-iturri guztiak (teletipoa, telexa, agentziak, etab.) erdaraz ari dira. Erlojuaren kontrako itzulpen arazoa larria da.

g) *Euskal irakurlearen eskakizunik eza*. Zenbait irakurle jakineko izan ezik, inor gutxi azaldu da egiazki euskal prentsa-ten alde. Kioskoan eta egunkaria erosterakoan, euskarak ez du eraginik izan.

III. — EUSKARAZKO ALDIZKARIAK

Euskarazko aldizkariak ere, hemen eskain diezaikegun tokia

baino gehiago merezi dute. Hona, elkarrizketarako zenbait pista, «informazio orokorreko» dagokienez batipat, azken urteotan jasan duten gainbeheraren ulergarri edo.

a) *Aldizkariak protagonismoa galdu dute.*

Galera hau egunkarien onetan gertatu da. Aldizkariak, batuz beste, ez dute egoera berri bati egokitu beharra kuestionatu.

b) *Irakurlekoaren galbabekeeta.*

Politika eta alderdikeria nagusitu diren neurrian, irakurlea dekantatu egin da eta aldizkariak irakurle-multzo haundi baten bilgarri ezezik, sakabanagarri jokatu dute.

c) *Irakurlearenganako atxekimendua.*

Aldizkarien ardura dutenek ez dute irakurlea bere osotasunean kontutan hartu. «Hau gurea da» eta «guk dugu arrazoia» direlakoak gehiegi nabarmendu dira.

d) *Aldizkarien helbururik eza.*

Euskarazkoak izateaz aparte, aldizkariak ez dute beren existentzia justifika dezakeen arrazoirik, komunikabide bezala arrazoi espezifikorik, alegia.

e) *Arduradunen mailarik eza.*

Askotan badirudi arduradunek aldizkari bat «aurkitu» dutela esku artean eta ez direla aterabide bat emateko gauza.

Hona, azkenik, zenbait aldizkariaren azken bi urteotako prozesua, argitalpenaren sarritasunari buruz:

ALDIZKARIA	Urteko ale-kopuru teorikoa	Argitara emandako aleak	
		1980	1981
Argia	50	39	23
Goiz Argi	50	46	32
Anaitasuna	25	14	10
Saski Naski	12	11	12
Zer	12	11	12
Oh Euzkadi		6	6
Jakin	4	4	5
Elhuyar	4	4	4

Zenbait ausnarketa aurrera begira

Erdarak, oro har, abiadura geometrikoa daraman artean, euskararak aritmetikoki ari da. Euskararak Gutenberg-en aroa gainditzea lortu aurretik, erdara telematikazko prozedura konplexuetara iritsi da. Martxa honetan, guk prentsa idatziari irtenbide bat eman aurretik, Strasbourg-eko azken albisteak etxeko pantaila batetan satelitez jaso ahal izango ditugu eta ingelesez euskaraz baino errazago.

Munduko herrien arteko distantziak txikituko dira, informazioa gehiago kontzentratuko da eta, albiste-iturri horietan erabiliko diren hizkuntza eta kodeak nagusituko dira.

Euskararen presentzia komunikabideetan salbatuko bada, irtenbide bakarra erakunde publikoetan dago. Gobernuak edota Gobernuak sortaraz ditzaketen erakundeek baizik beste inork ez du gakoaren giltza. Euskarazko prentsa idatziaren irtenbide bakarra, beraz, prentsa publikoan dago.

Badakit prentsa publikoak —telebista publikoak ez bezala— irudi txarra duela gure artean. Baina hori gure problema da, ez prentsarena berarena. Komunikabideen jabego publikoa edo pribatuaren arteko arazoa eta prentsa idatziari, irratitari edo telebistari egin diezaiokegun aplikazioa, arrazoi «historizista» bat da hasi-hasieran esan dugunez. Eta publikotasunaren kontrolak hauteskondeekin zerikusi haundia izaten du herririk gehienetan. Gurean honelakorik asumitzen den ala ez ere, gure problema da.

A.

LOS PROBLEMAS DE LA PRENSA ESCRITA LES PROBLEMES DE LA PRESSE ECRITE

La prensa escrita en 1981 presenta una pobre imagen. En contra de la tendencia a concentrarse que se observa tanto al Este como al Oeste, sería necesario crear un marco informativo nuevo, un sistema de comunicación autónomo.

Los diarios heredados del antiguo régimen han sabido amoldarse a las

nuevas circunstancias surgidas en 1977, mejor que los nuevos. En este hecho habría que considerar los siguientes factores:

1. **La infraestructura.** Los diarios antiguos tenían una sólida infraestructura, sin problemas financieros, un marco geográfico bien perfilado y un lector leal. Los nuevos tenían que encontrar espacio en el mercado haciendo frente a dificultades económicas y siendo tribunas de determinadas ideologías.

2. **Ambito provincial.** Los antiguos sabían alcanzar la información de los pueblos dentro de un marco provincial, los nuevos han querido hacer un diario nacional que halla serias dificultades para cubrir la información nacional, provincial y de los pueblos.

3. **Prensa independiente.** La prensa independiente será una utopía, pero la imagen de «independiente» todavía se vende bien. Los que mejor han cuidado esta imagen son «El Correo Español» y «El Diario Vasco».

4. **Distancia para con los problemas vascos.** Los nuevos diarios estaban interesados en el cambio, y no han ocultado sus opciones concretas. Este esfuerzo ha pasado ya su factura. Mientras, los diarios antiguos han sabido tratar la información relativa al País Vasco como a cierta distancia, con frialdad.

5. **Profesionalidad.** Los diarios antiguos han sabido mejor que los nuevos hacer un producto de consumo. Los Consejos de Administración de aquéllos saben muy bien qué es lo que no quieren hacer, mientras que los de los nuevos se han hallado sin saber qué hacer muchas veces.

2. Bilingüismo

La experiencia del bilingüismo en la prensa escrita ha fracasado. Los factores a tener presentes serían: a) falta de un plan; b) diferencias entre redactores vascos y españoles; c) falta de preparación en los periodistas vascos; d) el bilingüismo está en contra del principio fundamental del periodismo: reunir el mayor número posible de lectores; e) espacio limitado de la prensa escrita; f) falta de una infraestructura vasca; g) falta del lector en euskara.

3. Las revistas vascas

He aquí las pistas que pueden explicar su decadencia, sobre todo la de las revistas de información general: a) pérdida de protagonismo; b) criba entre los lectores; c) olvido del destinatario; d) carencia de una finalidad; e) falta de capacidad de los responsables.

Consideraciones cara al futuro

La única salida para la presencia del euskara en los medios de comunicación está en las instituciones públicas.

La presse écrite de 1981 présente une pauvre image. A l'inverse de la tendance à se concentrer que l'on observe tant à l'Est qu'à l'Ouest, il serait nécessaire de créer un cadre nouveau de l'information, un système autonome de communication.

Les journaux hérités de l'ancien régime ont su s'adapter aux nouvelles circonstances surgies en 1977, mieux que les nouveaux. Dans ce fait il y aurait à considérer les facteurs suivants:

1. L'infrastructure. Les anciens quotidiens ont une solide infrastructure,

sans problèmes financiers, un cadre géographique bien tracé et un lecteur fidèle. Les nouveaux devaient trouver un espace sur le marché en faisant face à des difficultés économiques et en étant des tribunes d'idéologies déterminées.

2. Circuit provincial. Les anciens savent obtenir l'information des peuples à l'intérieur d'un cadre provincial; les nouveaux ont voulu faire un quotidien national qui rencontre de sérieuses difficultés pour couvrir l'information nationale, provinciale et des peuples.

3. Presse indépendante. La presse indépendante sera une utopie, mais l'image de «indépendant» se vend bien encore. Ceux qui ont le mieux soigné cette image sont «El Correo Español» et «El Diario Vasco».

4. Distance par rapport aux problèmes basques. Les nouveaux journaux étaient intéressés dans le changement et n'ont pas caché leurs options concrètes. Cet effort a déjà payé sa facture. Entre temps, les anciens journaux ont su traiter l'information relative au Pays Basque avec un certain recul, avec froideur.

5. Professionnalisme. Les anciens journaux ont su mieux que les nouveaux faire un produit de consommation. Leurs Conseils d'Administration savent très bien ce qu'ils ne veulent pas faire, tandis que ceux des nouveaux se sont trouvés sans savoir que faire bien des fois.

II. Bilinguisme

L'expérience du bilinguisme dans la presse écrite a échoué. Les facteurs à prendre en compte seraient: a) manque d'un plan; b) différences entre rédacteurs basques et espagnols; c) manque de préparation chez les journalistes basques; d) le bilinguisme va à l'encontre du principe fondamental du journalisme: regrouper le plus grand nombre possible de lecteurs; e) espace limité de la presse écrite; f) manque d'une infrastructure basque; b) manque de lecteur en euskara.

III. Les revues basques

Voici les pistes qui peuvent expliquer leur décadence, surtout celle des revues d'information générale: a) perte de protagonisme; b) crible parmi les lecteurs; c) oubli du destinataire; d) carence d'une finalité; e) manque de capacité des responsables.

Considérations face à l'avenir

L'unique issue pour la présence de l'euskara dans les moyens de communication est dans les institutions publiques.

Komunikabideen jabegoa eta objetibotasuna

Jose Felix Azurmendi

Gaur komunikabide masiboez hitzegitea, atzo «mass-media» delakoez aritzea da, hain erritmo bizian mugitzen dira izan ere eta hain aldaketa teknologiko handiek eragiten diete. Halaz guztiz ere medioak berak berez duen inportantziari ezer kendu gabe eta «medioa mezua bera da» McLuhan-en erdiegia gogoan izanez, hemen benetan garrantzia duenaz arituko gara, hau da, komunikabideen jabegoaz. Eta, jakina, atzoko, gaur-gaurko eta biharko komunikabideentzat balio du honek.

Txinar kultur iraultzaren hitzez baliatuz, esan dezagun, egiazko komunikabide iraultzailearen funtsezko helburua herriari hizketa bihurtzea dela. Gaur egun klase dominatzaileak erabakitzen ditu informazioaren lehentasunak, horrek hierarkizatzen ditu berriak, maila nazional eta internazionalen, bietan, eta berorrek itxuratzen eta taiutzen du delako «eritzi publikoa». Berririo hizketa nola bihur herriari? Gauden gaudenean, nola lortu Euskal Herriko herritarrek komunikabideak

eskura ditzaten? Prentsa herritarrak —*Egin* tarteko dela—, galdera horiei erantzun behar die.

Desafioari bi postura hartuz erantzun dakioko. Postura baten arabera, iraultza-prozesuan egiazko organizatzaile eta eragile behar du komunikabideak, talde dominatuen identifikaziorako agente bihurtuz. Beste posturaren arabera talde dominatuen identifikatzailea da, talde horien beharizanen eta xedeen islada eta agerpena.

Herria bera da protagonista, langileriak berak behar ditu berriak elaboratu eta eztabaidatu, eta horrek berak zabaldu eta barreiatu informazioa. Langileriak, horretarako, fabrika, auzo eta bera sozialki mugitzen den zokoetan, informazioa biltzeko, lantzeko eta zabaltzeko komunikabide-organoa ezinbestekoa du.

Gure egunkarian ez da honelakorik gertatzen, ez behintzat erabat. Zein gizarte motatan bizi den eta zein gizarte motatan berriak biltzen dituen ikustea nahikoa da, hori ezina dela konprenitzeko. Gaur egun *Egin*-ek iturri konbentzionaletan edaten du neurri handi batetan, hau da, burgesiak kontrolatzen dituen iturrietan egiten du bere hornizioa. Oraingoz gainera komunikabideetako langile teknikoei elaboratzen dituzte berriak, gehienak ia beti burges-txikien munduan bizi direnak nahiz eta, gurean gertatzen den bezala, herritarren artean sarturik bizi.

Mezuen kontrola herriari bihurtzekotan, komunitate interesatuari berari eman beharko litzaioke informea aukeratzeko eskubidea. Iraultzaren zerbitzuan dagoen profesionalak bere mezua elaboratzeko janaria herritarrengandik jaso beharko luke; bide batez, bere buruari galdegin, herritarrengandik jaso duen mezua birformulatzeko zein izango litzatekeen talderik egokiena. Guztiau praktikatik nahiko urrun gelditzen da, baita gurean ere.

Kazetaria, nahiz eta ezkertiarra izan, gizarte burgesaren barruan, kazetaritza errepresentatiboan ari da. Ematen diren baldintza estruktural espezifikoek, ezinezko bihurtu dute egiazko prentsa herritarra sortzea gizarte burgesaren barruan. Egiazko gizarte iraultzailean, botere herritarrak eman beharko lioke kazetariari egiteko horretan aritzeko eskubidea.

«Kazetaritzaren ideologia» izenaz ezagutzen dena ordea, era horretako kazetaritzaren kontra oldartzen da; burgeseriak ontzat eman duen «kazetariaren ideologia» omen da kazetaritza profesionala egiteko bide bakarra. Herriarengana berri bila jo eta beronek ematen dituen berrien aukeratzea eta presentatzearen ariketa formala soilik izan dadin kazetaritza, halakoxe formazio ideologikoa ematen zaie kazetariari. Herritarrekin batera eta hauen ondoan prentsa iraultzailea eraikitzeko erantzukizuna dute kazetariak. Guztiau zertzen hasirik da, hasi bakarrik, egia izaten gure kasuan; gure desioak baino haruntzago bai baina gure posibilitateak baino honuntzago ere bai, noski.

Komunikabideen jabegoa

Inork ezin dezake duda, prentsa askatasuna prentsaren jabe direnei bakarrik dagokiela. Askatasun hori funtzionala da beraz, produkzio medioen jabeen zerbitzatzeko balio baitu. Izan ere, medioak ezin du interes horiek babestuko dituen mezuak ez bestek zabaltzerik. Prentsa askatasuna bestalde, burges printzipioen munduan bakarrik bizi da eta ozta-ozta hor ere askotan, burgeseria bera ere ez baita gauza sarritan printzipio hori praktikara eramateko, jakina denez, interesak arriskutan ikusi orduko, baliatzen baita autozentsuraz edo onartzen baitu zentsura ofiziala.

Egin-ek akats ugari badu ere, badu meriturik eta horien artean baliosena jabegoa banatzeko duen formula dateke. Ez dugu esan nahi egunkaria inorena ez denik, ez eta gutxiago ere. Egunkari honetako langileek ez dute medioaz nahi dutena egiterik. Bistan dena, zera da, egunkari honen jabegoa «atipikoa» dela, eskaintzen duen produktua bezalaxe. Kasu honetan jabegoa irakurleei dagokiela, esan nahi dugu, egunez egun horiek erabakitzen baitute, hein handi batetan, biharamunean egunkaria kaleratzea, hasiera batetan dirua emanez —eta ez gehiegi, egia—, proiektua mamitzea erabaki zuten kontu partaideek baino gehiago behintzat.

Bada auzi honetaz errezelu txarrik, *Egin*-en Euskal Herriko sektorearen batek dukeen eragin politikoaz asko hitzegiten baita. Eragin hau, dena den, irakurleen bidez bideratzen da gehienbat

eta ez, maxiatu den bezala, alderdi edo koalizioen batetako zuzendaritzatik zuzenean. Irakurleek zuzentzen dute nolabait «beren» egunkariaren nondik norakoa. Gure ustez, egunkariaren linea «feed-back» harrigarri bezain esijente horrek tratatzen du eta horretan bakarrak gara, ezagutzen dugunez, hedapen handiko egunkari berrien artean.

Objetibotasuna arau nagusi eta status gisa

Kazetaritzaren arau nagusi bihurtu du sistemak objetibotasuna, zeinetara bildu baititu profesio honetako beste mandamendu guztiak. Gonbarazio baterako, medikuentzat Hipokratesen zinak duen zeregin bera du arau honek kazetariatzat, medikuen gremioak etikotasunaren juramentu horren bidez itzala eta errespetua bereganatu zituen bezala, bereganatzen baitu kazetariak, objetibo izateaz, bere etika propioa. Prentsako profesionalak, ondorioz, ezin dezake bere kabuz, «kanpotik» ez bada, ezer juzka. Egiatia, objetiboa izatea dagokio kazetariari.

Halarik, kazetariak eguneroko zapalkuntza eta menperakuntzaren konplize ez badu izan nahi —gurean klase eta nazio zapalkuntza dagoela ahanzi barik—, ageriko errealitate hau gaititu beharko du, eta errealitate kontrajarri eta nahastuarekin lotu, non kontraesan eta nahasmenok gizartearen itxurazko armonia ukatzen duten, zeren klase menperatzailearen armonia eta egia hutsa baino ez baita.

Gauzak «deskribatzera» mugatzeak, sistemak aldarrikatzen duen jokaera onartzea esan nahi du, deskodifikazioaren dinamika erakunde zapaltzaile eta inguru baloratzzailearen eskuetan uztea, klase zapaltzaile horrek «bere» kazetariari, begirakortasun eta seriotasun statusen truke eskatzen diona —«egunkari serioa» esan ohi dela, kasu—, antropologilari bati, adibidez, ez diola eskatzen kontutan hartuz, alegia.

Objetibotasun eta profesionaltasun kontzeptu honen bestaldera, kazetariak eta egunkariak beste jokaera bat aukera dezakete: masen ordezkari eta bide izatea, beraiengandiko agindua-
1en jabe. Profesioaren ikusmolde honetatik eta gureak duen ja-

begoaren ezaugarritz, «bestelako» egunkari batetaz hitzgeiten hastea zilegi da, eta, egiazki horixe izan nahi du *Egin*-ek. Hori da, gainera, eta hori bakarrik, objetibotasunari eman dakioken erakarmen bakarra. Objetibotasuna, beraz, hurbilketa bat baino ez baita. Horixe da, gure egunkariak Euskal Herriko informazio hoberenari emandako erakarmena. Gure egunkariak gertakizunen «beste alde» erakutsiz gain, *Egin*-ik gabe batere ardurarik gabe geratuko ziratekeen gertakariak, gutxienez azaltzera behartzen ditu egunkaririk konbentzionalenak.

J. F. A.

ALGUNOS PROBLEMAS DE LOS MEDIOS DE COMUNICACION DE MASAS QUELQUES PROBLEMES RELATIFS AUX MOYENS DE COMMUNICATION DE MASSE

El objetivo fundamental de un medio de comunicación revolucionario es devolver la palabra al pueblo, de la que le ha privado la clase dominante. A este desafío se puede responder organizando e impulsando desde el medio de comunicación el proceso revolucionario, o reflejando las necesidades y fines de la clase dominada.

Si el pueblo es el protagonista, los trabajadores mismos deberían mantener el control de la información. Ellos tienen el derecho de elaborar, discutir y difundir la información. El periodista revolucionario debería beber de dicha fuente. Pero los condicionamientos estructurales de la sociedad burguesa hacen imposible una auténtica prensa popular. «La ideología del periodista» se rebela contra este proyecto y considera que el profesional debe limitarse a ser mero presentador de noticias.

Propiedad de los medios de comunicación

La libertad de prensa es sólo derecho de sus dueños. Los medios de producción están al servicio de los intereses de sus propietarios. A este respecto el sistema de propiedad de *Egin* es «atípico». Los lectores son quienes deciden en gran medida las directrices del periódico. De todos modos más que los cuentaparticipes que decidieron fundarlo.

La objetividad como norma principal y status

El sistema ha convertido la objetividad en norma fundamental del periodismo. Pero el periodista, si no quiere ser cómplice de la opresión, deberá expresar las contradicciones de la realidad más allá de la engañosa armonía aparente. Limitarse a describir los hechos entraña aceptar el sistema, dejar en manos de las estructuras dominantes la dinámica interpretativa de

los hechos. Frente a este concepto de objetividad y profesionalidad el periodista puede adoptar otra postura: representar los intereses de las masas.

L'objectif fondamental d'un moyen de communication révolutionnaire est de redonner la parole au peuple, dont l'a privé la classe dominante. On peut répondre à ce défi en organisant et en impulsant le processus révolutionnaire à partir des moyens de communication ou en reflétant les nécessités et les buts de la classe dominée.

Si le peuple est le protagoniste, les travailleurs eux-mêmes devront maintenir le contrôle de l'information. Ils ont le droit d'élaborer, de discuter et de diffuser l'information. Le journaliste révolutionnaire devra puiser à la dite source. Mais les conditionnements structurels de la société bourgeoise rendent impossible une authentique presse populaire. «L'idéologie du journaliste» résiste à ce projet et considère que le professionnel doit se limiter à être un simple présentateur de nouvelles.

Propriété des moyens de communication

La liberté de presse est seulement un droit de ses maîtres. Les moyens de production sont au service des intérêts de leurs propriétaires. Par rapport à ceci, le système de propriété d'EGIN est «atypique». Les lecteurs sont ceux qui décident en grande partie les orientations du journal. De toutes façons plus nombreux que les participants qui décidèrent de le fonder.

L'objectivité comme norme principale et statut

Le système a transformé l'objectivité en norme fondamentale du journalisme. Mais le journaliste, s'il ne veut pas être complice de l'oppression, devra exprimer les contradictions de la réalité au-delà d'une harmonie apparente trompeuse. Se limiter à décrire les faits amène à accepter le système, à laisser aux mains des structures dominantes la dynamique interprétative des faits. Face à ce concept d'objectivité et de professionnalisme, le journaliste peut adopter une autre position: représenter les intérêts des masses.

Irratigintza egun Euskal Herrian

Jose Mari Otermin

1. — IRRATIGINTZAREN EGOERA

Gaia bere osotasunean askoz zabalagoa bada ere, haseratik finkatu nahi dut nire analisiaren arloa: Irratigintza egun Euskadin. Eta badut honetarako arrazoirik. Komunikabideetan, beti, eta ez dakit zergatik, bigarren mailakotzat jo izan da eta jotzen da irratigintza. Eskaintzen zaidan aukeran nire lantza (kanabera) horren alde hautsi nahi dut, horren lehentasuna aldarrikatuz. Horregatik, lan honetan irratigintzaz arituko naiz, hori bait da ongien ezagutzen dudan arloa. Bestalde, prentsa idatziaz arituko denik bada hemen, mahai-inguruan. Lot nakion lanari.

Irratiak egun Euskal Herrian

Gipuzkoatik:

Radio Nacional de España, Donostian.

Radio San Sebastián. Sociedad Española de Radiodifusión (SER).

La Voz de Guipúzcoa. Radio Cadena Española.

Radio Juventud de Eibar. Radio Cadena Española.
 Radio Popular de San Sebastián. Cadena de Ondas Populares Españolas (COPE).
 Radio Popular de Loyola. Cadena de Ondas Populares Españolas (COPE).
 Radio Segura. Autonomoa.

Rizkaitik:

Radio Nacional de España, Bilbon.
 Radio Bilbao. Sociedad Española de Radiodifusión (SER).
 Radio Popular de Bilbao. Cadena de Ondas Populares Españolas (COPE).
 Radio Juventud de Bilbao. Radio Cadena Española.

Arabatik:

Radio Vitoria. Euskal Gobernuak berriki eresia.
 Radio Alava. Radio Cadena Española.

Nafarroatik:

Radio Requeté. Sociedad Española de Radiodifusión (SER) erakundeari erantsia.
 Radio Popular de Pamplona. Cadena de Ondas Populares Españolas (COPE).
 Radio Tudela. Radio Cadena Española.
 La Voz de Navarra. Radio Cadena Española.

Iparraldetik:

Radio Adour-Navarre (Herri Irratia).
 FR3—Pays Basque.
Guztira, beraz 19 irrati.

Jabegoa

Jabegoari gagozkiolarik, banaketa hau egin dezakegu:
Publikoak: Bilboko eta Donostiako Radio Nacional-ak, Baio-

nako FR3-Pays Basque, Bilboko eta Eibarko Radio Juventud-ak, La Voz de Guipúzcoa, Radio Alava, La Voz de Navarra, Radio Tudela eta Radio Vitoria.

Pribatuak: SER, COPE, Segura eta Iparraldeko Herri Irratia.

Zenbakitan, publikoak 10 dira eta pribatuak 9.

Ikus daitekeenez, publikoak eta pribatuak, kopuruari gagozkiolarik, ia berdintsu dira. Hala ere, irrati bakar bati ematen dio Euskal Herriak publikotasuna (Radio Vitoria). Beste guztiak, RTVE, Medios de Comunicación Social del Estado eta FR3-ren morrontzan ari dira.

Autonomiaren arazoa jabegoak markatzen duenez, puntu honi helduko diogu. Aurreko sailkapena kontutan izanik, bi irrati dauzkagu guztiz autonomoak (Segura eta Iparraldeko Herri Irratia). Beste bat, Radio Vitoria, Euskal Gobernuaren eskutik, inolako loturarik gabe ari da gaurregun, SERekin zituenak apurtu ondoren. Beste guztiak, hein ezberdinetan, emisora zentraleri loturik daude.

Autonomiarik eskasena Baionatik ari den FR3-Pays Basque-k dizu. Egunean ordubete eskas ari bait da Baionatik. Beste guztia Paris-Bordeletik datorkio.

Hegoaldean antzeko zerbait esan daiteke RTVEren emisorei buruz (Bilbo eta Donostia). 24 orduz ari direlarik, hiru ordu baino gehiago ez dute produzitzen Euskal Herritik Euskal Herrirako. Beste guztia Madriletik datorkie.

Beste maila Sociedad Española de Radiodifusión erakundearen irratiek ematen digute. Punta-puntako orduetatik at nahikoa autonomoak dira. Dena den, irrati hauen saiorik azpimarragarrienak Madrilen ideiatu eta handik zabaltzen dituzte («Hora 25», eguneko informatiboak, kirol irratsaioak, eta abar). Hala ere, ordu asko dute programa autonomoak egin ahal izateko.

Radio Cadena Españolaren irratiez ere antzeko zerbait esan daiteke, baina oraingoz behintzat ez dute SERekoen gatz eta piperrik. Eritzi publikoan ere ez dute eraginik, Medios de Comunicación Social del Estado erakundeari loturik egon arren. Horrela esatea gordin eta gogor egiten bazaigu ere, irrati publikoetan «ahizpa pobrearena» egiten dute. Beste hitz batzutan,

autonomia hori probetxugarri egiteko mediorik ez dute izan eta Madriletik eskaintzen zitzaiena ez da inoiz kalitatekoa izan.

Espainiako irrati-kate bati loturik egon arren, autonomia gehien lortu eta erabili dutenak Loiola-Donostiako eta Bilboko Herri Irratiak izan dira. Hori berbera aitor daiteke Iruñekoaz. Orain bertan eta egunean zehar ordu-erdi bat baino gehiago ez dute Madriletik bidalirikotik ematen. Igandeetan, kirol saioak direla bide, kateko programagintza gehitu egin ohi da. Lau ordu inguru, guztira. Bestalde, Madriletik datorren programa sortaren eragina eskasa da, hutsaren parekoa ez esatearren.

Euskara irrati-telebistetan

Orain arte plazaratu diren estudioetan, euskararen erabilpenari buruzko balorapen kuantitatiboak egin dira. Zuzendariari, ia beti, luzatzen zaizkion galdera tipoak hauek dira: «Zenbat ordu egiten duzue euskara hutsean?». «Ehuneko zenbat egiten duzue euskaraz?». Galderok egin beharrekoak izan arren, motz geratzen direla pentsatzen dut. Bistakoa denez, ez bait da berdina auzo batetako jai-programa euskaraturik ematea eta informatiboak euskara hutsean egiten saiatzea. Hemendik aurrera, beste zenbait galdera egin behar da lehen aipaturikoekin bateia: Zer-nolako irratsaioak egiten dituzue euskaraz? Izan ere, azken batean egin behar dugun galdera hau da: euskara zertarako? Beraz, lerro hauetarako prestatu dugun analisisa zenbat, zertan eta zertarako galderei erantzuten ahaleginduko da.

Segura Irratiak eskaintzen du euskaraz eginiko proportziorik nabarmenena. Ez dakit proportzio hori zenbaterainokoa den, baina euskara barra-barra erabiltzen duela esan behar da. Laburki esateko, Segura Irratian euskarak du lehentasuna. Hori kuantitatiboki. Euskara zertan eta zertarako galderen erantzuna, ordea, kezagarria da. Izan ere, euskararen normalizapenerako (euskara edozertan erabiltzea esan nahi da), Segura Irratiaren ekarpena eskasa izan da. Duela hogeit urte bezalaxe, euskara «betiko» gaitan erabiltzen du: disko eta abesti eskaintzak, eskelak, elizkizunak, oharrak eta abar. Ekarpenean aipagarriena, Goierriko Euskal Eskolaren eskutik, *Gilen Tell* nobelaren dramatizazioa da. Beraz, kualitatiboki hutsune nabaria du Segura

Irratiak. Eta hutsune horrek ebazpide bat eskatzen du. Lehenbailehen.

Nire ustez eta besterik frogatzen ez den bitartean, Loiolako Herri Irratia da euskararen normalizapenerako ahalegin sakone-na eskaintzen ari dena. Arratsaldeko 6etatik aurrera, ia guztia euskara hutsean ahalegintzen da. Goizean eta eguerdialdean ere normaltasun osoz darabil euskara. Edozein gaitan euskara erabil-tzeko oztoporik ez du.

Antzeko zerbait esan behar da Donostiako Herri Irratiaz. Apirilaren 21etik hona, arratsaldeko 6etatik gauerdia, euskaraz-ko irratsaioak eskaintzen ditu. Guztira eta FMko programak kontutan izanik, zazpi ordu t'erdi eskaintzen ditu era honetan. Horrez gainera, goiz eta eguerdiko irratsaioetan maiz sartzen da euskara, gaztelaniak lehenatasuna izan arren. Loiolakoaren antze-ra, euskara erabiltzen du futbola, pilota, estropadaketak eta beste kirolak ematerakoan ere. Euskara hutsean eginiko albis-tegiak eskaintzen ditu, orduero, arratsaldeko 6etatik aurrera. Musikalak ere egiten ari da azken hilabeteotan.

Bilboko Herri Irratia. Aurtengo udazkenean hasi da FMtik euskara hutsean eginiko programagintza eskaintzen. Lehendik ere iharduna zen, baina zazpi orduko blokeari udazkenean eman zion hasiera. Joan zen udaberrian eta Bernardo Atxagaren esku-tik, kontakizun zenbait dramatizaturik eman du. Egungo ezau-garri bat azpimarratu behar izanez gero, mikrofonoak maiz ka-leratzearena aipatuko genuke: Itsas-Lur 81, Durangoko Euskal Liburu eta Diskoen Azokan eta abarretan. Bilboko Herri Irra-tiak, goizero (7etatik ordu bietara) eskaintzen dituen zazpi or-duetz kanpo, gaztelania erabiltzen du usuen bere programagin-tzan.

Berriz ere Iparraldera goaz orain, hiruzpalau urte sortu zen irrati bati buruz hitz egiteko. Iparraldeko Herri Irratia, hango egoera kontutan izanik, bide onetik abiatu da euskararen era-bilpenean, programa asko eta askotan euskaraz ahalegintzen da eta. Hartu duten bidean saia daitezen eskatzen diegu ardu-radunei.

Hegoaldera itzuliz, bi hitz Radio San Sebastián irratiaz. Onda erdikoan eta FMtik 35 ordu inguru eskaintzen dituelarik, 3

baizik ez dira euskaraz eginikoak. Kirol saioetan euskara inoiz erabili izan du, baina oso apurka.

Beraz, Segura eta Loiola-Donostiako eta Bilboko Herri Irratiak dira euskara gehien eta normaltasunez eskaintzen dutenak. Iparraldeko Herri Irratiaren ahaleginak ere txalotzekoak dira. Hala ere, hauetatik beste guztietara alde handia dago. Laburtuz eta irratien zerrendari begiratu, bost dira serioski erabiltzen saiatu direnak. Beste guztiek zerbait eskaintzen dute euskaraz, baina sinboliko izatera ere ez dira ailegatzen, euskarari ematen zaion sarrera guztiz eskasa izanik.

Sailkapen hau egin daiteke:

1. Normalki erabiltzen dutenak: Segura Irratia, Loiola-Donostiako eta Bilboko Herri Irratiak eta Iparraldeko Herri Irratia.
2. Sinbolikoki edo erabiltzen duena: Radio San Sebastián.
3. Guztiz apurka erabiltzen dutenak: FR3-Pays Basque, Bilboko eta Donostiako Radio Nacional-ak, La Voz de Guipúzcoa, Radio Alava, La Voz de Navarra, Bilboko eta Eibarko Radio Juventud-ak, Gasteizko Radio Vitoria, Iruñeko Radio Popular, Radio Requeté, Radio Tudela eta Radio Bilbao.

Ezkerra/eskuina

Espanian gertatzen denaren antzera, Euskal Herrian ere ez du ezkerrek sarrerarik irratian. Ezker ideologiako jenderik ibili badabil irratigintzan, baina ez daiteke esan gaurengungo euskal irradi bat ezkerren eskuetan dagoenik, ezkerreko indar eta talde bezala behintzat. Konstatazio honen ondoren, galdera hau egin behar dugu: zergatik ez ezkerreko irradi baten erantzukizunetan? Erantzuna, gutxienez, bikoitza da: aukerarik eman ez zaiolako eta aukera hori eskuratzen jakin ez duelako.

Hala ere, ezkerren mendeko irratirik ez dagoela esateak ez du eskuinarenak direnik adierazi nahi. Batetik, irratigizon gutxik jotzen bait du eskuinekotzat bere burua. Bestetik, gaurengun eskuinak sarritan zigortu du ezkerrean ez dagoenaren irratigintza. Banaketa egitea derrigorrezkoa zenez gero, beste eriz-

pide batzuk erabili behar direla pentsatzen dut: liberala ala ez, progresista ala ez, eta abar.

Abertzalea/ez-abertzalea

Zatiketa hau ere, teorian behinik behin, nahikoa bizantinoa dateke. Praxiak argi ditzake puntuok: Euskal Herriko Irratien zerrenda eskaintzean eta jabegoaz eta autonomiaz ihardun garenan, abertzale/ez-abertzalearen diagnostikoa zerbait aurreraturik utzi dugu.

Irrati asko eta askori ezinezkoa izan zaio abertzaletasunaren alde lehiatzea. Arrazoiak: programagintzak uzten zien denbora hutsaren parekoa zelako, erantzunkizun postuetan abertzalerik egon ez delako, irratietan sarrera izan duen jende gutxi zelako abertzale eta abar.

Bistakoa denez, duela urte batzu, autonomia behar zen abertzaletasunaren alde jokatzeko. Eta Herri Irratia izan ezik, beste inor gutxi izan du karta hori jokatzeko ausardia. Eta abilitatea.

Ezkerra/eskuina kapituluan bezelaxe, Euskal Herriko irratietan abertzalerik egon ez denik eta dagoenik ez dut esan nahi. Baina, programagintza osoaren giltzak aztertuz gero, nekez esan daiteke Radio Nacional-a Bilbon eta Donostian abertzaletasuna indartu nahirik ari dela. Eta antzeko zerbait esan daiteke ia beste guztiez ere.

Nire uste apalean, Herri Irratia bakarrik ari da abertzaletasunaren rola jokatzeko, horren praxia, gutxienez, abertzalea dela esan behar bait da, teoriak beste batetarako utziz. Loiola, Donostia eta Bilbo, neurri ezberdinetan, horretan ahalegindu dira. Iruñekoak ez du bide hori egin nahi izan. Bestalde, Segura Irratia ere, bere apaltasunean, praxian abertzale jokatzeko ari da. Hori bera aitor dezakegu Baionatik ari den Iparraldeko Herri Irratiaz, hango egoera kontutan izanik noski.

Projektu konkretuak: Euskal Gobernuarena

Nik dakidanez behinik behin, gaurregun guztiz buruturiko projekturik ez dago. Projektua esatean, nire ustez, puntu zen-

bait argi eta garbi jarri behar dira: status juridikoa, presuposituak, plantilak eta abar. Zinez, horrela prestaturiko plangintzarik ez dut eskuratu ahal izan. Projektu baten ametsa eta nahia Euskal Gobernuak ditu. Hala ere, ez dut pentsatzen projektu hori behar bezala landurik dagoenik. Asmo eta egin-nahiaren barritian dagoela esango nuke. Radio Vitoria-z jabetu da Euskal Gobernuak. Zein da irratia honen etorkizuna? Euskara hutsean ariko den irratia estudioak Donostian egongo dira. Nola heldu Bizkaia, Araba eta Nafarroako entzuleetara eta interesez heldu, noski...? Hauek eta besteak argitzen dituen projekturik ez dut jaso.

Beraz, projektu zehatz baten kritikarako ez dago aukerarik. Dena den, lehen aipaturiko asmo eta egin-nahiaren barrutian, positibotzat jotzen dut Euskal Gobernuak, laino artean, erakutsi duen bidea: euskara hutsean ariko den irratia batetik eta elebiduna izango den irratia nazionala bestetik.

Errebindikapenak: EHErena

Nire ustez, txalogarria da eta positiboa, noski, erakunde honen azken mezua. Hala ere, ez nago ados errebindikapenak planteatzeko moduarekin.

Mezuarekin ados, euskararen aldeko militantzia gaurregun ere beharrezkoa dela aldarrikatzen duelako. Simplekeria deritzot, ordea, Gabonetarako Euskal Irrati-telebistak eskatzeari. Ez jendez, ez medioz, horretarako gauza ez garelako. Pentsatu al dute telebistaren nolakotasunaz eta irratia renaz? Presio taldea dela esango zait eta ez planifikatzailea, baina maximalismoaren eskola bihurtu ote den susmoa dut...

Errebindikapenak egiteko dira, baina ez eskabide baten azken ondorioak ongi neurtu gabe.

2. — GEROARI BEGIRA

Mahai-inguru honen bigarren zatiak «10 urte barrurako zure uestezko proiektuaren lerrorik azpimarragarrienak» gaia aztertu behar du. Oraingoan ere irratigintzari lotuko natzaio batipat.

Gero, telebistaz arituko naiz. Eta azken mementuan, Euskal Herriko Unibertsitateko Informazio Zientzietako Fakultateaz esan nahi dut hitz bi.

Teorikoki eta prentsa idatziaren arloan inizatiba oro gauza daiteke eta egiazta, egungo arautegiak eragozpen gutxi bait du egunkari nahiz aldizkari bat plazaratu nahi duenarentzat. Bestarik gertatzen da, ordea, irratiarekin. Kasu honetan Administrazio Zentralak eta Euskal Gobernuak emaniko baimenak behar dira irratigintzan aritu ahal izateko. Baldintza honen bidez frekuentzia eta potentziak araupetu nahi dira. Horregatik, ez dago edonoren esku irradi bat eraikitzea. Beraz, proiektuak, irradi arloan, guztiz mugaturik daude eta egongo dira. Hori dela eta, Euskal Gobernuak sortu nahi dituen irratien proiektuari lotuko naitzaio hemen. Horri eskainiko diot gogoeta hau.

Mahai-inguru honen lehen zatian aurreratu dudana bezala, positibotzat jotzen dut Euskal Gobernuak irratitari buruz azaldu duen asmoa. Asmo honek, okerrik ez dela, bi fruitu eman behar ditu. Batetik, euskara hutsean ariko den irratia muntatu nahi da. Bestetik, elebiduna izango den Irrati Nazionala dago. Proiektu honi buruzko gogoeta zenbait egin nahi dut, puntu batzu argitzeko asmotan.

Irrati euskalduna

Azken batean eta gaur gaurkoz desafio hutsa da euskaraz ariko den irratia. Batetik, goizetik gauera bitarteko programagintza, bere osotasunean, euskaraz inoiz eman ez delako. Bestetik, profesional ez urri gabiltzalako. Profesional hitza erabiltzean, jende askoren premia ikusten dut irradi honi erantzuteko: informatzaileak, musika komentaristak, kontrolak eta abar. Azkenik, Euskal Herriaren erantzuna zein izango den ez dakigulako.

Azkeneko puntu honek argitasun-apur bat eskatzen du. Orain arte eta salbuespen eskas batzu aparte, militantzia hutsari esker hurbildu gaitzaizkie euskal komunikabideei. Ia aberria egiten aritu da: euskarak eskatzen zuelako, euskal kulturak eskatzen zuelako eta abar. Guztiz kontu ahaletan gertatu da bestea: kali-

tateagatik hurbiltzea. Medio eskasak erabili izan dira, komunikabideetako profesional gehiegi egon ez delako, euskaraz eginiko programak ia beti bigarren mailakoak izan direlako eta abar... Egoera honetan zaila zen interes eta kalitate eta erakarpen handiko programak lortzea. Eta hori falta zenean militantziaren errekurtsoa erabili izan dugu, desoreka hori berdintzeko.

Eman behar diren urratsekin, ordea, kalitatearen, duintasunaren eta interesaren sasoirra heldu garela uste dut. Eta horrela ez bada, betikoan gaude, nahi eta ezinaren altzoan.

Desafio da, bai, irriti euskalduna, bertan ariko direnentzat eta entzulegoarentzat ere.

Jakin ahal izan denez, medio ugariz plazaratuko omen da sortzeaz dagoen irriti hau. Eta horixe izan daiteke euskararen erabilpenaren normalizapenerako urrats handi bat. Beste irratiekin konpententzian sartu nahi baldin bada, eta hori behar beharrezkotzat jotzen dut, egungo mediorik aurreratuenak derri-gorrezkoak dira: gaurkotasuna dago puntuetara aise eta erosoki ailegatzeko. Eta medio horiek erabiliko dituztenen profesionaltasuna ere eskatu behar da, bide batez.

Hauek dira lehentxeago aipatu dudana desafioa gainditzeko bide bakarrak. Pentsatzekoa denez, ordea, guztiau abiadan jarzteak lanik asko eman behar du oraindik, ez bait da gauetik goizera egin daitekeena. Horregatik, urte dexente behar dela pentsatzen dut orain arte esan duguna hezurmamitzeko.

Beste puntu bat ere aipagarria da hemen. Ez dakigu oraindik zer-nolako status juridikopean ariko den irriti hau, baina euskaldun ororentzat ate zabalekoa izan behar du. Bestela, alferrikakoa izango da ahalegina. Nire ustez, euskara behar dugu oparo irriti honetan eta ez batzuren pentsakera.

Bestalde, irriti honek eragile behar du izan, hutsune nabariak ikusten bait dira gure kulturagintzan: abeslaritza, antzerkia, nobela, bertsolaritza eta abar.

Eginkizun bat gehiago ere bizkarreratu nahi diogu. Euskaldunberrien animatzaile eta mimatzaile behar du izan. Entzulego hori zaindu beharrekoa da.

Bistakoa denez, proiektuaren eperik ez dut finkatu, baina

puntu zenbait ekarri nahi izan dut egunen batean proiektuaren ardatzari itsatsiz joateko.

Ez pentsa urte bateko programa denik guztiau.

Irrati nazionala

Honen asmoa ere Euskal Gobernuari zor zaio. Dirudienez, elebiduna izango da, euskarari ateak normaltasunez irekiko zaizkiolako agindupean. Eta hori eskatu behar dugu. Irrati honetan euskara normaltasunez erabiltzeak garrantzi handia dizu, elebidun gizartearen islada izatera beharturik dago eta. Horregatik aldarrikatzen dugu euskararen eta gaztelariaren arteko oreka Irrati Nazional honentzat. Euskararen erabilpenaren esperientzia ez dadila izan prentsa idatzian eman dena bezain eskasa.

Badu irrati honek zereginik bere arloan: informatiboetan egun bizi dugun kolonialismoa uxatu, benetako bilinguismoari ezartzen zaizkion eragozpen guztiak gainditu eta abar. Nire ustez, hauxe da euskal gizarte honetan traumarik gutxien sortu behar duen irratia. Izan ere, hitzez behinik behin, egin diren ikerketetan bilinguismoaren aldeko azaldu gara. Horren ordua da. Bestetik, irrati honek euskararen aldeko espektatibak sortzeko bide behar du izan.

Lehen aurreratu dugun bezala, ordea, esperientzia honek badu artiskurik euskararentzat eta helburu bezala, hizkuntza bien arteko oreka topatzen saia dadin eskatuko genioke.

Irrati Euskaldunaren eta euskal Irrati Nazionalaren inguruan gogoeta zenbait egin ondoren, arazo praktikotara jo nahi dut. Besterik uste bada ere, ez dago Euskal Herrian egungo premia guztiei erantzuteko adina profesional prestaturik. Etsenplu bat. Lerro hauek idazteko une berean, Donostia, Loiola eta Bilboko Herri Irratiak, Euskal Gobernuaren laguntzari esker, egunean 20 ordutik gora euskaraz ematen ari dira. Zer gertatuko da Gobernuak euskaraz bakarrik ariko den irratia muntatu nahi baldin badu? Non daude sortzear dauden premiei erantzuteko gauza izango diren profesionalak? Puntu honetan Gobernuak aukera zehatz bat egin beharko du, gaur egun ez bait da posible es-

perientzia biak duintasunez aurrera eramatea. Egia esan, korapilo honen askapen erraz eta erosorik ez dut ikusten.

Izan ere, zer gertatzen da Herri Irratietako esperientziak bertan behera uzten badira? Lehenean gaudela. Hemen zulo bat betetzen dela, han hutsunea egiteko... Herri Irratietan daramatzaten esperientziak, alegia, hutsean geratzen direla. Profesional zenbait kentzen zaielarik, ez dute egungo programagintza antetara ateratzeko ahalmenik.

Norbaitek eta gogoetaren hariari jarraiki, galdera hau egin dezake: Zer egingo luke Herri Irratiak euskararekiko? Ba al du erantzunkizunik? Nire erantzuna baiezkoa da. Badu erantzunkizunik, beste irratiek duten bezala.

Azken batean arazoa hau da: Gobernuak irradi euskalduna eta irradi elebiduna jasotzen baditu eta prestatzen, ez al dute beste guztiek herri honen nortasuna tajutze lanetan eginkizunik? Pentsa, gero, bestela zer gerta daitekeen: hiruzpalau irratitan bakarrik izango duela sarrera euskarak, beste guztietan giltzapeturik egoteko.

Egungo egoera larria baldin bada, ikus zer gerta daitekeen ebazpideak eman asmotan gabiltzan une honetan, egokienak eta zuhurrenak ematen ez baditugu.

Dena den, irtenbide bat behar du kale ilun honek. Esate baterako, Euskal Gobernuak bere mendekotzan ez dauden irratietako euskarazko saioak patrozinatuz edo. Eta bere eskutik lanean ariko diren Antzerki, Bikoizketa eta abarretako Eskoletatik materiala eskainiz, irratiek espazio dramatikoak eta emateko gogorik erakusten baldin badute behintzat.

Dena den, arazo bihurria da eta ebazpide zailekoa.

Telebista

Hau ere errebindikapen da. Eta jakin ahal izan denez, 1983-rako eskaini nahi dira lehen emanaldiak. Gaurko egoerari begiratuz, ezinezkoa dirudi ordurako telebista kate batek eskatzen duenari erantzuteko moduan egotea. Irratiaz aritu garenean, han eta hemen hutsuneak utziz abiatzeko arriskua zegoela esaten nuen. Hemen ere antzeko zerbait gertatuko den beldur naiz.

Pentsatzekoa denez, irratietako profesionalentzat izango dira lehen deiak, irratia umezurtz geratuz... Horregatik, hemen ere urrats bakoitza ongi aztertu ondoren eman behar dela eskatzen dut. Presarik gabe.

Lehen urrats bezala, haurren programak prestatzeari ekingo nioke nik, premiarik larrienak hortxe ikusten ditut eta. Egungo haurrak bi iturri eta eskola ditu: ikastetxea eta telebista. Ez dut ordena honetan doazenik esan nahi, gainera. Ahal den neurrian, azkenengo honen eragina etxeratzen ahalegindu beharra dago.

Haurren programetarik abiatu behar dela diot. Eta ez pentsa eginerrazak direlako esan dudarik hori. Ez, premiei begiratuz egin dut baieztapen hori. Eta medio oroz egin behar dira programa horiek. Duintasunez egin behar dira. Militantziaren egunak bukatzen ari ote diren susmoa dut. Horregatik, kalitatezko programak behar dute izan, hurrek ez bait dute militantziarako gogorik. Programa hauen ondotik, informatiboak, zuzeneko tele-saioak eta abar egingo nituzke. Eta ahal den egunean, dramatikoko batzu. Hemen ere urte asko joango zaigu aipatu ditudanak duintasunez egiten.

Hala ere, galdera bat egin nahi nuke kapitulu labur hau amaitu aurretik. RTVEk Bilbon duen Zentruak erantzun al dio eska zitekeen neurrian egungo egoera politikoari? Ez ote dugu hortik abiatu behar tele-eraikuntzaren lehen harria jartzean? Oraindik ere hori eskatzeko garaian gaude eta ez litzateke desgokia errebindikapenak horretara zuzentzen hastea.

RTVEk zergatik erabiltzen ditu hain erizpide ezberdinak Katalunian eta Euskadin? Zergatik? Euskal Gobernuak ba al du erantzunkizunik honetan?

Informazio Zientzietako Fakultatea

Hainbat premia duen herri honek Informazio Zientzietako Fakultatea baduela sinesteak lanik asko ematen du. Nire ustez, fakultate honen proiektu bat lehenbailehen egin beharrekoa da, berantegi egin ez dakigun. Irrati-telebistetan sortuko diren premiei erantzuteko bide bakarra hauxe dugu. Hori betetzen ez

badu, zertarako dago? Eta nik ditudan datuen arauera, ez dut uste horren eskaintza premiei inoiz parekatuko zaienik. Orain daraman bidetik ez behintzat. Horregatik, Fakultatearen arduradunei eta herri honetako politikoei ere plangintza zehatz bat eskatu behar diegu, euskal gizarte honek eskatzen duenaz arduratzen has dadin eta espero ditugun lehen fruituak lehenbailehen eman ditzan.

Egoera normal batetan, Fakultate honek markatu behar du euskal komunikabideen norabidea. Horrela gertatzen ez bada, proiektu antzu eta agor bat izan dela esan beharko dugu.

Sasoia da, beraz, premien inbentario bat egin eta plangintza horren arauera jartzeko.

J. M. O.

LA RADIO HOY EN EUSKADI LA RADIO AUJOURD'HUI EN EUSKADI

1. Análisis de la radio actual

A pesar de que se la considera como algo secundario, la radio tiene la primacía entre los medios de comunicación.

Las radios hoy en Euskal Herria. Existen 19 radios. De ellas 10 son antes públicos y 9, privados. Sólo 2 son totalmente autónomas (Segura e Iparraldeko Herri Irratia). Las demás emisoras, en diversa proporción, están ligadas a sus centrales. La menos autónoma es F.R. 3 - Pays Basque. Las que más autonomía han logrado son las radios populares de San Sebastián y de Bilbao y Radio Loyola.

El euskara en la radio. Las radios que emplean normalmente el euskara son cinco: Segura (cuantitativamente la que más), Loyola - Radio Popular de San Sebastián (cualitativamente las que más), Radio Popular de Bilbao e Iparraldeko Herri Irratia. Radio San Sebastián lo hace simbólicamente. Las demás lo hacen menos aún.

Izquierda-Derecha. La Izquierda no tiene ninguna emisora, sin que ello signifique que todas estén en manos de la derecha.

Abertzale - no abertzale. Aunque con diversos matices puede decirse que las radios que utilizan normalmente el euskara ejercen un rol abertzale.

Proyecto concreto del Gobierno Vasco

El Gobierno Vasco tiene un proyecto, pero todavía está poco perfilado como para emitir un juicio.

Reivindicaciones de EHE. Aunque se esté de acuerdo con la finalidad última de las reivindicaciones de EHE, no se puede menos de criticar cierto aire de maximalismo en sus planteamientos concretos.

II. Proyectos para los próximos 10 años

La radio.

Es positivo el proyecto del Gobierno Vasco de una radio sólo en euskara y de otra Radio Nacional bilingüe.

1. **La radio en euskara.** Una radio exclusivamente en euskara es un auténtico desafío que hasta el presente no se ha aceptado. Requiere abundancia de medios y de gente profesional. Por ello exigirá también tiempo su puesta en marcha. Deberá ser una radio abierta, y que dinamice el mundo de la cultura vasca.

2. **La radio nacional.** Parece que será bilingüe. Debería utilizar el euskara con toda normalidad, manteniendo un adecuado equilibrio con el castellano. Le corresponde el quehacer de superar el colonialismo informativo que hasta ahora hemos padecido.

Sin embargo ambos proyectos tienen un grave peligro. Necesitará los pocos profesionales de radio euskaldunes. Con ello puede quedar desmantelada la estructura para el euskara de otras radios.

La televisión

Está proyectada para el 83. La escasez de gente profesional aconseja ir paso a paso. Se debería comenzar con los programas infantiles. Luego vendrían los informativos, emisiones en directo, etc.

Se debe plantear también la calidad de los servicios que presta al país el centro de Telenorte.

Facultad de las Ciencias de la Información

Si se quiere que responda a las necesidades reales de este país, dicha facultad debe proyectar y seguir un plan concreto. Lo que hasta el presente no se ha realizado.

I. Analyse de la Radio actuelle

Malgré qu'on la considère comme quelque peu secondaire, la radio a la priorité parmi les moyens de communication.

Les radios aujourd'hui en Euskal Herria. Il existe 19 radios. Parmi celles-ci: 10 sont publiques et 9 privées. Seulement 2 sont totalement autonomes (Segura et Iparraldeko Herri Irratia). Les autres émetteurs, à des degrés divers, sont dépendants de leurs centrales. Le moins autonome est F.R.3-Pays Basque. Celles qui ont obtenu le plus d'autonomie sont Radio Populaire de San Sebastian et de Bilbao ainsi que Radio Loyola.

L'euskara à la radio. Les radios qui utilisent normalement l'euskara sont au nombre de cinq: Segura (quantitativement le plus), Loyola-Radio populaire de San Sebastian (qualitativement le plus), Radio populaire de Bilbao et Iparraldeko Herri Irratia. Radio San Sebastian l'utilise symboliquement. Les autres l'utilisent beaucoup moins encore.

Gauche - Droite. La Gauche n'a aucun émetteur, sans que cela signifie que tous les émetteurs sont aux mains de la Droite.

Abertzale - non Abertzale. Quoique de façon nuancée on peut dire que les radios qui utilisent normalement l'euskara exercent un rôle abertzale.

Projet concret du Gouvernement Basque. Le Gouvernement Basque a un projet, mais il est encore peu élaboré pour pouvoir émettre un jugement.

Revendications de EHE. Quoique l'on soit d'accord avec la dernière finalité des revendications de EHE, on ne peut moins critiquer une certaine tendance maximaliste dans leurs propositions concrètes.

II. Projets pour les 10 prochaines années

La radio.

Le projet du Gouvernement Basque d'une radio seulement en euskara et d'une autre Radio Nationale bilingue, est positif.

1. La Radio en euskara. Une Radio exclusivement en euskara est un authentique défi qui jusqu'à présent n'a pas été accepté. Elle requiert une abondance de moyens et de personnel professionnel. C'est pourquoi elle demandera du temps pour se mettre en marche. Elle devra être une radio ouverte, qui dynamise le monde de la culture basque.

2. La radio nationale. On pense qu'elle sera bilingue. Elle devra utiliser l'euskara normalement, maintenant un équilibre adéquat avec le castillan. Il lui appartient de dépasser le colonialisme d'information que nous avons subi jusqu'à présent.

Sans aucun doute ces deux projets représentent un grave danger. Celle-ci nécessitera le peu de professionnels radio euskaldun. Ainsi la structure des autres radios pour l'euskara peut se trouver démantelée.

La Télévision

Ce projet est pour 83. Le manque de personnel professionnel suggère d'aller petit à petit. On devrait commencer avec des programmes pour enfants. Viendraient ensuite les programmes d'information, les émissions en direct, etc.

On doit s'interroger aussi sur la qualité des services qu'offre au pays le centre de Telenorte.

Faculté des Sciences de l'Information

Si l'on veut qu'elle réponde aux besoins réels de ce pays, la dite faculté doit élaborer et suivre un plan concret. Ce qui jusqu'à présent n'a pas été réalisé.

Elkarrizketa: Euskara eta prentsa

I. — PRENTSA-MOTAK

JAKIN (J). — Prentsa idatziaren eremura mugatuko gara (ia erabat) elkarrizketa honetan. Prentsa-mota desberdinak ikusiko ditugu, hasteko, banan-banan ikusi ere, eta kasu bakoitzean aurretik esanak eta batak bestearen eritziak osatuz eta zuzenduz joango gara. Has gaitezen egunkariekin, gero astekariak eta, hirugarren lekuan, kultur prentsa aztertzeko.

1. Egunkariak

a) *Kudeaketa.*

J. — Profesionaltasuna aztertzean, bere txostenean, egunkari zaharretako eta berrietako zuzendarien kudeaketa desberdinez mintzatu da Amatiño, eta ematen zuen zaharretako zuzendariak «hobeago» bezala ikusi dituela. Hala ote?

AMATIÑO (A). — Egunkari zaharretako zuzendariak hoztasunaren eta teknikotasunaren fama dute, ofizio gehiago balute bezala. Besteen eginkizuna, agian, zailagoa izan da, herri honen kon-

tradikziotan eta konfliktibitatean murgildu bait dira, herri honen dardara sentitu bait dute hauek. Eta jakina, kondizio horietan asmatzea askoz zailagoa da. *Egin*-eko edo *Deia*-ko zuzendariek eta *Correo*-ko zein *DV*ko zuzendariek ez dute behintzat irudi bera.

Gainera, frustrazio bat egon da: egunkari berriek ez dute izan hasieran uste zen adinako arrakasta, salmenta aldetik. Ez *Deia* da Bilbon gehien saltzen dena, eta ez *Egin* Donostian.

JOSE FELIX AZURMENDI (JFA). — Baina berrikitan egin du txosten bat etxe tekniko batek —enpresarientzat txosten konfidentzialak egin ohi dituen horietako batek—, eta garbi agertzen da hor zein harrigarri den prentsa idatziaren krisi honetan *Egin* eta *Deia* salbatzea. Salbuespen gisa jartzen zituen biak. Nik uste *Egin* eta *Deia* orain kalean egotea milagro bat dela.

A. — Oso konformista ikusten zaitut.

JFA. — Ez, ez, konformista ez. Optimistegi izan ziren hasieran. *Egin*-ek 80.000 ale salduko zituela uste izatea, eta ez dakit zenbatek enpresa horretan lan egitea, eta ez dakit zenbat edizio, eta ez dakit zenbat orrialde... hori dena plangintza faltsu bat izan zen. Hortik datorke oraingo desilusio hori, edo zuk esaten duzun frustazioa. Baina benetan nik uste dut, bai *Egin* eta bai *Deia* kontsolidatu egin direla, enpresa bezala kontsolidatu. Hori da lehen pausua gero Euskal Herriaren alde eta euskararen alde lan egin ahal izateko. Hemendik aurrera, datuzela presioak, EHErenak eta gainerakoak. Horrela Zuzendari-tza gauzak aldatzera behartua izango da. Horregatik ni ez naiz batere pesimista: gauza handia da kalean egotea eta ia 50.000 alerekin azken kontrolean (nahiz eta urte atipikoa izan 1981, 23-F alde batetik eta *DV*ko greba bestetik).

Klaro, proiektu berriekin hasi zirenek oso bestela pentsatzen zuten. Haiak uste zuten *Correo*, *Gaceta* eta *DV*k, frankista izanak zirelako, frankista bezala jarraitu behar zutela, eta herriak, abertzale izanik, ez zituela erosiko, ETArekin kontra, PNV-ren aurka, abertzaletasunaren kontra egin zituzten kanpainak egin eta gero. Baina zer gertatu da hori, batez ere *Correo*-n? (Egia esan, *DV*rena oso desberdin da. Honek ez du ezer aportatu; suertea izan du: *La Voz de España* hiltzea eta Gipuzkoako

egunkari probintzial bakarra izatea). Berrikuntzaren adibide bakar bezala *Correo* hartuko nuke. *Correo*-k, bai, honek jakin du nola aldatu aurpegia. Baina ez da hori bakarrik: Bizkaian kanpotar asko dago, kanpotar bezala jarraituko duen asko, eta hauek *Correo*-n daude errepresentaturik.

A. — Gainera, *Correo*-k PSOeri bere orriak zabaldu dizkionaren informazioa dugu.

JFA. — Bestalde, medioaren beraren asuntza ere badago. Suertea izan dugu besteok, oraindik teknika zaharrarekin jarraitzen bait du *Correo*-k. Baina ikusiko dugu zer gertatuko den teknika berria sartzen dutenean, birmoldaketa teknologikoa egingo dutenean, hainbat milioi horretarako jaso bait du Bergaretxe jaunak bere zuzendari den AEDE izeneko egunkari-jabeen elkartetik. Hori ere kontuan eduki behar da.

Beste hau ere ezin da ahantzi: objektiboki hartuta, *Correo*-k badu interesik, nahiz deportean, nahiz giza-intereseko erreportaietan. DVn ez da gauza bera gertatzen. Meritu bat besterik ez du honek: herrietako informazioa jasotzea. *Correo*-k alde du, baita, *Gaceta*-k porrot egitea eta aurkezteazina izatea.

Hau denau honela delarik nola konpetitu? Oso zaila da. Seguru nago ni Bizkaian ere gertatuko dela Gipuzkoan gertatzen dena: askok *Deia*-z gain *Correo* ere irakurriko duela.

A. — Mundu guztiak du bigarren periodiko bat.

JFA. — Eta gainera hor hautapen bat dago: periodiko nazionala edota lokala, oso lokala. Hori Alemanian ikusten da, Ingalaterran, Ipar Amerikan ere ikusten da. Hemen bai *Deia*-rentzat eta bai *Egin*-entzat kazeta nazionala izatea oso zaila da, baina azkenean biok horretaraxe goaz. Guk ezin dugu konpetitu merkatu lokalean eta probintzialean.

Hau dena kontutan hartuta, ez dut uste egunkari berri hauen arrakastaren edo arrakastarik ezaren arazoa Zuzendaritzaren problema izan denik.

b) *Ideologia, politika.*

J. — Makina bat gauza jadanik aipatu dugu: zuzendaritzaren lanak, prentsa zaharraren birmoldaketa, prentsa berriaren

joerak eta berezitasunak, etabar. Ur sakonagotan murgilduko gara orain. Egunkariaren eta politikaren harremanak aztertuko ditugu. Has gaitezen salakuntza-puntta duen galdera batekin: gaurko prentsa idatzia ez ote dago politizatuegia? Alegia, ez ote du politikaren zama gehiegi, alde batetik, eta bestetik, alderdi politikoengandik ez ote hurbilegi?

A. — Gure prentsaren akatsa, neretzako, politizatuegia egotea baino areago beste hau da: eguneroko errealitateari lotuegi dagoela, puntualogia dela, herri honetako ezina, kontradikzioa gehiegi sofritzen duela.

ZALAKAIN (Z). — Nik uste gauza normala dela, egunkariak enpresa pribatuak direnez, Euskal Herriko ideologi zatiak, taldeak nolabait isladatzea. Eta ez dute hain gaizki egiten, esan nahi dut, bakoitza nahiko errepresentaturik aurkitzen dela, nahiz eta talde bakoitzak bere-bere egunkari bat ez eduki.

Egia esan, niretzat ez da eredia, askok, denek, irakurtzen duten aldizkaria. Azken batean, problema, neretzat, non aukeratu izatea da. Kaxkarrak direla? Beno, tira. Baina esaten didatenean *El País* sekulako periodikoa dela, ez dakit zenbat milakak irakurtzen duela... eta zer? Zer esan nahi du horrek? Azken batean, jende guztia bide beretik doala, masifikatzea.

OTERMIN (O). — Lehentxeago J. F. Azurmendik esan du Gipuzkoan DVk baza bat izan zuela, *La Vox* desagertzea, eta besterik ez. Badaiteke. Baina badaiteke, baita, zama politiko hain astuna ez eramatea. Eta beharbada hortxe legoke DVren arrakasta eta bere esitoaren giltza. Nik uste dut euskal komunikabide guztiak erabat sakabanatuta daudela, eta ia ezin dutela bestearen alderdi on bat onartu. Zaila da Euskal Herri honetan, eta euskararen atzetik gabiltzan momentuan, Eusko Gobernutik diru bat etortzen bada, diru horren inguruko projektua ontzat ematea. Neronek bizi izan dut hau Donostiako Herri Irratiko euskal sei orduak direla eta.

Nere proposamena hau da: euskal prentsak ateak zabaltzen jakin behar du, ez ixten, Euskal Herri honetan. Biszeralitate handia dago, neretzako, zama politiko ikaragarria, gehiegizkoa. Eta, esan bezala, DVren arrakasta zama politiko hori arintzean legoke. Medio abertzaleetan zatiketa ikaragarria dago, beldur-

tzeko modukoa. Medioen beraien eginkizuna behar du izan atek zabalduz joatea, osigenatzea. Zuzendaritza espiritual bat behar dugu.

JFA. — DV aipatu duzu. Zuk aditzera eman duzun joko hori galtzera doa DV. Momentu batez DVk nazionalisten jokoa ere egin nahi izan zuen. Orain ez. Eta galdera hau da: nork jartzen du dirua periodikoa egiteko? Datozen hauteskundeetan politikan sartzera behartua aurkituko da, Larrea zuzendariak nahi ez badu ere: AP eta UCDren interesak Gipuzkoan errepresentatu nahiko ditu, nahiz eta gutiago saldu.

O. — DVk politikarik ezaren irudia jokatu du, eta hori ez da neretzat lehen aipatu den Zuzendaritzaren problema, «marketing» problema baizik.

2. Astekariak

J. — Igaro gaitezen astekarien mundura, astekari paretxo bat ere badugunez. Bai, pare bat bakarrik bizirik: *Punto y Hora* eta *Euzkadi*. Hildakoak ugariago, horien artean *Garaia*, *Berriak*, *Ere*. Euskara hutsekoak salbu, bi astekari bakarrik Euskal Herri osoan: zergatik ez dago gehiago?

A. — Estatu mailako prozesuan astekariak etorri dira lehenengo. Egunkariak hartu dute txanda bigarren momentu batean. Erreformaren ondoko egunak igaro ondoren, egunkariak erreakzionatu egin dute, eta bistan denez, informazioari dago-kionetan egunkariak aurreratu egin dira. Gaur astekaria astekari bezala dago krisian.

Astekariari dagokiona da, informazioari buelta ematea, go-goeta sartzea. Honetan datza problema: ea honetarako klase periodistikorik ote dagoen, eta gero erreflexio hori irakurriko duen irakurlegorik ba ote dagoen: goazen martxan jendeak ba ote du astekaria hartu eta patxadan aztertzeke betarik? Eta gero, noski, gure kasuan 2 milioi biztanle garela gogoratu behar.

Z. — Egunkariak politizatuak badaude, gure artean behintzat astekariak gehiago daudela ikusten dut nik.

O. — Amatiñok aipatu duenaren harian: astekari batetan eman behar diren ikuspegiak eman ahal izateko jendea falta

zaigu. Zenbat pentsalari dago gaur Euskal Herrian astekari batetan zerbait esateko moduan? Bat bakarrik ere ez.

Bestalde, zenbat pentsalarik aintzat hartzen du gaur *PyH* bat, *Argia* bat, zerbait esateko, tribuna bezala?

J. — Astekariaren eskasiaren funtsa ez ote dago, gero, gure gizartearen hermetismoan, hertsikerian? Frantzia batetan, Alemania batetan astekariak ongi bizi dira; bikainak eta galantak ezagutzen ditugu. Gurean ez. Gure gizartea ez da oraindik «transparente». Astekari batek, bizi ahal izateko, beste analisi maila bat eskatzen du, eta gizarte hau hermetikoa da, analisi maila horretan behar diren datuak falta dira.

Gure kultur maila apalaren problema ere tartean dago, noski. Baina goazen aurrera.

3. Prentsa kulturala

J. — Hurrengo arazoa, arestian aipatu dugun hirugarrena, planteatu nahi dugu orain, sakontzeko astirik ez badugu ere. Euskal Herriak bere historian izan du kultur prentsa bat, *Hermes* bat edo dena dela. Orain erdaraz badugu bat, bat bakarra: *Muga*. (Astekariak alderdien inguruan mogitzen badira, kulturala hau ez gutiago).

Arazo honetan ez ote da eskabide bat edo egin behar, kultur aldizkari baten errebindikapena? Ez ote da hor hutsune handi bat sentitzen, erreflexio aldizkariaren falta? Ez ote dago beharrik? Ez ote da beharrik sentitzen?

JFA. — Gauza pare bat esan nahi nuke arazo horiei buruz.

Aldizkari gutxi dugula eta, harritu egiten gara. Espainian saltzen diren aldizkariaren datuak ezagutu beharko genituzke. *Cambio* 16 eta *Interviú* kenduta, zenbat saltzen dira besteak, *Triunfo* bat, *La Calle* bat Estatu osoan? Harritu egiten gara *PyH*-k 12.000 saltzen dituela eta, *Euzkadi*-k 10.000 edo, eta *Ere*-k 3.000 saltzen zituela eta. Zenbat saltzen dute, ba, besteek? Zenbat salduko du, ba, *Viejo Topo*-k? Euskadi nagusi da craindik ere irakurle mailan Estatuan.

Erreflexio-aldizkariaren premiaz zer esan? Aldizkari mota horien premia lau katuk sentitzen du, ez beste inork.

O. — Nere eritzian, horrelako aldizkari bat, inon behar izatekotan, hemen behar da. Mila gauza irentsi ditugu, eta nola irentsi ditugun ez dakigu. Ikuspuntuak eta ikusmoldeak zabaldu behar zituen eta zabaltzera bultzatuko zituen zerbait behar genuen, eta ez dugu izan.

II. — KOMUNIKABIDEAK ETA EUSKARA

1. Arazo nagusia: Kazetari eskasia

J. — Komunikabideetan euskara sartu nahi badugu, euskal kazetariak behar ditugu lehenik. Ba al ditugu?

Oterminek behin eta berriz aipatu du, erdaran esan ohi denez, santu bat jartzeko beste bat erantzten dela hemen, pertsonal falta, beraz. Zalakainek, bere aldetik, ez du hori lehen arazo bezala ikusten, denbora gutxiren buruan konpontzekoa baizik.

Guk hemen euskara komunikabideetara eraman ahal izateko aurkitzen ditugun problemei errepaso bat eman nahi diegu. Eta hasteko, pertsonalaren arazoa planteatu nahi dugu. Zernolako jendea dugu telebista, irratia eta prentsa idatzi euskaldun batzu tertzioz martxan jartzeko?

O. — Nik pertsonalaren eskasia komunikabide guztietan ikusten dut. Momentu honetan euskal telebistaz mintzatzea «aingeruen sexuaz» aritzea da. Ez dugu teknikarik, baina batipat ez dugu jende euskaldunik: ez politikaz ez deportez ariko denik ez dugu, talde dramatikorik ez dugu. Kondizio horietan zer egin? Eman dezagun urte bete barru euskal telebista egitea erabakitzen duela Eusko Gobernuak. Zer egingo luke? Ba, komunikabideetara jo, jendea hartu eta eraman, inork ez bait daki Euskal Herri honetan mikrofonoaren aurrean euskaraz hitz egiten. Behin eta berriro batetik bestera zuloa eginez joango ginateke. Behin eta berriz errepikatzen dudana da Gobernutik (eta komunikabideetatik ere baita) programa bat egin dadila, eta Euskal Herriari garbi esan «hau nahi dugu, eta epe honetan

nahi dugu, eta orain egiten ez bada honegatik eta honegatik da. Baina ez esan «1983an telebista aterako da» eta gero ez dakigu aterako den ala ez. Ez, ez. Gauzak zehatz, programa bat dago edo ez dago, baina ez sasi-ilusiorik sortu.

Pertsonalaren problema hau telebistan dago. Eta irratian dago. Eta non ez? Azken batean, *Herri Irratia*-ren kontratua eta *Euskal Irratia*-ren arazoa horixe bait da: zer gertatuko litzateke eta zer gertatuko da Gobernuak bere irratia, euskaraz ariko den irratia, jasotzen badu? Ba, *Herri Irrati*-ko jendea eramango lukeela. Zer gertatzen da orduan? Ba, zulo bat egiten dela beste bat betetzeko. Orduan, Gobernuak, eta berdin EHEk, aukera hori garbi behar du: zer komeni da, emisora bat 18ren aurka aritzea edota denetan euskararen presentzia segurtatzea? Aukera politikoa da hori, lehenbailehen egin beharrekoa.

Z. — Nik uste dut euskal kazetariak momentu honetan gutxi izango garela agian, baina badugu Fakultate bat, eta hor jendea presta daiteke, epe laburrera gainera, euskaldun asko bait dago, eta alfabetatua.

A. — Nere ustetan kazetari gutxi dago, baina sobera, egiten denerako eta medioek egitea onartzen duten neurrirako. Zeren eta gure mixeria hauxe da: periodiko bakoitzean dauden euskal periodistak ere ez daude aprobetxatuta, inolaz ere ez. Nere ustez *Deia* bati egin dakiokeen aitorrik eta denbora berean salakuntzarik handiena hauxe da: euskal redakzio bat izan duela, historian lehenengoa eta bakarra, eta orain berari dagokiola hori hankaz gora botatzea eta pertsona horiek erdaraz idazten jartzea.

Gaur egun euskal kazetari baten problema da non idatzirik ez duela, medioen problema.

O. — Nik ez dakit hori zenbateraino den horrela. Prentsa idatzian ez dakit zenbateraino, baina seguru ez dela horrela irratian.

Azken batean, militantziak salbatu du *Argia*, militantziak salba lezake euskal prentsa bat, baina berak kondena lezake *Argia* eta euskal komunikabide bat. Militantziaren tentsio hori kalitatearen aldera eramaten ez badugu, limosnatan gabiltza, ebazpide edo soluziorik eman gabe.

2. Elebitasunaren kazetal esperientzia

Z. — Ni lehengo harira nator. Epe laburrera euskal kazetariak presta daitezke. Gero, gainerakoa enpresen problema da, hala nola, zenbat diru duten jende guzti hori bereganatzeko, zein den medio bakoitzaren programakuntza. Momentu honetan euskal tituludunak agian gutxi gara. Amatiñok esango dit nahiakoa eta gehiegi garela egiten dugunerako. Bai, baina uste dut nik egin daitezkeela beste programazio batzuk gehiago jartzeko. Horretarako zer egin? Separata bat? Gauzak errepikatu ala itzulpena? Erabaki politiko bat hartu behar da hor.

A. — Hor irudipen problema dago. Nik dakidanez, ez egunkari batean ez bestean inork ez dio soluziorik eman, eta nik ez dakit munduan inon eman ote zaion prentsa idatzi elebidunari. Antzerako periodistekin, antzerako profesionalekin, eta erraztasun berdinekin, irratian positiboa izan daiteke emaitza eta desastre hutsa periodikoan. Zer gertatzen da? Tirada problema da, medio fisikoaren problema da, eta egunkaria «bete» egiten da, eta albiste bera bi hizkuntzatan ematea ez da erraza... Elkarren konpetentzian daude hizkuntzak periodikoan, irratian ez bezala.

Z. — Prentsa idatzi elebidunean prentsa prentsaren barruan egin behar da. Nolabait bi periodiko.

A. — Aspaldiko ideia da hori. Gertatzen da oso garestia dela: bi milak irakur dezaten 50.000 koadernotxo egitea, oso garesti da. Eta azken batean gauza desberdinak egingo al dira? Bestalde, jatorrizko hizkuntzara joko dugu, mundu guztiak bai bait dakigu euskarazkoa itzulpena dela.

Azken urteotako euskal kazetaritzaren saioaren ondoren, atzera ere lehengora etorri gara, buztanari haginka egitera iritsi gara. Gu euskal mundutik joan gara, profesionaltze baten ize-nean gaiak zabaltzera, albisteak euskaraz ematera. Eta han konkuratu gara konpetentzia horretan erdarak irabazten duela beti, prentsa elebiduna ez dela praktikan posible, eta orduan, egunkari horietan kazetariak beraiek hasi dira berriz beren gaietara etortzen, bere txokotxoaren bila; pixkaka «euskal mundura» itzuli gara. Eta berriz hasieran gaude.

JFA. — Gure asmoa da, itzulpenak gero eta gutiago egitea. Orain euskaraz, nahiz eta gutiago eman, berri interesgarriagoak ematen ditugula ustê dut. Kazetaritza euskaraz egitearen kezka badugu *Egin*-en, baina ez da erraza kazetari euskaldunik aurkitzea. Zalakainek esan du gutxi barru baietz. Baina momentu honetan ez. Gaur ez.

3. Informazio Zientzietako Fakultatea

J. — Behin eta berriz aipatu dugu, txostenean eta elkarrizketan, Informazio Fakultatea. «A priori» bederen badirudi euskal kazetari berrien harrobi ona izan daitekeela. Bestalde, orain artean ez duela gauza handirik egin ematen du.

JFA. — Informazio Fakultatea hor dago, bai. Baina jakin nahi nuke Fakultate horretaz Etxenikek zer pentsatzen duen.

Zerbait egiteko aukera ona da orain, kazetari berrien langabezia tarteko dela. Konpromezu batzu hartuz gero, irtenbide batzu eskainiz gero, ikasleek beraiek presiona lezaket euskararen alde aldaketa egin dadin. Baina horretarako aukerak eman behar dira euskararen bidez, lana eta bizibidea kazetaritza eskainiz.

O. — Hemen grabea hau da: Euskal Herrian hainbesteko premiak egon, eta Fakultate honetatik lauzpabost urtetan ezer esperotzerik ez. Begira irratia nola dagoen, eta irratian jende asko sar daiteke, begira telebista... Euskal Herrian gaur futbol partidu bat emateko zenbat dago? Jende horri hori buruan sartu behar diogu, eta jendea prestatuz joan.

Z. — Hor plangintzarik batere ez dago, eta euskararekiko arloan are gutxiago.

JFA. — Fakultate hori bultzatzeko ez dago inolako interesik; beste erremediorik ez zegoelako dago irekita. Fakultate hori kuestionatzeko arrazoi asko dago. Baina desafio bat dugu behar bada hortxe, eta giro hori landu beharko genuke, ikasleak baitipat.

III. — EUSKARAZKO PRENTSA

J. — Euskaraz egiten diren aldizkari informatiboei buruz ariko gara orain. Aldizkari hauen beherakada, jitea, egoera, eta berauen babesak, laguntzak, soluziobideak arakatuko ditugu jarraian.

1. Egoera beltza

A. — Aldizkari hauei gertatua —eta nik *Zeruko Argia*-n barrutik bizi izan nuen— prozesu garbi baten harian analiza liteke.

Puntu batzu seinalatuko ditut: Ni *Zeruko Argia*-n nengoen DV eta *La Voz*-ek zer aterako zuten 15 egun lehenenago bagenekien, eta gainera zuzenago. Bazirudien irakurlego bat bazezuela. *Zeruko Argia*, esan zitekeen, euskaldun guztien aldizkaria zela; eta, noski, orduan printzipio bakarra amateurismoa zen.

Orduan, lehenengo, amateurismoa bukatu denean eta kostuak gehitu; bigarren, ideiak dekantatzen hasi diren momentuan, eta aukera bat egin behar izan denean, sektore batek esan du: «hori zuentzat»; eta hirugarren: «zertarako, informazio hori egunkariak eman bait digu?»

Orduan, ondorioak ezinbestekoak dira: sektore txiki batzuen eritzien defentsarako dira, batere kalitate teknikorik gabe, eta kalitate profesionalik gabe; kredibilitate problema eta aportazio problema aherentzi gabe. Ondorioz, oso produktu irakurzaila atera da. Gauza bat da etxean hartzea, eta besterik hura irekitzea.

O. — Euskal aldizkarien inguruan bi beherakada nabarmen izan direla uste dut: bata, batasunaren inguruan sortu zen zatiketa, H zela eta ez zela; eta gero, joera politikoak etorri dira, ihen zegoen hura sakabanatzenagotzera.

Bestalde, nahiko gai marginaletara jo dute aldizkari hauek. Eta fenomeno nahiko kurioa da: garai batetan, diktadura bukatu aurretik, gai hauek inoiz gutxitan, konta-ahaletan, tratatzen ziren komunikabideetan. Eta gertatu zen hilabete batzutan in-

tereseke gaiak izatea. Eta nere eritzian, aldizkariok ez dute jakin salto hori egiten: marginaltasuna non bukatzen zen ikusi eta gai normaletara pasatzeko saltoa. Azken batean, nere eritzian, profesionaltasunik ezaren seinale besterik ez da marginaltasuna non bukatzen den ez ikustea.

Eta ni behin eta berriz betiko puntuan nago: profesionalik ez dago, jenderik ez dago, garai batean *Zeruko Argia*-n zegoen jende batek utzi egin zuen aldizkaria, eta beste batzutura pasa zen *zulo* bat utziz. Jenderik badagoela? Historiak alderantziz esaten dit neri puntu guztietan.

2. Diru babesaren auziak

A. — Euskal prentsaren egoera larria nik ez dut uste diruz bakarrik konpontzen denik. Hori batetik. Eta gero, dirua ematerakoan eztabaidatu egin behar da nola eman, eta hor eritzi desberdinetan sartzen gara. Noski, aldizkari bati diru bat ematen bazaio, besterik gabe, laguntza bezala, kasu honetan aurten *Argia*-ri hiru milioi dira, eman egiten zaio eta kitto, hor bukatzen da hori. Baina bere defizita kubritzea eskatzen badu aldizkari batek, Administrazioak orduan erreakzionatu egin behar du, zeren eta hurrengo egunean nik beste aldizkari bat aterako dut baldin defizita kubrituko badit. Zera esatea, kontrol ekonomikoa bai, baina ez bestelakoa... hori diruaren proportzioan dago.

Z. — Kontrol profesionala esan dut nik.

JFA. — Hori utopia da.

A. — Utopia hutsa da hori. Subentzioa baldin bada, ez, baina aldizkari bati bere bizimodua segurtatzen bazaio, orduan Administrazioak bere kontrolak jarri behar ditu. Euskal aldizkariak 1981ean argitaratu dituzten zenbakien berri nere lanean ematen dut, eta hor ikus dezakegu agindutakoak baino zenbaki gutxiago atera dituztela, adibidez, *Goiz Argi*-k, *Argia*-k eta *Anaitasuna*-k, alegia, ez dutela beren konpromezua bete. Eta gertatzen da, ba, *Argia*-ri esateko, 3.000.000 bat eman zaiola, zenbaki bakoitzeko 100.000 pezeta, ezeren truke. Orain bertan diru gehiago emateko posibilitaterik badago egon, baina «plan de viabilidad» edo horrelako zerbait beharko da gutxienez. Neri

grabea hau iruditzen zait: nik lau milioi galtzen duen enpresa bat baldin badut, ez Administrazioak eta ez beste inork eman-go dit dirurik ezeren truke. Euskara erabiltzen dela eta, zergatik bai?

O. — Halere, begirune osoa zor zaie komunikabide hauetan ari direnei. Ez da bakarrik dirua eskatzera datozelako, baizik eta beraiek alde zuzenetik diru eta ordu asko galdu dutelako. Erantzunkizuna eta kontrola eskatu bai, baina kontutan izanik beraiek nahiko kontrol eta erantzunkizun izan dutela maila batetan.

A. — Beti *Argia*-ren kasua aipatzen dugu, baina berdin da. Nere datuek huts egiten ez badidate —eta ez da kontuak hartzea, konstatazio bat da—, duela sei-zazpi urte 10.000 pezeta eskatu ziguten bakoitzari. Gaur arte. Inork ez du konturik ematen, ez da ezer pasatzen. Diru hori galdu egin zen.

Gero, oker ez banago, kaputxinoek utzi zutenean, milioi bateko edo biko zuloa kaputxinoek «aspiratu» eta berriz hutsetik hasi. Orain lau milioi zor dira eta Administrazioari eskatu. Bai, baina... egun batetan esaten zaie: «egin ezazue plan bat eta ikus dezagun zer pasatzen den». Ez dut nik esaten hau, aurrekoan, EEko Zubimendik eskatu bait zien «plan de viabilidad» hori Diputazioko Batzordean. Gero ikusi beharko da, euskal prentsa dela eta, *Argia* dela eta, zorrotzak izan ala ez, hori gero. Kontua da diru horren truke jendeari zer eskatzen zaion.

Argia-ren egoeraren aipamena egitean *Habe* eta *Dema* aldizkarien babesak salatzen du Zalakainek. Ez batak ez besteak du babesik, batere ez. Administrazio dira, ez da berdin. Kontzeptuak argitu egin behar dira Administrazioan.

Z. — Okerrago orduan.

A. — Nola izango da, ba, okerrago? Madrilgo Kultur Ministeritzak «Cuadernos para la Cultura» aldizkaria ateratzen badu, ez du inork problema egiten. Problema da nolabaiteko aldizkaria egiten bada; baina kontrola baldin badu eta sistemak onartzen dituen eritzien arabera dirua planteatzen bada... sistema onartzen bada, aldizkaria ere onartzen da, bestela ez. Baina orduan ez da aldizkaria eztabaidatzen, sistema guztia baizik.

JFA. — Baina izango dugu aukerarik edo eskubiderik zein

kriteriorekin erabaki den hori jakiteko, eskatzeko, ezta?: horrelako aldizkaria, ez dakit zenbat koloretan, ez dakit zein pape-retan... Edo, inork eskatu gabe, erabili dituen kriterioen berri eman beharko zuen Administrazioak berak.

A. — Noski, noski. Duela zortzi hilabeteko proiektu bat da hori, kuantifikatua, programa baten arabera egina, Parlamentuak onartua eta aurrera doana.

Z. — Nik hori argi ikusten dut, baina aukeretan ez nago konforme...

A. — Eta gero, herri honen bikoiztasuna dago: nik behin idatzi nuen: ETA bi, ELA bi, dena bi. Eta orain ere *Habe* eta *Aizu* atara dira. Guk ez dugu inolako interesik bi mila ale saltzeko. *Habe* eskolako tramankulu bat da, ez dugu kioskoetara aterako ere. Guri esan izan baligute *Aizu* aterako zutela, zertarako hasiko ginen guzti hau egiten? Inork ez digu ezer esan. Zergatik ez dira etorri laguntza eske: «hau egin nahi dugu eta laguntzarik izango al dugu?» Ez dira, ba, etorriko horretarako, hizkuntza mailakatu bat egiteko, laguntza bila? Antzerki bat egiteko, kontzertu bat emateko, jaialdi bat muntatzeko jendea etorri egiten da, eta euskarazko aldizkari bat egiteko ez...

Z. — Baina nik esan nahi dudana besterik da: aldizkari bat ateratzen bada, ondo edo gaizki, eta dirua eman behar bazaio, egia da proiektu bat, biabilitate bat eta abar eskatu behar zaizkiola, *Argia*-ri zein beste edozeini. Hori bai. Baina ni ez nago segur hori ateratzeko proyekturik eta posibilitaterik ez dagoenik. Ez nago batere konforme hori alde batera utziz edo behar bezala bultzatu gabe beste zerbait sortzearekin.

A. — Barkatu, baina aldizkari guztiei eskatu dizkiegu proyektuak, JAKIN testigu. Besterik da gero Administrazioak nola erantzuten duen. Baina aldizkari batek, *Argia* bezalako produktua egiten duenak bere burua kuestionatu egin behar du, bai hizkuntzaren aldetik, bai gaiaren aldetik; euskaldungoak zer behar duen kontuan eduki behar du.

JFA. — Diruaren eta kontrolaren arazo honetan gauza bat dago argi: askatasuna izateko diruaren askatasuna izan behar da. Guk ezin dugu Gobierno Vascongado kuestionatu eta denbora berean pentsatu, guk nahi duguna egiteko beraiek dirua

jarriko dutela. Aldez aurretik jakin behar dugu hori, eta *Egin*-en nahiz *Argia*-n nahiz edonon askatasuna izateko diru-iturrien askatasuna behar da.

J. — Barka, baina hori dena onarturik, *Argia*-k aukera hau du: hil ala muga bat, dependentzia bat gehiago onartu. Eman dezagun muga hori onartzen duela. Noraino iristen da, ordea, dependentzia hori?

JFA. — Nik hor laguntza indirektoa jarriko nuke. Publizitatea, adibidez. Eta orain arte behintzat Eusko Gobernuak garbi jokatu du horretan (askotan garbiegi, *Hierro*-ri berari ere anzioak eman egiten bait dizkio). Beharbada horixe da dependentziarik gutxienarekin eman daitekeen laguntza.

Baina, azkenean, *Argia*-n eta beste zenbaitetan zer gertatu da? Igoal jendeak ez duela irakurtzen; erosi, bai, baina laguntzearren, euskaraz dagoelako. Eta hori problema da. Zer egin beharko litzatekeen? Nik ez dakit, ez dut horretan erantzunik.

J. — Euskal aldizkariekin, euskal astekari hauekin diruz nola jokatu behar da? Hori da hemen auzigai. Euskarari prentsan lagundu behar bazaio, nola? Hobeki uler dadin, alternatiba gisa planteatuko dugu: alternatiba bat da dagoenari laguntzea (dagoena badakigu zer den); beste bat da, arrazionalki edo zerebralki euskararen «onerako» plan bat egitea, dagoenarekin agian kointziditzen ez duena. Bigarren alternatiba honetan nola jokatu behar da: dagoena sakrifikatu eta programa arrazional hori aurrera eraman?

Filosofia horietarik zein hautatu behar da?

O. — Irratian eta telebistan bezala hemen ere programa bat behar dugu: nondik hasi zertan bukatzeko? Projekturik ezaren fruituak zeintzu diren badakigu. Euskal Herri honi utz diezaiogun programazioaren eta projektuaren karta jokatzeko. Txarra baldin bada, hamar urte, hogeitau urte, dauzkagu atzera egiteko. Joka dezagun karta.

3. Euskara egunkarietan ala astekarietan?

J. — Euskarari prentsan eman behar zaion laguntzaz ari gara. Ildo beretik beste puntu bat ere ukitu nahi genuke, gu-

retzat muntarik baduena. Garrantzia du, izan ere, bi arrazoigatik: praktikara eramango delako eta filosofia bat erakusten duelako.

Gipuzkoako Dirutazioan egunkariei, euskara lantzen badute, dirua emateko proiektu bat bide dago. Bestalde, badirudi —eta denok konforme zaudetela dirudi— *Argia*-k, orain bertan, ez duela ematen biziberritasunaren eta proiektu berrien aski garrantiarik. Bego. Baina egunkariak ez dute gehiago ematen, ala bai? Orain arte euskararen alde egin dutena ezdeusa izan da. Beraz, garrantia-kontuan horiek ez dira gehiago. Nola egin liteke orduan proiektu bat diru multzo hori —handia ala txikia ez dakigu— garrantiarik gabe periodikoei emateko eta *Argia*-ri ez? Egunkariari «voto de confianza» bat ematen zaie.

Erabaki bat al dago hemen?: euskara periodikoan astekari on bat baino errentagarriago da.

A. — Nik diru hori administratu behar banu, prezio berran, dudarik ez. Bata egunero kaleratzen da, bestea astean behin. Presentzia soziologiko edo soziolinguistiko bezala, zalanztarik ez. Bata egunero egunero 50.000 ale saltzera iristen da (100.000 irakurlerengana iristen da egunero); eta bestea, 7.000-10.000 eroslerengana heltzen da (eta irakurle gutxiagorengana). Periodikoan irakurleak gehitu egiten dira, eta gure astekarietan gutxitu.

J. — Hori dena ez dakigu zuzen hala den. Zeren eta gutxienik bi fenomeno tartekatzen dira hemen. Bata da, astekaria eta egunkaria, hartzailearen aldetik, bi mundu direla. Astekariak irauin egiten du, eta egunkariak ez: bezperako egunkaria baino paper zaharragorik ez dago. Bigarren fenomeno, elebitasunari lotzen zaio: euskara eta erdara nahasian (edo elkarren ondoan) doazenean, euskara potentziatu barik «galdu» egiten da, «ahuldu» seguruenik. Hau ere aztertzea litzateke politika bat markatzerakoan, eta efikazia neurtzerakoan.

4. Euskal astekari bat posible?

J. — Esanberri dugunarekin arras loturik, bukatzeko, beste arazotxo bat ekarri nahi genuke zuen aurrera. Konstatazio bat:

Ez jendartean ez gure geure planteoetan astekariak ez dute gauri bateko protagonismorik. Areago: euskal astekari batetan sinesten al da benetan? Denak daude gaur krisian. Zergatik krisi hori? Ez ote euskararen merkatua hertsiegia delako, eta, beraz, euskara hutseko aldizkari batek «berez eta normalki» bizitzetik ez duelako? Edota, aldizkarion azken urteotako historiagatik ote da, hau da, profesionaltasunik ezaren, amateurismoaren, militantismoaren, boluntarismoaren habia bilakatu direlako aldizkariok?

Hona galdera: posible ote da gaur euskarazko astekari bat?

A. — Nere ustez euskarak ez du euskal prentsa bat mantentzeko merkatu nahikorik.

O. — Astekari ona eta kurioa, Espainiako batezbestekoa emango lukeena balitz, nik baietz uste; hori bai, politikan barretasun gehiagorekin eta perspektiba lasaixeagoa hartuta.

Z. — Nik ere baietz uste dut.

JFA. — Nik ezetz uste dut, momentu honetan behintzat, militantziaz ez bada; bi urte barru igoa bai.

O. — Militantzia momentuz beharrezkoa izango dugu. Militantziaren eta tentsioaren soka hori oreka batetan uzten badugu, nik uste orduan atera daitekeela gaur egun astekari bat. Egin ezin dezakeguna da militantzia alde batera utzi eta kalitatea ere bai.

JFA. — Aproximazio bat egin behar da hemen ere, kazetari profesionalaren eta militantearen lanaren artean, jadanik beste medio batzutan egiten dena.

J. — Ez gaude sinestuta, ez dela posible euskal astekari bat. Guk ez dakigula egiten! Lehen gauza hori da: ez dakigula egiten. Bistan da aldizkari bat egin nahi duen taldeak analisi bat egin beharko duela: Euskadiko egoera hau da, halako irrekitasuna beharko da, menpekotasunak ezinbestekoak gertatuko dira (edo Gobernutik dirua jasoz edo nork bere buruari ezarrit), gustatuko ez litzaigukeen hainbat gauza aintzat (edo ontzat) hartu beharko da... Guk uste dugu astekari bat euskaraz bizi daitekeela, formula bilatu egin behar dela, eta eginkizunak ez direla agortu. Gobernuak lagundu beharko duela gero?

Bai, baina guk geurea ere eginez. Egin zitekeen guztia egin dela eta, halere, ez garelara iristen? Ez da hori gure kasua.

Biltzaileak: **Joan Mari Torrealdai**
Joxe Azurmendi

DIALOGO SOBRE LOS MEDIOS DE COMUNICACION EN EUSKADI DIALOGUE SUR LES MOYENS DE COMMUNICATION EN EUSKADI

Estas líneas recogen un diálogo de horas entre los ponentes sobre la situación y perspectivas de la prensa en Euskadi.

La primera parte del diálogo se dedica al análisis de los tipos de prensa, estudiando sistemáticamente la prensa diaria, la semanal y la prensa cultural. Se insiste, por una parte, en la excesiva politización de la prensa (carga política excesiva y demasiada dependencia de grupos políticos), y, por otra, en la crisis actual de la prensa semanal y cultural cuyas causas van desde la falta de capacidad de gestión hasta el hermetismo de nuestra sociedad.

La segunda parte recoge las opiniones en torno a la prensa bilingüe en su relación al euskara. El problema más acuciante de la prensa vasca es la falta de periodistas bilingües o euskaldunes, con la agravante de que en los diarios incluso los pocos periodistas vascos que hay en plantilla están infrautilizados. Por otra parte, el periodismo bilingüe ensayado últimamente no ha dado los frutos deseados y esperados. La solución de la escasez de profesionales euskaldunes puede venir (debiera venir) de la Facultad de las Ciencias de la Información.

El tercer capítulo del diálogo se centra de lleno en la prensa escrita en euskara. Su situación es alarmante, y su crisis no hace sino crecer con la nueva situación política. Hay unanimidad en la necesidad de la ayuda económica por parte de las instituciones públicas, aunque se reconoce que el problema actual de la prensa en euskara no es meramente económico. En este capítulo de la crisis de la prensa y de la financiación pública se suceden las críticas, unas veces, a la trayectoria de las mismas publicaciones y, otras, a la política cultural del Gobierno Vasco y de las instituciones públicas.

Ces quelques lignes résumant un dialogue de plusieurs heures entre divers participants, sur la situation et les perspectives de la presse en Euskadi.

La première partie du dialogue porte sur l'analyse des divers types d'organes de presse et étudie systématiquement la presse quotidienne, la presse hebdomadaire et la presse culturelle. On note d'une part l'extrême politisation de cette presse (aspect partisan et dépendance excessive par

rapport aux partis politiques) et d'autre part la crise actuelle de la presse hebdomadaire et culturelle due sans doute à des insuffisances dans la gestion mais aussi à l'hermétisme sociale.

La deuxième partie enregistre les opinions des participants sur les rapports de la presse bilingue et de l'euskara. Le problème le plus grave de la presse basque réside dans le nombre insuffisant de journalistes basques ou bilingues et qui plus est, dans la sous-utilisation des quelques journalistes basques qui font partie des équipes rédactionnelles des quotidiens. Par ailleurs, le journalisme bilingue expérimenté jusqu'ici ne paraît pas avoir donné les résultats espérés et désirés. La solution au problème de la pénurie de journalistes professionnels de langue basque pourra venir de la nouvelle Faculté des Sciences de l'Information.

La troisième partie du dialogue porte directement sur la presse écrite en basque. Sa situation est inquiétante et cette crise s'aggrave dans le nouveau contexte politique. Il y a unanimité pour reconnaître la nécessité d'une aide économique de la part des institutions publiques, quoique l'on admette que le problème actuel de la presse basque n'est purement économique. Sur cette question de la crise de la presse et de l'aide financière publique les critiques se succèdent qui portent tantôt sur la politique des revues elles-mêmes, tantôt sur la politique culturelle du Gouvernement Basque et des institutions publiques.

ORAIN ETA HEMEN

GAIK

...HAINBAT ABURU

LIBURUAK

JAKIN / **25 URTE**



ORAIN eta HEMEN

Ezin da gehiago zain egon...!

Euskara berriro ere albiste da gure artean. UZEIren inguruko polemika, euskarari buruzko PNVren barneko burrukak, Eusko Gobernuak sortu berri duen Batzorde Aholkuemailea, horra hiru gertakari garrantzizko. Eta hirurak daude noski ezkutuko —edo ez hain ezkutuko— hari batek lotuta. Eta euskararen arazoa plazaratzen den bakoitzean bezalaxe, eztabaida, salakuntza eta muturjokarik frango ikusi da bazterretan. Polemika hau guztia mingotsagoa egiten ari zaiguna euskarari buruzko politikaren auzia da.

Abertzaleek aginte izpirik lortu eta biharamunean euskararen politika garbi bat markatuko zutela uste genuen. Euskara kontuan Eusko Gobernuak egindakoa ukatu beharrik ez dago, politika baten falta salatzeke.

Eta bazeuzkan eta badauzka datuak. Siadecoren *Estudio sociolingüístico del euskara* gogora bestela. Bazuen eta badu politika horren atzetik egon behar lukeen filosofia ere. Oroit *Euskararen Liburu Zuria*, adibide bat jartzeko. Ez da aski izan. Eta zazpi urte luze pasa dira liburu zuri hori Euskaltzaindiak eta Siadecok antolatu zutenetik. Franco bizi zen artean. Euskararen politika zehatz eta errealistaren oinarriak zirela uste zen orduan. Baina oker uste zen. Oso oker! Zazpi urte pasa dira, erreforma, preautonomia, autonomia, Konstituzioa, Estatua, Erreferenduma eta hainbat klasteko hauteskunderiz beteak. Baina hizkuntz politikarik oraindik ikusteko gaude.

Arazo korapilatsua, eta mingarria ere, dela hizkuntzarena? Ez da gezurra. Errekonbertsio industrial, Lemoiz eta samurra-goak al dira? Produktibitatea puntu eta erdi jasotzea garrantzizkoa izango da. Baina abertzale batentzat Euskal Herria puntu eta erdi euskaldunagoa egitea ez da inportantzi gutxiagokoa. Ekonomia eta euskara ez daude elkarren aurka. Baina horretaz ongi jabetuta ere, ez zaio inori ezkututzen beste hau: ekonomia-erlarraldiak, gaurko erosotasun txikiagoak, geroago kon-

ponketarik izan dezakeen bitartean, euskararen gaurko hondamendia etorkizunak ez duela erremediatuko. Zergatik, orduan, erabaki ezin hori?

Aurten 14 urte etorriko dira batasunari buruz Arantzazun Euskaltzaindiak erabaki haiek hartu zituela. 4 urte izango dira Bergarako Euskaltzaindiaren Biltzarrak hamar urteko bidea aztertu zuela. Ez ote dago nahikoa argi euskal munduko indar sozialen dinamikak nora jotzen duen?

Ulertzen hasita dena uler daiteke. Euskararen ortografiak oraindik bat ez datorren alderdia, nola izango da, bada, hizkuntzaren politika orokorra urratzeko gauza? PNVk bere baitan problemak badiu konpon ditzala. Baina PNV ez dago Euskal Herriarekin berdintzerik. Eta Euskal Herria ezin daiteke egon bere Gobernuari hizkuntz politika urgentea esijitu gabe.

Otsailak 25 jaio den Batzorde Aholkuemaileak orain baino lehen sortu behar zuen. Erabakita ez bada ere, gutxienik argituta egongo ziren hainbat arazo: zeintzu diren helburuak, zein bideak; zein diren arazo metodologikoak eta zein pedagogikoak, Euskal Herriak bere hizkuntza nazionalari eutsi diezaion.

Horixe egin ez delako uler daiteke *Euskaltzaindiari epaiketa* bezalako panfleto lotsagarria, Eusko Alderdi Jeltzaleko aber-tzaleei eskainia gainera, ateratzea: ez hanka eta ez buru; irudimenik gaisoenak ere nekez asmatuko litzuzkeen aleak jaurtiz; arazo linguistiko, metodologiko, ortografiko, soziolinguistiko, pedagogiko, intentzio politiko eta teologiko, dena zaku berean nahasiaz. Eta hori hamar urteko atzerapenarekin; orduan mundu guztia nazkatzeraino esandakoak errepikatuz. Halako lan triste baten aurkezpenaren albisteak *Deia*-ren lehen orrialdea merezi zuela ikusteak ere ematen du zer pentsaturik.

Batzorde Aholkuemaile delako horrek ez omen du erabakimenik izango. Aholkuak aholku, eta erabakiak erabaki, euskarari buruzko politika orokor garbia bideratzen lagunduko ahal dio. Ezin da gehiago zain egon...! ■ *Manolo Pagola*.

Bulgaria, XIII. mendeurrena dela-eta

Gure artean sobera aipatu ez den mendeurrena ospatzen ari da Bulgaria aurten: Bulgariako nazioak bere lehenengo Estatuaren sorrera ospatzen du hilabete hauetan (681-1981). Asparuh Kan-ak sortu zuen Estatu hura.

Ospakizun hau tartean dela, hainbat ekintza kultural bultzatu nahi izan du Bulgariak, eta, beste batzuren artean filme historikoak egin dira, herri honen historia nazionala eta so-

ziala azalduz (e. b., Bardem espainolak Dimitrov-i (1882-1949) buruzko filmea gidatu du). Baina, ospakizun hori aitzakitzat harturik, nazio honen hizkuntzaren historia apur bat gogoratu nahi nuke.

Eslaboak VI-VII. mendeetan lekutu ziren Balkanetako Penintsularen Ekialdean eta, han lehenagotiko traziarrekin nahasturik, gaurregun bulgariarra bezala ezagutzen dugun herriaren giza-oinarriak ezarri zituzten: proto-bulgariarrok sortu zuten Estatu berria 681ean. Berehalako mendeetan nazio-batasuna sendotuz joan zen, argialdi eta gaualdi luze eta eder edo latzen ondoren; XIX. mendean berriz ere independentzia osoa lortu arte, Inperio Otomanaren menpean bost gizaldi sofrututa (1396-1878). Herri honen historian hizkuntzak eta idazkerak berak ere garrantzirik handiena izan du.

Bulgaria, hizkuntza, hego-eslaboa da, serbokroaziera bezala, eta Bulgarian ez-ezik Grezian, Errumanian eta Soviet Batasunean ere baditu mintzatzaileak: gaurregun zortzi bat milioi dira, gutxi gorabehera. Hizkuntza honen historia honela epekatu chi da: Bulgaria zaharra (IX-XI. mendeak), Erdialdiko Bulgariara (XIII-XVI. mendeak), Bulgariara Modernoa (XVI-XX. mendeak). San Klementeri esker bilakatu zen literatur hizkuntza Bulgariako Mazedonian. Klemente hau Ziril eta Metodio misiolarien ikaslea zen. Hauen ekintza kulturala gogoratu nahi dut orain.

Julia Kristeva-k idatzi berri duenez (*Le Monde*, 9-sept.-1981), Ziril eta Metodio «betekizunik funtsezkoena eman zuten Hego eta Ekialdeko eslaboen nortasun nazionala mamitu eta sendotzeko», herri haien hizkuntzei alfabeto egin bat ematean. «Fenomeno bakarra Erdi Aroko historian». Gertakari horrek sakanagoko arazoak dakartzkigu egun argitara, gaurko gaurkoak eta biziak: nazioen, Estatuaren eta kulturaren arteko harremanen arazoak.

Arruntki *idazkera ziriliko* bezala aitortu ohi dena gaurko errusierarena eta bulgariararena ez izanarren (egiaz eta benetan *glagolikoa* baita haiena), Ziril eta Metodio beste arrazoiengatik ere joan-etorriak handiena izan dute Europako Ekialdearen kulturaren bizantzioren funtzionari bezala bidalitako haiek, azkenik, herri eslaboen kontzientziaren zuzpertzaille bilakatu ziren, Bulgariako lehen inperioari (814-1018) bere zimentarri kulturalak emanez.

864ean onartu zuen ofizialki Bulgariak kristautasuna (Boris I., 852-889) eta kristaungintzaren lana finkatzeko berehalak in zitzaion hizkuntza nazionalaren trebatzeari. Ziril-ek berak eta beronen ikasleek itzulpen-lan gaitza egin zuten: garai haieran, «hirueletasuna»ren ideia nagusi zelarik (*hebraiera*=Biblia: *greziera*=Biblia eta Bizantzio; *latina*=Mendebaldea eta Erroma),

ez zen erraza jokaera berriak ezarri nahi zuen kultur politika hautatzea. Hala ere, kultur gidari berriek bortizki bultzatu zuten egitasmoa, behar izan zenean (867) Erroman ere beren tesi nazionala defendatuz. Literatur tresna bihurtuko da, beraz, bulgariara, azken finean Estatu finkatu berriaren kultura egin dezan: 893ko Kontzilioan idazkera eslaboa ofizialtzat emango du Simeonek (893-927). Greziera eta latinarekin parekaturik geratzen da proto-bulgariara, Estatuaren eta Eliza nazionalaren eskuetan Bulgariaren herrigintzaren fagoretan. Horrela kulturak eta hizkuntzak, alfabeto eta idazkera baten bidez lagundu zioten ez Bulgariako herriaren nortasunari bakarrik, baita geroago Errusiari berari ere. ■ *Joseba Intxausti.*

«Bizkaya por su independencia»

Lau gudu eginik ditugu bizkaitarrok geure nortasuna zaintzearren, geure independentzia. «Cuatro glorias patrias»: Arri-gorriagakoa, Gordexolakoa, Otxandiokoa, Mungiakoa. Gaur ere gure nortasuna arriskuan dago: bostgarrena egin behar dugu orain, Lakuakoa, Gasteizko Lakuakoa. Indar zentralistaren aurka, Eusko Jaurlaritzaren kontra. Nola onar gu Jaurerri ginean, Gaztelari saldu zitzaizkion probintzianoen eta arabarren parean —eta ia azpitik— egotea gaur?

Garbi dago: Bizkaiaren nortasuna zaintzeko, independentzia beste biderik ez dugu. «Bizkaya por su independencia». *Sabin* bat bizkaitarrek *egindako* guduez ari bazen, beste SABIN hau *eginbeharrekoaz* ari da:

«(...) *Bizkaia* leenago be *Jaurerria* izan zan, eta probintzianoak eta arabarrak Gaztelari euren buruak eskeini eutsezan garaietan be, geure nortasuna zaintzen jarraitu genduan. Bizkaiko nortasuna zaintzeko, eta *bizkaiera geure nortasunaren atalik nagusienetarikoa* dogu, *bide bakar* bat gelditzen jaku: *Bizkaia*k *Eusko Jaurlaritzatik* urten eta bertoko *premineri bere eskuarteaz* lagundu da giola. Bizkaitarrok, *euskerearen onerako, independentzia* eskatu bear ote dogu ba?»

Deia-n, «Igandero-Deia» orriko «Bizkaitarrok bizkaieraz (VI)» saillean SABIN delakoak orain dela gutxi, idatzi ditu hitz aberzale eta euskaltzale hauek.

Uste baino ere «independentista» gehiago dugula, gero, in-guruan! Bizkaitarrok orain, oraintsu arabarrak (Gebara buru dela), eta aspaldidanik nafarrak. Ikusten nago, martxa honetan Gipuzkoa bakarrik izango da Euskadi. Eta berau ere ez pro-blemarik gabe, zeren eta Bizkaiaren independentzia «euskerearen

(=bizkaieraren) onerako» baldin bada, zer egin behar dugu Gipuzkoan bizkaieraz mintzatzen diren Eibar, Bergara, Oñati, Arrasate eta beste hainbat herrirekin?

Baina probintzianoen problemak probintzianoentzat utz ditzagun. Lot gakizkion geure arazoari. Probintzianoekin eta beste euskaldun-mota batzuekin luzaro bizi izan arren, bizkaitarra naiz neu ere, nahiz eta, itxura denez, ez horren sutsua, beroa eta radikala. Nere eritzi epelek, erreformistek, moderatuek izango ahal dute baliorik!

Lehenengo eta behin esan behar dut arazoa linguistikoa dela, eta ez beste deus. Zertara datoz orduan «independentziak»? Zer esan nahi du bizkaierari Gobernuak eman behar dion tratamenduak «dirua»ren eta «autarkia»ren neurrikoa izan behar duela eskatzeak?

Gero, bizkaierak problemak ditu, bai, eta ezagutzen ditugu, agian SABINEk bezain ongi ez bada ere. Nik bi ikusten ditut (zeren eta euskara batuaren aldrean bizkaiera hil behar dela —edo hilko dela— esatea ez da problema, hori astakeria da): lehen problema, bizkaieratik baturanzko bidearena da, nola egin prozesu hori irakaskintzan bereziki. Eta hori arazo pedagogikoa da. Bigarren problema, ordea, batasun-ereduarena da. Alegia, euskarak eraman duen prozesuan bizkaiera baztertuegi utzi dugula. Geure erruz. Bizkaierak ez du eman eman behar zuena. Geure erruz. Ba, eman dezala, eta lehenbailehen.

Nola?

Izan gaitzen praktiko: jendea bildu egin behar da, proposamenak egin, zehatzak, egingarriak; erabaki zer sartu beharko litzatekeen, zer promozionatu beharko litzatekeen irakaskuntzan nahiz literaturan; zerrendak egin. Kanpaina bat antolatu.

Baietz jarraitailerik izan euskal irakasle eta idazle on artean! ■ *Joan Larrinaga.*

Euskararen Aholku-Batzordea dela eta

1982ko otsailaren 16an izendatu zituen Gobernuak «Euskararen Aholku-Batzorde»ko partaideak. Hauek dira 17 batzordekideon izenak: Lino Akesolo, Jesus Altuna, Patxi Altuna, Jose Mari Aranalde, Luis Alberto Aranberri, Joseba Arregi, Jesus Eguskitza, Pako Garmendia, Jean Haristchelhar, Ander Manteola, Koldo Mitxelena, Jose Antonio Obieta, Josu Oregi, Juan San Martin, Ibon Sarasola, Jose Mari Satrustegi, Mikel Zalbide. Eta otsailaren 25ean eratu zuen ofizialki Batzordea Lehen-dakariak.

Hurrengo eguneko *Deia*-n, gertakari honen berri ematean, Robert Pastor-ek honela aurkezten zituen batzordekideak: «El Consejo... está formado por personalidades de la lingüística vasca...» Eta baita: «El Consejo, creado recientemente por decreto, consta de diecisiete miembros, expertos en lingüística vasca».

Lehen orduko berriemate arrunten ondoren, oihartzun handirik ez du izan gertakari honek. Eta izan duena, gehienbat kontrakoa izan du.

Politikoen artean, kontra atera zaizkio EE eta PSE, bai Kontseilua eratzeko prozedura eta bai batzordekideen izendapenak salatuz.

Euskal idazle eta kultur gizonen artean ere izan du salatzailerik. Augustin Zubikarai zeharbidez ibili izan da: ez da gehiegi fidatzen nonbait aukeratuekin, bizkaierazale gutxiegi dagoela horien artean eta. A. Fermin Iraolagoitiak mesfidantza bera du, eta, gainera, Eusko Jaurlaritzaren *atzamarkeziazia* salatzzen du «Igandero Deia»n. Xabier Kintana, ez zeharbidez zuzen-zuzen baino sartu da Batzordearekin *Egin*-en (Otsailak 21). Susmagarri dira Kintanarentzat, bai Batzordea dekretuz eratzea eta bai —hau batez ere— pertsonen aukera: erakunde eta talde zenbaiten (Euskerazaintza, Labayru Ikastegia, Euskerazaleak, Derioko Ikastaroa, Bilboko (H)erri Irratia, Apezgaitegietako Irakasle-Eskolak, Deustoko «Escuela Oficial de Idiomas», Jesuitak, eta abarren) presentzia gehiegia eta beste zenbaiten (UEU, Elhuyar, UZEI, Ikastolen Federazioak, Alfabetatze-Euskalduntze erakundeak, eta abarren) baztertzea salatzen du Kintanak, gogor salatu ere.

Ez dakit orain arte beste erreakziorik izan den. Hauek bakarrik ezagutzen ditut nik. Badirudi ez duela ilusio eta esperantza handi-handirik sortu bazterretan Aholkari Kontseilu honera. Isiltzea izan da jendearen erantzuna.

Nik nere aldetik, dena den, Batzorde honen eraketaz nere eritzia eman (edo hobe: nere kezka agertu) nahi nuke, lauzpabost puntutan, ez luzatzearren:

— *Presaka dator baina beranduegi*. Ez ditut oso ongi uleretzen oraingo presak: urtarrilaren 11n hartzen du Gobernuak Batzordea eratzeko erabakia, otsailaren 16an egiten da izendapena eta 25ean eratzen da ofizialki. Zergatik presa hauek orain, 1980ko «Jaurlaritzaren Egitamua»n (75. or.) ematen bait da Aholku-Batzorde hau sortzeko hitza? Urte t'erdi pasa dira. Utzikerian. Berandu dator orain, beranduegi «neutraltasuna» eta «alderdikaririk eza» berekin behar dituen Batzorde bat mesfidantzaz ez hartzeko, batik-bat zein textuinguru nahasian eta zein momentu berezian datorren ikusita: PNVren hiru hizkuntz ponentziak (orain bat bilakatuak baina «bat» hori ez oraindik onartua), bizkaierazaleen ofentsiba, Koldo Mitxelena UZEIri eta beste

batzuei egindako eraso eta beronen ondorio oraindik amaitu gabeak...

— *Hertsiegia da Batzordea*. Zenbait batzordekideren presentziak harritu nauela ezin nezake uka. Ausentziek kezkatuago utzi naute, halere. Egon daitekeen asko falta da hor. Egon behar lukeenik ere falta dela esango nuke. Eta okerrago dena: jende-mota jakina falta da. K. Mitxelenak eraso dituenetik ba al dago inor? Hari erantzun diotenetik ba al dago inor?

Nola esaten da erdaraz: «Ni son todos los que están, ni están todos los que son», ezta?

— *Joera desberdinen orekarik eza*. Etxenike Sailburuak, izendapenak aurkeztean, zera aitortu zion *Deia*-ko kazetariari: «Euskarari buruz joera desberdinak dituztenen arteko oreka bat lortu nahi izan da»

Joera desberdinak daudela Batzordean, egia da Besterik da orekaturik dauden ala ez. Eta egonda ere, zer? Zeren arteko ekilibrioa? Zer ulertzen da *joeraz*?: hor dago gakoa. Nere ustetan, Gobernuak hemen gogotan izan dituen «joerak» 'batasuna/cuskalkiak' problematikaren ingurukoak dira nagusiki. Auzi hori, ordea, hizkuntz arazo bezala 1968an amaitu zen euskal kultur gizon askorentzat. PNVrentzat ez, ordea.

Euskal kultur gizona, egun, normalizazio linguistikoaren eta soziologikoaren, soziolinguistikoaren, burrukan murgildurik dago. Gure arazoa, gaur, zera da, alegia, nola lor irakaskuntzan, mass-mediaetan, edozein jakintza-sailetan, edozein lanbidetan, administrazioan, euskal hiztunaren 24 orduetako eginkizun guztietan erabili behar den hizkera bereziaren zein arruntaren prestaera eta erabilera. Eta nork ez daki, langintza honen inguruan badaela eritzi eta joera ezberdinik, gertatu diren eztabaidak gertatu eta gero? Gaur-gaurko arazo honen inguruko joera ezberdinen arabera orekatu ahal da Batzordea? Ez dut uste. Hemendik bi ondorio: bat, normalizazio-lanetan buru-belarri dabiltzan sektore, erakunde eta taldeetako jende askok (eta beraz, joerek) Batzorde horrek marka litzakeen bideetatik kanpo ikusiko dutela beren burua. Eta bi, kondizio horietan politika linguistikoa bi deratzea oso nekeza gertatuko zaiola Batzordeari.

— *Hasiera txar bat. Edota aukera galdu bat?* Hizkuntz politikaren falta, arazo larria da benetan. Aholku-Batzorde honek aholku onik emango ahal du zentzu honetan! Benetako garrantzia eta urgentzia, denen gainetik, horrexek du, Politika linguistikoak.

Eginkizun horri behar bezala erantzun ahal izateko, oker hasi garelakoan nago. Hertsiegi, alegia. Gobernuari lotuegi. Euskararen arazoa bideratzeko «consensus» zabal bat behar dugu, abertzale guztion indarrak gutxi dira. Zergatik jokatu da «de-

kretuz»? Denok beharrezko garenez, ez ote zitekeen hobe Euskal Parlamentuan planteatzea, denon laguntza lortzeko hain zuzen? Ez dakit. Oraingo hau hasiera txar bat iruditzen zait neri. Baina ez nahitaz aukera galdu bat, Gobernuak irekitasunez jokatzeko badu. ■ *Joan Altzibar.*

Monzon, Lehen Urtemuga

Gure aita zena ez zen politika-gauzetan bereziki jantzia. Eta ez zigun gerra aurreko politika-burrukez hitzik egiten, nahiz eta bera ere, auzo mailan behintzat, ekintza politikotan sartuxea ibilia izan eta erreketek garbitzeko arriskutik larri-larri ihes egin... Beharbada horrexegatik ez zigun hartaz hitzik egiten.

Dena dela, berak ezagutu eta miretsitako gizon, politikari eta hizlari bikain bat oso gogoan zuen gerora, eta behin baino gehiagotan gogoratzen zigun guri ere. Nik ez dakit nondik nora zuen haren entzute eta ezagutza bizia.

Gizon hura Monzon zen. Telesforo Monzon.

Orain urtebete hil zen. Gogorapen mingotsa dakarkit neri urtemuga honek.

Maltzagaraino euskaldun denok, burruka berean baturik, eramaten saiatu zen bere bizitzan. Bidegurutzea dago han; handik aurrera talde bakoitza bere aldetik abiatzeko moduan egongo omen ginen. Horregatik uste nuen nik, Maltzagaraino behintzat herriz herri gorpua inguruan denok elkartzeko —eta bartzeko— aukera izango genuela. Azken aukera, beharbada.

Baina bere heriotzakoa izan zen, iruditzen zaidanez, euskaldunon arteko leizea beteezin bihurtu zuena. «Besteek» bahitu ziguten gorpua; eta autopistaz eraman. Maltzagaraino, hain zuzen ere. Jakina da, autopistak alde bitara banatzen duela lurraldea, komunikazioa hautsiz eta eragotziz. Ba zirudien, Euskal Herria erdibanatzeko autopista irekiaz zihoan «katerpillarra» zela Telesfororen gorpua. Maltzagaraino, hain zuzen ere!

Ez zuten errua «bahitzaileek» bakarrik, ordea. Bahiketaren aurka beren ahotsa eta agintea altxa ez zuten euskal agintariek ere bai; halako bihotz ximelez Monzonen aipamena egin zuten komunikabide sozialek ere bai; ximurtasuna, bihotzerrea edota gorrotoa nabarmenegi agertu zuten Monzonen lagun eta burkide ohiek eta arerioek ere bai. Asko elkartu ziren, gure Herriaren historiaren arekara baztertzeko gizon hura.

Urtebete igaro da. Eta baikortasuna piztuz, oraindik ere leizea betegarria dela uste nahi nuke; eta autopista —Maltzaga-

rainokoa— denontzako bide zabala, nahiz eta erditik banatua, izan daitekeela pentsatu.

Unean uneko bere jarrera politikoak alde batetara utzirik ere, bere gizatasun zabala eta handia denok aitortu diezaikegula uste dut. «Hura zen gizona hura!»

Berak asmo bat, helburu bat erakutsi zuen bere bizitzan. Euskal Herriaren askatasuna. Nork ukatuko dio bide horretan etengabe agertu zuen tinkotasuna, leialtasuna, bihotz-zabaltasuna, adorea?

Kaxkarra izan behar benetan, Telesfororen nortasun aberatsa ez ezagutzeko eta aitortzeko: Hizlaria, politikaria, poeta, eragilea, babeslea.

Monzonen bizitzako azken urteetako jarrera eta burruka politikoa ez ziren halabeharrez sortu, ez ziren behartuak ere. Euskal Herriaren burrukak, Monzonen etengabeko ekintzak, irekitako bidetik zihoazen.

Euskal Herri *osoaren* historiarako eta euskaldun *guztiontzako* Monzon berreskuratu egin behar dugu.

Orain dela urtebete hil zen. Baina oraindik bizi da. Euskal Herriaren askatasunerako bizi behar du. ■ *Paulo Agirrebaltzategi.*

Barojaren nobelagintza eta euskal nobelaren etorkizuna*

Jesus Mari Lasagabaster

Idazlan honen titulua bera gertatuko zaio ulergaitz norbaiti lehenengo begiratu batean: Baroja erdal nobelari izan delarik, zernolako loturarik jar genezake haren eta euskal nobelaren artean?

Nolanahi ere, harreman horiek ezartzekotan, Barojaren garai-ko euskal nobelarekin ezarri behar omen lirateke. Izan ere, zetikusirik izan al dezake Barojaren nobelarekin oraindik idatzi gabe dagoen inoizko euskal nobelak, hots: euskal literaturaren mundu lehor eta urri honetan orain mugitzen garenok, irakurle nahiz kritikalarik, nahiz eta ere idazleok, susmatzen, desiratzen eta amesten dugun nobelak, hain zuzen?

Hala eta guztiz, Barojaren nobelagintza izan zenaren eta euskal nobela izango denaren arteko harremanen bat agirian jarri nahi nuke azterketa honetan, kronologiaren logika eta behar-kuntzak gaindituz, irudipenez bakarrik bada ere, eta euskal nobelaren gerorako bide zabal eta nolabaiteko berri bat irekitzeko asmoz eta guraz.

Gure lan honen ondorioak aurreratuz, honako tesi nagusi hau formulatuko dut, hasiera batean, nere azterketaren norabide eta esanahia laburki azalduz:

Barojaganatu egin behar du euskal nobelak, bere desarroilo-

* Idazlan hau hitzaldi gisa eman zen azaroaren 20an, Donostian, Pio Barojaren heriotzeko 25. urtea zela eta GAKek antolatuturiko astealdian.

rako bide bizi eta zabal bat finkatu nahi baldin badu, bai euskal literaturaren gainerako mota edo testu-tipoen artean, bai eta euskal irakurlegoaren kultur-ohituretan eta irakur-jardunbidean ere.

«Barojanagatu» diogu, hots: Barojarengana joan, eta ez itzuli, «barojano» inoiz izan ez delarik euskal nobela, lehenbiziko Txillardegiren alde batzuk izan ezik. Leturia edo Peru Leartzakorengan topatzen ditugun izatearen hezur-mamirainoko bizi-minak eta etsipenak, Barojaren zenbait pertsonaiaren kutsu erromantiko eta aldi berean existentziala gogorazten digute nonbait, Andrés Hurtado baten edo Fernando Ossorio baten leinu-aztarrenak bait daramatzate bere zainetan Txillardegik asmatutako —asmatu, benetan?— pertsonaia urduri eta problematiko horiek.

Nolanahi ere, gure artean azkeneko hamarraldiotan desarrollatu den euskal nobelak ez omen du zerikusí handirik Barojak utzitako nobela-testamentuarekin, ez nobelari buruzko haren ideia teorikoekin, ez eta haren nobelagintzan azaltzen zaizkigun nobela-bide eta unibertsoekin ere.

Honako honetan ere, hainbestetan bezalaxe, kanpora, urrutira jo dugu —aipa dezagun, esaterako, Hego-Ameriketako errealismo «majikoa» edo Frantziako «nouveau roman» delakoa— gure nobelagintzarako oinarri moderno eta aurkezgarri bila, etxekoa baztertuz. Eta, beharbada, etxekoa delakoxe baztertu dugu, ez aldrebesa, txarra edo gauditua nahiz zaharkitua delako, nere ustez.

Baina, ausar gaitezen galdetzen: etxekoa al da bere lan guztiak erdaraz egin dituen idazlea, nahiz Euskal Herrian jaio eta bizi, Euskal Herriaz idatzi, Euskal Herria maite izan, bere moduz, jakina? Eta nik galdetzen dut: nork ez du Euskal Herria **bere moduz** maitatzen? Bestalde, ez naiz ni ausartuko Euskal Herria euskaraz bakarrik maite daitekeela esaten.

Gure Barojaren kasuan biotako batek, hots, Euskal Herria jaio izanak edota erdaraz idatzi izanak, izan behar du inola ere erru, pentsatuko dute apika gure nortasun-ortodoxiaren aingeru zaindarien. Orain garbi dago ez duela, noski, errua Euskal Herrian jaio izanak, ez bait dago gure eskuetan hemen ala hor ikus-tea mundu pikaro honen lehen argia. Orduan, logikaz, erdaraz idatzi izanean datza Barojaren aberriaren aurkako bekatuaren edo erruaren sustraia.

Besteak beste, bere bekatuan darama Barojak zigorra. Europako haize berri eta aurrerakoietara ireki ditu alderik alde bere leihoak euskal nobelagintzak, gaurkotasunaren janzki apain eta

modernoak janztea erabaki duenean, Barojaren obrari Espainiar kiratsen bat omen dariolako edo. Izan ere, aurreko mendeari dagokio Barojaren nobela —98ko belaunaldiari, hain zuzen—, edota mende honen lehen erdiari. Bi milagarren urtearen mugaldea ia eskuz ukituz ari den nobelak ez omen du bere begiratu atzerantz zuzendu behar.

Beraz, Barojaren garaiko euskal idazleak ziren Barojaren nobelagintzara jo behar zuketanak. Nola, ordea, har zezaketen garai hartako nobelariak maisu edo eredutzat horren heterodoxo eta itxura-ause agertzen zen idazlea? «Barojano»-izpi bat ere ez duen pertsonaiaren bat aipatzekotan, Txomin Agirrerren **Garoa** nobelan azaltzen den Joanes artzain dohatsua aipatu beharko genuke, zalantzarik gabe.

Suerte txarra izan omen du gure Barojak euskal nobelarekiko harremanotan. Bere garaian, heterodoxoegi gertatzen zitzairen Baroja gure nobelagile jainkotiar eta elizkoi haiei. Eta heterodoxi mamu ikaragarriaren beldurra gaindituz gero, ez omen da Baroja euskal nobelaren eraberritzea argitu eta bideratzeko bezain moderno.

Horiek horrela direla, hona hemen nire gaurko hitzaldi hau, gauzak bere tokian jarri nahirik, Barojarena Barojari, eta euskal nobelarena euskal nobelari eman nahirik. Gehiegizko ausardia eta atrebentzia galanta, noski, gure praktika literarioan arbola urri eta zurbilek literatur abentura aberatsago baten baso zabal eta ugaria ikustea eragozten didateneko aldiotan.

Ez naiz ni inola ere gauza, hemendik «ex cathedra» bezalako definizio ozen eta borobila botatzeko, literaturaz, ez euskal nobelaz.

Euskal literaturaren azterketaz arduratzen naizenez gero, eta gure etorkizun literarioak kezkatu, ez nuke etxean bertan dugun idazle handi baten irakaskuntzak erakutsi eta azaltzea besterik nahi. Inoiz inoren maisu izaten ausartu ez zen Baroja horrek barka diezadala maisutzaren gailurreraino jaso nahi hau.

1. EUSKAL NOBELAREN AZKEN IBILBIDEAK

1.1. Ohiturazko nobelaren aurkako erreakzioa.

Mende honen erdirarte —Txillardegiren lehen nobelaren urtea, 1957a har genezake mugarritzat—, euskal nobelaren ezaugarriak

nabarienetako bat, Europako nobelagintzarekiko desoreka eta haustura da, dudarik gabe, Etxeita eta Txomin Agirregandik hasi eta Anabitarte edo behar bada Erkiagaganaino, bai kontatzeko baliapideei dagokienez, bai eta nobelaren bidez azaltzen den errealitatearekiko jarreraz eta mundu ikuskeraz ere.

Izan ere, euskal nobelaren lehen aldi nagusitzen den kostunbrismo horren oinarri historiko eta literarioa bilatzekotan, Erromantizismo garaian desarroilatzen den ohiturazko literaturara jo beharko genuke, nobela errealistara baino gehiago Fernán Caballero edo Pereda, nobelarik kostunbristena, hain zuzen, dira eredu, eta ez Galdós, ez eta Baroja ere.

Eta Erromantizismoaren epigono batengana joko du Txomin Agirrek, nobela historiko bat idazteari ekiten dionean. Alegia, **Auñamendiko lorea** nobelaren ereduren bat aipatzekotan, Navarro Villosladaren **Amaya** aipatu behar, eta ez, noski, Galdósen **Episodios Nacionales** direlakoak.

Mende bateko desorekaz abiatu da beraz, eta desarroilatu gaurdaino euskal nobela, funtsean.

Azterapen hori desegitea edo bederen guttitzea izan da mende honen berrogei eta hamar urteen inguruan sortzen den eraberritze literarioaren ahaleginik zorrotz eta indartsuena, euskal nobela Europako nobelagintzari gero eta gehiago hurbil zekion, teknikaren nahiz mundu ikuskeraren aldetik.

Txillardegia baino lehenagoko zenbait nobelagilek saiatu du beste nobela-mota: esate baterako, Loidik polizi nobelaren lerro-tik abiarazten du euskal nobelagintza, bere **Amabost egun Urgainen** nobelaz. Jon Etxaideren **Joanak joan** nobelan erakusten zaigun gorroto, maltzurkeria eta grina handiko mundu garratz eta gogor horrek ez du marratzen aurreko nobelaren koordinada eta oinarri ideologikoeekiko etendurarik. Baina errealitateari buruzko kostunbrismoaren ikuspegi idiliko eta idealista hura, gero eta ezinago gertatzen da agian.

Halaz ere, Loidi nahiz Etxaide ez dira nobela-aldi berri baten sortzaileak, aurreko aldiaren zikloa hersten duen mugarría baizik. Agian, nobelagile-mordo batek jarraitzen dio Loidik irekitako polizi-nobelaren bideari: aipa ditzagun, adibidez, Izeta, Peillen, Ge-reño, Garate...

Dena dela, bi egile horien idazlanean guztiz argi erakusten zaiguna zera da: ordurarte lantzen ari zen kostunbrismoarekiko asperketa eta haren irten-ezina. Hildo berri batetik abiatu behar zuen euskal nobelak, nahitaez, garai hartako European nagusi

ziren gizarte-eredu literarioekiko desoreka gaindituko bazuen. Eta, batez ere, euskal irakurleagoaren behar eta usteei erantzun baliagarri eta gaurkotu bat emango bazion.

Bilakaera edo aldakuntza literario orotan gertatzen den bezala, aurreko nobelaren aurkako erreakzio gisa —implizitoa bada ere, gehienetan— kontsidera daiteke garai horretan sortu eta desarroilatzen den nobelaren eraberritzea.

Leturiaren eta Joanes artzainaren artean dagoen izugarritzko giza-tartea bera nabari daiteke ohiturazko nobelaren eta Txillardegirekin hasten den nobela berriaren artean, ideologi nahiz literatur mailan.

Aurreko nobelaren mundu-ikuskera oinarritzen zuen «ortodoxia»ren aldean, «heterodoxo» pilo bat —Txillardegi, Krutwig, Mirande, Aresti...— sartzen zaigu euskal literaturaren eta batez ere euskal nobelaren larre bareetan, larratu eta larrarazteko asmo gogorrez. Baina, onartu beharrea gaude horrelako «heterodoxo»en eskuz sartu dela modernotasunean euskal literatura.

Guri hemen gehien interesatzen zaiguna zera da: nobelaren eraberritze literarioaren oinarria eta zentzua mugatu eta finkatzen dituzten erizpideak.

Erizpiderik nagusia, beste guztien oinarria, hain zuzen, hau da, nere ustez: euskal nobela gaurkotu nahia eta horretan aha-legindu nahia.

Baina, nobela gaurkotu behar eta irrika horrek literaturari berari buruzko asmatze berri batean finkatzen ditu bere erro teorikoak: hots, erakunde edo instituzio literarioaren gizarte-estatuto berrian, eta horretatik datorren literatur-sortzearen funtzio eta egitekoan.

Aurreko aroan, literaturatik kanpo zuen euskal nobelak bere arrazoia eta funtsa: alegia, euskal nortasuna indartu eta zabaltean egongo da gehienetan gure nobelen ezaugarririk nabariena. Hemendik sortzen da eta bertatik azal daiteke aldi horretan zehar gertatzen den ohiturazko nobelaren nagusitasuna: euskal izaera —hots, euskara, euskal gizabidea eta fedea— jator eta garbienik bizi eta azaltzen diren tokiak nobelaren bidez erakutsi, ager-arazi eta goratzea. Horretarako bide baliagarri eta irakurleagoarentzat hurbil-erraza, gertatzen da ohiturazko nobela, gure nobelagileen ustez.

Txomin Agirreren bi nobelarik ezagunenak izan daitezke darik gabe nobela-mota honen paradigma edo eredurik argienak:

Garoa eta **Kresala**, hots, lurbarreneko eta itsasaldeko bizitza ja-torraren irudi baketsua eta laudorio baldin-gabea.

Ez dago zer aipatu, nobela mota-honen alde didaktiko eta mo-ralizatzailea.

Horrenbestez, berez literarioak ez diren balio edo legeei —lin-guistiko nahiz etnikoei, nahiz eta ere moralei— datxekie ertsiki nobela, bere autonomia literarioa galduz, edo, guttienez, arbuia-tuz nonbait.

Euskal nobelak, nobela denez, bere izaera, funtsa eta es-kubide artistikoak, literarioak, berreskuratu behar ditu. Berres-kuratze honetarako bidea bi puntu hauetatik pasako da: bata, erre-alitatearekiko sintonizatze berria da eta, bigarrena, erreali-tate berri hori nobeleskoki erakusterakoan, Europako nobela-gintzan erabiltzen ari diren baliapide narratiboak eratxekitzea.

Hortaz, ohiturazko nobelaren aurkako euskal nobela moder-noaren eraberritze honek bi alde ditu, hain zuzen: lehena, ideo-logikoa, nobelaren bidez ematen den mundu-ikuskerari dago-kiona: bigarrena, nobela egitura literario bat denez gero, haren barneko lege narratiboek datxekiena.

Agirre, Etxeita edo Anabitarte batek Euskal Herriari buruz emandako ikuskera ez da inolaz ere baliagarri izango euskal no-bela modernoaren sortzea eta desarroiloa finkatu eta indartzen duten nobelagile berrientzat: Txillardegi, Mirande, Saizarbitoria-rentzat.

Ohiturazko nobelak azaldu duen lurbarren edo itsasaldeko bizitza idiliko honek ez dezake inolaz ere adieraz belaualdi gaz-teak duen Euskal Herriari buruzko arazoek kontzientzia berria, eta are gutxiago arazoon aldean, martxan jarri nahiko lituzkeen alternatiba politiko, ideologiko eta kulturalak.

Euskal errealtate eta arazoek kontzientzia berri hori bizi eta erakusteko gai izan daitezkeen nobela-pertsonaiak ez dira inon-dik ere **Garoa** nobelaren mundu baketsu eta idilikoan zehar bere gizatasun jator eta ezta plazaratzen duen artzain zahar dohatsua. Ez, noski, Etxeitaren nobelen protagonistak, atzerriko lan-egite gogor eta bizitza garratza eramaten dutenak, hain zuzen, herri-minak eta itzul-irrikak finkaturik. Ez eta Txomin gaztea, Anabi-tarteren **Donostia** nobelako protagonista alai ere.

Gutziz alderantziz, Leturia batek ezagutaraziko digu argi eta garbi, bere existentzialismo agnostiko eta etsigarria dela medio, mundu-ikuskerari berri hori. Edo, Miranderen **Haur besoetakoa** nobelan, Frantziako zenbait nobelagileren kutsu liriko eta sen-

tsualen bat dakarkiguten pertsonaia liluragarriek. Edo, batez ere, Saizarbitoriaren **Ehun metro** nobela laburrean, Donostiako Konstituzio-plazan erortzen den militanteak, poliziak tiroz josita. Hauek bai, adierazgarri eta egiantzekoak dira herri baten edo gizarte-talde baten abentura norberaren abenturan isladatzen delarik.

Eta guztiok beren norberetasun bereziaren gainera duten izaera problematikoari usain sarkor eta kutsu nahastu-ezin bat dario, modernotasunaren aztarren garbia daramana nolabait.

Baldin nobela-motaren ezaugarriak nabarienetako bat problematikotasuna bada —eta bat datoz horretaz nobelaren teoria eta soziologia, Hegelengandik hasi eta Lukàcs eta Goldmann-enganaino—, kostunbrismoa ez da nobeleskoa, antinobeleskoa baizik.

Kostunbrismoak lauki edo irudi estatiko bat balitz bezala begiztatu du errealitatea, honen mugikortasun dialektikoa deuseztatu, eta, horrenbestez, benetako konfliktuen posibilitatea aldentuz. Esate baterako, Espainiako nobelaren kasuan, gaurko historigileek diotenez —Montesinosek edo Ferrerasesk—, eragozpen eta oztopo izan da kostunbrismoa, nobela errealistaren sorrerarentzat.

Nahiz eta euskal nobelagintzaren egoera eta jokabidea guztiz desberdina izan, Txillardegirekin sortzen den «heroe problematiko» horrek adieraz diezaguke zernolako garrantzia izan duen euskal nobela modernoaren sortzean kostunbrismoaren aurkako erreakzioak.

1.2. Europako nobela modernoaren ereduakiko atxekitasuna

Euskal nobelaren tradizio kostunbrista hori baztertuz gero, nora jo, nobela berri baten oinarriak aurkitu eta finkatzeko, eta haren desarroilorako bide berriak zabaltzeko?

Mendebaleko literaturetan eta, batez ere, narratiban, aldi edo garai bakoitzaren gailurra gordetzen duten korrante nagusienera jotzen dute euskal nobelagileek, nobelaren modernotasunaz arduratzen direlarik batik bat.

Ez da honako hau arazo edo alde hori exhaustiboki aztertu eta azaltzeko garaia. Hala ere, eta nere baieztapena nolabait argitzearren, adibideren bat ematekotan, zenbait eragin edo kidedetasun nagusi aipa dezakegu, orohar eta gaingiroki bada ere, gaurko euskal nobeletan edozein irakurlek maiz eta erraz nabari dezakeena, hain zuzen.

Gerra ondoan Europako eta batez ere Frantziako bizitzari eta literaturari eraso zion existentzialismoak astintzen du gure Leturiaren bizitza nekagarri eta etsipenezkoa ere.

Sartre edo Camus baten pertsonaien leinu eta odol berekoak ditugu nolabait Txillardegiren lehen eta behar bada bigarren nobelaren protagonistak. Noraezean ibilbide horiek, gorputzez eta arimaz gerrak deuseztatutako Europarenak dira, eta batere ez gure kostunbristek asmatutako Euskal Herri arkadiko eta bake-tsuaerenak.

Leturia dugu, dudarik gabe, euskal nobelaren lehen «heroie problematikoa», zentzu moderno batetan. Bera da, euskal nobelaren protagonisten arteko lehen fedegabea: bera, bere izaera kezkatia eta min senda-ezinenaren sendagaia eta irtenbidea bilatzerakoan, Pariseko haizeetara jotzen duen lehena. Bera, azkenik, bizitza garratz baten zentzugabetasuna ulertu ezinik, bere burua hil duen lehena. Oso inportantea den zer edo zer aldatu bide da gure artean, Leturia bezalako tipo heterodoxo horren urduria sortu ahal izateko eta gure nobelaren urbare baketsu hori iraultzeko. Zabal-zabalik irekitzen ari dira euskal nobelaren leihoak, Europako korronte ideologiko nahiz literarioen haize berri hozkara sar dakion.

Eta, Jon Miranderen **Haur besoetakoa** nobelaren giro bitxi eta lilugarri horri, André Gide baten unibertso sentsual eta errefinatuaren usain eta lurrina omen dario nolabait, Saizarbitoriaren hirugarren nobelak, **Ene Jesus** deritzanak, hain zuzen, Beckett baten unibertso hezugabearen (aipa dezagun, esaterako, honen **Malone meurt** kutsu nahasezina daraman bezalaxe.

Azkenik, zenbait nobela irakurtzean, adibidez, Lertxundiren **Ajea du Urturik**, edota Haranburu Altunaren **Caritate**, Hegoameriketako nobelagileen —García Márquez baten, esate baterako— idazlanak datozkigu gogora, nahitaez.

Ezin daitezke uka eragin horiek, ez eta gaitzetsi edo baztertu ere. Behar-beharrezkoa zitzaigun korronte berri horiekiko erlazioa eta beharbada imitazioa, euskal nobelaren superbizitzarako ezinbestekoa zen, eraberritzea oinarritu eta finkatzeko. Moderno izan nahi zuen euskal nobelak, eta behar, gaurko gizarteari adierazgarri eta onargarri —ideologiaren nahiz literaturaren aldetik— den zerbait esateko gauza izan nahi bazuen behintzat. Eta moderotasunaren bideak, aipatutako puntuetatik pasa dira nonbait.

Ez gara gu izango, noski, eredu horien eragina eta, beharbada, onargarritasuna eztabaidan jarriko ditugunak. Ez naiz ni ausartuko

erabakitzen azken aldi honetako euskal nobelagileek imitatzen dituzten ereduak onenak diren ala ez. Nolanahi ere, onak dira, dudarik ez, eta horrenbestez, jarraigarriak.

Mende honen erdi aldera, bere baitatik irten beharrean zegoen euskal nobela eta literaturan, gainerantzeko alorretan bezalaxe, ia dena asmatua delarik, beste nobelagileek ibilitako bideari jarraitzen zaio, bere eraberritzearen oinarri sendo eta rigurosoa finkatzekoan.

Eraberritze honen ezaugarriarik nabariena, erabat moderno agermina da nere ustez. Garai horretako edozein nobelagilek guttien onartuko lukeen gaitzespena, moderno ez izatea litzateke noski: bere garaikoa, egunean egunekoa izan nahi du euskal nobelak nola edo hala eta oroz gain, eta modernotasun horren pean kokatzen da gainerako guztia.

Baldin zerbait esan badaiteke azkenaldi honetako euskal nobelagintzaz, moderno izana edo, hobeto, izan nahia da, dudarik gabe.

Oso nobela gutti idatzi da, noski, asko badirudi ere, aurreko aldikoekin erkatuz: baina, asko izan omen da, Europako eta beharbada Ameriketako nobelagintzan zehar dabiltzan baliapide berriei tokiren bat emateko: barne-bakarrizketa, ikuspegi narratiboen konbinaketa, denbora-plano desberdinen txandaketa, behaviorismoa, simbolismoa, etab.

Kanpoan erabiltzen ari diren moda narratiboen oso ezagule onak gertatzen bide dira gure nobelagilerik gehienak, ezaguera hori pena balio duten nobelak sortzen erabiltzeko gai izan ez badira ere gehientsuenetan.

Txomin Agirre ehun bat urte lehenagoko moda bati jarraitzen zaio bere nobelagintzan; baina esan beharra dago, oso idazle ona izan dela, hala eta guztiz ere. Munduko narratibarik gorenean gaur bertan erabiltzen ari diren teknikarik modernoenak aurki daitezke gaur egungo edozein nobelagileren edozein nobelatan, baina oso kasu gutxitan sorrerazi du nobela bikain bat ezaguera tekniko horrek.

Zergatik ote hemen salatzen ari garen egoera hau?

Nere eritziz, mekanikoegia gertatu da orohar kanpoko ereduon imitazioa, gure euskal nobelagintzaren aldetik, gure nobelaren tradizioak bereganatu, asimilatu eta integratu gabe, hain zuzen.

Baina, ba ote da euskal nobelaren tradiziorik? Zenbaterainoko

tradizioa izan dezake apenas ehun bat urte baizik iraun ez duen euskal nobela bezalako mota literario batek?

Erro sendorik gabeko euskal nobelagintzari menpera-ezina gertatu zaio azken finean berez guztiz beharrezkoa azaltzen zitzaigun eraberritze hori.

«Intxisu-ikaskale»aren leiendan antzera, ezin dute menperatu gure nobelagileek beroiek abiarazitako mugimendua: lto-zorian dago gaurko euskal nobela, berak sortutako itsas-handiaren uholdean.

Teknikaren aldetiko inflazio bat gertatu omen da gure nobelagintzan, eta teknikakeria horrek zimeleraz ditzake euskal nobelaren muskil berriak.

Horrelako nobelagintza modernoari gaur egun ekiten ari zaizkion nobelagile guztiek ematen duten inpresioa, zera da, nere eritziz: badakite nola esan, baina ez bide dakite zer esan.

Ez nuke nik epaiketa zorrotz eta urrikgaitzegi bat egin nahi, ez eta gaurko euskal nobelagileengan dagoen on eta itxarogarririk, eta badago, jakina, baztertu ere. Nolanahi ere, guztiz etsita eta sinestuta nago autokritika dela gure jokaera kulturalak gehien falta duena edozein alorretan, literaturan ez ezik.

Behar beharrezkoa dugu teknika, zer esanik ez, etxe edo zubi bat, edota nobela bat eraikitzerakoan. Izan ere, eraiki egiten dira, bai, nobelak, etxeak edo zubiak bezalaxe. Hala eta guztiz ere, tresna bat besterik ez da teknika, beste zerbaiten zerbitzuan, hain zuzen. Teknika hutsaz ezin da etxerik ez nobelarik eraiki.

Dena den, ez dut esan nahi eraberritze formal eta teknikoari euskal nobelaren ateak itxi behar dizkiogunik. Inola ere ez. Baina, ezin daitezke haizean, edo hutsean, saioak edo experimentuak egin.

Experimentuen sasibideetan galtzeko arriskuan dabil bere erroak trinko finkaturik ez dituen edozein mota artistiko edo literario. Eta hori gertatu zaio nonbait euskal nobelari, gaurkotzeko ibilbideari ekin dihonean.

Honen arrazoiren bat bilatzerakoan, euskal nobelaren historiara jo beharrean gaude behin eta berriro.

1.3. Aldi errealistarik eza.

Goian esan dugunez, mende honen erdirarte ohiturazkoa edo

kostunbrista izan da euskal literaturan nagusitu den nobela-mota. Eta honen arauak ikertzerakoan, Espainian errealismoaren aurretik sortzen den literatura kostunbrista aipatu beharko genuke, hots, erromantizismoaren fruiturik nabarienetakoa.

Nobela historikoaz aparte, ez zuen Erromantizismoak nobelaren eremuan ondorio garrantzitsurik duen ezer sorrerazi, beste motetan —adibidez, lirikan edo dramatikan— sorrerazi zuen bezalakorik.

Errealismoaren eta naturalismoaren garaian —hemeretzigarren mendearen bigarren erdian, gutxi gora-behera— finkatuko du nobelak bere nortasun literario eta semantikoa, eta, gainera, bere narotasun eta betetasuna.

Nobela modernoaren sorrera oinarritzen duten erro errealistek —aipa dezagun, esate baterako, Don Quijote eta nobela pika-reska— gero eta indar handiagoa dute errealismo garaian. Nobelaren erro errealista hori adierazten duen formulaziorik argien eta onargarriena Stendhal-ek emandakoa dugu dudarik gabe: Nobela da «bidean zehar ibil erazten den ispilua».

Eta, benetan, nobelaren bidez adierazten ditu, adierazi, Europako hemeretzigarren mendearen bigarren erdiko gizarteak bere bizitza eta bere gorabeherak. Dickens, Balzac, edo beharhada, Galdós-en idazlanetan gelditu zaigu Ingalaterra, Frantzia edo Espainiako gizarte bizitzazko dokumenturik adierazgarrien eta argienetakoa.

Errealismoak indartu ditu behin eta betiko nobelaren erroak eta nortasuna, bai literaturaren aldetik, bai eta nobelaren eta errealitatearen arteko lotura estuari dagokionez ere.

Errealismoaren esperientziak finkatu eta indarturik, jasan dezake nobelak hogeigarren mendearen hasieran —«hogei» urteen inguruan— gertatzen den iraultza nobelesko delakoa: Joyce, Faulkner edo Virginia Wolf batek nobelagintzaren eremuan sartzen dituzten eraberritze teknikoek ez dute inola ere nobela errealista deuseztatzen; aitzitik, aberastu egiten dute, erroak errealismoaren lur oparoan bortizki finkaturik ditueneguz gero.

Behin baino gehiagotan aipatu izan dira errealismoaren heriotza, nobelaren krisia, edo, arau errealistetatik hain urrunduta dabilen gaurko zenbait nobela-korronte adierazterakoan, «anti-nobela».

Hala ere, nobela berpiztu egiten da behin eta berriro bere hautsetatik, Fenix hegatzia bezalaxe, bere sorburu errealistare-

kin lotzen duten zilbor-hestetik bizi-jarraipenerako arnasa eta kemen berria hartuz.

Gizakia, gizaki deino, bere buruari giza-bizi eta gorabeherak kontatu beharrean gertatuko da, nahitaez, eta nobelak idazteari ekingo dio, nobela, Hegelek dioenez, aldi burgesaren epopeia delarik.

Horrexegatik, nahiz eta experimentalismorik abangoardistenean murgildu, giza eta gizarte-experientzia eta nondik norakoa kontatzen ari zaigu nobela funtsean, nola edo hala.

Baina, mendebaleko literatura nagusientzat baliagarri azaltzen zaigun planteamendu hori, ezin dakioko euskal nobelaren historiari aplikatu, gure historia eta desarrollo literarioa horren berezi eta «atipiko»ak izan direlarik.

Euskal nobela ez da errealismoaren experientziatik igaro, alegia; *erromantizismo* garaiko ereduaren arabera *egina* zegoen nobela kostunbrista batetatik, modernotasunera pasa gara, ia ziplo eta bitartekotasunik gabe.

Agirreren **Kresala** (1906) eta Saizarbitoriaren **Egunero hasten delako** (1969) nobelaren arteko tarte literarioa, adibideren bat ematekotan, Espainiako literaturan, Peredaren **Sotileza** (1884) eta Goytisoloren **Señas de identidad** (1966) nobelen artekoa bezalako da, gutxi gorabehera.

Baina, Espainiako nobelaren kasuan, tarte kronologiko hori betetzen duten nobelaren historia zeharko korrante edo mugimenduak marratzerakoan, aipa ditzakegu, adibidez: errealismoaren garaldia, eta naturalismoa, 98'ko belaunaldia, eta nobelari dagokionez, Baroja, bereziki, hurrengo belaunaldian, 27koan, hain zuzen, eta nobelaren alorrean, Miró, Pérez de Ayala, Jarnés, eta Gero, gerra aurreko nobela soziala eta, gerra ondoko nobelari dagokionez, Sobejanok emandako klasifikapenari jarraitzen badiogu, aipatu beharrak ditugu nobela existentziala, nobela soziala, eta, 70. urteen inguruan, estrukturala deritzan nobelaren lehen desarrolloa.

Bitarte bereko euskal nobelan, berriz, ia ez dugu bilakaerarik. Bada, izan, nobelagile eta nobela-mordotxo bat, oso garrantzitsua kopuruz, kalitatez ez bada ere. Baina, ohiturazko nobelak beterik dauka funtsean bitarte horren zatirik handiena, Txillardegiko arte, inguruko literaturetan aurki daitekeen bilakaera aberats eta mugikorra inola ere ez izanik.

Euskal nobelaren berezitasun hori izugarritzko urritasuna gerta-

tzen da azkenik, eta zoritxarrez; berezia izate hori bizpahiru ezaugarri nagusitara laburtzekotan, honako hauek aipatuko nituzke:

- Euskal nobelagintza ez da errealismoaren esperientziatik pasa.

- Erromantizismoan nolabait oinarritua zegoen nobela-mota batetik —hots, ohiturazko nobelatik— modernotasunera pasa behar izan du euskal nobelak, bitartekotasunik gabe.

- Kanpoko ereduak ezin izan zaizkio aurreko tradizioari txertatu nobelaren eremuan benetako tradiziorik ia ez delarik. Horrenbestez, euskal nobelagintza eraberritzeko saiatze hori, asimilazio aberasgarri eta emankorra baino gehiago izan da imitazio mekanikoa.

- Jokaera honen ondorioz, irtenezin batean aurkitzen da egungo euskal nobela, nere ustez, gure literaturaren egoera problematikoari kalte egiten ari zaizkion arazoei erantsi behar zaiena, hain zuzen.

Zernolako irtenbidea proposa liteke, euskal nobelagintzaren etorkizunerako bide zabal eta ibilgarri bat ireki ahal izateko?

Galdera honen erantzuna bilatzerakoan, hasierako tesi nagusia berresan beharrean gaude: Barojagandik pasa beharko luke euskal nobelaren etorkizunerako bide berri horrek.

2. BAROJAREN IKASBIDEA EUSKAL NOBELAREN ETORKIZUNERAKO

«Euskal nobelaren alderik pozkarriena eta interesgarriena, bere etorkizuna da, hain zuzen». Hitz hauekin bukatzen nuen euskal nobelaren historiari buruzko hitzaldi bat, duela hiru urte.

Handik begiratuta, etorkizun zen denboraren partetxo bat, ttipi-ttipia bada ere, bete da. Eta, urte horietan euskal nobelaren esparruan gertatua ez zaigu oso interesgarri ez pozgarri iruditzen.

Bizpahiru titulu izan ezik, lehor eta urri agertzen da gaur egun euskal nobelagintzaren alorra. Eta, eguraldiaz ari bagina bezala mintzatuz, ez da oraindik zero-ertzean ikusten, gure nobelaren hain soro kiskaldu eta alferrikakoa busti eta heza dezakeen euri-aztarrenik.

Hala ere, edo horrexegatik, ausartuko nintzateke ni esaten,

etorkizuna dugula oraingo honetan ere euskal nobelaren alderik interesgarriena.

Baina, iritsiko ote da etorkizun interesgarri hori, eta, etortzekotan, noiz eta nola?

Izan ere, literatur aztertzaile naiz ni, ezer izatekotan, eta ez inolaz ere azti. Dena den, botere bitxi eta berezirik ez dugu behar, jakina, euskal nobelaren etorkizunerako argibideren bat susmatu eta erakusteko.

Hemen, hain zuzen, baliagarri eta garrantzi handikoa gerta dakiguke Pfo Barojaren laguntza; haren nobelari buruzko idazlan teorikoak nahiz, eta batez ere, nobelak.

Orain bertan azterketa exhaustibo baten posibilitaterik ez izanik, lauzpabost puntu besterik ez dut aipatuko, orohar eta laburki bada ere, euskal nobela gaur egun aurkitzen deneko irtenezin horretatik atera dadin, bere nortasun literario nahiz kulturala finkatuz.

2.1. Barojak, beste inork ez bezala adierazi du euskal bizitza, euskal gizarte-giroa eta paisajea. Inork ez du Barojak sortutako euskal tipoen sorta aberats eta «errepresentatibo»rik: Mari Belcha-gandik hasi eta Aviraneta-ganaino, Barojaren nobeletan zehar azaltzen zaizkigun euskal pertsonaiek berekin daramatzate, beren euskal izatera ez ezik, bai Euskal Herriaren bizitza eta oroitzen kolektiboa, bai Barojaren Euskal Herriarekiko maitasuna eta grina. Askok partekatuko ez duena, noski; behar bada, gehientsuenek. Baina, nor ausartuko litzateke esaten Barojaren Euskal Herriaganako jokabidea berea bezain bidezko eta onargarria ez dena?

Nolanahi ere, ukazina da Barojarengan aurki daitekeela literaturak euskal giza eta gizarte-bizitzari inoiz eskaini dion errainu eta irudi zehatz eta bizia.

Hemen, hain zuzen, kokatu behar da, nere ustez, gaurko euskal nobelari Barojak eman diezaiokeen ikasbide nagusia.

«Baroja hil ondoan» zeritzan oso artikulua polit eta interesgarri batean, Mitxelenak esana datorkit gogora:

«Euskal idazleoi ere eskaintzen digu zerbait Barojak. Gure lurraldea inor gutxik bezala ikusi du, aurrenik: Pierre Loti eta, beste gisara, Lizardi kenduz gero, nor aldera lekioke?».

Literatura orotan nobela dugu, dudarik gabe, herri-gorabehera eta gizarte-bizitzaren itxurapenik aberatsen eta sakonenetakoa. Ez,

jakina, dokumentala eta historikoa, poetikoa eta mitikoa baizik. Nobela dugu, nik uste, gizarte modernoaren mitologiaren formarik nabarien eta garrantzitsuenetakoa.

Gure kasuari bagagozkio, ostera, nekez esan genezake euskal nobelak Euskal Herriaren gorabeherak eta gertakariak adierazten dituenik, oso kasu bakanetan izan ezik.

Hor dago, beraz, gure gizarte-bizitza, gure esperientzia kolektiboa, euskal idazleek eta batez ere euskal nobelagileek eman liezaioketen literaturazko bizi mitiko eta poetiko horren zain.

Ezin da, jakina, literatura eta batez ere nobela errealtateari buruzko dokumentu hutsa balitz bezala hartu. Errealismo arrunt baten ikuspegi motza gaingitu behar dugu, literaturari eta nobelari toki zabal eta berezia prestatu nahi baldin badiogu. Baina, errealtatetik abiatu da beti, nola edo hala, munduan izan den nobelista nagusia. Horrenbestez, gure giza eta gizarte-bizitza izan daiteke, eta izan behar du gure nobelagintzarako abiapuntu sakon, zabal eta oparoa.

Hor daukagu, ikasbide bizi eta probetxagarri, Barojak egina. Barojaren garaian, Barojaren mintzairan, eta, behar bada, Barojaren gisara egina, noski.

Guk, orain, oraingo errealtatetik datorkigun aupadari erantzun behar diogu, gure mintzairaz eta modura, jakina. Baina guztiz desiragarria da, Barojak agertu eta erakutsi zituen sakontasunaz, maitasunaz, eta, beharbada, trebetasunaz egin ahal izatea.

2.2. Agian, Barojarengan interesatzen zaiguna ez da, hain zuzen, berak Euskal Herriaz eta euskal bizitzaz gorde zuen eritzia, ez eta haren mundu-ikuskera edo ideologia ere. Honetan, Barojarekin bat etortzea ez etortzea bezain bidezkoa dugu, jakina. Bestalde, Barojaren eritziz bestekoak berekoak baino gehiago omen dira, eritziak inoiz kontatzerik balego.

Nolanahi ere, eritzi bereko ala besteko, inork uka ezin leza-keena zera da: Barojak zeukan narratzaile-sen zorrotz eta argia: honen arabera, berak bizi, ikusi edo amesten zuen guztia, naraketa bihurtzen zen. Horretan, hots, errealtatea nobeleskoki, narratiboki esan eta erakusteko trebetasun honetan dugu Pio Baroja maisu ukaezin eta paregabea.

Barojaren maisutza honetatik asko eta asko ikas dezakete gaurko euskal nobelagileek. Adibidez, epikotasuna, hots, errealtatearen eta literaturaren arteko harremanak epikoki begiratze-

ko trebetasuna: abentura bailitzan begiratzen da bizia, eta abentura, literatura bihur daiteke, eta bihurtzen da benetan.

Nobelagilerik haundienen kasuan bezala, fikzioa, abentura bihurtzen da Barojak ukitzen duen guztia: gauzak eta gizakiak, tokiak eta gertakariak, paisajeak eta gizarte-giroak. Horretan dago benetako narratzailearen bizia: historiak kontatzean: bizi ahal izateko, hain zuzen, ez bakarrik idazle denez, baizik eta gizaki denez. Gauza bera zen, Barojarengan, bizitzea eta idaztea, bizitzea eta kontatzea. Eta kontatze-jario ezin-itzali hori eten zitzaionean, orduan bertan gertatu zen Barojaren benetako hiltzea.

Baina berak asmatu eta sorrerazitako mundu nobeleskoa —pertsonaiak nahiz abenturak— zutik dago eta osorik, eta haren indarraren argitan berpiz daiteke euskal nobelagintzaren ibilbide berria.

2.3. Gure literaturaren, eta batez ere, gure nobelaren alde-rik kezagarrietako bat, idazleen edo nobelagileen urritasuna ez ezik, irakurle baten existentzia edo egoera guztiz problematikoa da, dudarik gabe. Nork irakurtzen du euskarazko liburua? Eta «nor» galdetze honetan ez dugu nahi bakarrik asko ala gutti diren jakitea, baizik zernolakoa den gaurko euskal-literaturaren irakurle arrunta. Oker ez banago, ausartuko nintzateke esaten gure euskal literatura, gure nobela ez dela herrikoa, zenbait salbuespen gorabehera.

Herrikoizateak ez du esan nahi, jakina, aro baten kultur eta literatur eskabideak ez betetzea, ez eta inola ere hizkuntz irakaskuntzaren zerbitzuan egotea. Idatzitako literatura herrikoizate badiu bere barneko lege eta eskabideak, bere izaera literarioari dagozkionak, hain zuzen, eta, bestalde, eskabide sozialekin guztiz ongi konpon daitezkeenak.

Literatura ezin daiteke euskalduntzeko plangintza baten alde praktikoa balitz bezala bakarrik ikus. Ezin da ere herrikoitasuna eta popularismoa elkarrekin nahastu. Literatura baten izaera herrikoa mugatzen duten elementuak bai sortzean, bai eta irakurtzean aurkitu behar dira.

Baldin herrikoizateak ez badira Saizarbitoria edo Txillardegiren azken nobelak **Ene Jesus** eta **Haizeaz bestaldetik**—, edota Atxagarenak, «popularistak» gertatu dira nonbait Gereñorenak, euskal nobelari irtenbide herrikoizate garrantzitsu bat irekitzeko gai izango ez direnak, hain zuzen. Bi nobela-mota hauen artean dagoen hutsune zabala inork ez du oraindik betetzen. Hemen ere laguntzaile eta maisu datorkigu gure Pio Baroja. Berak, inork ez be-

zala, asmatu zuen bere garaiko nobela herrikoia —«folletín» edo «por entregas» delako nobelaren— elementu probetxagarriak jaso eta bere nobelaren testu inguruan osagai nagusitzat kokatzen. Norbaitek esan duenez, «un folletinista con ideas» izan zen Baroja, hots, folletinaren elementu narratibo biziak onartu zituen, haren arruntkerian erori gabe, gehienetan behintzat.

Gaurko euskal polizi nobela omen da euskal nobelagintzan nobela-mota herrikoia bat sarreraztearen adibiderik nabariena. Badaude beste motak, eta badago, batez ere, benetako herrikoitasun literarioaren oinarriak jatorrena finka dezakeen osagai ukaezina: herriaren esperientziarekiko lotura, haren izaera eta izan-nahiarekiko sintonizatze literarioa. Horretarako, nobelagileak ez ditu nobela eraberritzea edo teknika berriak baztertu behar; adibiderik argiena, Hegoameriketako nobelagileak dira. Aberasgari eta eraberritzaile izan da beti, literaturan batez ere, herriarekiko benetako atxekidura eta elkartasuna.

2.4. Forma-fetixismoren batean erortzen da maiz gaurko euskal nobela. Akats honetatik salba lezake ere Barojaren nobelak euskal nobelagintza, oker bait daude Barojak forma edo estilo-arazoak mezpretxatzen zituela edo ez zituela seriotan hartzen pentsatzen dutenak. Espainolezko estilistatik nagusiengatiko bat dugu Baroja trakets hori, bere estiloa erdaraz idazten duen euskaldun batena bada ere.

Oso landua azaltzen zaigu funtsean Pio Barojaren mintzaira narratiboa eta estiloa. Baina, aldi berean, tresna bat besterik ez da idazlan nobleko osoaren zerbitzuan sartu behar duena, hain zuzen. Eta nobelaren azken helburua, literaturarena bezalaxe, bestalde, semantikoa dugu, ez estilistiko hutsa. Guztiz argi ikusi zuen Barojak alde hau bere nobelari buruzko saio teorikoetan, eta guztion eredu izateko moduan gorde zuen bere nobeletan.

Barojaren alde honen euskal nobelagintzarako ikasbidea, hau da: teknikaren balio soil-soilki instrumentala berreskuratzea.

Nobelaren historian benetako iraultza finkatu eta sorrerazi duten idazlanetan, «historia» (fikzioa) eta mundu-ikuskeraren zerbitzuan egon da beti teknika, **Don Quijote**-tik hasi eta **Cien años de Soledad** arte, Joyceren **Ulysses**-etik pasatuz.

Egia hori maizegi ahaztu dutelarik gure nobelagileek, Baroja datorkiguke berriro ere eredu eta jarraibide, teknikaren eta estiloaren zinezko tokia eta zeregina gogorazten dizkigularik.

Teknikak eta forma-arazoak bazterten ez, erlatibizatzen baizik irakasten digu Barojak; hots, nobelan nagusia den alde semantikoaren oinarritzko laguntzailea izan behar du funtsean forma-arazo honek. Ez dugu ahaztu behar noski, literaturan funtzio erreferentziala pertinetea ez delarik, edozein mailatako edozein elementu alde semantikoari dagokiola, nola edo hala: literaturak berezi duen semantika konnotatiboari, hain zuzen.

Onar ditzake, eta onartu behar ditu gaurko euskal nobelagintzak beste nobelagintzetan erabiltzen ari diren teknika eta baliapide narratibo berriak. Baina, nolana ere, unibertso nobelesko jator eta bizi baten zerbitzuari dagozkion neurrian. Ezin da teknika hutsaz nobela bat sortu. Esateko ezer interesgarriarik ez duen nobelagileak isildu egin behar du, dudarik gabe. Isildu, eta bere teknikeria eta gainerakoa beste momentu hobe batetarako utzi.

2.5. Azkenik, ez dugu esan nahi Barojaren nobelagintza eredutzat onartu beharko luketenik euskal nobelagileek. Inola ere ez.

Baldin zerbait argi eta garbi badago Barojarengan —literaturan, nahiz bizitzan—, bere «antinormatibismoa» da, hain zuzen. Edozein araren aurka egon zen Baroja, beti eta printzipioz.

Nobelari dagokionez, guztiz argi azaltzen zaigu antinormatibismo hori Barojaren nobelari buruzko teorian, nahiz nobeletan. Edozein gauza kabitzen da nobelan, Barojaren ustez, eta printzipio teoriko honen frogarik garbiena, haren nobelak ditugu.

Beraz, ez luke inola ere zentzurik izango Barojaren nobelagintza arautzat hartzen saiatzeak. Baroja bera aterako litzaiguke aurka, ahal balu, dudarik gabe.

Idazlan honen bidez, hauxe azaldu nahi izan dut:

Ezin dio euskal nobelagintzak soil-soilik inoren laguntza gabe etorkizunaren abenturari aurpegia eman.

Nahi eta nahiezko gertatzen zaigun laguntza hori inorengan kokatzerakoan, normala dugu gainerako literaturen narratzaile nagusiengana —atzoko eta gaurkoengana— jotzea.

Haien artean, toki berezi bat gorde behar du Pio Barojak. Nagusi delako eta batez ere, gurea delako.

J. M. L.

D. Nemesio Etxaniz, euskal idazlea

Juan San Martin

Gure euskal idazleon mundu txipi honetan, galera handia izan da Don Nemesio Etxanizen heriotza. Aspaldi honetan beraren etorria agortua zela iduritzen bazaigu ere, gerraondoko ekintzetan lehen mailako idazlea izan zen eta euskal literaturaren historian toki berezia zor zaio, une berezi batean eskaini zuenaz gainera zenbait sailetan puntako agertu zitzaigunez. Berak gehien landu zituen alorrak olerkia, kanta, antzerkia, irratsaioak eta ipuinak izan ziren, baina itzulpen batzuk ere egin zituen, ez nolanhikoak, eta euskaraz ikasteko metodo bat ere bai. Lan gaitza Don Nemesiok urte larrietan burutu zuena. Batzuen ustez, kaskagorria zen Don Nemesio, baina hala behar urte ilun haiek jasango baziren. Berez kaskagorria ez zenak ez zuen ezer egiterik garai haietan, eta katakunbetan ari ginenontzat gogozko argia zen Don Nemesioren idazkintza.

Garaiko giroak hala eraginik, etsipenezkoa zen Don Nemesioren ekintza. Bide-ertzeko belarra bezala ikusten bait zuen bere herriaren etorkizuna.

*Nere erri gaixoa!
Belar bakan zikiñak,
ba-dik ire antza.
Zapaldu induten su ta gar.
Zikin aute gezur d'abar.
Arrazkero guk zenbat dantza!
Noan etxera! Illunak
mendi guzia arantza!*

Baina, —«Ai, nere Errota! Buru-Errota!»—, berekiko pentsa-menduetan atertu gabe, barruko kezka eta larrimina zituen eraginkor: «Nundik sortu aiz? Zer dakark? Erri baten arnasa igan elurtu dek. Urte joanen amesa, guraso zaarren mataza, erio-aizez eten-zorian...» bere baitan zituen eraginkor eta ez zuen isiltzerik zuzenbidearen izenean.

Don Nemesio, Azkoitian etorri zen mundura 1899ko abenduaren 19an. Mende bat bukatzearekin batera sortu zen haurrak herriko Erruki-Etxeko eskolan eta Karidadeko Mojetan egin zituen bere lehen ikastaroak. Gero, seitik bederatzzi urtera artekoak, Sailleter Anaien eskoletan eta, bederatzizirekin, latina ikasten Balda dorretxean Otaño anaiekin (Jose eta Rikardorekin). Bere herritik Lekarotzera joan zen bi urterako eta handik Comillas-era, hemen hamabi urteren buruan ikastaroak eginaz apaiz irteteko. Mezaberria Azkoitian bertan eman zuen 1924eko abenduaren 26an. Arabako Urarten urtebete apaiz egon ondorean, 1926an, Bergarako Santa Marinara, gerrara arte. Artadiko San Migelen urte bete egin ondoren, Arabako Andoinera (1941) erretore. Baina bere azken urteak, urterik gehienak, Donostian eman zituen eta hiri honetako euskal kultur ekintzek asko zor diote Don Nemesio Etxanizen eraginari: ikastola, antzerki, irratia... non ez zuen lanik egin urte haietan?

Apaiz egin baino lehen hasi zen euskaraz idazten. *Arraldea* zeritzan kontu zaharra, *Argia* asterokoan lehenik eta liburuxka bezala gero, 1923an argitaratu zuen. Handik hiru eta lau urtera, *Euskal Esnalea*-ren ipuin-sariak jaso zituen *Olentzero* eta *Katuin zuloa*-rekin. Baina bere literatur ekintza nagusia gerraondoko urte larrietan hasiko zuen, beharbada arestian agertu duan bertsoan azaltzen duen mindurak eraginik.

Nori berea emateko orduan, erabili zituen izenordeak kontuan hartzekoak dira: Erratzu, Artiz'tar Xabier eta Amillaitz bezelak, eta lanik gehienak argitaratu zituen aldizkariak, *Argia*, *Euskal Esnalea*, *Euzko-gogoa*, *Egan*, *Zeruko Argia*, *Olerti* eta abar.

1950ean *Nola idatzi euskeraz?* liburuxkarekin gazteei laguntza ona eskaini zien hasieratzat. Urte berean eman zuen *Kristau ikasbidea bertsoan*, eta urtebete geroago *Kanta-kantari* liburua, jolas eta kantak ikasteko egina. Beste urtebeteren buruan, 1952an, bi antzerkidun liburuxka, *Izoko aberatsa* eta *Irulearen negarra*, bata umoreduna eta bestea trajikoa, euskara errazez eta elkarrizketa bizkorrez. Garai hartarako harrera ona izan zuen. 1958an, *Euskal antzerkiak* — *Kontu-kontari* deitu liburu

batean beste lau antzerki (*Gabak zekarren eguna, Maite ere neurritz, Zotzean bizia* eta *Gabon-zauria*) eta bi ipuin luze (bata P. Mérimée-ren *Mateo Falcone* eta bestea D. Nemesio beraren *Ollasko-iturri*). Antzerki horietako batzuk errepresentatuak izan ziren.

Itzulpenetan, berriz, Prosper Mérimée-ren ipuinaz gainera, Gabriela Mistral eta Juan Ramón Jiménez-en olerkiak, Ruiz de Añibarroren *Mujeres de Berrigorria* antzerkia (*Ito edo ezkondu* izenburuz) eta Jacques Bondallaz-en laburpenez eta irudiz haurrentzat argitaratu zuen Biblia zaharra: *Itun zaarreko kon-daira*, bi liburukatan (Argitaratzaile, Les Moulineaux. Seine, 1956-1960).

Nik ez dakit gure egunotan zenbaitek aipatzen duen «vasco universal» zein baremorekin neurtzen den edo zein galgak mugatzen duen, baina Don Nemesioren unibertsaltasuna ez zeterren literaturgintzako idazle ospetsuak itzultzetik, bere gogozko sorketatik baizik; herriek oro har Unibertsoa osatzen duten bezala, inor baztertu gabe. Esan nahi dut, unibertsaltasuna ez dela herri batzuk bai eta beste batzuk ez, hautaketa bereizgarritz osatzen den zerbait, eta gure herrian unibertsaltasunez gutien hitzegin behar dutenak hizkuntza soil bat besterik mintzatzen ez dakitenak dira; euskaldun ez direnak gehien bat, zeren euskaldunak bi edo hiru hizkuntzaren jabe bihurtu bait dira. Ez dago ongi unibertsaltasun aitzakiaz euskararen etsai agertzea.

Sorketa da gizonari nortasuna ematen diona eta sorketazkoa izan zen Don Nemesioren lanik gehiena. *Lur berri billa* (1967) deritza haren lanen muestra gisako liburu-bildumari. Landu zitu- en generoetatik zerbait agertzen zuen bertan: antzerki, ele- berri, ipuin, irratsaio, olerki eta kanta. Bere poemarik luzeene- tako bat, Iparragirreri eskaini zion «Euskal egazti» izenekoa ere hor da, 24 bertsoz osatua. Don Nemesioren sorketazko ahal- menak neurtzeko, ezagutu beharreko liburua. Argitaratu eta laster, hara zer zioen Pierres Lafitte jaunak *Herria* astekarian (867 zenb. Martxoaren 16koa, 1967):

«Liburu berria deitzea hartze du, ez otsail huntan sortu delakotz bakarrik, baina eskuarari bide berriak idekitzen diozkalakotz. Maizegi eskual liburuek xahar aire emaiten dute, oraikotasunik ez ukanez.

Etxaniz jauna baino berrizaleagoak badirela gure idazle gaztetan, aitortuko dugu. Baina ez da hau ere gibeltiarra; bethi irakurle gaztez orhoiturik baderama bere lana eta bertze askok baino alegerakiago: harri-

tzeko baita, zonbaitek zoin laket duten minkor eta jauz-
kor agertzea, auhena eta etsimendua dariozkatela! Idu-
ri-eta zinkurrinez kanpo ez daitekela literatura onik...

Gure «Amillaitz» dena bihotz da, bainan ez da kel-
darzalea eta aise baztertzen ditu kireskeriak. Bizia
maite du eta haren idaz-lanak dena olde dira».

Hala ere, etsimendua bera ez ote zen Don Nemesioren go-
goa mugitzen zuena? Bere barnean zeraman minetik agertzen
zuen gizonenganako maitasuna, azal umoretsuaren bidez:

*Utzion arratsari
estaltzen mundua.
Biotzak negar egiteko,
naiago din ezkutua.*

Zeren, bere obretan, beti agertzen bait zuen garai hartako
idazleetan hain nekez nabari zen bizitasuna. Haren olerkigin-
tzaren goi maila berrogeitahamargarren dekada hartan ezagutu
zen. Garai berean idatziak ziren euskarazko lehen irratsaioak
ere. Euskaraz lehenbizikoak, nik dakidanez. Eta, handik laster
burutu zuen euskaraz irakasteko CCCren *Método radiofónico*
(1961) hura ere. Urte haietako kultur aldizkarietan ikus ge-
nezakeenez, D. Nemesio ez zen lo egon, egile eta eragile
izan zen, eta garaiko giroagatik eta euskaltzaletasun suharra-
ren eraginez, modan jartzen ziren kanta berriei euskarazko
letra jartzen zien eta maiz berberak kantatzen zituen, nahiz
ospakizunetan nahiz plazetan; berrikeriak euskaraz azaltzeko
ez bait zuen inongo lotsarik.

Bere izakeraz, ez zen inolako molde edo arau hertsietan
sar ahal zitekeen gizona. Artista eta liberal jitea zuen. Hone-
gatik, gerraondoko gure literatur ekintzak suspertzen eta era-
berritzen gizon prestua ez ezik garrantzitsua izan zen. Mixel
Labegeri berak baino lehen eman zion euskal kanta berriari
hasiera, ez bakarrik soinu berriak hartuz eta horiei letra jarritz,
baizik soinu berriak ere asmatuz. Eta, besteak beste, gerraon-
doko giro itogarri hartan, Gipuzkoako gobernadoreei egin ziz-
kien gutun publikoak hots handia izan zuten eta herri-kontzien-
tzia iratzartu euskaldun askoren baitan. Eta, gauza guztien gai-
netik, D. Nemesiori inork ukatu ezinezkoa, bere zintzotasuna.

Euskal Esnalea-k 1926 eta 1927an eratu zituen ipuin sari-
ketak irabaziz geroztik, maiz jaso zituen sariak. 1955etik Eus-
kaltzaindiko urgazle zen eta 1979an ohorezko izendatu zuten.

Goian bego gure adiskide maitea. Eta olerkiz agertu zuen
gogoa bete bedi:

*Ez dezu zorrik nerekin, Jauna,
maite arren nik oinbeste.
Ezer espero ezpanu ere,
berdin zinduzket nik maite!*

*Nolanai iltzen nazun ezkeru,
naiz gogorrez, naiz legunez;
begira, Jesus, atertu gabe,
ta il nadilla maitasunez!*

J. S. M.

Imanol Berriatuaren oroitzapenez

Xabier Kintana

*Zeren iruditzen zait ezen oraino bizi zarela,
begien aitzinean zaitudala...*

Irailaren 26an, Georgiatik itzuli berritan, Imanolen heriotzarena izan zen Bilbora heltzean eman zidaten lehenbiziko berria. Ez zen makala izan jaso nuen kolpea. Izan ere, urte askotako adiskide ona eta lagun zintzoa joana zitzaidan.

Nik neuk Imanol Bilbon ezagutu nuen 1967. urte inguruan, *Anaitasuna* aldizkarira artikuluska bat eramatera joan nintzen batetan. Orduan euskara gutxi nekien oraindik baina gogoan dut Imanoli, bera nor zen jakin gabe, euskarari buruzko neure eritziak —oso badaezpadakoak, segur aski— azaldu nizkiola eta berak, barre egin beharrean, arretaz entzun ninduela, aurrera segitzeko adorezko hitzak esanez. Aitortu beharra dut gizon horrek biziki lagundu ninduela neure euskal bidean.

Imanolen biografiaz zerbait

Berari entzuna diodanez, Imanol Berriatua Ibieta Elantxobeko itsas herrian jaio zen 1914.ean, baina laster, etxekoekin, Gernikara pasatu zen bizitzera, bertan bere umezaroa emanez. Txikitari oso bihurria omen zen eta era guztietako gaiztakeriatxoak egitea gustatzen zitzaion orduan. Hala ere, eta ezagutzen zuten guztien harridurarako, 10 urterekin bestelako bidea hartu

eta Frantziskotarren Foruko komentura sartu zen, fraide izateko asmoz. Hortik Arantzazu eta Kantabriako probintziako beste ikastetxeetara joan zen, erlijio-ikasketak egin arte.

Espainiako 1936.eko gerra zela eta, Kubara joan eta bertan, La Habanan, bi urte geroago, apez egin zen. Amerikan hamahiru urte eman omen zituen, azkenean handik Euskal Herrira itzultzeko. Hemen, Foru eta Bermeoko komentuetan bizi izan ondoren, Bilbora etorri zen, Iralabarrira, eta hor bizi izan zaigu hil arte.

Bilbon Imanol F. Krutwigen lagun handia egin zen eta adiskidetasun hori gero ere beti aitortu eta gordeko zuen. Krutwig-andik, funtsean, lau gauza ikasi zuen Imanolek: idazle klasikoaren garrantzia, euskararen batasun premia, garbizalekeriaren bidea antzua zela eta euskara baserri girotik zientzi arlora ekartzeko beharrezana. Federikoren inguruan, sasoi hartan, Erkiaga, Gorostiaga, Akesolo, Otxolua, Villasante eta beste euskaltzale batzuek biltzen ziren, euskarari bidea nola zabaldu asmatu nahirik.

1953. urtean *Anaitasuna* aldizkaria sortu zuen, hasieran orri-txo xumea besterik ez zena, bizkaieraz idatzia, baina pixkanaka bai orrialdez eta bai mamiz gehituz joango zen. Aldizkari horren inguruan emango zituen Berriatuak bere emaitzarik ederrenak.

Imanol Anaitasunan

1969. urtean *Anaitasuna*, zenbait urteren ixilaldiaren ondoan, berriz ere birpiztu eta Anjel Zelaieta eta Imanolen gidaritzapean batasunaren bidean abiatu zen, aldizkariaren inguruan jende asko bilduz: G. Aresti, J. M. Makua, S. Brouard, A. Ortiz de Pinedo, Josu Torre, X. Gereño, J. Zearreta, J. L. Goikoetxea, X. Mendiguren, J. M. Torrealdai, J. Intxausti, A. Eguzkitza, A. Inurritegi, J. R. Etxebarria eta beste anitz lagun.

Euskaltzaindiak, Arantzazuko 1968.eko erabakiak gora behe-ra, ez zuen orduan batasunaren arazoa bere gain behar bezala bultzatzen eta idazleok Txillardegirekin —orduan ihes egina zegoena— maiz Xarritonen etxean biltzen ginen, euskal gramatikaren eta aditzaren puntuak ukitzeko. Patxi Altuna, Saizarbitoria, I. Sarasola, A. Urretabizkaia, Amaia Lasa, JAKIN taldea eta R. Kanblong orduko adiskideak gara. Eta han Imanol ere bazen.

Donostiako *Zeruko Argia*, hasieran behintzat, batasuna onesteko zabar xamarra zelako, Bilboko *Anaitasuna*, nolabait, euskara batuaren aitzindari bilakatu zen. Imanolek garai hartan al-

dizkarian lan izugarria egiten zuen. Heltzen zitzaizkion artikulua guztiak goitik behera irakurri, azertu, zuzendu eta berriz ere makinaratzen zituen, hitz arraro, gutxi erabili edo asmatu berriak izartxo hornituz. Hitz guztiokin zenbaki bakoitzean, irakurlearen argitasunerako, halako lexikotxo bana moldatzen zuen, hiztegi gile askori ikaragarriko mesede eta laguntasuna eskaini digutenak.

Idazle gazteek, artikulua ekartzean, maiz galderak egiten zizkieten eta lmanolek beti ere era guztietako azalpenak eskaintzen zizkien gramatikazko arazo ezberdinez.

Horrez gainera, Berriatuak bizkaieratik euskara baturako bide mailakatu bat asmatu eta proposatu zuen, joera hiperbizkaitarrak (dauz, gintzazan...) baztertuaz, oraintsu, dirudienez, zenbait bizkaitarrik, Mediterraneo berri gisa, aurkitu uste duena.

Imanol ez zen garbizale amorratua baina hizkuntzaren zentzu eta oñorea gordetzen saiatzen zen beti. Bere etsaiek baino askoz ere hobeki zekizkien euskara eta beronen dialektoak eta erdal jatorrizko hitz zaharrak (liburu, meza, prest, berba...) inolako kezkarik gabe onartzen zituen arren, amorru bizia ematen zioten idazle hasi berriek eta idazleska zabarrek lexiko eta sintaxian premia gabe egiten zituzten erdarakada mordoiloek.

Esan beharra dago Berriatuak, euskaraz eta gaztelaniaz gainera, guk dakigula behintzat, frantsesa, ingelesa, alemana, hebraiera, arabiera, latina eta grekoa zekizkiela eta hortik zetorkion, zalantzarik gabe, hitz berriak asmatzeko edo eta zaharrak egokitzeko trebetasun eta perspektiba zabala. Imanolek hainbeste hitz sortu zituen, ezagunena, segurki, *Euskaltegia* izanik, hebraierazko *Ulpan* adierazteko pentsatua.

Euskaltzaindiak batasunari heldu zionean, aditz batzordean geundenok badakigu nolako lankide zintzoa izan genuen aita Imanolengan eta zer nolako ohar baliotsuak egiten zituen.

Imanol eta Israel

Aspaldidanik agertu zidan Imanolek Israel ezagutzeko zeukan gogoia. Berak hebraiera aski ongi zekien, Testamentu Zaharrazko ikerketak eginak baitzituen. Herrialde Sainduetan bizi diren frantziskotar euskaldunei esker, beren asaben hizkuntza zaharra berreskuratzeko, juduek nolako ahaleginak egiten zituzten on-

gisko zekien eta arazoa hurbilagotik aztertu nahia zerabilen Imanolek.

Horrela, 1976.eko udazkenean, Imanolek eta biok Israelera joateko aukera izan genuen. Urte hartan bertan, udaren hasieran, Lankide Aurrezkiak Donostian antolatu zituen elebitasun-hitzaldi batzutarako etorrita, Arie Shoval jauna ezagutzeko zoria gertatu zitzaigun, Israeleko Hezkuntz ministrariaren idazkaria. Eta laster adiskide handia izango genuen gizon atsegín honek harako bidaia egitera bultzatu gintuen. Beraren laguntasun estimagaitzari esker, Imanol eta biok hilabetean egon ginen Israelen, Jerusalem inguruan batez ere. Han Ulpanak (nagusiei hebraiera irakasteko eskolak), irrati-telebistak, aldizkariak, kibbutzak eta hizkuntzarekin zer ikusia zuen guztia bisitatu eta ezagutu genituen. Ni neu handik bakarrik itzuli nintzen baina Imanolek bi hilabete gehiago eman zuen han, Israeleko gobernuak hebraiera ikasteko beka bat denbora horretarako eman zion eta. Ikasketa eta esperientzia horietatik sortu zitzaion Imanoli oinarrizko euskara erraza (*ivrit kalá* edo hebraiera errazaren kidea zena) moldatu eta bultzatzeko gogoia.

Israelek zoratu egin zuen gure frantziskotarra. Han berarekin emandako egun argitsu haietan ongi ezagutu nuen haren giza eta izpirituzko balioa. Gizon leiala zen Imanol, hori bai, nerbio hutsa, inoiz erabaki arinegiak hartzen zituena, baina gaizki zebilkeela ikusi bezain agudo, bere okerra xaloki aitortu eta aldatzeko prest beti. Bihotz haundi eta eskuzabalekoa, besteri laguntzeko gertua, baina opari eta mesedeak nekez onartzen zituena. Israelera zenbait aldiz itzuli zen harez gero, frantziskotarrek antolaturiko erromesaldietan.

Heriotzeak —berak inoiz han hiltzeko gogoia leukakeela esan zidan— bere sinestearen Herrian egin zion bisita, Josafateko zelaiaren ondoan, espero zuen bizitza berrirako, agian, arinago heltzeko.

Imanol Berriatuaren lanak

Aita Luis Villasantek *Euskera* aldizkarian (XXVI, 2. aldia, 1.019-1.022 or.) Imanoli eskaini dion memoria ederrean —eta hortik jaso ditut honako datu batzu— Imanolek idatzitako lanen zerrenda dakar, *Anaitasuna* garaia baino lehenagokoak bereziki. Haiek kopiatu eta Israeli buruzkoak gehitu besterik ez dut hemen egingo.

Kubatik etorri berritan, zenbait obra erlijioso idatzi zituen, itzulpen edo egokipenak gehienak: *Kristiñau Katezismoa*, *Sta. Maria Goretti* eta *Teresalina Zubiriren bizitzak* etab.

Anaitasuna-ren lehen aldian, Bermeoko arrantzaleekin Afrikara egin zituen ibilaldiez hainbat artikulu idatzi zituen, oraintsu *Itsasoa eta ni* izenaz liburu gisa argitara emanak.

Euskera aldizkarian *Bermeoko arrantzaleen leksikua* (1963), *Herri mailako hizkuntza (Israelgo esperientzia)* (1977), *Oinarrizko euskara: Hitz egin metodoa* (1978), eta *Oinarrizko euskerarako batzordearen azalpena* (1981) idatziak ditu.

Israelez artikulu hauek eman zituen argitara *Anaitasuna*-n: *Israeleko miraria* (332. zenb.), *Israeleko judu berriak* (333. zenb.), *Herri mailako hizkuntza* (334. zenb.), *Israeleko Akiva Ulpana* (335. zenb.), *Israelen nola irakasten den hebraiera* (336. zenb.), *Irakaslegoaren garrantzia* (342. zenb.), *Oinarrizko euskara* (345. zenb.).

Azken urteotan Imanolek, oinarrizko euskararen bidetik *Hitz egin* metodoa ingelesezko Alexander-enari jarraikiz, euskararako egokitu zuen, bai eta horren osagarri gisa, irakurgai erraz asko moldatu ere. Hainbeste gaueskola eta euskaltegitan irakasle aritu zen, Iberdueroko langileekin bereziki.

Ondo ezagutu genuen guztiok bihotzez maite genuen eta horrelakoak asko gara. Ez zen kasualitatea, ene ustez, igaz, euskararen aldeko *Korrika*-aldian, Bilboko Santutxu auzategian euskal sinboloaren eramaletzat Imanol hautatua izatea.

Eta zoriak halako gizon aparta kendu digu. Hark ereindako euskaltzaletasun-hazia (J. Intxausti, J. Azurmendi, F. Mendizabal, Zurutuza, J. R. Etxebarria, A. Eguzkitza...), ordea, ernea eta ugaltzen hasia da jadanik eta maisuak gure hizkuntzarentzat amesten zuen etorkizun ederra, Israel berria, laster lortuko zaigu. Zalantzarik gabe.

Bai, Imanol, bai. Hatza lasai, egunero berriak jaiotzen baitira.

X. K.

Elebitasuna eta irakurtzen eta idazten ikasteko heldutasuna

Josu Sierra

1979. urtean, Salamanca-ko «Universidad Pontificia»n geundela, gai honi buruz kezkaturik genbiltzan euskaldun batzuk, doakizuen lana pres-tatu genuen, Psikologiako Fakultatean lizentziaturako «tesina» bezala aurkezteko.

Gaur egun, nirekin batera tesina honen egile izan zirenak, adiskide minak ditut eta, zalantzarik gabe, psikologo bikainak: Inma Albisua, Patxi Bustintza, Marisol Garin eta Mertxe Zamakola, Aipatu beharra dago, baita ere, Sabin Aiestaran irakaslearen laguntza.

I. — LANAREN ZENTZUA

Euskal Herriak arlo honetan bizi duen egoera latza nonbaitetik kolpatu nahirik, bide honetatik abiatzea pentsatu genuen. Zeuden oztopoak kontutan harturik, bidea zabaltzea izan zen gure asmoa.

Etorriko dira atzetik, eta badatoz, honetaz serioagoki eta hobeki ari-tuko direnak. Horrek poztu egiten gaitu, gure pausoa zerbaitetako balio-tua izan bada behintzat.

Aurretik esan dezagun, badituela lan honek mila akats, zulo eta hutsu-ne; zuek konturatuko zarete eta geu ere konturatzen gara. Horra hor, ba, azter eta kritika dezazuen, orijinalaren nolabaiteko sintesi bat.

Bazegoen, ustez, egon ere, halako lan baten premiarik, irakurketa eta idazketaren ikaskuntza egungo gako bilakatu bait da, elebitasunaz aritzen garenontzat bederen. Haur elebidunek, zein hizkuntzatan ikasi behar dute? Nola? Noiz? Irakurtzen eta idazten ikasteko ezinbestekoa da heldutasun maila bat.

Guk, zenbait arrazoiengatik, Filho-ren ABC Testak¹ aukeratu genituen, heldutasun maila eta kontzeptu hori «neurtzeko» asmoz. Alde batetik, nahikoa test erraza iruditu zitzaigun, ez zuen denbora gehiegirik exijitzen (hala uste genuen behintzat) eta momentu hartan hoberik ez genuen ikusi.

Lanari ekiterakoan, zenbait problema sortu zen; hortik, agian, ikerketaren akats batzu. Zenbait variable edo aldagai ez daude kontrolaturik: subjektuen sozioekonomi maila, aztertzaile bakoitzaren eragina, testak giro eta leku ezegokitan aplikatzea (batzutan), sexua, euskalkien arazoa, testak zuzentzeko kriterioak, ikastoletako metodo pedagogiko eta plangintza ezberdinak.

Hortik aparte, gure urritasun ekonomikoa ere oztupo bat izan zen eta, nola ez, Salamanca-tik Euskal Herrira dauden kilometroak.

Hala ere, azpimarra dezagun, egin duguna ikastolei zor diegu, eta haien aldetik izan genituen erraztasunak eskertzekoak dira.

II. — DISEINU EXPERIMENTALA

1. Laburpena

5 urteko 503 haurreko erakuskari bat hartu ondoren, 3 elebitasun motatan banatu zen erakuskari hau, familian erabiltzen zuten hizkuntza kriteriotzat harturik. Erakuskari honi, ABC testak (euskartuak) aplikatu zitzaizkion.

Multzo hau, Gipuzkoa eta Bizkaiko 9 ikastolatatik atera genuen. Erresultatuak azterturik eta balorazioa egin ondoren, hauxe ikusten dugu:

— VI. subtestean, *Euskara* eta *Erdara* taldeen batezbestekoen arteko diferentzia significantiboa gertatzen da.

— V. subtestean, *Euskara* eta *Nabastuta* taldeen batezbestekoek gauza bera adierazten dute.

2. Hipotesia

Hipotesi hau egin genuen: elebidunak famili giroan erabiltzen duen hizkuntzak eragina du ABC testek neurtzen dituzten arloetan.

Elebidunaz ari garenean, egoera ezberdinetan (etxean, ikastolan, kalean, etab.) bi hizkuntzaz baliatzeko gai den subjektuaz ari gara, kasu honetan espainieraz eta euskaraz baliatzeko gai denaz.

ABC testek, honako arlo hauek neurtzen dituzte: ikuste-mugitzeko koordinazioa, irudien alderanzketarako jarkikortasuna edo erresistentzia, ikusmenezko oroimena, entzute-mugitzeko koordinazioa, ahoskatzeko gaitasuna, ekolaliarako jarkikortasuna, entzumenezko oroimena, nekearen indizea, aditasun gidatuaren indizea, eta hitzaltzorra (bokabularioa) eta ulermen orokorra. Kontzeptu hauek, irakurtzen eta idazten ikasteko beharrezkoa den heldutasunaren kontzeptu orokorrean sarturik daude.

Testak egiteko, euskara normalki ulertzea exijitzen zitzairen haurrei.

3. Erakuskaria

5 urteko 503 subjektu aukeratu ziren ausaz (azarean) Gipuzkoa eta Bizkaiko 9 ikastolatan:

GIPUZKOAN		BIZKAIAN	
Urretxuko Ikastola ...	102 haur	Galdakaoko Ikastola ...	24 haur
Andoingo Ikastola ...	86 »	Igorreko Ikastola ...	24 »
Eibarko Ikastola ...	101 »	Ondarroako Ikastola ...	27 »
Orioko Ikastola ...	23 »	Arizko Ikastola (Basauri)	8 »
Sto. Tomas Lizeoa ...	108 »		

Neskak: 236 *Mutilak:* 267

Erakuskari hau hiru taldetan banatu zen, haur bakoitzaren familian erabiltzen den hizkuntzaren arauera:

- Euskara:* etxean, normalki, euskaraz egiten dutenak.
- Erdara:* etxean, normalki, erdaraz egiten dutenak.
- Nahastuta:* etxean, bi hizkuntzak berdín xamar erabiltzen dituztenak.

	Euskara	Erdara	Nahastuta
Mutilak	139	41	87
Neskak	138	27	71
Guztira	227	68	158

4. Prozedura

Testen aplikazioa indibidualki egin zen.

Ikerketa honetan, 5 aztertzailek parte hartu zuten, hiru emakumek eta bi gizonek. Haur bakoitzarekin egindako aplikazio-denbora, 20 minutukoa izan zen, gutxi gora behera. Aurretik haurrekin kontaktatu egin zen haien eskolako giro normalean, aztertzaileak geletara joanda, beharrezkoa den harremana sortzeko eta aztertzaileen presentzia ohizkoa egiteko.

Testen balorazioa indibidualki egin zen. Gero, taldean, berrikusketa bat eginaz, kriterioak batzeko asmoz bildu ginen, sub-test batzuren zuzenketa-arauak oso subjektiboak bait ziren. Geroztik, datuak estatistikoki tratatuz interpretatu egin ziren.

III. — EMAITZEN AURKEZPENA

1. Orokorrak

503 subjektuko erakuskari honetan, 9'653ko batezbestekoa lortu genuen 0-tik 24erako eskala batetan, desbiderapen standarda 2'843koa zelaririk. Datu hauek, ABC testetan lortutako puntuazio orokorreari dagozkie.

1) *Puntuazio orokorrek subtesten arabera.*

	I	II	III	IV	V	VI	VII	VIII
\bar{x}	1'3386	1'5597	0'5844	1'3320	0'976	1'5566	1'3439	1'0258
σ	1'1417	0'5569	0'6212	0'6040	0'940	1'1948	0'9326	0'5545

2) *Emaitza orokorren analisia.*

Lan honetan, ez da testa barematzen; beraz, irakurtzen eta idazten ikasteko heldutasun-mailarik ezin dugu, zehaztasunez, ezarri. Emaitza hauek, uste dugu, ez dira Argentinakoekin edo Brasilgoekin konparagarriak. Horretarako, beharrezkoa dugu Euskal Herriko baremazio bat.

Subtestetako batezbestekoen taulan eta ikastola guztietan, beharakada handi bat ikus daiteke III. subtestean (0'58). Proba honek, mugimendu batzu motorikoki eta grafikoki errepikatzea eskatzen du. Ikuste-mugitzezko koordinazioa eta irudien alderanzketarako erresistentzia neurtzen du.

Seguru aski, ariketa honek zailtasun handia du 5 urteko haurrentzat. Horrela frogatu zuen gure esperientziak behintzat. Berdin esan genezake V. subtestarentzat (ipuin ttiki bat errepikatzea; hitzaltxorra eta ulerpen orokorra). Puntuaziorik altuenak, VI. eta II. subtestei dagozkie. Batak, entzute-mugitzezko koordinazioa eta ekolaliarako erresistentzia neurtzen ditu; besteak, ikusmenezko oroimena.

2. *Emaitzak taldeen arabera*

Subtestei dagozkien puntuazioak ez ditugu emango, irakurketa gehiegi ez konplikatzeko.

Euskara taldea. Haur-kopurua: 277.

Puntuazio orokorren batezbestekoa: 9'9566.

Desbiderapen standarda: 2'7960.

Erdara taldea. Haur-kopurua: 68

Puntuazio orokorren batezbestekoa: 8'8823.

Desbiderapen standarda: 2'5525.

Nabastuta taldea. Haur-kopurua: 158.

Puntuazio orokorren batezbestekoa: 9'4050.

Desbiderapen standarda: 2'8105.

Hiru taldeen puntuazio orokorren batezbestekoak, signifikatiboki ezberdintzen diren ala ez jakin nahian, batezbestekoen arteko diferentzia ateratzen dugu.

Euskara eta *Erdara* taldeak, % 5eko konfidantza-mailan, signifikatiboki ezberdintzen dira; hau ez da horrela gertatzen *Erdara* eta *Nabastuta* taldeekin.

Baina, konkretuki, ezberdintasun hau non dagoen jakiteko, azter ditzagun subtestetan lortutako batezbestekoak. Batezbestekoen arteko diferentziaren formula aplikatuz, hauxe jasotzen dugu:

— V. subtesteko batezbestekoak, *Euskara* eta *Nabastuta* taldeetan, signifikatiboki ezberdintzen dira, % 5eko konfidantza-mailan.

— VI. subtesteko batezbestekoak, *Euskara* eta *Erdara* taldeetan, signifikatiboki ezberdintzen dira, % 1eko konfidantza-mailan.

3. Taldeen arabeko emaitzen analisia

Hemen sartzen dugu gure ikerlanean famili hizkuntzaren aldagaia. Honek zera esan nahi du: kontutan hartzen dugula, haurraren ama-hizkuntza euskara ala erdara den; famili giro horretan, hizkuntza bat edo bestea erabiltzen den edo biak nahasten diren. Azken kasu honetan, gurasoren bat erdalduna izan daitekeelako, edo, nahiz eta euskalduna izan, erdaraz barra-barra egiten duelako. Egia esanez, erdararen eragina itzala da familia guztietan telebista, irrati eta egunkarien bidez. Euskararen egoera latza denok ezagutzen eta sufritzen dugu.

Talde bakoitzaren batezbestekoak ikusiz, eta erreferentziatzat erakuskeri osoaren batezbestekoa (9'65) harturik, *Erdara* taldearen puntuazioaren beherapena nabaria da (8'88).

Euskara taldearen puntuazioa, batezbesteko orokorra baino altuagoa da (9'95). *Nabastuta* taldearen puntuazioa, aldiz, batezbesteko orokorra baino pixka bat tikiagoa da (9'40). Hitz gutxitan esateko:

— Etxean euskaraz egiten duten haurren taldeak, hizkuntza biak nahasten dituztenenak baino puntuazio altuagoa du eta giro erdalduna dituenenarekiko, areago oraindik.

— Benetan ikus dezakegu: ezberdintasunak signifikatiboak dira eta ordena bera mantentzen dute.

Euskara eta *Nabastuta* taldeen batezbestekoak signifikatiboki ezberdintzen dira % 5eko konfidantza-mailan ($1'97 > 1'96$) eta *Euskara* eta *Erdara* taldeenak % 1eko konfidantza-mailan ($3'065 > 2'58$). *Nabastuta* eta *Erdara* taldeen arteko ezberdintasuna ez da signifikatiboa ($1'37 > 1'96$).

Euskara taldea, beraz, besteak baino gorago dago (neurtzen diren arloei dagokienez); urruntasuna, tikiagoa da *Nabastuta* taldearekin, *Erdara* taldearekin baino. Zehatzago:

— *Euskara-Erdara*: VI. subtestean eta % 1eko konfidantza-mailan, ezberdintasun signifikatiboak aurkitzen ditugu. Subtest honek, ahoskatzeko gaitasuna, ekolaliarako erresistentzia eta entzute-mugitzezko koordinazioa neurtzen ditu. *Erdara* taldeak, subtest honetan, 0'93ko batezbestekoa ematen du *Euskara* taldearena 1'95 izanik eta 1'55 orokorrean.

Beharpen honen arazoi bat, euskal fonetikako soinuk ahoskatzeko zailtasuna izan liteke, etxean erdarazko fonetika askoz ere landuagoa bait dute *Erdara* taldekoek. Arazo honek badu garrantzirik irakurketa ikasteko orduan.

Hau ikusirik, familian erabilitako hizkuntzak, irakurketa eta idazketa ikasteko heldutasunean ondorioak dituela esan genezake, ahoskuntzaren alorrean hain zuzen.

— *Euskara-Nabastuta*: Batezbestekoen ezberdintasuna signifikatiboa da % 5eko konfidantza-mailan, V. subtestean konkretuki, ($2'10 > 1'96$).

Gure ustez, hau guztiz lojikoa litzateke; euskal girokoak nahastuta-koak baino hobekak izatea ulerpen orokorrean eta hitzaltxorrean, baina hau frogatu beharra zegoen.

Oso garrantzitsua deritzogu, ezberdintasun signifikatibo hauek subtest horietan emateari, hizkuntza arloko item-ak bait dira. Beste arlo batzutan ez da gauza bera gertatzen (ikusmena, mugimena,...).

IV. — ONDORIOAK

Aurkeztutako datuak ikusiz eta lanaren akats eta mugak kontutan harturik, hona hemen gure eritzia: irakurketa eta idazketa ikasteko heldutasun handiagoa legoke, etxean eta ikastolan hizkuntza bera erabiltzen duten haurrengan. Beraz, predikzio mailan, irakurketaren ikasketa errazagoa izango litzateke haur hauentzat.

Ikastolan eta etxean, hizkuntza ezberdina erabiltzen dutenentzat, zailagoa edo problematikagoa izango litzateke ikasketa hau. Honek zer pentsaturik eman behar digu:

a) 5 urtekin, haur guztiek ez badute «euskaldunen» maila lortzen, irakurketa beraren aurrean, ez dituzte posibilitate berak. Zer puntutarraino izan da egokia gure euskalduntze plangintza? Metodoak? Denbora?...

b) Irakurketak denentzat euskaraz izan behar du? Euskaraz ikasteko helduta daudenentzat hala izango da, noski. Eta besteak? Arazo honek teoria bat gogoratzen digu: «Irakurketa, ama-hizkuntzan (hau da gehien menperatzen den hizkuntzan) egin behar da. Lehenengo mailetako irakaskuntza ama-hizkuntzan egiten da gehien batetan eta, apurka-apurka, bigarren hizkuntza sistematikoki sartzen da»².

c) Haur euskaldunek, erdara erraz ikasiko dute, giroaren eraginak horren alde lan egiten du eta. Erdaldun batek, aldiz, nekezago ikasiko du gaur egun euskara, telebista, irratia, etab., zeharo erdaldunak bait dira.

d) *Nabastuta* taldearen emaitzak ikusiz, komenigarria dirudi, hizkuntza bakoitza zein tokitan eta zein egoeratan erabiltzen den ondo finkatzeak.

e) Garrantzi handikoa da oso, metodo pedagogikoak aukeratzea eta plangintzak ondo estrukturaturik edukitzea kasu bakoitzean.

V. — ERITZI OSAGARRIAK

Momentu hartan atera genituen konklusioak, beraz, hor daude. Baina denbora ez da alferrik pasatzen eta, nik neuk behintzat, gaur egun, ez dut eritzi bera mantentzen. Jarraitu izan dut, nere aldetik, gai honetan

sakontzen, ikasten, kritikatzeko; eta elebitasuna, euskararen ikaskuntza, zehatzago euskalduntzea, biziki kezkatzen nauten problemak dira.

Sartu da, zorionez, haize berria gure eskola eta ikastoletara. Askotan, birplanteatu egin da euskalduntze-prozesua, orain askoz ere razionalagoa eta intentsiboagoa izanik. Garrantzi handia ematen zaio, ordua da, eskolaurrean bigarren hizkuntza bat ikasteari, baina horra hor arazoa: Eta Eskolaurrea bukatzerakoan zer? Hiru urtetan zehar haurrak euskalduntzen saiatu gara, atseginez, intentsiboki... Zer egin gero irakurketa eta idazketarekin?

Nik hemen, jarrera edo eritzi bi gaitzesten ditut, biak, azken batetan, antzerakoak.

Lehen jarrera: «Ama-hizkuntza oinarria da; bigarren hizkuntza lehenengoari erantzen zaion zerbaite da; beraz, irakurketa eta idazketa ikasterakoan (berdin da 3 urtez euskalduntzen ibiltzea, alferrik da, esango nuke), ama-hizkuntzan egin behar da». Puntu eta «akabo». Hau da lehen «dekretua».

Niretzat, teoria honek, gauza bat du txarra: hiperjeneralizazioa. Edo beste alde batetik, haurren errealitatea ahaztea. Ez du kasu hau edo bestea bereizten, ez, ez du euskalduntasun-mailarik aipatzen; nolabait determinista da: erdara=irakurketa erdaraz, ez dago bitartekorik.

Ez du esaten, zein puntutaraino haur bat jabetu den bigarren hizkuntzaz; «hau» eta kito.

Bigarren jarrera: Beste jarrera bat, «Euskara hilzorian dago, kalean entzun ere ez da egiten, baina guk (abertzaleok) aldatu egin behar dugu egoera hori, oraintxe. Gainera ikastolak horretarako daude. Bakarrik falta zen ikastoletan erdara entzutea (entzungo ez balitz bezala). Beraz hauxe «dekretatzeko» dugu: Haur guztiei euskaraz egingo zaie beti..., irakurketa denentzat euskaraz izango da, etab.». Puntu.

Gero, haurrek ez dute euskara, irakaskuntza jarraitzeko adina ulertzen. Haur asko, «adaptatzen» ez direnak, edo kalera doaz edo «problematiko» bihurtzen dira. Jolasaldietan, irakaslerik ez badago, erdarari jo eta ke...

Behar bada, hori leku gutxitan gertatzen da gaur egun, ikastolak gauza batez ohartu bait dira: Ikastola ez da nahikoa, haur bat euskalduntzeko; kalea era beharrezkoa dugu, eta gaur, tamalez, kalea ez da gurea.

Lehenengo «dekretuak» «sine die» atzeratzen du «integrazioa», euskalduntzea; motibatuta eta prestatuta dauden haurrentzat frustrantea da zeharo eta, sozialki, egoera diglosikoaren sostengu bortitza bihurtzen da.

Bigarrena, euskalduntze afektibo baten arerioa da eta haur problematikoen «fabrika» emankorra, euskararekiko ukoaren eta etsipenaren sorzailea.

Euskalduntzen ari garela inoiz ahantzi gabe, flexibilitatearen irtenbidea proposatu nahi nuke:

Euskara sistematikoki, atseginez, ttikitandik landu. Lehenengotan, erdarak badu bere tokia, ezinbestekoa bait da haurrekin harremanetan has-teko, baina euskara gero eta gehiago sartuz, etengabe.

Lehen kurtsoaren 2. edo 3. hiruhilabeterako, euskara eta euskaraz irakas dezakegu, euskara hutsez agian. Honek ez du erdara debekatzen; erdaraz egiten badute, egin dezatela, baina irakasleak euskaraz egiten die eta ulertarazten da. Erdaraz egiteagatik zigortu gabe, euskara indartu. Erdararen lekua, nire ustez, aseguratutik dago gaur egun. Kuantitatiboki, denbora bikoitza dute ikastolatik at erdara lantzeko; kualitatiboki, zer esanik ez.

Hasiera Ziklora sartzerakoan, haurren euskara-maila aztertu behar dugu eta, noski, ea, irakurtzen eta idazten ikasteko beharrezkoa den heldutasunik dagoen ala ez. Baina heldutasuna hizkuntza bati dagokio. Aztertu ondoren, bada erabakitzeko garaia. Interesatu guztien eritziak jasoz, euskaraz ikasteko prest daudenak, euskaraz ikas dezatela.

Hau izugarritzko bultzada izango da, dudarik ez, haien euskalduntze-prozesuan eta, behar bada, euskaldunekin batera joango dira Hasiera Zikloa bukatzerakoan.

Besteekin zer? Hitz gutxitan esateko, euskara ahaztu gabe, erdaraz ikas dezakete Hasiera Zikloan zehar. Beraien integrazioa, jakina, atzeratu egin beharko da, 6. mailara arte agian.

Hau nahikoa erraza dela badirudi ere, mila problema daude praktikan.

Zer egin, «erdaldunak» gutxiegi baldin badira? Eta euskaldunak badira minoria?

Hor, gure eskolen estruktura aldagaitza zalantzan jartzen da; hor gure urritasun ekonomikoak, gure kontzientziarik eza, gure haur kopuruak... nahasi egiten dira.

Ez da erraza izango, ez da gaur bertan eta leku guztietan posiblea, baina ahalegintxo bat merezi duela uste dut.

J. S.

¹ Filho, L.: *Tests ABC*, Ed. Kapelusz, 1960, Buenos Aires.

² Joan Mestres: «Problemas psicopedagógicos del bilingüismo» ICE. Univ. de Barcelona. Documento A-21.

Zenbait gogoeta kezagarri

1981eko euskal liburugintza

Joan Mari Torrealdai

Aintzinsolasa

Urteroko ohiturari jarraituz, aurtengo lehen zenbakian ere iazko liburu-produkzioaren azalpentxo bat egin nahi nuke. Bada jadanik seigarren urtea azterketa hau sistematikoki eta JAKINen orrialdeetan egin ohi dudana. Azterlan honetan hasi, nere *Euskal Idazleak*, *Gaur* liburuan hasi nintzen: 1960-1975 urtealdiko produkzioa ikertu nuen han, hemen baino sakonago eta luzeago, noski.

Zein da aztermodu honen alkantzua?

Has nadin esanez azterlan honek anitz helburu eta eginkizun dituela (edo izan ditzakeela). Hiru azpimarratuko nituzke nik: informazioa jasotzea bilatzen dut lehenik, horretarako liburu-zuzen liburu datuak bilduz; liburuaren gaiak multzokatuz, sailkatuz, urteko produkzio editorialaren irudia edo argazkia eman nahi izaten dut gero; eta, hirugarrenik, hasierako komentario hauen bidez liburugintza hori pixka bat argitu, eta, gutxienez, deskribatu gura nuke.

Egin ohi ditudanez gain, beste ikerketarik ere egin nezake, agian. Informazioaz jabetzea ez da erraza, ordea. Daturik gabe zer egin? Zailtasun hau eta beste zenbait eragozpen tarteko, liburu-produkzioaren azalpena mugatzen naiz espreski, gehiagotara jo gabe. Dagoen honetan ere argitasun frango aurki deza-

ke hemen irakurleak; lanaren goibeheak arretaz aztertuz behintzat. Horregatik xehetasunez emango dut bai prestaeraren eta bai metodologiaren azalpena:

1) Lehen lana, eta neketsuena, liburu-bilketa eta husketa da. Lanak ditu lehen ekinaldi honek: liburuak inguratu, liburuaz liburu datuak kontrolatu. Eta liburuok banan bana hustu, alegia, titulua, egilea, itzultzailea, argitaldaria, herria, urtea, orrialdeak, edizioa, neurriak luze-zabalean, bilduma, ISBN, gaisaila, jaso. Lan aspergarria, luzea (ia 100 ordu aurten ere)...

Merezi al du lan eskerga honek?

Badakit ongi JAKIN ez dela zerrenda hauen leku «naturala» (nolabait esatearren). Baina komentziturik nago datu-bilketa honekin (ez bait da zerrenda hutsa, kasu!), gure aldizkariak zerbitzu on bat egiten diola euskal kulturari, datu-falta hain larrian dagoen kulturari, informaziorako zein programaziorako. Ongi dakit, baita, ez naizela ni neu horretarako gizonik proposena, ez eta deitua ere. Langintza hau Kultura Sailari dagokio, ez neri. Eutsiko diot, halere, egun hoberik agertzen ez deino.

2) Titulu guztiak fitxatu ondoren, gaiz gai sailkatu ohi ditut liburuak oro, banan banan aztertuz. Gaien araberrako klasifikapen hau «Liburuaren gai-sailkapena» deitu taulan ematen dut.

Taula honen abantailetan ez naiz luzatuko hemen. Aipa dezadan guretzako duen gorena: honi esker, orrialde batetan urte osoko liburuetakoko gaien erretratu bat bezala dugu. Beste inon baino argiago, mila hitzetan baino esanguratsuago, hortxe agertzen bait da gure produkzioaren egitura intelektuala.

Taula hori moldatzean *Unesco*-k bere XIII. Konferentzia Orokorrean gomendaturiko sailkapen sistemaz baliatzen naiz. 23 sail nagusi horiek bere horretan errespetatzen ditut; azpisailei dagokien ez dut berdin jokatzan, gure egoerari egokitu nahian, gure errealtatea leialago ispiatzearren, han eta hemen (11. eta 21. sailetan bereziki) moldatu egin bait ditut. Taula hau, egia esan, eskema hutsa da, inolaz ere ez kultur eredu bat. Edozein herritako eta herri guztietako liburugintza sartzen ahal da taula horretan. Herri batetik bestera, sistema kultural batetik bestera aldatzen dena hain zuzen sailen arteko barne-oreka da.

3) Eta azken momentuan, datu-bilketa eta gai-klasifikapena egin ondoren, berauetan oin harturik hain zuzen, zenbait komentario egin ohi ditut. Lehen irakurketa edo hurbilketa bailiren ulertu behar dira lerro hauek, beste alkantzurik gabe. Ohar-

kizun batzu dira beste ezer baino gehiago, eta berauen xedea ez da sekula izan liburu-politikarik markatzea edo definitzea, urteko egoera deskribatzea baino.

Harago joan daitekeela? Bai, zergatik ez? Baina nik ez dut ur handitan sartu nahi, lehenengo, urtebeteko aldia aldi laburregia delako azpi-azpiko korronteei antzemateko; eta bigarren, liburu-politikatan aritzea ez delako nere lana, ez eta nere debozioa. Besterik da egiten dudana egitea, politika honen beharra seinalatzea, edota puntu bat edo beste egingarritzat edo egin-beharrezkotzat ematea.

Aztermoduaren prozedura eta zentzua argitu nahi izan dugu lerro hauekin. Sarrera ona, azterketa bera behar bezala uler eta baliozta dezagun. Ager dezagun orain 1981eko liburugintzaren nondik-norakoa.

200 liburu euskaraz

Iaztik hona jaitsi egin da euskarazko liburuen argitara-kopurua, hein txikian bada ere¹. Duela bi urte jo genuela gailurra ematen du. 1970etik 1979ra arte gora egin du euskal liburugintzak. Eta, orain, 1980an hasi dugu hamarrurtealdi honetan, badirudi gainbehera hasia dela. Egia esan: gainbehera ote? Atzeraka ote? Ez ote gaude gerakuntzan? Edozein modutan, gauza bat dago hemen argi: aurrera ez dugu egin.

Honi eta hari entzun eta, inpresio tristea ematen bide du euskal liburuak (bere osoan harturik), urtetik urtera tristeagoa. Liburuaren barne-kalitatearen auzia dagoke tartean. Baina ez hori bakarrik (eta esango nuke: ez batez ere hori), deslilurapena baizik: ingurunea «hobetu» omen zaigularik (aginte politikoa, kultur textuingurua), liburuak ez du hobekuntzarik izan.

Xifrak aparte, kalitatearen erizkera aparte, ingurunearen al-daira aparte, horiek denak bazter utzita ere, euskal liburuak atzera egin duela esan daitekeelakoan nago. Bi datu hauengatik: liburugintzak aurten apenas ireki duen bide berririk; altuenean ere, lehengoei eutsi eta hori ere ez zenbait kasutan. Oso sintomatikoa. Eta bigarren datua, hau da: argitara-kopuruaren erdia eta gehiago liburu berrargitaldua edota itzulia da, ez euskaraz sortuberria.

Puntuok dira, hain zuzen, orain banan banan aztertu nahi ditudanak.

Desoreka eta kontzentratzea

Aipatu berri duguna errepikatuz hasiko naiz: ohizko bi-deetatik ibili da euskal liburua 1981ean. Iaz bezala, bestalde. Kapitulu honetan, kopuruaren beherakadari berari baino ere garrantzi handiagoa emango nioke gai-sailen murrizteari. Murrizte honek joera aldaketa bat adierazten duelako, batipat. Nere uste-tan, ohartuki ala oharkabez, 1970 inguruan abiatutako liburugintzaren joerarik nabarmenenari uko egiten diogu azken urteotan. Xehetasun gehiagoz azaldurik, honela agertuko nuke esan nahi dudana: 1970 inguru horretan euskararen eta euskal liburuaren normalizazioa gai-eremuak gehitzetik eta ugaltzetik zetorkeela uste zen. Honela interpreta daitekeela uste dut JAKIN aldizkariak proposatzen duen liburu-programakuntza eta are garbiago R. Arregik muntatu nahi duen liburu-politika (gero *Lur* etxean hezurmamituko dena). Hona bi testigutzok, aski direlakoan. Liburugintza berri beharrezkoaz ari zela, JAKINeko editorialeak honela zioen 1969an:

«Euskeraz behar ditugu liburuak. Azken urteotan, euskeraz egiten dan lanik nagusia —ta gehiena— aldizkarien bidez egin da. Baina aldizkariak, betiere, zatika egin behar dute, ez sistema eta *planifikazio oso baten barruan*. Hoiien lana bai, baina gehiago egin behar da. *Kulturazko gai guztiak, sakonki, euskeraz ematen hasteko ordua da*. Ortografiaren eta terminologiaren batasun batekin. Baina nola? *Liburuak probokatuz, egitarau baten barruan noski*, eta ez berekasa sor ditezten zai egonaz. Liburuak probokatu, ikastolari, alfabetatzeari eta euskal unibertsitarioei begiratzuz. Eta hau, euskeratzuz eta sortuz, bietara». (Nik asp.).

Urte berean, uztailan, Rikardo Arregik proposatu zuen liburu-programakuntzaren funtsa haren hitz hauetan laburbil genezake:

«Zientziaren eta kulturaren gai guztiei buruzko liburu-sorta *informe-ekarle bat behar litzake*. Euskarazko kulturaren egoera kontuan hartuta, kulturazko gai gehienetan gabezia izugarria bait dago, *premi-premiazoak dira liburuok*» (Nik asp.).

Urte haietako joera «expansionistari» oraingo joera selektiboagoak, espezialduagoak hartu dio txanda. Azken urteotan —eta 1981ean bereziki— argi ikusten da gai-sail batzu indartuz doazela, eta beste batzu ahulduz edota hutsera etorri direla. Are gehiago: berrikitan oraindik produkzioak bi polo bezala izan baditu (irakaskuntza-literatura) gaur egun bipolaraketa hori arriskutan daket, literatura bera ere apalduz bait doa irakaskuntzaren ingu-

ruko liburuaren ondoan. Liburu mota hau, ez ahantz, 1980ko argitara-kopuruaren % 56 zen (ikaragarri, noski), eta (kasu!) 1981ekoaren % 65 da, bederatzi puntu gehiago. Esan bezala, sail horretan sartzen ditugu, haurren eta gazteen literatura, irakaskuntzako materiala, eta euskaraz ikasteko hiztegi, metodo eta beste.

Hona 5 gai-sail erabilien erreferentzia zehatza:

Ordena	Saila	Gaia	Zenb. abs.	%
1)	01	Orotarik	51	25,5
2)	11	Euskara	42	21
3)	21	Literatura	40	20
4)	08	Irakaskuntza	37	18,5
5)	03	Erlijioa	11	5,5
			181	90,5

Aipatu bost sail horietan sartzen dira ia-ia urteko liburuak oro: %90,5. Datuak berez mintzo dira. Sail bakar batzutan biltze hau, espezialtzea, kontzentratzea, nabarmenagoa da urtetik urtera. Hona azken urteotako bost sailen kopuruak, globalki: %82 (1979), %86 (1980) eta %90,5 (1981). Liburu-mota batzuetan zentratzearen atzekaldea badakigu zein den: murrizkeria. Honetaz jabetzeko aski dugu gai-klasifikapenaren taulari gainbegiratu arin bat ematea. Sailen arteko desoreka, gaitza da. Egia esan, jakin ez dakit nik zein den gure kondizioetan orekarik idealena, baina onargaitza iruditzen zait gaurkoa egokiena bezala. Bestalde, gaurko egoeraren ahalbideak eta baldintzak ezagunak zaizkigu. Zenbait argitaletxeren ahaleginen eta ezinen —eta lorpenen— berri ere badugu. Merituak meritu eta ezinak ezin, ez daukaguna programazio orokor bat da, liburu-politika bat. Horixe da nere kezka burua, eta ez, azken batez, 1970eko joera expansionistari oraingoa nagusitu zaiola, eta bietako zeinek duen arrazoi. Dena den, eta besteak beste, gai-sailkapenaren taula horrek, neretzako, aukera batzuk ispilatzen ditu, bai, baina askoz nabarmenago agertarazten du gure ezintasuna, gure normalizaziorik eza, gure kultur desoreka, hitz batetan, gure egoera diglosikoa.

Liburuaren penak eta nekeak

Euskal liburuaz ari garenean, honen penak eta mixeriak kon-

tatu ohi ditugu gehienetan. Krisian dagoela esan ohi da. Zer-gatik ez esan ahuleziak jota dagoela, ia agonian? Benetan makala da, 1981eko euskal liburugintzaren irudia. Kreatzio lanaren aldetik epaitzen badugu, zer esanik ez. Ez dira ehunera iristen euskal idazleek beren baitarik sortu dituzten liburuak. %48,5 bakarrik da euskarazko kreatzio berria. Gainerako dena itzulpen edo berredizio da.

Produkzio-modu bakoitza hurbilagotik ikus dezagun orain:

a) *Sorketa-lana*

Azpirarra dezagun berriro kreatzio-lana aurten ez dela liburugintzaren erdira ere iristen. Beste ezerk baino bortizkiago salatzen du datu soil horrek gure ahulezia.

Kreatzio hori batez ere literaturaren sailean hezurmamitu da, bidezko denez. Literatur lanaren %65 euskaraz idatzi da jatorriz, xifra absolututan ikaragarri ez bada ere. Irakaskuntzaren alorrean sorketa-lana %44 inguruan dabil. Are beherago dago haurren eta gazteen literatur liburutuan. Haur eta gazte literatura hau, egiaz, itzulpenetik bizi da neurri handiegi batetan (%59), irakaskuntza berrargitalpenetik bizi den neurrian baino ere gehiago (%48,5).

b) *Itzulpena*

Iaztik hona zazpi puntuz jaitsi da itzulpena (iaz %30 eta aurten %23). Eta, iaz bezala, haur eta gazte literaturan bildua aurkitzen dugu aurten ere. Sail honetantxe sartzen ditugu, noski, *Hordago*-ren Tximista saileko itzulpenak eta *Elkar*-en Itzul saila osoki, beste batzuekin batean. Gazte eta haur literatura hori itzultitako liburuak elikatzen du, eta, kontrara, ia batere ez literaturaren sail arrunta.

c) *Berrargitalpena*

Berredizioa, iazkoaren aldean hazi egin da: %16 iaz eta aurten %26. Gehiegi.

Bi sailetan nagusitzen da liburu berrargitaldua. Lehen saila ikastolako irakaskuntz liburuak da: sail honen produkzioaren ia erdia (%48,5) berrargitaldua da. Liburu-mota hau, ikusten denez, urtero urtero argitara ematen da. Bigarren saileko liburuak (hiztegiak, metodoak, gramatika) ez da, noski, urteroko erritmo azkarrean errepikatzen. Pisu gutxiago du, bestalde, liburu honen: %36.

Ez da hor agortzen berrargitalpenaren indarra. Literaturan bertan ere pisu handia du, %30eraino iristen bait da. X. Gereñoren zenbaiti eta hainbat klasikori (*Abarrak, Peru Abarka, Garoa, Kresala*) zor diegu kopuru hau.

d) *Elebiko liburua*

Aurtengo produkzioaren %11,5 da elebiko liburuaren partea. Iazkoa (%4,7) ikusita, zer esan? Formula hau biziberritu egin ote zaigu? Ez dago horrelakorik. Portzentaia hori esplikatzeko aski da kontuan edukitzea horrela klasifikatu ditudala hiztegiak (bi sarbidekoak bederen), eta hauek, beraiek bakarrik, liburu elebidunaren %40 osatzen dutela.

Iazkoan gaude: liburu elebidunak ez garrantzirik ez arrakas-tarik du gurean. Eta are gutxiago literatur sailean, nahiz eta Luis Haranburu Altunak horrelako pare bat liburu argitara eman 1981ean.

Literaturaren saila

Literatur eremuko liburuen berri ematen du sail honek, behin eta berriz aipatu dugun salbuespenarekin: haur eta gazte literatura 21.ean barik 01 sailean sartu ohi da.

(Ez da beti erraza sailen banaketa hau, zer den literatura eta zer gazte literatura erabakitzea. Idazlearen asmoari jaramon egitea ez bide da aski. Liburuaren beraren tradizioak, irakurlearen harrerak eta argitaldarearen erabakiak, besteak beste, badute zer esanik hor. Erizpide horietaz baliatuz, lehen sailean klasifikatu ditugu, kasu honetan, Tximista saileko liburuak eta berdin Itzul eta Sor sailekoak).

Zertan da literatura aurten?

«Xifra absolututan zein portzentaian behera egin du literatura liburuak» idazten genuen iaz. Iaz baino ere gutxiago agertu da aurten: %20 bakarrik, eta horietako ia hirutik bat berrargitaldua. Sail honetan, hortaz, gutxi argitaratu da, eta gutxiago sortu. Zergatik hori, ordea? Kreatzen ez delako? Publikatzen ez delako? Non dago gakoa: krazio-faltan ala ez argitaratzean, idazlearengan ala argitaldarengan? Iazkoaz ez dut nik, hautabehar-kizun horretan, datu erabakiorrik. Jarrera eta eritzi desberdinak egon daitezke (eta daude) eta egon izan dira. Duela zenbait urte (1978) I. Sarasolak idazlearengan ikusten zuen auzia, eta J. Azurmendik argitaldarengan.

Honela zioen I. Sarasolak:

«Izan ere, badirudi, argitaragai baino argitaratzaile gehiago dugun garai bitxi hauetan, literatoren batek kalitate gutxienezkoa duen zerbait egiten duenean bere atzetik dituela euskal editore guztiak, ea nor bereganatuko duen pieza arraro hori. *Gehiago argitaratzen ez bada, beraz, gehiago egiten ez delako da...* (Egin, 321, 1978). (Nik azp.).»

Alderantziz, erabat alderantziz, uste du Joxe Azurmendik:

«Momentu honetantxe, nik neuk dauzkat, nire gelan, bost orijinal, Autore berrienak bostak, hiru nobelazko eta poesiazko bi, beren egileek, ni batere bila ibili gabe, eritzi eske omen, baina batez ere argitaratzeko laguntza eske, nik uste, ekarri dizkidatenak (...) Beraz, nik, nire esperientzia laburretik, ezin baitets nezake Sarasolaren inpresioa. Nire inpresioa zuzen-zuzen alderantzizkoa bait da: Autoreak, gazteak batez ere, ezer argitaratzeko, problema haundiekin dabiltzala oraindik eta, problema haundiekin, kreaizozkoak omen diren obra horietzek publikatzeko batez ere. (...) Kreaizoa gehiago destakutzen ez bada, nire inpresioa ez da, gogoa eta kapazitatea falta direnik, beste dena falta dela baino, kreaizotik publikaziora iristeko...» («Euskal literaturaren orainaz eta geroaz» in: *Euskal linguistika eta literatura: Bide berriak*. 439 or., 1981).

Literatur produkzioaren kopurua era honetara banatzen da barne-sailetan:

Ordena	Azpisaila	Azpigaina	%
1)	214	Elaberria	32,5
2)	217	Ipuinak	20
3)	216	Olerkiak	17,5
4)	212	Bertsoak	12,5
5)	211	Historia, kritika	10
6)	213	Antzerkia	7,5

Taula honek ez du iruzkinik behar. Ohartxo bat egin gura dut, halere; bat bakarrik. Inork bestelakorik sinestarazi nahi badigu ere, 1981ean ere ez da ageri olerkiaren nagusitasun famatu hori, %17,5 bait da olerkia, eta %52,5 narrazioa.

Gogoeta pare bat, azkenik

Azalpen hau burutzean, eta 1981eko liburugintzaren egoeran

bertan oin harturik, liburu-politikaren urgentziaren urgentzia azpimarratu nahi dut, ondoko bi kezka hauetan.

Biharko irakurlearentzat ere idatzi behar dugu. Orga idien aurretik jartzea ote?

Gaurko irakurlea zein den badakigu. Gaurko merkatua non dagoen jakiteko aski duzu zer publikatzen den aztertzea. Merkatuaren koordinatuetan bizi den argitaletxeak saltzen dena aterako du. Fantasia gutxi hortik gora. Zergatik ez da publikatzen saiakerarik, kultur libururik? Saltzen ez delako noski, liburu horren irakurleria urriegia delako eta ez delako gauza produktu horri errentagarritasunik emateko.

Hitz gutxitan esanda: dirurik uzten ez duen (edota hobe: dirugalera dakarren) libururik ez da publikatzen. Merkatu problema. Merkatuaren biktima dira gaur egun kultur liburua, saiakera, tesi-liburua. Baño ere ez da ikusten, muestrarako ere ez ia.

Liburu-mota honen garrantzia eta funtzioa errebindikatzan dut. Liburu-klase hau behar beharrezkoa dugu. Saiakera, kultur liburu hori eskatzen du euskararen normalizazioak eta desarroi-loak. Kulturaren barruti guztietan, etnologian, gizarte-zientzietan, filosofian euskara murgiltzea nahitaezkoa dugu. Eta ez hiztegiekin bakarrik: saioak eta dibulgazio lanak behar ditugu. Ez dutela egun aski irakurlegorik? Bihar-etzi segur baietz. Prebisorik ezaren erruz liburu-klase hori lantzen ez badugu orain, bihar-etzi berriz ere presaka ibili beharko dugu, edota itzulpenetara joko dugu, edo okerrago litzatekeena, erdarara joko dugu.

Bai prebisio hori eta bai euskararen normalizazio-beharraren kontzientzia hori orain baino lehen ere sentitu izan du euskal kultur gizonak. Gerraosteko belaunaldiaren karakteristiketako bat horixe dela esango nuke. Gerraostean, «biharko irakurleari begira» idaztea eta «euskara trebatu» nahia elkarrekin joan dira maiz. Ez euskara ez irakurlegoa zeuden prestaturik hainbat gai euskaraz agertzeko. Nahikoa berandu arte, euskara motaren aukera alternatiba gisa presentatu izan zaio idazleari: irakurleari begiratzen dion euskara batetik, eta bestetik hizkuntzari berari begiratzen diona, nolabait esateko. Lehena, bai hizkuntza eta bai gaietan, erraza zen, herriarentzat ulertteraza, gehiengoarentzat egina. Bigarrena, aldiz, zaila, elkorra, gutxiengo intelektual batentzat egina.

Alternatiba gisako aukera horretan bigarren joerari heldu dio kultur gizonak. Eta irabazi. Kultur planteamendu bat, ez merkatu planteamendu bat. Orduan eta gaur auzi beraren au-

rean gaude: garaikidearentzat, herriarentzat, gehiengoarentzat, erosiko eta irakurriko duenarentzat idazten ez bada, zeinentzat, hortaz? Biharkoarentzat, etorkizunerako: hona duela 25 urte zenbait euskaltzalek galdera horri eman zion erantzuna. Eta nere ustetan, aurreikuspen horrek, erizkera horrek «normaldue» du euskara, hein handi batetan. Lan-mota honen efektu biderkatzaileraren kontzientzia agertzen duten bi pasarte emango ditut hemen, Jokin Zaitegirena bata (1956koa), eta JAKINena berarena bestea (1958koa); gure aldizkarian agertuak biak.

«Erriak ulertu ezin dezaken euskera zertarako lantzen ari gera?

— *Etokizunerako lantzen ari gerala derizkiot. Euskalerria burutik sendatu bearrean gaude, ez oñetatik. Yakin-gizon, lege-gizon eta aundikiak onda digute euskera. Aundiki ta gizon-ikasi asko dituzketzu egun euskera ikasi irrikaz..., Lege-gizonei, gizon-ikasiei, aundikiei, lan-sail guzietariko teknikoei euskera mamitua eman bear diegu, gero bakoitzak bere sailean landu dezan ta zernaitarako gai egin» (JAKIN, 1, 1956) (Nik asp.).*

Euskararen aukera, gaien aukera eta aukera hauen etorkizun-zentzua eta kultur eginkizuna garbi asko agertzen dira JAKINek 1958an egindako biltzarraren kronikan:

«...Yakin'en jomuga ez da irakurlearentzat izatea bakarrik; euskera jakintzarako bideak irekitzea ere Yakin'en asmo nagusienetan jarri bear da. Egia da, irakurleen bearra dauka euskerak, eta irakurleak ugaritzeko biderik egokiena gai ariñak idaztea da. Baiña ez da ori guztia. Euskera ez dago jakintza-gaiak erabiltzeko landua, eta tajutu egin bear du orretarako. Arazo au, berriz, Yakin'en muin-muiñekoa da. Ala jende xarentzat bakarrik nai dugu euskera? Jakintzan barrena sartu nai badugu, jakintza-lanen bearra dago naitaez; baita lan oiek elkor xamarrak izango badira ere, eta irakurle batzuen atsegiñetatik kanpora egonda ere. Egiteko aundia dute taju ontako lanak Yakin'en, eta ez dago ondo zokoratzea (...).

Beti saiatu bear da gauzak jakingarri egiten, eta geiago auetan; baiña naiz elkortxoak izan, ba-dute beren egitekoa euskera-kontutan jakintza-lan oiek. Bear bada, ez dute fruturik emango bertan bera; oien tankerako lanak egin nai ditzagunean, ordea, laguntza ederra egin dezaigukete. Gerorako, berriz, balio aundia izan oi dute, askotan, lan mamitsu elkor xamar oiek, beste arin atsegiñsuek baiño. (JAKIN, 7, 1958) (Nik asp.).

Erabakiak behar ditu euskal liburuak eta ez adabakiak.

Liburuaren politika gauza serioegia da merkatuaren dinami-

ka soilaren pentzutara uzteko. Euskal liburuahulegia da bere kasa bizi ahal izateko. Argitaletxeen lana, gaurko kondizioetan, ez da —ezin daiteke izan— soluzio, ezta hurrik eman ere.

Erabakiak, ez adabakiak. Lerro hauek idazten ari naizen momentu berean irakurtzen dut 12 milioi jaso dutela Gobernu-rik euskal argitaletxe eta aldizkariak. 12 milioi. Deus gutxi soluziona lezake 12 milioiak: nik baino hobeto daki hori Administrazioak berak. Euskal liburuak ez du dirurik. Eta okerrago dena: ez du programarik. Harrizteraino pasibo, urruti, hotz, nagí, geldí bide dago Eusko Gobernua. Zeren zain?

O H A R R A

¹ Liburuen bilketa eta azterketa egitean erabili ohi dudana zenbait erizpideren berri eman nahi dut ohar hauen bidez.

a) Zerrendan edo titulu-erlazioan ikus daitekeenez, 200 liburu eta liburuskatik gora dago, publikatzen den gutzia jasotzen bait dut hor. Baina, gero, liburugintzaren irudi benetakoago bat lortu nahian, zenbait ukitu eta zuzenketa egin ohi dut. Eta horixe da gai-sailkapenerako eta analisirako baliatzen dudana. Zenbait liburuska, izan ere, ez dut banan banan kontabilizatzen: orrialde edo hizki gutxi dutenean bat bailiren kontabilizatzen ditut, bildumaren izenaren pean. Horrela, adibidez, *Lilurazko zoota* (Hontza, Elefantea, Gorila, Kanguroa): 96 or.; eta hau bezala beste asko. Casals argitaletxearen hiru *Puff* liburuak ez ditut zenbatu ere egin, ia hizkirik gabekoak eta irudi hutsekoak bait dira.

b) Liburuaren urtea erabakitzeko, lege-gordailuaz gidatzen naiz. Honek markatzen duen urtea da, neretzat, besterik gabe, liburuaren argitarazio-urtea. Horregatik, nahiz eta 1981ean argia ikusi liburu batek, 1980ko lege-gordailuaz badator, 1980kotzat eman ohi dut.

c) Aurreko puntuan aipatu ditudan arrazoiengatik edota inguratu-ezínagatik, iazko zerrendan jaso gabe utzi nituen 10 liburu hauek 1980koak dira:

Abarrak (b). Kirikiño (Bustintza'tar Ebaista). GEU. Bilbo. 20,5 x 14,5. 204 or. **Bidez. Gure Herriko Gauzak/Cosas de nuestro País** (e). San Martín, Juan. C.A.P. Donostia. 20 x 14. 484 or.

Etienne Salaberry Euskalzaleari Heleten 1979-ko urriaren 16-ean Eskualzaleen Biltzarrek eskaini Omenaldia. Askoren artean. Eskualzaleen Biltzarra. Baiona. 24 x 17. 102 or.

Euskal Herriko Geografia. 2. Giza Geografia. O.H.O.-2.º Etoparako Langaikak. Askoren artean. Egile Editore. 31 x 21. 78 or.

Gure hegaztiak/Nuestras aves (e/i). Askoren artean. UZEI. Petronor. Bilbo. 31 x 24,5. 134 or.

Matematika 5. Lehenengo erdia. Matematika Elhuyar Taldea. Gipuzkoako Ikastolen Elkarte Batza. Donostia. 28 x 20,5. 153 or.

Matematika 5. Bigarren erdia. Matematika Elhuyar Taldea. Gipuzkoako Ikastolen Elkarte Batza. Donostia. 28 x 21,5. 205 or.

Txalo pin txalo. 2. Askoren artean. Erein. Donostia. 27 x 19,5. 75 or.

Txalo pin txalo. 2. (Irakaslearen liburuak). Askoren artean. Donostia. 21 x 15. 141 or.

Zimarroia. Cort, Jose Luis. Ediciones Vascas. Donostia. 30,5 x 23. 67 or.

1981eko liburuak

Liburuaren gai-sailkapena	Zenb. abs.	%
01. — Orotarik. Bibliografia. Haur eta gazte literatura. Tebeo, komiki eta hixtorioak. Saiakera eta artikulak gai desberdinetaz. Omenaldiak	51	25,5
02. — Filosofia	—	—
03. — Erljioa. Teologia. Teologia morala eta praktikoa. Asketika eta Mistika. Eskritura Saindua. Eliza kristaua jeneralean. Liturgia	11	5,5
04. — Soziologia. Estatistika	—	—
05. — Zientzia politikoak. Ekonomia politikoa eta soziala. Ekonomia industriala	2	1
06. — Zuzena. Administralgo publikoa. Laguntza soziala. Zuzen publikoa, konstituzionala. Politikoak. Administrazioa	1	0,5
07. — Arte eta zientzia militarrik	—	—
08. — Irakaskuntza. Hezkuntza. Irakaskuntza eskolaurrekoa eta oinarrikoa. Oinarrizko Heziketa Orokorra. Batxileratoaren eta COUren Irakaskuntza	37	18,5
09. — Merkatalgoa. Komunikabideak. Garraioak	—	—
10. — Etnologia. Bizitza pribatu eta publikoetako ohitura eta usuarioak	3	1,5
11. — Hizkuntzalaritza. Filologia. Euskara. Hiztegiak. Metodoak. Gramatikak	42	21
12. — Matematikak. Matematikaren filosofia. Matematika jeneralean	1	0,5
13. — Natur Zientziak. Fisika. Kimika	4	2
14. — Medikuntz zientziak. Higiene publikoa. Anatomia	1	0,5
15. — Inginaritza. Teknologia. Industriak. Lanbide eta eskulanak	—	—
16. — Nekazaritza. Basalanketa. Abeltzaingoa. Ehizaritza eta Arrantza	—	—
17. — Etxe ekonomia	—	—
18. — Antolakuntza	—	—
19. — Arte ederrak. Artesautza. Zeramika, tapizeria, haltzariak, bordatuak	1	0,5
20. — Jostaldiak. Denborapasak, Jokuak. Kirolak	—	—
21. — Literatura. Literatur kritika. Literaturaren historia. Bertsoak. Antzerkia. Elaberria. Olerkiak. Ipuinak	40	20
22. — Geografia. Bidaia. Geografia nazionala. Eskualde geografia. Bidaia eta turistaren gidaliburuak	3	1,5
23. — Historia. Biografia. Zibilizazioaren eta kulturaren historia. Biografia. Oroitzapenak	3	1,5
Guztira	200	100

- Abarrak** (Euskara batuan) (b). Kirikiño. Ugarteburu, A. (egokitzaile). Elkar. Donostia. 19 x 13. 146 or.
- Abendu eta Eguberri-aldiak** (Liturgi eta Pastoral Lagungarriak). Elizbarrutieta-ko Liturgi Idazkaritzak. Idatz. Donostia. 21 x 15. 102 or.
- Abereeneko iraultza** (i). Orwell, George/Unzurrunzaga, I. Hordago. Donostia. 16,5 x 10,5. 158 or.
- Aditz I-II-III. Ariketak** (b). Askoren artean. Labayru Ikastegia. Bilbo. 20,5 x 14. 112 or.
- Afrika, Asia eta Ozeania** (i). Askoren artean. Txertoa. Donostia. 32,5 x 24. 66 or.
- Ahatearen familia** (i). Delmais, Anne Marie. X. X. x. x. 20 x 20. 24 or.
- Aise 2. Ikaslearen liburua**. Aise Taldea. Elkar. Donostia. 24 x 17. 154 or.
- Aise 2. Irakaslearen gida liburua**. Aise Taldea. Elkar. Donostia. 24 x 17. 188 or.
- Amaia. Euskaldunak VIII'gn. mendean** (i). Navarro Villoslada, F./Zabaleta, Patxi. Iruñeko Aurrezki Kutxa Mun. Iruñea. 30,5 x 22,5. 60 or.
- Ametz uhinak**. Landa, Mariasun. Elkar. Donostia. 19 x 13. 148 or.
- Aste Santua eta Pazko-aldia**. (Liturgi eta Pastoral Lagungarriak). Elizbarrutietako Liturgi Idazkaritzak. Idatz. Donostia. 21 x 15. 174 or.
- Atzizkibidea. Ariketak** (b). Askoren artean. Labayru Ikastegia. Bilbo. 20 x 12,5. 48 or.
- Ave Sombra/Itzal Hegazti** (e/i). Aramburucópulos, Don Fernando/Landa, Josu. Haranburu Editor, S.A. Donostia. 20,5 x 13,5. 120 or.
- Azeri axiantea** (i). X. X./Arzallus, Juan M. Hordago. Donostia. 16,5 x 10,5. 238 or.
- Az-ko magoa** (i). Baum, L. Frank/Arzallus, J. M. Hordago. Donostia. 16,5 x 10,5. 206 or.
- Barbantxo**. Yarnoz, Sagrario. Elkar. Donostia. 22 x 23. 36 or.
- Bertsolariya** (b). Makazaga Mendiburu, Juan Jose (moldatzaile). Sendoa. Donostia. 30 x 32. 332 or.
- Bertsotan. 1789-1936**. Dorronsoro, Joenito. Gipuzkoako Ikastolen Elkarte. Donostia. 28 x 20,5. 366 or.
- Behartsuek Elizari Deadar**. Euskal Herriko Gotzaiak. Idatz. Donostia. 29 x 20. 28 or.
- Bigantxaren ordaina**. Yarnoz, Sagrario. Elkar. Donostia. 22 x 23. 36 or.
- Bilbo irribarrez** (b). Zarate, Mikel. Bizkargi. Bilbo. 21,5 x 15,5. 86 or.
- Bizi nahi** (i). London, Jack/Etxeberria, Gillermo. Hordago. Donostia. 16,5 x 10,5. 158 or.
- Bizitzako urratsak**. Zubikarai, Augustin. GEU. Bilbo. 21 x 15. 180 or.
- Bostak berriro kirrin uhartean** (i). Blyton, Enid/Azkune, Lazaro. Elkar. Donostia. 19 x 13. 226 or.
- Bostak ihesi** (i). Blyton, Enid/Uranga, Alberto. Elkar. Donostia. 19 x 13. 190 or.
- Buru ilhun lurruntsua. Euskaldunak Everest Mendian** (i). Uriarte, Felipe/Askoren artean. Elkar. Donostia. 26,5 x 19. 320 or.
- «**Buruketak**» (2. maila) (b). Karmelo Etxegarai Ikastola. Egile Editore. Loiola. 29,5 x 20,5. 116 or.
- «**Buruketak**» (3. maila) (b). Karmelo Etxegarai Ikastola. Egile Editore. Loiola. 29,5 x 20,5. 52 or.

- «Buruketak» (4. maila) (b). Karmelo Etxegarai Ikastola. Egile Editore. Loiola. 29,5 x 20,5. 46 or.
- «Buruketak» (5. maila) (b). Karmelo Etxegarai Ikastola. Egile Editore. Loiola. 29,5 x 20,5. 70 or.
- Diccionario Gral. y Técnico. 1. Castellano-Euskara** (b/e). Mugika, L. M. Ed. Vascas. Donostia. 24 x 17. 602 or.
- Diccionario Vasco-Castellano. I.** (e). Mugica Berrondo, Placido. Mensajero. Bilbo. 25 x 15,5. 1.094 or.
- Diccionario Vasco-Castellano. II.** (e). Mugica Berrondo, Placido. Mensajero. Bilbo. 25 x 15,5. 1.006 or.
- Diccionario Vasco-Español-Francés. Bi tomo** (b). Azkue, R. M. La Gran Enciclopedia Vasca. Bilbo. 23 x 16. 1.228 or.
- Egoitzak edo Barne-Gaztelua** (i). Jesus'en Teresa Deuna/Aita Onaindia. Aita Karmeldarrak. Larrea. 18 x 11,5. 240 or.
- Egunekoa.** Kirikiño. Labayru Ikastegia. Bilbo. 21 x 14,5. 229 or.
- Eguneroko gauzak. I.** (b/i). Armangué, R./Askoren artean. La Galera. Bilbo. 21 x 18. 100 or.
- Ekonomia. Hiztegia.** UZEL. Elkar, S.A. Donostia. 24 x 17. 750 or.
- Ekonomia-Itunea/El Concierto Económico** (e). Eusko Jaurlaritz, Gobierno Vasco. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen-Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 16,5 x 11,5. 146 or.
- Elefantea** (i). Askoren artean/Fernandez, Mikel. Ediciones vascas. Donostia. 22,5 x 18. 24 or.
- Eneko agerroa.** Etxaide-Itharte, J. Hordago. Donostia. 16,5 x 10,5. 206 or.
- Enpresa. Hiztegia.** UZEL. Elkar. Donostia. 24 x 17. 432 or.
- Entzun! 7-11 urte bitarteko haurrentzat Biblia** (i). McCallen, A. J./Goikoetxea Maiza, Jon. Mensajero. Bilbo. 23 x 16,5. 192 or.
- Erkizia eta Aozaraza: Bi martiri gipuzkoar.** Telletxea, J. I. Idatz. Donostia. 18 x 11. 207 or.
- Ernioko Ziripot.** Askoren artean. Erein. Donostia. 30,5 x 21,5. 26 or.
- Erranak erran...** Landart, Daniel. Elkar. Donostia. 21 x 13,5. 176 or.
- Eskola Hiztegia** (b/e). Gereño, Xabier. Egile Editore. Bilbo. 15,5 x 10,5.
- Eskolaurre euskararen programakuntza. B eta D ereduak.** Askoren artean. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen-Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 24 x 17. 350 or.
- Eskolaurreko orientabideak/Orientaciones de preescolar.** Hezkuntza Saila. Departamento de Educación. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen-Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 24 x 17,5. 428 or.
- Eskolaurreko lehen etapa. Bigarren hiruila. Negua. Gizonaren lana. Abereak. Ura** (i). Armangué, Rosa/Etxebarria, Mikel. Casals, S.A. Barcelona. 19 x 27. 144 or.
- Eskolaurreko lehen etapa. Hirugarren hiruila. Udaberria (abereak). Udaberria (loreak). Uda. Adiskidetasuna** (i). Armangué, Rosa/Etxebarria, Mikel. Casals, S.A. Barcelona. 19 x 27. 144 or.
- Eskolaurreko lehen etapa. Lehen hiruila. Eskola. Etxea eta sendia. Kalea. Udazkena. Gorputza. Gabonak** (i). Armangué, Rosa/Etxebarria, Mikel. Casals, S.A. Barcelona. 19 x 27. 176 or.
- Estepako semeak. I.** (i). Baumann, H./Zabaleta, J. M. Hordago. Donostia. 16,5 x 10,5. 160 or.

- Estepako semeak. II. (i).** Baumann, H./Zabaleta, J. M. Hordago. Donostia. 16,5 x 10,5. 246 or.
- Etxe xokotik kantari.** Treku, Mattin. Auspoa. Tolosa. 18 x 10,5. 142 or.
- Europa eta Amerika (i).** Askoren artean/Aldazabal, Jokin. Txertoa. Donostia. 32,5 x 24. 66 or.
- Euskal Batzar orokorra. Congreso Mundial Vasco. 25 Aniversario (e).** Askoren artean. Eusko Jauriaritzaren Argitalpen-Zerbitzuak. Gasteiz. 24 x 16,5. 480 or.
- Euskal deklinabidea. Ariketak (b).** Askoren artean. Labayru Ikastegia. Bilbo. 19,5 x 13. 96 or.
- Euskal gramatika (b).** Alvarez Enparantza, Jose Luis «Txillardegia». Ediciones Vascas. Donostia. 25 x 17,5. 454 or.
- Euskal Herriko Geografia/Geografía de Euskal Herria. Kartografia/Cartografía, (Ikasleentzako materiala/Material para el alumno. E.G.B. y B.U.P.).** Askoren artean. C.A.P. Donostia. 28,5 x 35. 50 or.
- Euskal Herriko Geografia/Geografía de Euskal Herria. Kartografia/Cartografía, (Irakasleentzako materiala/Material para el profesor. E.G.B. y C.O.U.J.).** Askoren artean. C.A.P. Donostia. 28,5 x 36. 50 + liburuxka.
- Euskal Historia zenbait apunte. Euskaltzaindiaren 'D' titulorako burutua.** Ariznabarreta, Abel. Elkar. Donostia. 29,5 x 21. 82 or.
- Euskal linguistika eta literatura: Bide berriak.** Askoren artean. Deustuko Unibertsitateko Argitazarioak. Bilbo. 22,5 x 15,5. 476 or.
- Euskal lokuzioak. Espainolezko eta frantsesezko gida-zerrendarekin.** Izaguirre, Koldo. Hordago. Donostia. 25 x 17,5. 718 or.
- Euskal Zeramikaren hastapenak. Arte aplikatuak/Iniciación a la Cerámica Vasca. Artes aplicadas. Deba 80 (b/e/i).** Askoren artean. Elkar. Donostia. 21 x 13,5. 268 or.
- Euskalarien nazioarteko jardunaldiak (e).** Euskaltzaindia. Euskaltzaindia. Bilbo. 23 x 16,5. 556 or.
- Euskalduntzen. I. (b).** Irakasle talde batek. Cinsa. Bilbo. 30 x 21. 86 or.
- Euskalduntzen. II. (b).** Irakasle talde batek. Cinsa. Bilbo. 30 x 21. 160 or.
- Euskara bizitik. 1-A. (Bizkaieraz) (b).** Askoren artean. Egile editore. 145 or.
- Euskara bizitik. 1-B. (Gipuzkeraz) (b).** Askoren artean. Egile editore. 145 or.
- Euskara ialgi adi plazara. 1. maila.** Izarraizpe Irakaskuntza Kooperatiba. Izarraizpe Irkaskuntza Kooperatiba. 29,5 x 21. 48 or.
- Euskara ialgi adi plazara. 2. maila.** Izarraizpe Irakaskuntza Kooperatiba. Izarraizpe Irakaskuntza Kooperatiba. 29,5 x 21. 132 or.
- Euskara ialgi adi plazara. 3. maila.** Izarraizpe Irakaskuntza Kooperatiba. Izarraizpe Irakaskuntza Kooperatiba. 29,5 x 21. 124 or.
- Euskara lantzen. 0.** Hegaz. Erein. Donostia. 24 x 17. 278 or.
- Euskara lantzen. 1. (b).** Hegaz. Erein. Donostia. 24 x 17. 214 or.
- Euskara lantzen. 2. (b).** Hegaz. Erein. Donostia. 24 x 17. 342 or.
- Euskara mailaka. 4. Metodologia (b).** SEIE. Gero-Mensajero. Bilbo. 24,5 x 15,5. 524 or.
- Faro Madarikatua.** Gereño, Xabier. Egile Editore. Bilbo. 16,5 x 11,5. 112 or.
- Fisika. BUP 2 (pro-manuscripto) (b).** Elhuyar Matematika-taldea. Eusko Ikaskuntza. Donostia. 30 x 21. 196 or.

- Fisika Orokorra. I. Problemak eta ariketak** (b). Askoren artean. U.E.U. Iruinea. 29,5 x 21. 150 or.
- Fisika Orokorra. II. Problemak eta ariketak**. Askoren artean. U.E.U. Iruinea. 21 x 14,5. 236 or.
- Garizuma 1981.** (Liturgi eta Pastoral Lagungarriak). Elizbarrutietako Idazkari-tzak. Idatz. Donostia. 21 x 15. 104 or.
- Garoa** (b). Agirre, Domingo. EFA. Arantzazu. 19,5 x 13. 310 or.
- Gartzelako atek. Kontakizun errazak (euskara mintza-praktika).** Lazkano, Maite. Elkar. Donostia. 16,5 x 11,5. 131 or.
- Gerrateko ibillerak. I.** Alkain, Iñaki. Auspoa. Tolosa. 18 x 10,5. 162 or.
- Gerrateko ibillerak. II.** Alkain, Iñaki. Auspoa. Tolosa. 18 x 10,5. 168 or.
- Gerrateko ibillerak. III.** Alkain, Iñaki. Auspoa. Tolosa. 18 x 10,5. 166 or.
- Gipuzkoako mito eta historioak. (Aurrentzako albuma)** (e). Elvira, Angel/Sainz, Inés. GAK. Donostia. 20 x 21. 30 or.
- Giza gorputza** (i). Ward, Brian/Aramendi, Mikel. Txertoa. Donostia. 32,5 x 24. 65 or.
- Gizona eta teknika** (i). Taylor, Ron/Askoren artean. Txertoa. Donostia. 32,5 x 24. 66 or.
- Gorila** (i). Askoren artean/Fernandez, Mikel. Ediciones Vascas. Donostia. 22,5 x 18. 24 or.
- Hamabost urteko kapitaina** (i). Verne, Jules/Amenabar, Joan. Elkar. Donostia. 19 x 13. 289 or.
- Hamabost urteko kapitaina** (i). Verne, Jules/E.G. Hordago. Donostia. 16,5 x 10,5. 302 or.
- Hartz zuria** (i). Le Gwen, M./X. X. X. X. X. X. 20 x 20. 24 or.
- Hasiera zikloko euskararen programakuntza. B eta D ereduak.** Askoren artean. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen-Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 24 x 17. 284 or.
- Hasiera zikloa orientabideak. 4/Orientaciones de ciclo inicial. 4** (e). Hezkuntza Saila. Departamento de Educación. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen-Zerbitzuak. Gasteiz. 24 x 17,5. 324 or.
- Hegaz 2. Irakaslearen liburua.** Askoren artean. 30 x 22. 134 or.
- Hegaz 2. Irakaslearen liburua.** Askoren artean. 30 x 22. 192 or.
- Helduen euskalduntzerako programazioa.** Habe-Kultur Saila. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen-Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 24 x 17. 364 or.
- Herria gogoan.** Xalbador. Auspoa. Tolosa. 18 x 10,5. 150 or.
- Hiawatha** (i). Longfellow, H. W./Hidalgo, Bittor. Hordago. Donostia. 16,5 x 10,5. 126 or.
- Hiru txerrikumeak** (i). Le Gwen, M./X.X. X.X. X.X. 20 x 20. 24 or.
- Hizkuntzen irakaskuntza. Topikoak eta metodologiak.** Xixa. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen-Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 25,5 x 19,5. 98 or.
- Hiztegi orokor-teknikoa. 2. Euskara-Gaztelera** (b/e). Mujika, L. M. Ed. Vascas. Donostia. 24 x 17. 618 or.
- Hiztegia. Diccionario. Castellano-Euskara. Euskara-Castellano** (e). Gereño, Xabier. Egile editore. Bilbo. 16,5 x 11,5. 467 or.
- Hitz Egin. Ariketa idatziak. 3 maila.** Euskaltzaindia. Euskaltzaindia. Bilbo. 29,5 x 21. 198 or.

- Homenaje a Odón de Apraiz. Odon Apraizi omenaldia** (e). Askoren artean. Diputación de Alava. Consejo de Cultura. Gasteiz. 24,5 x 17. 424 or.
- Hontza** (i). Askoren artean/Fernandez, Mikel. Ediciones Vascas. Donostia. 22,5 x 18. 24 or.
- Iban trapusaltzailea** (i). Vallverdu, J./Gartzia, Xabier. Elkar. Donostia. 19 x 13. 175 or.
- Idazkera. Ariketak**. Askoren artean. Labayru Ikastegia. Bilbo. 20 x 13. 126 or.
- Ikaslearen esku-gramatika**. Salaburu, Pello. Mensajero. Bilbo. 22 x 17. 272 or.
- Iker eta Ixone. Ortzadarreko belarra**. Muro, G. Erein. Donostia. 29,5 x 21. 24 or.
- Iokin Zaitegi**. Velez de Mendizabal, Josemari. Egile editore. Arrasate. 22,5 x 15,5. 226 or.
- Iparragirre**. Mendiguren, X. Elkar. Donostia. 19 x 13. 108 or.
- Iparragirre. 1820-1881**. Askoren artean. Erein. Donostia. 31 x 21. 64 or.
- Iparraldeko euskal idazleak. Antologia**. Etxenagusia, Karmelo. Labayru Ikastegia. Bilbo. 20,5 x 14,5. 238 or.
- Ipuin harrigarriak. 2**. Irakasleen Elkarte. Elkar. Donostia. 22 x 23. 76 or.
- Ipuinak** (b). Bitaña. Gero. 19,5 x 13,5. 80 or.
- Ipurbeltz bilduma. 6**. Askoren artean. Erein. Donostia. 30 x 21. 144 or.
- Ipurbeltz bilduma. 7**. Askoren artean. Erein. Donostia. 30 x 21. 144 or.
- Ipurbeltz bilduma. 8**. Askoren artean. Erein. Donostia. 30 x 21. 144 or.
- Ira Usaina**. Zubikarai, Agustin. Geu. Bilbo. 18,5 x 12. 74 or.
- Itsasoa eta ni**. Berriatua, Imanol. Euskaltzaindia. Bilbo. 20 x 13. 190 or.
- Itsu-mandoka. Kontu xume. Joko krudel**. Cazenave, Jon. Egile editore. Donostia. 19,5 x 11. 76 or.
- Izuen gordelekuetan barrena**. Sarrionaindia, Joseba. Bilbo Aurrezki Kutxa. Bilbo. 21 x 15. 149 or.
- Jalgi hadi. 2. Ikaslearen liburua**. Hondarraitz Taldea. Elkar. Donostia. 24 x 17. 254 or.
- Jalgi hadi. 2. Irakaslearen gida liburua**. Hondarraitz Taldea. Elkar. Donostia. 29,5 x 21.
- Jauriaritzaren Legea/Ley de Gobierno** (e). Eusko Jauriaritza. Gobierno Vasco. Eusko Jauriaritzaren Argitalpen-Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 16,5 x 11,5. 86 or.
- Jolas egiteko ipuinak** (i). Rodari, G./Ormazabal, Joxantonio. Elkar. Donostia. 19 x 13. 180 or.
- Jo-ta-ke. 1. (Euskara ariketak fitxa osagarriak)** (b). G. de Txabarri, Joxe Joan. Elkar. Donostia. 30 x 21. 248 or.
- Jo-ta-ke. 4. Euskara Mintza-praktika**. G. de Txabarri, Joxe Joan. Elkar. Donostia. 30 x 21. 350 or.
- Kenguroa** (i). Askoren artean/Fernandez, Mikel. Ediciones Vascas. Donostia. 22,5 x 18. 24 or.
- Kastoreen familia** (i). Delmais, Anne Marie/X.X. X.X. X.X. 20 x 20. 24 or.
- Katekesiko Haurraren Lagungarriak. 1. Katekesi Idazkaritza**. Idatz. Donostia. 29 x 22. 26 or.
- Kimika organikoko zenbait laborategi-praktika: Oinarrizko teknikak eta sintesi adierazgarri batzuek**. X.X. U.E.U. Iruñea. 29,5 x 21. 182 or.
- Kirikiño Jauna** (i). Delmais, Anne Marie/X.X. X.X. X.X. 20 x 20. 24 or.

- Kresala** (b). Agirre, Domingo. EFA. Arantzazu. 19 x 13. 240 or.
- Kuku, kangurutxo** (i). Delmais, Anne Marie/X.X. X.X. X.X. 20 x 20. 24 or.
- Lapur zuriak**. Satrustegi, Jose M. Gipuzkoako Ikastolen Elkarte. Donostia. 22 x 16. 184 or.
- Lehoia eta beronen familia** (i). Le Gwen, M./X.X. 20 x 20. 24 or.
- Lehoia eta kilkirra** (i). Boada, Francesc/Ormazabal, Joxeantonio. Elkar. Donostia. 22 x 18,5. 23 or.
- Lihoaren penak eta nekeak**. Alustiza, Julian. Jakin. Arantzazu-Oñati. 18 x 11. 225 or.
- Manual Devotioenezcoa**. (1. zatia) (Edizio kritikoa). Joannes Etxeberri Ziburukoa/Altuna, Patxik paratua. Mensajero. Bilbo. 22,5 x 15,5. 436 or.
- Mariaren bidez Jesusengana/Por María hacia Jesús** (e/i). Escrivá de Balaguer, Mons./Egia Rezola, Luis. Colegio Mayor Ayete. Donostia. 18 x 11. 47 or.
- Mariposas de Guipúzcoa/Gipuzkoako Tximeletak** (e/i). Gómez de Aizpurua, Carlos/Elhuyar. C.A.P. Donostia. 21,5 x 21,5. 53 or.
- Matematika (BUP 1)** (b). Elhuyar Matematika-taldea. Eusko Ikaskuntza. Donostia. 30,5 x 21. 436 or.
- Matematika (BUP 2)** (b). Elhuyar Matematika-taldea. Eusko Ikaskuntza. Donostia. 30,5 x 21. 304 or.
- Matematika (4) E.G.B.** (b/i). Askoren artean/G.I.E. Casals, S.A. Barcelona. 280 or.
- Matematika. 6. Lehen erdia**. Elhuyar Matematika-taldea. Gipuzkoako Ikastolen Elkarte. Donostia. 28 x 21. 214 or.
- Matematika. 6. Bigarren erdia**. Elhuyar Matematika-taldea. Gipuzkoako Ikastolen Elkarte. Donostia. 28 x 21. 180 or.
- Matematika. 7. Lehen erdia**. Elhuyar Matematika-taldea. Gipuzkoako Ikastolen Elkarte. Donostia. 28 x 21. 180 or.
- Matematika. 7. Bigarren erdia**. Elhuyar Matematika-taldea. Gipuzkoako Ikastolen Elkarte. Donostia. 28 x 21. 160 or.
- Matematika. 8. Lehen erdia**. Elhuyar Matematika-taldea. Gipuzkoako Ikastolen Elkarte. Donostia. 28 x 21. 138 or.
- Mendiak. Berezko eta giza-giroturiko eusko lurra. I.** (i). Askoren artean/Gaztañaga, Jesus. Etor. Donostia. 32,5 x 24. 319 or.
- Metodo espektroskopikoen aplikazioak kimikan**. Askoren artean. U.E.U. Iruñea. 21 x 14,5. 128 or.
- Mon-daka**. Zubikarai, Agustin. Geu. Bilbo. 18,5 x 12. 90 or.
- Mundua biotz-biotzez maite izatea/Amar al mundo apasionadamente** (e/i). Escrivá de Balaguer, Mons./Egia, Luis. Colegio Mayor Ayete. Donostia. 18 x 11. 43 or.
- Munduaren azken muturreko faroa** (i). Verne, Jules/Urbistondo, David. Elkar. Donostia. 19 x 13. 162 or.
- Nafarroako Ezkurran**. Garate, Gotzon. Gero-Mensajero. Bilbo. 19 x 13,5. 78 or.
- Natur Zientziak. Bibliografia**. UZEI. UZEI. Donostia. 29,5 x 20,5. 28 or.
- Nazaret-eko Gizasemearen Mintzoa**. Uranga, Juan Jose. C.A.P. Donostia. 21 x 13,5. 238 or.
- Neurria eta integrazioa**. Askoren artean. U.E.U. Iruñea. 21 x 14,5. 198 or.

- Non daude pandak?** (i). Delmais, Anne Marie/X.X. X.X. 20 x 20. 24 or.
- Norena da basoa?** (i). Canela, Merce/Ormazabal, Joxeantonio. Elkar. Donostia. 19 x 13. 134 or.
- Notas sobre el pastoreo en Gorbea/Gorbeako artzantzeazko zeaztasunak** (b/e). Leizaola, Fermin. Aurman. Bilbo. 31 x 21. 63 or.
- Oihanaren liburua** (i). Kipling, Rudyard/Haranburu, Jexux Mari. Elkar. Donostia. 19 x 13. 170 or.
- Oilarra, azeria eta zakurra** (i). Boada, Francesc/Ormazabal, Joxeantonio. Elkar. Donostia. 22 x 18,5. 23 or.
- Oilarraren promesa** (b). Irigoien, J. M. Gero. Bilbo. 18 x 11. 220 or.
- Oinak** (ikaslegin izenaz argitaratuak. I. maila). Amuriza, Xabier. Euskaltzaindia. Bilbo. 20 x 13. 182 or.
- Pasaiako herritik. Xepelar.** Eskuz Taldea. Hordago. Donostia. 22 x 24. 37 or.
- Pernando Amezketarra.** Ormazabal, J. Elkar. Donostia. 19 x 13. 144 or.
- Peru Abarka** (facsimila) (b). Mogel, Juan Antonio. Gerediaga Elkarte. Durango. 17,5 x 12. 242 or.
- Pirataren espedizioa.** Landa, Josu. Hordago. Donostia. 16,5 x 10,5. 189 or.
- Poemak.** Azkue, Alex. Lur. Donostia. 19,5 x 11. 74 or.
- Portzelanazko irudiak.** Aldai, Iñaki. Erein. Donostia. 19 x 12,5. 82 or.
- Printzea eta eskalea** (i). Twain, Mark/Mujika, Bittor. Elkar. Donostia. 19 x 13. 213 or.
- Printzea eta eskalea** (i). Twain, Mark/J. M. Z. Hordago. Donostia. 16,5 x 10,5. 220 or.
- Raquetas del País Vasco para andar sobre la nieve/Euskal Herrian erabili diren elur-oinetakoak** (e). Askoren artean. Aurman. Bilbo. 31 x 21. 179 or.
- Rip van Winkle** (i). Irwing, Washington/Zurutuza, I. Hordago. Donostia. 16,5 x 10,5. 124 or.
- Robin Hood** (i). Stinnet, Norman R./Berasategi, A. Hordago. Donostia. 16,5 x 10,5. 326 or.
- Robin Hood** (i). Ausonako, Roberto/Mendiguren, Xabier. Elkar. Donostia. 19 x 13. 226 or.
- Saioka 2.** (Projektuak eta gaiak) (b). Elkar lanean. Euskadiko Ikastolen Konfederakuntza. Donostia. 28 x 21. 220 or.
- Saioka 3.** (Osagarriak eta ariketak. Ikasturtearen lehen erdia) (b). Elkar lanean. Euskadiko Ikastolen Federakuntza. Donostia. 28 x 21. 160 or.
- Saioka 3.** (Osagarriak eta ariketak. Ikasturtearen bigarren erdia) (b). Elkar lanean. Euskadiko Ikastolen Federakuntza. Donostia. 28 x 21. 160 or.
- Saioka 3.** (Projektuak eta gaiak. Ikasturtearen lehen erdia) (b). Elkar lanean. Euskadiko Ikastolen Konfederakuntza. Donostia. 28 x 21. 152 or.
- Saioka 3.** (Projektuak eta gaiak. Ikasturtearen bigarren erdia) (b). Elkar lanean. Euskadiko Ikastolen Konfederakuntza. Donostia. 28 x 21. 184 or.
- Saioka 5. Natur arloa** (b). Askoren artean. Iker. Bilbo. 28 x 21. 320 or.
- Saioka 5. Sozial arloa** (b). Askoren artean. Iker. Bilbo. 28 x 21. 311 or.
- Saioka 6. Natur arloa** (b). Elkar lanean. 27,5 x 21. 244 or.
- Saioka 8. Natur arloa.** Askoren artean. Gipuzkoako Ikastolen Elkarte. Donostia. 28 x 21. 340 or.

- Taraskoneko tartarin** (i). Daudet, Alphonse/J. M. Z. Hordago. Donostia. 16,5 x 10,5. 142 or.
- Tartarin alpeetan** (i). Daudet, Alphonse/Diaz de Ulzurrun, Periko. Hordago. Donostia. 16,5 x 10,5. 192 or.
- Teo barkuan** (b/i). Capdevila, Juan/Aguirre, Jose Antonio. Timun Mas. Barcelona. 26 x 26. 30 or.
- Teo baserrian** (b/i). Capdevila, Juan/Aguirre, Jose Antonio. Timun Mas. Barcelona. 26 x 26. 30 or.
- Teo elurretan** (b/i). Capdevila, Juan/Aguirre, Jose Antonio. Timun Mas. Barcelona. 26 x 26. 30 or.
- Teo erosketak egitera doa** (i) Denou, Violeta/Ormazabal, Joxeantonio. Timun Mas. Barcelona. 26,5 x 26. 26 or.
- Teo etxean** (b/i). Capdevila, Juan/Aguirre, Jose Antonio. Timun Mas. Barcelona. 26 x 26. 30 or.
- Teo hegazkinean** (b/i). Capdevila, Juan/Aguirre, Jose Antonio. Timun Mas. Barcelona. 26 x 26. 30 or.
- Teo ikastolan** (b/i). Capdevila, Juan/Aguirre, Jose Antonio. Timun Mas. Barcelona. 26 x 26. 30 or.
- Teo kanping egitera doa** (i). Denou, Violeta/Ormazabal, Joxeantonio. Timun Mas. Barcelona. 26,5 x 26. 23 or.
- Teo trenean** (b/i). Capdevila, Juan/Aguirre, Jose Antonio. Timun Mas. Barcelona. 26 x 26. 30 or.
- Teo zirkoan** (b/i). Capdevila, Juan/Aguirre, Jose Antonio. Timun Mas. Barcelona. 26 x 26. 30 or.
- Teo zoo batean** (b/i). Capdevila, Juan/Aguirre, Jose Antonio. Timun Mas. Barcelona. 26 x 26. 30 or.
- Till Eulenspiegel, jaiotzatik bihurri** (i). X. X./Ibargutxi, Felix. Hordago. Donostia. 16,5 x 10,5. 157 or.
- Tom eta Wandu**. Muro, Gregorio. Erein. Donostia. 29,5 x 21. 24 or.
- Toribio Altzaga Saria 1980. 1. Joxe-Maritarrak. 2. Pette Basabür. 3. Eta beharbada ispilu beltz bat**. Askoren artean. Bizkaiko Aurrezki Kutxa. Bilbo. 20 x 13. 184 or.
- Tristeak kontsolatzeko makina. (Ipuinen ferian)**. Lertxundi, Anjel. Erein. Donostia. 19 x 12,5. 91 or.
- Trotromotro-ren ipurdikoak. Kontrantologia poetika. Anales de Trotromotro** (e/i). Askoren artean/Landa, Josu. Haranburu Editor. Donostia. 20,5 x 13,5. 216 or.
- Etapat-tapa. Eskolaurrea. Lehenengo maila. I**. Askoren artean. Santillana, S.A. Madrid. 18,5 x 25. 194 or.
- Etapat-tapa. Eskolaurrea. Bigarren maila. II**. Askoren artean. Santillana, S.A. Madrid. 18,5 x 25. 288 or.
- Etapat-tapa. Eskolaurrea. Hirugarren maila. III**. Askoren artean. Santillana, S.A. Madrid. 18,5 x 23. 288 or.
- Txalo pin txalo** (b). Askoren artean. Erein. Donostia. 30 x 21. 82 or.
- Txipiroiren bat edo beste**. Egiguren, Rafael. Egile editore. Donostia. 19,5 x 11. 48 or.
- Txori**. Ataño. Auspoa. Tolosa. 18 x 10,5. 142 or.

- Uda.** Askoren artean. Erein. Donostia. 21 x 18. 32 or.
- Udaberria.** Askoren artean. Erein. Donostia. 21 x 18. 28 or.
- Udazkena.** Askoren artean. Erein. Donostia. 21 x 18. 28 or.
- Urrats desbideratuak.** Lete. Xabier. C.A.P. Donostia. 21 x 14. 80 or.
- Urtxintxa. 1. Idazpidea.** Askoren artean. Santillana. Madrid. 27 x 19. 48 or.
- Urtxintxa. 2. Idazpidea.** Askoren artean. Santillana. Madrid. 27 x 19. 48 or.
- Urtxintxa. 2. Irakurbidea.** Askoren artean. Santillana. Madrid. 27 x 19. 34 or.
- Urtxintxa. 3. Idazpidea.** Askoren artean. Santillana. Madrid. 27 x 19. 48 or.
- Urtxintxa. 3. Irakurbidea.** Askoren artean. Santillana. Madrid. 27 x 19. 34 or.
- Usoa alostorreko.** Etxaide-Ithart, Jon. Hordago. Donostia. 16,5 x 10,5. 156 or.
- Utinghami, lainotako errege (i).** Canela, Marcé/Sarriegi, Arantxa. Elkar. Donostia. 19 x 13. 144 or.
- Xenpelar Bertsolaria (b).** Zavala, Antonio. Auspoa. Tolosa. 18 x 10,5. 412 or.
- Xixupika. 1. Urbietta, M. G.I.E.** Donostia. 29,5 x 22. 179 or.
- Zarauzko balearenak, Roke Etxabe.** Eskuz Taldea. Hordago. Donostia. 22 x 24. 38 or.
- Zezena plazan.** Genua, Enkarni (Txontxongilo). Erein. Donostia. 29,5 x 21. 23 or.
- Zure Pasio Santua. San Frantziskoren bititza.** Askoren artean. Auspoa. Tolosa. 18 x 10,5. 119 or.
- 3 Sudurluzeak: Baloiazen misterioa.** Muro, G. Erein. Donostia. 29,5 x 21. 24 or.
- 7 Teatro Lan (b).** Gereño, Xabier. Egile editore. Bilbo. 16,5 x 11,5. 126 or.
- 9 Nobela Labur (b).** Gereño, Xabier. Egile editore. Bilbo. 16,5 x 11,5. 122 or.
- 10 Nobela Labur.** Gereño, Xabier. Egile editore. Bilbo. 16,5 x 11,5. 126 or.
- 12 Nobela Labur (b).** Gereño, Xabier. Egile editore. Bilbo. 16,5 x 11,5. 128 or.

JAKINeko lagunok, aupa!

Pablo Sastre

Lortu duzue lortu zerbaiten irakastea, euskal kulturaren azken 25 urtetako zuen eta kultura horren beraren historia kontatzen. Nerekin, JAKIN sortu zelarik proiektu ere ez nintzen gazte honekin bai bederen, lortu egin duzue.

Zuen historia hori zuena bakarrik ez baita, urte horietako borroka isil-leherkorrari biziki loturik baitago, bera baita, eta gu ere horretan ari, eta geure-geurea dugu beraz.

Bitariko irakaspena aurkitu dut: batetik, bere garaiarekin aldatzen asmatu duelako aldizkariak (garaiak mugatua —debekuak baino muga garbiagorik ez dago— eta bultzatua —atzean herri eskatze sendoa bide du JAKINek, garaikide dituen beste aldizkariak bezala—); bestetik, gero aipatuko dudan zenbait ezaugarri eta xede nagusiri eusten jakin duelako.

Historia luze —eta labur, ongi diozuenez— horretan balio handiko tresna ikusten dut gaurko anitz jokabide eta gora-behera argitzekotan.

Duela 25 urtetatik honako inguruaren aldatzea badakigu nondik-norakoa gertatu den: hauxe bai mugatua, alegia! Ikus, bestela, bestetara jo gabe, orduko erlijioso etxeetakoak —JAKIN eta abarren ardura zutenak— nola zebiltzan; guregana gero begia, eta konpara.

Baina orain eusko gobernua badago. «Gobernua» den ez den, bakoitzak ikusiko du; «euskal» behintzat ez da... baina hortik

ez noa. Azken finean, sinesmen kontua da hau: gobernu hori egiten ari dena dudarik gabe euskararen alde dela sinesten duzue, bai, baina duda handiak dituzu.

Horrezaz kanpo ari naiz, bada: nortzu ari gara? noren laguntzaz? norantz? zein ideologiaz? zein xede nagusi buruan dugula? Sobera ez luzatzearren azken honi bakarrik erantzunaz, ordukoek bezala, askatasuna dugu buruan, herriak eta herri kulturak falta duten eta ez datorkien askatasun minimoa. (Askatasun hitz soilak ezer gutxi adierazten dionak —ez baita harrigarri—, hemen abertzaletasuna eta sozialismoarentzako askatasuna irakur beza).

Beraz, berdintsu.

Hona hemen jakindarren asmo batzu: *europartasuna*¹, *irekitasuna* eta besteekiko errespetua —antidogmatismoa, beraz—, *kultura herritarra*. Guztiz asmo aurrerakoiak, bistan da.

Jakingarri litzateke asmo hauen aurrean eskuindarren eta ezkertiarren jarrera ezagutzea. Nik, nolabaiteko ezker joera baitut, JAKINEkin kontent nagoela esango dizuet; nere lagunak ere bai. Eta bestaldean? «Denetarik egongo da», bai, baina ari naizen zenbaki horretan nonbait esaten denez, haiek ezkertiarizat jo izan dute inoiz aldizkaria.

Eta ez dizkiot *horregatik* eskuinari irekitasunik eza, herrikoitasunik eza eta beste hainbat «ez» leporatuko, JAKINEk berak «ezker abertzalearen munduan kokatzen» dela aitortzen baitigu; ez «asko zehazturik», baina gutxi gora behera bai, eta nik, egia esan, horrela sentitzen zaituztet.

Behin eta berrizkoa izan arren aspertu ez, baina harritu bai, egin nau hizkuntzaren inguruan gertatu diren eztabaiden luzeak. Batua dela eta ez dela, jakina, euskalkiekiko sasiborrokan. Kontradikzio latz haiek egun —kasik— ez dira ikusten. Hainbat erregai —pentsatu izan dut— eta euskara baizik ez dugu erretzen; segituan tira-bira haien garrantziaz ohartu naiz ordea, hil ala bizikoak izan dira eta.

Hori, ematen du, irabazia dugularik —ez dut apenas parterik hartu baina identifikatu egiten naiz—, *egiazko* kontradikzio baten aurrean gaude orain; euskara/erdara. (Lehen ere bageunden, baina beste kontradikzio hark distraituago nonbait; eta hura bazen hau bezain egiazkoa, esan nahi dut han «tradizio euskalkizale»/«progreso batuzale» bide zeudela kontrajarriak, hemen bi tradizio luze direlarik: inperiala eta herrikoia).

Gure JAKIN hau normalizapen linguistikoaz mintzo denean euskara batuaren finkatzeaz ari da nonbait. Gaur darabilgun normalizapenak beste zerbait adierazten digu: erdararekiko borrokan indarren berdintzea. Bi normalizapen erdiesteko bi borroka? Ez, borroka bat, etsai bat (ahoa *normalizapen*-az betetzen ahal duena, haatik); eta barrikadaren alde honetan ere, lagun berdinok.

«Ez al dago alderdi eta indar politikoen kondizionamendu eta interesetatik aske diren talde kulturalen premiari?» Galdera hau irakurleoi egiten diguzue zenbaki horretako 15. orrialdean. Baietz uste dut, komatxo arteko indar politikoez, goitik behera ibiltzen diren hauteskundeetako indar politikoez ari bagara. Gizartean aurrera atzera ibiltzen diren indar sakonez ari bagara, berriz, ezin horiengandik aske ibili, ene iduriko —zeuen iduriko ere ez, pentsatzen dut.

Horren premia ez dakit, baia emango dut ordea beste honela planteatuz gero, hots, oraingo indar politiko nagusi eta monolitikotik kanpo talde kulturalen ekintzak nahitaezkoak ditugu, herri kulturak aurrera joko badu —seguru aski monolitiko ez direnengandik ere halamoduzko *autonomia* behar du kulturak. Dena dela, garbi ikusten uste dudana, talde txiki argitsu eta eragileen premia, kultur mugimenduaren dinamizatzaile berriek izan daitezten. (Gauden moduan gaudela, errepresio izugarri baten pean, defentsa bideak behar ditugu hautatu; proposatzen ditudan bideak amnistiaren alde, indar nuklearraren kontra erabili ohi ditugunen antzekoak dira, ageri denez).

Errepresioaz ari garenez, gogora dezadan JAKIN extra honek bere buruaz egiten duen historiaren hasi-hasiara: «*Jakin*, legez kanpo eta baimenik gabe sortu zen; ez estatu-baimenik, ez eliz baimenik zuen». Beste motibo bat, eta ez kaskarrena, identifikaturik sentitzeko. Oraingo mugimendu biziak ere legez kanpo aurkitzen baitira; jadanik ez western filmetako *fuera de la ley* hartan —bi tiro eta akabo—, baina bai legeak zokoratuta edo-ta —hona berriena— gisa txarrean asimilatuta.

Orain dela 25 urte baino kondizio okerragotan ari garenik ezin esan burua onik daukanak, nik uste; baina euskal kultura —hobeki, euskarazko kultura— herriarengana zabaltzetik oso oso urrun gabiltza beti ere, eta zergatia nabaria da: taldetoxatan jardun beharra, politika ofizial herrikoiafaren faltaz.

Klandestinitatetik zenbaitek uste baino gertuago gaude. Beharko: zokoan ibiltzerik ez da nahi izaten. (Makurtu aurretik nahiago, hori bai. Noski?).

Maratoi miresgarria, JAKINek korritu duena. Zer esango di-
zuet? Lagun nauzue lasterka horretan. Euskal kultur gintzaren
arlo guztietan dena egiteko dagoelarik, har beza nork bere to-
kia, sustraietatik lot eta komunika gaitezen, eta —lanerako
indarra badugu, euskara lehengai moldaeraza dugu— lan tres-
na bezala... dezala segi gure JAKIN horrek!

P. S.

¹ Gehiegizko europazaletasuna ez ote? Ez orduan defendatzen zutenen
gogotan, Europa berri baten ameslari. Egun eraikitzen ari diren Europa ez
dirudi amets haletakoa denik; horregatik agian gaur zabalago egiten dugu
amets: ni neu, europarra izaki, Frantziak baino sutsuago jartzen nau El Sal-
vador-ek... Keriak eta tasunak orotan bai baitira, eta bigarrenetako bat
Europarentzat ere gauza ederra litzateke noski.

JAKIN

KOMUNIKABIDEAK EUSKAL HERRIAN

**EUSKARAREN NORMALIZAZIOA
EUSKAL NOBELAREN ETORKIZUNA
1981eko EUSKAL LIBURUGINTZA**

Urtarrila
Martxo

22

1982



JAKIN

Ategorrieta hiribidea, 23, 1. esk. - Donostia-13

Tel. (943) 271713